

Menpekotasuna eta epe-luzeko zaintzaren irudikapen soziala:

zaintza-kulturaren, antolaketa
sozialaren eta harremanen
eraldaketa

Uzuri Castelo Moñux
2023



eman la zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

PSIKOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE PSICOLOGÍA

**MENPEKOTASUNA ETA EPE-LUZEEKO ZAINZAREN IRUDIKAPEN SOZIALA:
ZAINZTA - KULTURAREN, ANTOLAKETA SOZIALAREN ETA HARREMANEN
ERALDAKETA**

Uzuri Castelo Moñux

Zuzendariak:

Lorena Gil de Montes Etxaide

Maidar Larrañaga Egilegor

DOKTORE TESIA

2023

Psikologia Fakultateko Gizarte Psikologia Saila

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Lan honetako azala eta ilustrazioak Maria Altuna Lizarragak eginak dira (<https://www.marialtunalizarraga.com>)

Proiektuaren finantzazioa:

Tesi hau Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak 2018ko deialdian emandako doktoretza-aurreko laguntzari esker burutu da.

Esker onak

Ibilbide honen hasieratik ia bost urte pasa diren honetan, amaieraraino iristen lagundu nauten pertsona guztiak bihotzez eskertzea besterik ez zait geratzen.

Lehenik eta behin, eskerrik asko Marijo eta Tomas gurasoei eta Markel anaiari, erronka honen aurrean une oro ni animatu, maitatu eta errespetatzearen. Osaba Mikel eta Carlari ere, beti gertu izatearren eta nola ez, bizipenetatik zaintzaren zailtasun eta zera guztiak tesi honetan islatzen laguntzearen. Aitxitxa Jose Mari eta amama Jacobari, tesi honen motibazioen oinarrian daudelako zuen azken urteetan bizitako poz eta minak.

Bihotzez eskerrak bide honetan zehar ondoan izandako nire betiko eta gertuko lagunei, bereziki, Elena, Iraide, Miren eta Kattin. Nire babes eta arnas izatearren, eta tesitik harago bizitza dagoela gogoraraztearren ♪ *mende oso bat iraganen dut zu(en) ondoan koplaka...* ♪ Kuadrilako lagunei, azkenaldian gutxi egon arren beti animatu eta laguntza eskaintzearen. Bergarako Tartufoko lankide ohiak ere agurtu eta eskertu nahi nituzke, tabernako lana eta doktoregoa uztartzea politagoa izan zelako zuekin; Begotxu maitxia, zure barazki eta lorak etxean bizipoz izan direlako. Azken urteetan bizileku dudan Usurbilgo herria eta ezagututako bizilagunak ere agurtu nahi nituzke, sorpresa polita izan da herri honekin topo egin eta bertako egunerokoan leku bat egin ahal izatea; baita beste zaintza eredu bateranzko urratsak bertatik bertara bizi ahal izatea! eta nola ez, eskerrik asko Intiri, bizitako momentu eta hartutako pote guztiengatik! Eskerrik asko Larari, bizitzako gazi-gozo guztiei heldu eta bidea egiten laguntzearen.

Tesiaren bide bakarti eta gogorraz jabetzeko balio izan didate urte hauek, baina baita bere alde polit asko bizitzeko ere. Horietako bat beste doktoregai, lankide eta lagun zoragarriak ezagutzeko aukera izatea izan da. Iduzki, Iratxe, Martin, Roxa, Eva, Jota, Maria, Mikel, Jone, Ana, Itziar, Cristel, Marcela, Leire... asko zarete modu batera edo bestera ondoan izan zaretenak, lanerako, bazkal orduan edo parrandan! modu berezian eskertu nahiko nuke nire Goierriko lagun kuttuna, eskerrik asko Idoia, zaren modukoa izatearren, beti hain maitagarri eta hain kide.

Doktorego tesiari heltzerako orduan lagun izan ditudan irakasle eta erreferentziako pertsonak ere gogoratu nahiko nituzke. Bereziki, Eduardo Apodaka, soziologiatik zuri zor

dizut neurri handian gizarte psikologiarako jauzia egin izana, zurekin berriketaldiak beti dira interesgarri. Arrate Agirrezabal, proiektu honi hasieratik erakutsitako konfiantza eta eskuzabaltasunagatik. Erkuden Aldaz, eskuz-esku unibertsitatearen eta Matia Instituaeren arteko zubi-lana erraztearren. Matxalen Legarreta, tesiaren azken txanpan eskainitako babes eta konfiantzagatik. Fakultateko eta gizarte psikologia saileko irakasle eta kideei ere mila esker!

Egindako elkarrizketetan parte-hartu duten pertsona bakar eta zoragarri guztiak ere eskertu nahiko nituzke, zuen bizipen, ikuspegi eta barrenak nirekin partekatzeko aukera ematearren, eta gai potolo honi ertz ezberdinetatik begiratzen laguntzearren. Pandemia garai ilunetan pasatako galdetegia bete eta hedatzen lagundu zenidaten pertsona guztiei ere eskerrik beroenak. Bergarako Mizpirualde, Oiartzungo Petra Lekuona eta Zumarragako Lamourous-eko langile eta egoiliarrei ere eskerrik asko, zuen atea eta bihotzak irekitzearren. Eta nola ez, Maria Altunari, liburuxka honen azala eta ilustrazioak oparitzearren, zure talentu eta maitasunagatik, biba zu!

Bukatzeko, azken lerro hauek bidai honetan zehar gidatu eta babestu nauten zuzendariei eskaini nahiko nizkieke. Lorena Gil de Montes eta Mainer Larrañaga, zer esan jada ez dakizuenik, nirea bezain beste lan hau zuena ere bada. Mila esker nigan jarritako konfiantzagatik, izandako eztabaida guztiengatik eta beti alboan izatearren. Eskerrik asko inspirazio iturri izatearren, begirada zorrotzagatik, eta batik bat, zuen gizatasunagatik. Aurrerantzean ere elkarrekin lanean jarraituko dugulakoan, besarkada bana bihotz-bihotzez!

Zuei esker eta zuentzat.

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	1
1. Menpekotasunaren arreta eta epe-luzeko zaintza Gipuzkoan	9
1.1. Zaintza kulturaren eraldaketa eta krisia	11
1.1.1. Iraultza erreproduktiboa	11
1.1.2. Lanaren banaketa sexualaren aldaerak	13
1.1.3. Ongizate estatuaren gainbehera.....	14
1.2. Epe-luzeko zaintzari lotutako politika publikoak	16
1.2.1. 2006ko Menpekotasun legearen garapena	17
1.2.2. Menpekotasunaren arreta Euskal Autonomi Erkidegoan.....	20
1.2.3. Gabeziak eta erronkak	21
1.3. Zaintzaren antolaketa sozial berriak marrazten	22
1.3.1. Zaintzaren kontzeptua	22
1.3.2. Familia, komunitatea, merkatua eta estatuaren bidegurutzean.....	24
1.3.3. Desinstituzionalizazio prozesuak	28
1.3.4. Zaintzaren demokratizazioa	31
1.3.5. Komunitatearen lekuaz	34
2. Menpekotasuna eta zaintza irudikapen objektu gisa	37
2.1. Txanpon beraren bi alde?	39
2.2. Menpekotasunaren eraikuntza soziokulturala	41
2.2.1. Diskurtso biomedikotik soziopolitikora.....	42
2.3. Zaintzaren etikaren ekarpenak	46
3. Marko teorikoa: Irudikapen sozialen teoria	51
3.1. Ezagutza sozialari buruzko teoria bat	53
3.2. Zer dira irudikapen sozialak?	54
3.2.1. Ego (<i>self</i>) – Alter (<i>bestea</i>) – Objektu hiruki semiotikoa	55
3.3. Irudikapen sozialen izaera dialogikoa	58
3.3.1. <i>Bestea</i> norbere baitan.....	58
3.4. Irudikapen sozialen eraikuntza prozesuak.....	60
3.4.1. Ainguraketa	60
3.4.2. Objektibazioa.....	62
3.5. Irudikapen sozialen funtzioak	64

3.5.1. Arrotza dena ezagun bilakatzea	64
3.5.2. Mundu sozialean aritzeko funtsak	64
3.6. Ezagutza gizarte aldakor eta konplexuetan	66
3.6.1. Irudikapen kolektiboak vs. sozialak.....	67
3.6.2. Polifasia kognitiboa	68
3.6.3. Ezagutza topaketa eta eraldaketa prozesuak	72
3.7. Konfiantza indibidualizazio eta arriskuaren gizartean.....	75
3.7.1. Konfiantza irudikapen sozialen teorian.....	76
3.7.2. Kontzeptu polisemiko eta dialogikoa	78
3.8. Menpekotasuna eta zaintza irudikapen sozialen teorian.....	81
4. Ikergaia eta helburuak	83
4.1. Ikerketa galderak	87
4.2. Helburu orokorrak eta zehatzak	88
5. Alderdi epistemologiko eta metodologikoak	91
5.1. Paradigma dialogiko eta konstruktibista “ahula”	93
5.2. Ikertzaile eta ikertuaren arteko elkarrekintza	95
5.3. Irudikapen sozialen teoria eta epistemologia feminista lotuz	99
5.3.1. Ezagutza testuinguruan kokatzea	99
5.3.2. Subjektibotasuna eta agentzia	100
5.3.3. Baztertutako errealitateekiko interesa	100
5.3.4. Ikuspegi erlazionala	101
5.4. Triangulazio metodologikoa	102
5.4.1. Kuantitatibo vs. kualitatibo eztabaidaz harago.....	104
5.4.2. Hitzen asoziazio askea (GEM metodoa).....	107
5.4.3. Elkarrizketa indibidualak	107
5.4.4. Galdetegia	108
5.5. Atal kualitatiboa: menpekotasuna eta zaintzaren esanahiak.....	108
5.5.1. <i>Analisi tematikoa</i>	108
5.5.2. <i>Analisi tematikoa</i> urratsez urrats.....	113
5.6. Atal kuantitatiboa: zaintzari begirako konfiantza.....	116
5.6.1. Konstruktoaren definizioa eta kontzeptualizazioa	116
5.6.2. <i>Item</i> -en eraikuntza	116

5.6.3. Eskalaren egokitasuna.....	118
5.7. Kalitatezko ikerketarako bermeak	118
5.7.1. Ikerketa kualitatibo eta kuantitatiborako irizpide baliokideak.....	119
5.7.2. Kalitatearen ebaluazioa ikerketa kualitatiboan	121
5.8. Kontsiderazio etikoak.....	123
6. Lehen azterlana: Menpekotasunaren eta epe-luzeko zaintzaren esanahia trantsizioan: tentsio eta kontraesanen azterketa	125
Laburpena	127
Sarrera.....	129
Metodoa	133
Emaizak.....	137
Eztabaida.....	146
7. Bigarren azterlana: Nondik gatoz eta norantza goaz? Epe-luzeko zaintzari buruzko ezagutzaren eraldaketak	151
Laburpena	153
Sarrera.....	155
Metodoa	159
Emaizak.....	163
Eztabaida.....	171
8. Hirugarren azterlana: Zaintza familiarraz harago: erakundeenganako konfiantzaren garrantzia ongizatean	175
Laburpena	177
Sarrera.....	179
Metodoa	183
Emaizak.....	187
Eztabaida.....	192
9. Laugarren azterlana: Nork zainduko nau? Zaintza-eragileenganako konfiantzaren eta balio kulturalen arteko harremanak.....	197
Laburpena	199
Sarrera.....	201
Metodoa	206
Emaizak.....	211
Eztabaida.....	217

10. Azken ondorio eta gogoetak	221
10.1. Mende honetako larrialdi soziala	223
10.2. Menpekotasuna eta zaintzaren esanahiak gizartean	229
10.2.1. Ezagutza tentsio eta gatazkak	230
10.2.2. Zahar eta berriaren arteko interakzioak	232
10.3. Konfiantzaren eraikuntza zaintza ereduaren eraldaketan	233
10.3.1. Erakundeak, zaintza eta ongizatearen zutabe	235
10.4. Familismotik zaintza publiko eta komunitariorantz	237
10.5. Inplikazio sozialak	241
10.5. Mugak eta etorkizuneko ikerketa aukerak	244
Bibliografia	249
Irudien aurkibidea	281
Taulen aurkibidea	282
Grafikoen aurkibidea	282
Eranskinak	282

Hitzaurrea

Ez da makala izaten ari bizitzea egokitu zaigun garai historikoa. Mundua aztoratu duen Covid-19aren pandemia osteko gizartean, non krisi sistemiko sakona dagoen eta mundu mailako indar-korrelazioak aldatzen ari diren, arrakala sozialen areagotzeak eta bizitzaren prekarizazioak ez dute etenik. Industria osteko eta digitalizazioaren aroan bete betean sartuta gaude, eta mendebaldeko demokrazia liberalak ezbaian daude (Brown, 2003; Norris eta Inglehart, 2019). Ezin ukatu koordenada berrien eta eraldaketan dagoen mundu konplexu baten aurrean gaudenik. Hainbatek iradoki izan dutenarekin bat eginez, arrisku eta emergentzia sozialen aroan murgilduta gaude (Beck, 1992). Hortaz, mende honetako zeregin garrantzitsuenetako bat izango da gaina jo duen sistema sozial eta produktibo hau deseraikitzea, guztiontzat bizigarriagoak eta ziurragoak izango diren bizitzak erdigunera ekarrita (Herrero, Pascual eta González-Reyes, 2019).

Garai aldakor eta zaugarri horien aurrean, ongizate sistemek erronka garrantzitsuak dituzte eskua artean, herritarren bizi-proiektuak babestuko dituzten politika eta laguntzak garantizatzen: hala nola, lan eta enplegu duinaren sustapena, bazterkeria soziala murriztea, etorkinei harrera eta babes ematea, osasuna eta zaintza, eraldaketa soziodemografikoek eragindako behar berriei heltzea, etab. Erakunde publikoen eragin ahalmena gainbeheran dagoen honetan, asmatuko ahal dugu horiei kolektiboki erantzuna ematen? Herritarren bizitzak daude jokoan, ezegonkortasun orokorrak bizi proiektu eta lotura sozial iraunkorrak sortzea oztopatzen baitu, elkarrenganako konfiantza eta bizikidetzarako oinarriak hautsiz (Sennet, 2000). Lur ezegonkorretan konfiantza oro susmo bilakatzen da, beldurra merkantilizatzen da, sufrimendua kontsumitzen da eta arriskua bizitzaz jabetzen da (Bauman, 2003). Hortaz, erreka nahasi horietan, azkenaldian birsortzen ari diren uholde autoritario eta neoliberaleri aurrea hartu eta konfiantzazko egitura sozial eta ehun komunitario sendoak ereitea dagokigu.

Pertsonen ongizatea eta garapena bermatzeko garaiko gizarteak esku artean duen lehentasunezko erronka sozial ezberdinen artean, epe-luzeko zaintzari heltzea da doktore tesi honen helburu nagusia (Comas-d'Argemir, 2015; Tobío et al., 2011). Egiturazko aldaketa soziokultural, demografiko eta ekonomikoek eragin nabarmena izan

dute zaintzaren antolaketa tradizionalaren hausturan, modu esanguratsuan azaleratuz kapital metaketaren eta bizitzaren jasangarritasunaren arteko gatazka (Pérez-Orozco, 2006, 2021). Testuinguru horretan, nola artikulatu eta nola eraiki daitezke bizitzarekin eta horren zaintzarekin konprometitutako jendarteak? Nola eraiki sozialki justua eta besteen beharrekin abegikorra den egitura eta etika komuna? Horra hor egungo erronka potoloak.

Ezinbestekoa zaigu historikoki ezkutarazi diren emakumeen eta pobreen lan eta jardunak gizarteratzea, eta horien balio eta ezinbestekotasuna aitortzea; baita hain geurea dugun hauskortasun eta elkarren arteko loturekin adiskidetzeara ere (Butler, 2010). Zentzu horretan, gaur egungo lehentasun eta larrialdietako bat da, eslogan hutsetatik harago, zaintzari balioa ematea eta pertsonen bizitzak gizarteraren erdigunean jartzea, ekonomia feministatik ondo ekarria izan den bezala (Pérez-Orozco, 2015). Baina egiaz, zer esan nahi dugu zaintzari balioa ematearekin? Zaintzarekin konprometitutako gizartea bultzatzera begira, zeintzuk dira eman beharreko urrats eta aldaketak? Gaiak denok ukitzen gaituen heinean, ez da onargarria denbora gehiagoz errealitate horren ihesean ibiltzea. Behar-beharrezkoa zaigu, kolektiboki eta gizonezkoek bereziki, zaintzarekiko konpromisoak hartzea eta horrek duen balio etiko eta politikoa lantzea; etxe bakoitzak bere zama ahal duen bezala kudeatu eta modu miserablean beste batzuen bizkar uzten duen zaintza eredia arbuiatzen badugu behintzat. Nola eta non nahiko genuke etorkizun hurbil batean zainduak izatea? Nola egingo diegu aurre gure senide, lagun eta bizilagunen zaintza beharrei? Egun ezagutzen ditugun ereduak balio ez badigute eta agortutzat jotzen baditugu, zainketa horiek nolakoak izatea nahi dugun definitzen hastea dagokigu; gaia serio hartzu eta eztabaidatzea, elkarrekikotasun berriei bide emanda.

Zer aldatu behar dugu gizarte bezala logika indibidualista eta merkantilista alde batera utzi eta, logika erlazional baten alde, elkarren arteko behar eta lotura ontologikoez kontzientzia har dezagun? Zer aldatu behar dugu gure buruak zaintza emaile eta hartzaile gisa kontsideratzen hasteko? Gai horiek nabarmen azaleratu ziren Covid-19aren pandemia garaian; izan ere, inoiz baino gehiago aldarrikatu genuen bizitzak sostengatzeko funtsezkoak diren lanen garrantzia, eta maila kolektiboan inoiz baino gertuago ikusi ahal izan genuen elkarren arteko loturak ezinbestekoak ditugula

bizirauteko. Haatik, zaintzaren gaintek negozioa gailentzen dela ikusi genuen. Horren adibide paradigmaticoena izan zen zahar-etxeetako kudeaketa eta horrek pertsonengan izan duen koste sozial eta emozionala. Bizitakoak bizituta, behingoagatik bazirudien zaintzaren auzia aintzat hartua izatera igaroko zela, urteetan zehar hainbat kolektibo, mugimendu, sindikatu eta erakundeek egindako lan eskergari ikusgarritasuna emanda.

Hala eta guztiz ere, olatua pasata, betiko logiketara errazegi itzuli garela dirudi, eta zaintzaren gaia ahanzturan geratzen ari dela berriro ere, historikoki esleitu izan zaion tokian, hain zuzen ere. Onartzea zaila egiten zaigun arren, ez da gehiengoarentzat gai erakargarri bat. Bat egiten dut noizbait Mari Luz Esteban-i (2021) egindako elkarrizketa batean irakurritakoarekin. Esteban-ek iradokitzen duen problematika horrekiko interes faltak klase sozialarekin eta adinarekin zerikusia izan dezake. Baliteke ere, ihes egiten dugula gaiak sorrarazten dizkigun deserosotasun eta beldurrengatik. Simone de Beauvoir-ek (1970) zahartzaroari buruzko bere liburuan esan bezala, ez dugu geure burua irudikatuta ikusi nahi biharko egunean izango garen pertsona zahar horretan, non gaitasun fisiko eta kognitiboak galduko ditugun eta besteen laguntza beharko dugun bizimodua aurrera atera ahal izateko. Zailtasun hori begi-bistakoa da balio utilitario eta produktibistak gailentzen diren testuinguruan, non balio gehiago ematen diogun egiteari, izateari baino; non gorputz gazte, funtzional eta lirainen neurrirako sistema eraikia dugun, norbere promozio eta arrakastara zuzendua dagoena. Hala ere, istorio horren berri ona da inor ez dagoela hauskortasunetik, gainbeheratik eta besteekiko loturetatik salbu. Ez dugu momentuz, Robinson Crusoe-ren superbotererik.

Bestalde, menpekotasunaz eta zaintzaz hitz egitea ez da mugatzen beren kabuz bizitzeko zailtasunak dituzten pertsonen zuzeneko ekintza praktikoa eta harreman afektiboek jardutera. Zaintzaren gaiari heltzeak, gaurko gizartea zeharkatzen dituzten ezberdintasun eta desoreka handiei (generoa, klase soziala, migrazio-estatusa) heltzea dakar. Baita, gorputz normatibo eta ez-normatiboen arteko botere-desorekaz hitz egitea edota adinkerian oinarritutako gizarte egitura baten kausa eta ondorioak analizatzea ere. Gainera, familiaz, adiskidetasunaz, ahaidetasunaz, bakardadeaz, bizitzaren jasangarritasunaz edota pertsonen arteko interdependentziaz gogoeta egitera ere garamatza problematika horretan murgiltzeak (Esteban, 2017). FOESSA fundazioak (2022) berriki adierazi duen bezala, familia, auzo eta komunitate harremanak gogor

higatzen eta tenkatzen ari dira. Era berean, zaintza zerbitzuak pribatizatu eta merkantilizatzeko joera duten politika publiko ahulak sustatzen ari dira. Testuinguru horretan, premiazkoa dugu sare sozial, instituzional eta etiko sendo bat artikulatu eta berregituratzea, ate joka ditugun erronka sozialei aterabide demokratiko bat emateko (Comas-d'Argemir, 2019).

Tesi honen zer egiteko nagusia da XXI. mende honetan halabeharrez kudeatu beharra dugun menpekotasunari eta zaintzari buruzko auzia ikertzea, euskal testuinguruan bereziki eraldaketan dauden zaintza egitura eta balioetan arreta jarrita. Doktorego tesiaren ikerketa prozesuan gaiak berak bilatzen eta gidatzen zaituela esan ohi da. Normalki ez da ezerezetik sortzen errealitate konkretu bat sakonean aztertzeko interesa. Gaiaren eta ikertzailearen arteko kidesasuna 2015-2016ko ikasturtean gertatu zela esan dezakegu, "Erakundeen psikologia eta esku-hartze psikosozialaren" masterraren baitan Lorena Gil de Montes-ek zuzendutako "Menpekotasunaren irudikapen soziala: identitateak, zaintza-harremanak eta zentzu komuna aztertzen" master amaierako lanaren ondorioz. * Denboraldi horretan zehar, Matia Fundazioko ikerketa institutuan praktika egonaldia egin nuen. Bertan, erakundeetan lantzen ari diren arreta-ereduen kultura eta antolaketa aldaketarekin lotutako gaiak ez ezik, adineko pertsonen beharretara egokitutako berrikuntza teknologikoak eta esku-hartzeko programak hurbiletik ezagutu eta horietaz gogoeta egiteko aukera izan nuen. Horrek guzti horrek bat egiten zuen aurrez zaintzarekiko eta, oro har, arreta sozialarekiko nituen kezka, esperientzia eta bizipenekin. Zentzu horretan, modu kontziente edo inkontziente batean, bizi osoan zehar nigan gorpuztutako kezka soziopolitiko eta etikoen ondorio ere bada doktore tesi hau. Menpekotasunari eta zaintzari buruzko esanahietan arakatzeak, gaia osotasunez lantzeko eta gogoeta egiteko aukera eman dit. Orain zuen eskuetan uzten dut, elkarrekin pentsatzen jarrai dezagun.

Jarraian aurkezten zaizuen tesi honen helburua da jendeak menpekotasunari eta zaintzari (*horrela erabiliko da tesian) lotutako auzia egunerokoan nola pentsatzen eta irudikatzen duen ezagutzea. Horretarako, irudikapen sozialen teoria hartzen da abiapuntu gida. Hurbilketa horri esker, hobeto ulertu daiteke pertsona eta taldeek nola eraiki eta eztabaidatzen dituzten fenomenoari buruzko ezagutzak testuinguru

soziokultural ezberdinetan; baita, esku-hartze psikosozialaren esparru aplikatua lantzeko aukera eman dezaketen baliabideak eskaini ere.

Tesiaren egitura

Menpekotasunari eta zaintzari buruzko eguneroko pentsamenduan murgiltzeko asmo nagusiak gidatuta, doktorego tesi hau hamar kapitulu egituratuta dago. Jarraian, modu laburrean azalduko dira kapitulu bakoitzean jorratutako edukien nondik norakoak.

(1) Lehen kapituluak, tesiaren ikergaia eta arazoa zein diren azaltzen da. Gipuzkoan menpekotasunari eta epe-luzeko zaintzari buruzko auziak kokatzeko ahalegina egin da, gaur egungo egoera soziala ulertzeko gako batzuk jorratuta. Horien artean, azken hamarkadetan bizi izandako eraldaketa soziokultural eta demografikoak, menpekotasunaren arretara bideraturiko politika publikoen garapena, egungo zaintzaren antolaketa soziala eta baita proposamen berriak ere. Menpekotasunaren eta zaintzaren kudeaketak gaur egun plazaratzen dituen eztabaidak eta erronkak ulertzen lagunduko duen ibilbidea egiten da kapitulu honetan zehar.

(2) Bigarren kapituluak, menpekotasuna eta zaintzaren kontzeptualizazioan sakondu eta fenomenoaren irudikapen objektu gisa nola ulertzen den azaltzen da. Horretarako, menpekotasunaren askotariko esanahietan arakaten da, haren izaera kulturala eta soziopolitiko nabarmenduta. Horrekin batera, menpekotasuna eta zaintza kontzeptuak elkar loturan eta dialogikoki ulertzeko ikuspegia garatzen da, eta, bereziki, zaintzaren etikari buruzko teoriak horretarako ematen duen aukera baliatzen da.

(3) Hirugarren kapituluak, tesiaren hurbilpen teorikoari heltzen zaio. Zehazki, irudikapen sozialen teoriaren nondik norakoak azaltzen dira, menpekotasuna eta zaintzari buruzko ezagutza sozialaren eraikuntza eta eraldaketak aztertzeko baliabide gisa. Horrekin batera, teoria honetara egiten dugun hurbilketa dialogikoa azpimarratzen da, ezagutza mota ezberdinen arteko interakzio eta gatazkak aztertzeko ikuspegi dinamiko emanda. Azkenik, maila aplikatuagoan ekarpena egiteko, konfiantzaren kontzeptualizazioari heltzen zaio eta horretarako, irudikapen sozialen teoria baliatzen da.

(4) Laugarren kapituluari, doktorego tesiaren ikerketa-galderak eta helburuak puntu-puntu azaltzen dira, egindako azterlan empiriko bakoitzak zein galdera eta helbururi erantzuten dien argituta.

(5) Bostgarren kapituluari, tesiaren alderdi epistemologiko eta metodologikoak jorratzen dira. Posizionamendu epistemologiko dialogiko eta konstruktibista azalduz ematen zaio hasiera kapituluari, eta jarraian ikerketa-prozesu eta ikuspegiari buruzko gogoetak biltzen dira. Maila empirikoari dagokionez, triangulazio metodologikoaren kontzeptua baliatzen da irudikapen sozialen azterketan, eta tesiaren atal kualitatiboa eta kuantitatiboa nondik norakoak eta hartu-emanak azaleratzen dira. Azkenik, ikerketaren kalitateari buruzko ebaluazioa eta irizpide etikoak ditugu hizpide.

(6) Seigarren kapituluari, tesia artikulatzen duen lehen azterlan empirikoa aurkezten da. Honako hau, tesia osatzen duten lau ikerketa edo azterlanen lehengoa da. *“Menpekotasuna eta epe-luzeko zaintzaren esanahia trantsizioan: tentsio eta kontraesanen azterketa”* izenburu duen lanak, menpekotasuna eta epe-luzeko zaintzaren fenomenoak gizartean nola ulertzen den aztertzea du helburu.

(7) Zazpigarren kapituluari, tesia artikulatzen duen bigarren azterlan empirikoa aurkezten da. Lehen azterlanarekin harremanean, menpekotasuna eta zaintzaren irudikapen soziala maila prozesualean aztertzea du helburu lan honek. Hortaz, fenomenoari buruzko ezagutza eraldaketetan jartzen dugu arreta *“Nondik gatoz eta norantza goaz? epe-luzeko zaintzari buruzko ezagutzaren eraldaketak”* izenburu duen lanean.

(8) Zortzigarren kapituluari, tesia artikulatzen duen hirugarren azterlana aurkezten da, *“Zaintza familiarraz harago: erakundeenganako konfiantzaren garrantzia ongizatean”* izenburupean. Lan horren helburua, zaintzari begirako konfiantzak, pertsonen eguneroko ongizatearekin eta bizi-kalitatearekin duen harremana aztertzea izan da.

(9) Bederatzigarren kapituluari, tesia artikulatzen duen laugarren azterlana aurkezten da, *“Nork zainduko nau? zaintza-eragileenganako konfiantzaren eta balio kulturalen arteko harremanak”* izenburu duena. Aurreko azterlanen ildo beretik, eta konfiantzaren eraikuntza eta sustapen aukeretan begirada jarriz, zaintza testuinguru ezberdinetan konfiantzaren oinarri soziokulturalak zeintzuk diren aztertzen dira.

(10) Hamargarren eta azken kapituluan, tesiaren ondorio orokorrak aurkeztearekin bat, gogoeta egiten da horien inplikazio sozialez. Borobiltzeko, ikerketa mugei eta etorkizuneko ikerketa aukera eta esku-hartze posibleei heltzen zaie.

1

Menpekotasunaren arreta eta
epe-luzeko zaintza Gipuzkoan

1.1. Zaintza kulturaren eraldaketa eta krisia

Azken hamarkadetan izandako sakoneko aldaketa soziokultural, ekonomiko eta politikoen egun epe-luzeko zaintzaren esparruan nazioartean ematen ari diren eztabaida eta eraldaketa prozesuak ulertzeko markoa eskaintzen dute (Deusdad, Comas-d'Argemir eta Dziegielewski, 2016; Ranci eta Pavolini, 2015). Zaintzaren krisiaz diharduten autore eta ikuspegiak argudiatzen dute Espainiak zein Euskal Herriak tradiziozkoa duen zaintzaren kultura familiarista eta *gizon ogi-irabazle* eta *etxeo andrearen* eredua berregituraketa prozesuan dagoela; hau da, zaintzaren ardura nagusia familiarena eta emakumeena den kontzepzioa eta arau soziala hausten hasia dagoela (Carrasquer, 2013; Pérez-Orozco, 2014). Zaintza eredu horren eraldaketaz edo krisiaz hitz egiten dutenek, azken hamarkadetan jazotako prozesu soziokulturalek eta kapitalismo globalaren garapenak bereziki hiriguneetan izan duen eraginean jartzen dute begirada (Beneria, 2008). Zaintzaren hornidura familiarren kolapsoaren arrazoiak baldintza sozial eta demografikoen aldaketen ondorio direla azaltzen da, hiru faktore nagusiri erreferentzia eginez: bizitzen ari den iraultza erreproduktiboa, lanaren banaketa sexualaren aldaketa eta ongizate estatuaren gainbehera.


1.1.1. Iraultza erreproduktiboa

Iraultza erreproduktiboarena da zaintza krisia azaltzen duen lehenengo fenomeno (MacInnes eta Pérez-Díaz, 2008). Horrek, familia eredu tradizionalaren egituraketan aldaketak sorrarazi ditu: guraso bakarreko familien eta dibortzioen tasa handitu da, jaiotzak-tasak murriztu dira eta bizi-itxaropena luzatu da. Zentzu horretan, familiaren, genero-harremanen eta erreproduktzioaren esparruetan izandako balio aldaketek, indibidualizazioak eta bizi-baldintzen hobekuntzak eragin nabarmena izan dute gizarteko bizimoduetan (Scott eta Braun, 2006). Jaiotza-tasen jaitsieraren eta bizi-itxaropena luzatzearen joerak, populazioaren zahartze bezala izendatua izan dena ekarri dute (Durán, 2016).

Euskal populazioaren bizi-itxaropena Europar Batasuneko batezbestekoa baino altuagoa da. Datuek biztanleria pixkanaka zahartzen ari dela adierazten dute, izan ere, XXI. mendearen hasieratik 65 urte edo gehiagoko biztanleriaren ehunekoak gora egin du etengabe. Eustat-en (2020) arabera, egun Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE hemendik aurrera) 494.364 pertsona bizi dira, eta horien %22,5 55 urtetik gorako pertsonek

osatzen dute; horien artean, %57,5 emakumeak dira eta % 42,5 gizonezkoak. Etorkizuneko proiektioei erreparatuta, hazkunde hori bereziki nabarmena izango da 20 eta 40 urte barru. Estimazioen arabera, 2041. urterako 65 urtetik gorakoen populazioa biztanleen %33,1 izango da, eta 2061.urtean, berriz, %33,4. Norabide berdintsuan, Estadistika Institutu Nazionalaren arabera (INE) (2022), 65 urtetik gorakoen populazioa %20,1ekoa da egun, eta %30,4 izatera iritsiko da 2050ean. Horrez gain, menpekotasun-egoeraren baten daudenen tasa (16 urtetik beherako edo 64 urtetik gorako biztanleen eta 16 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleen arteko zatidura, ehunekotan) 2050an % 76,8ra iritsiko litzateke gehienez eta gero beheranzko joera hartuko luke. Ondorengo grafikoan, azken lau hamarkadetan menpekotasun-tasak izan duen goranzko bilakaera azaleratzen da.

1. Grafikoa: 64 urtetik gorako EAEko populazioaren menpekotasun-tasaren bilakaera



Iturria: INE (2022).

Sarritan, azaldutako aldaketa demografiko horiek gizartearentzat mehatxu eta kostu bezala ulertuak izaten dira (Macarrón, 2010). Aitzik, hainbat adituk iraultza erreproduktibo horren alderdi positiboak azaleratzen dituzte, emakumeen ugalketarako esfortzua eta derrigortasuna murrizteko, bizi-etapen esanahia eraldatzeko eta belaunaldiarteko harremanak indartzeko (MacInnes eta Pérez-Diaz, 2009). Zentzu horretan, kolapso demografikoa eta familiaren amaierari buruzko diskurtso apokaliptikoak saihesteko, gizarteari balioa eransten dion prozesu positibotzat har daiteke populazioaren zahartzea (Katz, 1992). Dena den, bizi-itxaropenaren luzapena

lorpen soziala izanagatik ere, ezin da begi-bistatik galdu horrek zahartzaroari loturiko menpekotasun-egoerak eta zaintza beharrak nabarmen areagotzen dituela. Ondorioz, trantsizio egoera horrek, non belaunaldien arteko harremanak aldatu diren eta familiek zaintzeko gaitasun eta nahia txikiagoak dituzten, ezinbestean eskatzen du behar sozial berriekin eta herritarren itxaropenekin bat datorren antolaketa politiko eta ekonomikoaren erronkari heltzea.

1.1.2. Lanaren banaketa sexualaren aldaerak

Bigarren fenomeno garrantzitsua da emakumeen lan-merkaturatze masiboa eta aldi berean gizonezkoak etxeko eta zaintza lanetan inplikatu ez izana (Comas-d'Argemir, 2016; Hochschild, 2001). Emakumeek modernitatean senideen zaintzarako – seme-alabak, gurasoak, aita-amaginarrebak etab. – zeukaten disposizio eta funtzio soziala aldatuz joan da garai berrietan, eta horren adierazle da, modu desorekatuan bada ere, gero eta emakume gehiago soldatapeko-lanean zein goi-mailako postuetan aritzea (Torns eta Recio, 2012). Alderantziz, gizonezkoen inplikazioa zaintzan oraindik txikia da eta, ikerketek erakusten dutenari helduz, ideia aurrerakoiek eraginda gizonezkoak haurren zaintzaren ardura errazago onartzen hasi badira ere, ez da hala gertatzen menpekotasun-egoeran dauden pertsona eta adineko pertsonen zaintzarekin (Comas-d'Argemir, 2016). Egoera horrek, emakumeen *presentzia-ausentzia bikoitzaren* kontzeptua egikaritzea ekarri du, enpleguaren eta zaintza-lanen arteko uztarketa gatazkatsua agerian utzita (Carrasquer, 2013). Alde batetik, emakumeek zaintzarako zuten denbora eta prestutasunari mugak jarri zaizkio, baina, bestetik, horien lan-merkaturatzeak ez du zaintza-lanen berdintasunezko banaketa bat ekarri; oraindik orain, emakumeak baitira zaintza ardurei denbora eta esfortzu gehiago eskaintzen diotenak (Sagastizabal eta Legarreta, 2016). Oxfam-ek 2020an argitaratutako azterketaren arabera, emakumeek ordaindu gabeko zaintza lanen hiru laurdenaz eta ordaindutako lanen bi herenaz arduratzen jarraitzen dute oraindik orain, eta horrek eragin zuzena dauka pobretzearekin (Oxfam internacional, 2020).

Horrekin batera, politika publikoen garapen ahulak edota komunitate harreman eta ehun sozialaren hausturak zaintzaren krisia eragin dute (Torns, 2008). Ondorioz, zaintzarako beharrak handitzearekin bat, arazoa zaintza zerbitzuak merkatuan kontratatuz konpontzen dute klase ertain eta altuko familiek. Esan beharra dago,

fenomeno hori ez dela berria; izan ere, landa eta hiriguneetako emakume langileak aspaldidanik aritu izan dira familia aberatsetan neskame, haurtzain edota adineko pertsonen zaintzaile gisa (Carrasco, Borderías eta Torns, 2011). Berria dena da mendebaldeko herrialdeetan familia eta emakume autoktonoek migratutako emakumeak kontratatzen dituztela zaintza lanak egin ditzaten. Fenomeno hori *zaintzaren kate global* bezala definitu izan da literaturan, eta zaintza-lanen nazioarteko izaera eta botere-harremanak azaleratzeko kontzeptu garrantzitsua dugu (Hochschild, 2001; Pérez-Orozco, 2006; Tobio, Tomás eta Martín-Palomo, 2010). Milioika emakumek eta, neurri txikiagoan gizonezkoek, mendebaldeko herrialdeetara migratzen dute haurren eta adinekoen zaintza lanak betetzera, sarritan modu irregular, prekarizatu eta erdi-esklabistan (Bettio, Simonazzi eta Villa, 2006; Díaz eta Martínez-Buján, 2018). Gainera, oraindik orain, migrazio-prozesu horien ondorioak bere osotasunean ikertu ez diren arren, jatorrizko herrialdeetan gertatzen diren zaintza gabeziak eta familia transnazionalen kostu emozional eta erlazionalak handiak direla pentsa daiteke (Comas-d'Argemir, 2019).

1.1.3. Ongizate estatuaren gainbehera

Azkenik, hirugarren fenomeno garrantzitsua ongizate estatuaren krisiarena eta politika neoliberalen gorakadarena da (Bonoli, 2007; Brown, 2003; Moreno et al., 2014). Krisi ekonomikoaren testuinguruan, 2010. urteaz geroztik, politika ekonomikoaren joerak, soldaten devaluazioa, lan-merkatuaren malgutasuna eta defizit fiskalaren murrizketa indartzera jo du, gastu publikoa bere horretan mantenduz eta zergak handituz; horrek, ezinbestean, ongizate sozialera bideratutako politikak kaltetu ditu, menpekotasunari eta zaintza beharrei bideratutako zerbitzuen garapena nabarmen oztopatuta (Aguilar-Hendrikson, 2020; Huete-García, Chaverri-Carvajal eta Morales-Romo, 2021).

Zaintza lanak berriro ere etxeko esparru pribatura ekartzea eragin du horrek; ondorioz, zaintzaileen egoerak prekarizatu dira eta, enplegua eta zaintza uztartzeko gero eta tentsio handiagoak dela medio, eguneroko ongizatearen birbanaketa zaildu du (Izquierdo, 2003; Méndez, 2015). Esparru produktiboaren eta erreproduktiboaren arteko antolaketa mundial berri bat dakar politika neoliberalen hedapenak, erreproduktio soziala ahalbidetzen duten zaintzaren erantzukizun publikoa, esparru pribatura eta merkatura transferituta (Martínez-Buján eta Martínez-Virto, 2015).

Enpleguaren arau sozialaren suntsiketaren bitartez, gero eta gehiago dira aldi baterako kontratuak eta horrek dakartzan bizitzaren prekarizazio eta arrisku sozial berriak (Beck, 1998; Moreno et al., 2014). Ekonomia feministak ondo teorizatu bezala, aipatutakoak ezinbestean kaltetzen du ongizatearen eguneroko kudeaketa, merkatuak bizitzaren esparruak bereganatu, eta gizarteak bizi duen zaintzaren krisi eta defizita mahaigaineratzen baititu (Izquierdo, 2003; Pérez-Orozco, 2006).

Gainera, krisi sozioekonomiko eta politikoaren ondorioz, jendarteko eta erakundeekiko mesfidantza areagotu da, eta estatuen austeritate politikak bultzatzeak berriz ere agenda kontserbadore eta patriarkalak indartzearen arriskua ekarri du. Testuinguru horretan, zaintzarekiko erantzukizun publikoa esparru pribatura esleitzeko mehatxua indartzen ari dela salatu izan dute hainbatek (Comas d-Argemir eta Bofill-Poch, 2021; Gálvez eta Rodríguez-Modroño, 2016). Hortaz, zaintza ereduaren sakoneko berregituraketan eragin duten fenomeno demografiko, soziokultural, ekonomiko zein politiko nabarmenenak azalduta ere, ez da oso garbi geratzen ea prozesu hauek eredu familiarista gainditzea, edo kontrara, eredia berriz familia eta etxeko esparrura itzultzea ekarri duten.

Politika publiko ahulen, familientzako prestazio ekonomikoen bidezko laguntzak lehenestearen edota berriki bizi izandako Covid-19aren osasun krisiaren ondorio latzenetako bat zaintzaren hornidura esparru publikotik berriro ere familia eta etxeko testuingurura ekartzearena izan dira (Comas d-Argemir eta Bofill-Poch, 2021). Osasun krisiaren garaian kanpoko eragile instituzional eta komunitarioek zaintzaren horniduran parte-hartzeari utzi zioten. Zaintzaren antolaketa soziala guztiz aldatu eta aztoratu zuen pandemiaren etorrerak; egoera horrek familietan eta, bereziki, emakumeengan ongizatea bermatzeko funtsezkoak ziren laguntza publikoak eta sare sozialak galtzea ekarri baitzuen. Aldi berean, etxez etxeko zein egoitzetako zaintzaileek egoera material eta emozional bereziki gogorretan lan egin behar izan zuten (Comas d-Argemir eta Bofill-Poch, 2021). Gaixotasunak adineko pertsona ahulenengan izandako ondorio latzek, egoitzetan zaindua izatearen aukera eta arreta ereduak ezbaian jarri zituen; herritarren eta gizarte zerbitzuen arteko harremanak urrundu, herritarren ongizate eta eskubideak kaltetu eta gizarteko adinkeria agerian utzi zituen (Comas-Herrera et al., 2020; Deusdad, 2020).

Aipatutakoak aipatuta, begien bistakoa da zaintzaren antolaketa sozialaren berrantolaketa prozesu sakonean sartua dela, eta gaiak egunerokoan ertz ezberdinetatik pizten dituen eztabaida, gatazka eta sentipen kontrajarriei heltzea ez dela ahuntzaren gauerdiko eztabaida. Feminismotik gero eta gehiago hitz egiten da zaintza eta bizitzak erdigunean jarriko dituen gizarterantz urratsak emateko beharraz, eta baita gure hauskortasun eta elkar-loturez jabetzeak bide horretan duen garrantziaz ere (Esteban, 2017; Martín-Palomo, 2016). Praktikoki baina, nola egikaritu ditzakegu diskurtso eta ideal horiek? Gizarte zaintzaile eta sozialki justu batean, norena behar luke eta nola banatu eta artikulatu beharko lirateke zaintzaren ardurak aktore eta eragile sozial ezberdinen artean? Noren eskutik, nola eta non espero eta nahi dugu besteak zaindu eta besteek gu zaindu gaitzaten? Zein da benetan gizarteak eta erakundeek zaintzari eta menpekotasun-egoerei ematen dien balioa eta aitortza?

1.2. Epe-luzeko zaintzari lotutako politika publikoak

Aipatutako zaintzaren krisi eta sakoneko eraldaketa testuinguruan sortu eta garatu dira epe-luzeko zaintzei lotutako politika publikoak estatuan zein autonomia erkidegoan. Horien bitartez, zaintza auzi indibidual eta familiarra izatetik irtenbide kolektiboa behar duen arazo izatera pasa da; hau da, estatua bere gain hartzen hasi da orain arte osoki familiari, etxekotasunari eta espazio pribatuari esleitutako ardura. Epe-luzeko zaintzarekin lotutako gizarte politikak *menpekotasunaren arreta* bezala identifikatu eta deituak izan dira, horren oinarrian izanik 2006an onartutako *autonomia pertsonala sustatzeari eta menpekotasun-egoeran dauden pertsonen laguntzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea* (Aguilar-Hendrikson, 2020; Comas-d'Argemir, 2015; EAO, 2006). Laurogeiko hamarkadan "ez-gaitasunak" eta adinekoen babesgabetasun egoerak artatzeko neurri subsidiario batzuk bazeuden arren, ordura arte existitzen ziren gizarte zerbitzuak hedatu eta indartzea ekarri zuen erreformak.

Menpekotasun legearen hasierako helburua izan da menpekotasun-egoeran dauden eta zaintzak behar dituzten pertsonen arreta eskubide subjektibo eta unibertsala bilakatzea; bere garaian osasuna, hezkuntza eta gizarte segurantzarekin egin zen bezalaxe (Comas-d'Argemir, 2015; Ranci eta Pavolini, 2015). Zentzu horretan, zaindua izateko eskubide subjektibo eta unibertsala aitortu zen eta lege horren gauzatzearekin, eta zaintza krisiak eragindako egoerari eta epe-luzeko zainketa behar gero eta handiagoei erantzun asmoz

hasi zen garatzen. Menpekotasunaren nozioak pertsona helduen zaintza beharrak soilik hartzen ditu kontuan, haurtzaroko beharrak haurren babeserako politiken eta hezkuntza sistemaren bitartez bermatzen direla kontsideratzen du eta.

Lege horrek Europar Batasunak menpekotasunaren inguruan emandako gomendioak eta definizioak jarraitzen ditu. Autonomia pertsonala sustatzeari eta menpekotasun-egoeran dauden pertsoneri laguntzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak Europar Batasunak menpekotasunaren inguruan emandako gomendioak eta definizioak jarraitzen ditu. Hain zuzen ere, “edozein arrazoi dela medio, eguneroko bizitzareko oinarrizko jarduerak burutzeko beste persona baten laguntza behar duen pertsonaren egoerari” egiten dio erreferentzia (EAO, 2006). Beraz, menpekotasun legearen asmo nagusia pertsonaren autonomia pertsonala sustatzea da. Legeak baremo bakarra finkatzen du estatu osoan pertsona bakoitzaren menpekotasun egoera neurtu eta baloratzeko. Baremo horrek, pertsonak bere kabuz eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak burutzeko duen gaitasuna eta laguntza beharra neurtzen ditu hiru kategoria zehaztuta:

- *1. maila* (menpekotasun arina): eguneroko bizitzako oinarrizko jardueraren bat edo gehiago egiteko laguntza behar du egunean behin gutxienez. Hala ere, norbere autonomia pertsonala etengabeko zaintzaile gabe kudeatzeko gai da.
- *2. maila* (menpekotasun aurreratua): Eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko laguntza beharra du egunean bi edo hiru aldiz, baina ez du behar zaintzailea etengabe bertan egotea.
- *3. maila* (menpekotasun handia): Eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko laguntza behar du maiztasunez eta erabateko autonomiaren galeragatik zaintzailearen etengabeko presentzia behar du. Autonomia fisikoa, mentala edo intelektuala erabat galdu duten pertsoneri aplikatzen zaie gradu hau.

1.2.1. 2006ko Menpekotasun legearen garapena

Arestian esan bezala, hamarkadetan zehar Europan izandako eraldaketa sozial, ekonomiko, politiko eta kultural sakonek lanaren ohiko banaketa sexuala aldarazi zuten, emakumeak modu masiboan lan-merkaturatuta. Egoera horrek, ezinbestean, eragina izan zuen epe-luzeko zaintzaren antolaketa sozialean, izan ere, ordura arte emakumeei esleitzen zitzairen, familiaren eta esparru pribatuaren baitan, zaintzaren ardura nagusia.

Lan-merkaturatzearen eta esparru publikoan presentzia areagotzearen ondorioz, beraz, zaintzaren funtzio eta rol sozialetik pixkanaka askatzen hasi ziren emakumeak (Torns eta Recio, 2012). Horrekin batera, hainbat faktorek ekarri zuten emakumeen aldeko eta menpekotasun beharrei erantzuteko politiken sustapena: alderdi demografikoak, familia harremanetan norbanakoaren garapenak garrantzia hartzeak edota mugimendu faministaren aldarrikapen eta parte-hartze instituzionalak (Mendekoen arretarako euskal sistema publiko baten aldeko plataforma, 2006). Baita, aniztasun funtzionala duten pertsonen aldeko elkarte eta erakundeek beren egoera bereziari erantzuteko politikak eskatzeak ere (Pié, 2012). Azkenik, garaiko hazkunde ekonomikoak eta Europako ongizate politiken sustapenak epe-luzeko zaintzei lotutako politikari heltzen hastea ekarri zuen. Alabaina, Europa iparraldeko beste herrialde batzuekin alderatuta, Espainian berandu hasi ziren epe-luzeko zaintzak agenda politikoan sartzen, 90eko hamarkada amaiera aldeko ongizate estatuen atzeraldi eta murrizketen garaiarekin zuzenean kointzidituta (Aguilar-Hendrikson, 2020).

90eko hamarkada amaieran, familiarteko zaintza eta enplegua uztartzeko kontziliazio politikak sortu baziren ere, horrek ez zuen suposatuta, lan-banaketari dagokionean, gizonen eta emakumeen artean dauden ezberdintasun sozialei irtenbidea ematea. Urte batzuen buruan, 3/2007 Berdintasun legearekin batera, berdintasunerako urratsak eman ziren, gizonezkoendako aitatasun baimenak bultzatuz eta lanaldi murrizketetan hobekuntzak txertatuz (Comas-d'Argemir, 2015). Hala ere, familia, enplegua eta norberaren bizitza uztartzeko neurri horiek ez ziren nahikoak izan familiak zaintzarekin zituzten zailtasun eta tentsioak baretzeko. Norabide horretan, 2006ko Menpekotasun legea, eztabaida politiko eta tekniko luzeen ondorioz, hutsune hori betetzera zetorren, baita zaindua izateko eskubide unibertuala aitortzera ere (Aguilar-Hendrikson, 2020). Gobernu sozialistaren (PSOE) azken fasean eta agintaldi kontserbadorearen (PP) garaian (1995-2004), segurtasun sozialeko, akademia zein sindikatu etako aditu eta buruek epe-luzeko zaintzei begirako politiken eraikuntza eta egikaritzea sustatu zuten. Azkenik, 2006ko agintaldi sozialistarekin lege bihurtu zen eta menpekotasunaren lehen liburu zuriaren oinarriak aurkeztu zituzten (Aguilar-Hendrikson, 2020; Libro Blanco, 2004).

Lege berri horrek ekarriko zituen aurrerabideei dagokionez, espektatiba politiko eta sozialak altuak izan baziren ere, erreformak gaur arte zailtasun handiak izan ditu bere

asmo unibertsalistak eta kalitatezkoak betetzeko. Alde batetik, legearen onarpen eta garapena krisi ekonomiko eta austeritate politiken testuinguruan jazo zelako, eta horrek ezinbestean zaintza sistemaren hedapena geldiarazi zuelako, bertara bideratutako gastu publikoa murriztuz (Deusdad, Comas-d'Argemir eta Dziegielewski, 2016). Bestetik, autonomia erkidego bakoitzak dituen eskuduntzak eta horiek erreformarekiko agertzen duten konpromiso-maila ezberdina dela medio, sistemaren inplementazioa ezberdina izan delako tokiko gobernuen arabera, eta horrek herrialdearen araberrako zaintza sistema desorekatu eta malkartsua izatea ekarri du (Oliva, Sancho eta del Pozo, 2022; Zalakain et al. 2021). Spasova eta kolaboratzaileek (2018) egindako azterketaren arabera, Espainiako Barne Produktu Gordinari dagokionez, epe-luzeko zaintzari begirako gastu publikoak azken aurreko postua hartzen du Errumaniaren atzetik. Bestalde, legeari egiten zaizkion kritika feministei jarraiki, erreforma horrek ez du ekarri familiak zaintzaren eginkizunetik deslotzea; aitzitik, emakumeek epe-luzeko zaintzen eta bereziki adinekoen zaintzaren kargu egiten jarraitu dute, eta zerbitzuak merkaturatzearen ondorioz, migratutako emakumeei esleitzen zaizkie zaintzaren ardurak modu prekarizatuan (Comas-d'Argemir, 2015; Deusdad et al., 2016).

Ondorioz, epe-luzeko zaintzen politiken arrakasta eta mugak eztabaida iturri dira iritzi publikoan. Izan ere, jendartean sistemaren eraginkortasun eza, zaintza zerbitzuetara sarbidea izateko luze itxaron beharra, zerbitzuen egokitasun eza, edota aurrez aurreko zerbitzuen gaineratik zaintzarako prestazio ekonomikoak gailendu izanaren kritikak ohikoak dira, eta hori bera adierazten dute aurrez egindako azterketek (SIIS, 2020). Menpekotasunaren sistemaren ahulezia hori gainera, areagotu eta modu dramatikoan ikusarazi da Covid-19aren osasun krisiaren testuinguruan, zerbitzu sozialen eta osasun sistemaren koordinazio arazoak agerian utzita (Comas-d'Argemir eta Bofill-Poch, 2021; Oliva, Sancho eta del Pozo, 2022). Adinekoen egoitzetan osasun arretarako arintasun eta lehentasun ezak modu dramatikoan areagotu zituen Covid-19ak eragindako heriotzak; era berean, profesionalen izurritea kudeatzeko baliabide eskasiak (maskarak, babes-ekipamendu indibiduala, formakuntza etab.) eta lan-baldintza eskasek gaixotasunaren hedapena erraztu zuten (Montserrat-Codorniu, 2021; Ramírez-Navarro, 2020).

1.2.2. Menpekotasunaren arreta Euskal Autonomi Erkidegoan

EAE-ko Menpekotasun arreta-sistemak berezitasun propioak dituen arren, espainiar eredu eta kultura familiarista-mediterranean du oinarria. Espainiar ongizate erregimenak familismoa, unibertsalismoa eta merkatua uztartzen ditu, eta zaintzaren ardura familiarena, norbanakoarena eta gizartearena da aldiberean (Comas-d'Argemir, 2019; Rodríguez-Cabrero, 2011). Hala, estatuak erregulatzen ditu epe-luzeko zaintzei lotutako legedi eta politikak, baina autonomia erkidegoek eta udalerriek horiek kudeatzeko eskumenak dituzte. Ongizate sozialaren ereduari dagokionez, beraz, EAE-k bere ezaugarri propioak ditu epe-luzeko zaintzak tradizionalki antolatzerako orduan. Nafarroako Foru Erkidegoarekin eta Ipar Euskal Herriarekin alderatuz gero ere, bestelako ereduak aurkituko ditugu (Zalakain et al., 2021).

EAE-n menpekotasun egoeran dauden pertsonentzako arreta bi lege nagusiren bitartez egikaritzen da. Batetik, aurreko atalean azaldutako 39/2006ko legea, menpekotasunaren arreta eta autonomia pertsonala sustatzea dagokiona. Bestetik, 12/2008ko zerbitzu sozialen legea. Lehenengoa estatutik datorren legea da eta menpekotasun egoeran dauden pertsonentzako zerbitzuak eta prestazioak arautu eta finantziatzen ditu Eusko Jaurlaritzarekin batera. Bigarrena, aldiz, autonomia erkidegoko legea da eta menpekotasun-egoeran dauden pertsonak gizarte zerbitzuen sistema autonomikoaren bidez artatuak izatea ahalbidetzen du. Estatuko menpekotasun legeak zaindua izateko eskubide subjektiboa bermatzen badu ere, gizarte zerbitzuetako euskal legeak eskubide subjektibo eta unibertsal hori bestelako eskubide sozialekin parekatzen du, hala nola, osasunarekin, hezkuntzarekin eta pentsioekin (Zalakain et al., 2021).

Menpekotasun-egoeran dauden pertsonen zuzendutako zerbitzu eta prestazioen katalogoa menpekotasun zein gizarte zerbitzuen legean jasotzen da, eta horiek lehen mailakoak edo bigarren mailakoak izan daitezke (Zalakain et al., 2021). Lehen mailako arreta zerbitzuen arduradunak udalerriak dira, eta, normalki menpekotasun-egoera arinak, intentsitate baxukoak eta prebentziozko zerbitzuak bideratzeko eskumenak dituzte. Horien artean daude etxez etxeko laguntza zerbitzua, eguneko arreta zerbitzuak, ostatu zerbitzuak, telelaguntza edota oso gutxi garatu duten esku-hartze psikosozialerako zerbitzua. Bigarren mailako arreta zerbitzuak, aldiz, menpekotasun-maila eta zaintza behar jarraigoak behar dituzten pertsonen zuzendurik daude, eta foru

eskumenekoak dira. Bigarren mailako arreta zerbitzuek ondorengoak barnebiltzen dituzte: eguneko eta gaueko zentroak, egoitzak, senide eta zaintzaileendako atseden zerbitzuak, laguntza teknikoak eta egokitutako garraio zerbitzuak. Azkenik, prestazio ekonomikoak daude. Prestazio ekonomikoek protagonismo berezia hartzen dute EAEko sisteman, izan ere, senide edo zaintzaile informalek emandako zainketak konpentsatzen dituzte, eta horrek zaintzaren izaera familiarista indartzea ekarri du. Ondorioz, zaintza zerbitzuetara bideratutako gastu publikoa gutxitu eta merkantilizatu egin da (Deusdad, 2020; Martínez-Buján, 2014). Horien artean, familia barruko zaintzetarako eta zaintzaile ez-profesionalei laguntza, asistentzia pertsonalerako eta laguntza produktuak erosteko prestazioa, norbere etxebizitza eta ibilgailuan egokitzapenak egiteko edota zerbitzuari lotutako prestazioak aurki ditzakegu.

1.2.3. Gabeziak eta erronkak

Menpekotasunaren arretarako eta autonomiaren sustapenerako sistemaren hastapenetatik hamabost urte igaro diren honetan, hainbat ikerketetan adituek adostasunez identifikatu izan dituzte sistema horrek dituen muga, gabezia eta erronkak (Oliva, Sancho eta del Pozo-Rubio, 2022; Sancho eta Martínez-Rodríguez, 2021; Zalakain et al., 2021). Sistemaren hobekuntza eta kalitatea sustatzeko aipatzen diren erronka esanguratsuenen artean honakoak leudeke:

- Menpekotasun egoeran dauden adinekoen bizitza eta zaintza ibilbideak modu pertsonalizatuan eta ikuspegi komunitario batetik babestea, autonomia pertsonalerako baliabide eta ekintzak sustatuz eta isolamendu egoerak saihestuz.
- Menpekotasun egoeran dauden pertsonak etxean bizitzen jarrai dezaten bultzatzea, populazioak zaintzaren inguruan dituen lehentasun eta nahiak gehiago aintzat hartuta. Horrek, epe-luzeko zaintzaren diseinua aldatzea eta arreta eredu instituzionalizatu eta ospitalario batetik arreta etxekoi eta pertsonalizatuera igatzea inplikatzeko du.
- Zaintzaren profesionalizazioa indartzea, formakuntza eta kualifikazioaren aldeko apustua eginda. Aldi berean, zaintzaileen lan-baldintzak hobetzea, sektoreak bizi duen feminizazio, prekarizazio eta estigmatizazioa borrokatuz.
- Zaintza eredu eta politikak genero ezberdintasunei begira dituzten inplikazioak kontuan izatea eta gizonezkoen inplikazioa sustatzea.

- Zaintzale familiarrak eta sare informalak babestea, horretarako baliabide eta informazioa erraztuta eta erakundeetatik beraien lana aitortuta. Horrekin batera, familien eta emakumeen naturalizazioa eta gainkarga leuntzeko estrategiak jorratzea.
- Zaintzaren ikuspegi komunitarioa eta antolaketa komunitarioko ekimenak balioan jartzea eta tokiko zaintza ekosistemak bultzatzea.
- Etxebizitzak, arkitektura-ingurunea eta hiri zein landa eremuak menpekotasun egoeran dauden pertsonen beharretara egokitzea.
- Menpekotasunari loturiko gastu publikoa handitzea eta finantzaketa-sistemak hobetzea, zerbitzuen tokiko eskuragarritasuna bermatu ahal izateko.
- Erakunde ezberdinen arteko koordinazioa hobetzea eta lurralde antolamenduaren beharretara egokitzea, zatiketa administratibo eta lurralde bakoitzaren ezaugarri eta eskumenak errespetatuz. Horretarako beharrezkoa da alderdi politiko, eragile sozial, profesional eta komunitatearen artean zaintza sistemaren inguruko adostasun zabalak lortzea.
- Gizarte-zerbitzuen, osasun-zerbitzuen eta zerbitzu soziosanitarioen arteko koordinazioa hobetzea.
- Ikerketaren erronka, ebaluazioa eta kalitatearen bermea sustatzea.

1.3. Zaintzaren antolaketa sozial berriak marrazten

1.3.1. Zaintzaren kontzeptua

Bizi garen mundua eusteko eta iraunarazteko egiten ditugun ekintza guztiak barnebiltzen ditu zaintzak, bertan ahalik eta hobekien bizi ahal izateko helburuarekin (Featherstone, 2010; Tronto eta Fisher, 1990). Jendartean ongizatea eta kalitatezko bizitza sostengatzeko egiten diren lan-multzo, kate eta harreman konplexu guztiek osatzen dute zaintza (Daly eta Lewis, 2000; Tobio, Tomás eta Martín-Palomo, 2010). Pertsonen menpekotasun eta zaugarritasun-egoerak areagotzean – haurtzaroan, zahartzaroan, aniztasun funtzionala edota gaixotasun-egoera dela medio – modu nabarian areagotzen bada ere, guztiok berezko dugun ezaugarri komuna da zaintza beharra. Zentzu horretan, guztiok gara, neurri eta intentsitate ezberdinetan bada ere, zaintza emaile eta hartzaile (Paperman, 2004). Bestalde, literatura akademikoak luze eta zabal erakutsi du zaintza historikoki emakumeen esku dagoen jarduera dela (Carrasco,

Borderías eta Torns, 2011). Familiaren testuinguruan egiten denean, emakumeek zaintzarako duten gaitasuna eta eskaintzen dioten denbora ez da ez ordaindua ez eta aitortua izaten eta horrek eragin zuzena du emakumeek gizonezkoen aldean daukaten desabantaila sozioekonomiko eta sinbolikoan (Torns eta Recio, 2012).

Zaintza edo ingelesezko *care* kontzeptuaren izaera erlazionala eta duala nabarmentzen da literaturan, aldi berean barnebiltzen baititu ekintza praktiko eta afektiboak (Tronto, 1987). Carole Thomas-en (1993, 167 or.) arabera, “lana eta afektuak inplikatzeko dituzten ekintzei egiten die erreferentzia zaintzak, eta horiek ordainduak edo doakoak” izan daitezke. Aldi berean, zaintzak gorputzarekiko kontaktua izatea inplikatzeko du. Zaharkitutako gorputzen zaintza-lana zikinkeriarekin eta beste norbaitek “ipurdia” garbitu behar izatearen lotsarekin lotu izan da; baita alderantziz ere, hau da, besteen ipurdiak garbitu eta intimitatea kudeatu behar izatearen estigmatiarekin (Cohen eta Wolkowitz, 2018; Twigg, 2000).

Bestalde, hainbat autorek bereizketa egiten dute esparru pribatuan familia eta lagunek eskaintzen duten *zaintzaren* eta esparru publikoan profesional eta ezezagunek eskaintzen duten *arretaren* artean (Parker, 1981). Lehenengoan zaintzarekiko konpromiso pertsonal eta afektiboa izatea espero den bitartean, bigarrenean hala izan beharrik ez duela arrazoitzen da alderaketa horren bitartez. Hala ere, zaintza eta arretaren, edota esparru informal eta formalaren arteko dikotomia hori problematikoa eta eztabaida iturri izan da literaturan, ez baitu laguntzen fenomenoaren izaera modu holistikoa eta elkar-eraginean ulertzen (Abasolo, 2010; Federici, 2010; Thomas, 1993).

Norabide berdintsuan, eta beste batzuek diotenari helduta, lanaren, ahaidetasunaren eta bizi-zikloaren kontzeptuak zeharkatzen ditu zaintzak, eta horrek aukera ematen du dohaintzan, elkarrekikotasunean eta merkantzia oinarritutako printzipio eta arau moralak azalertzeko (Comas-d’Argemir, 2017; Drotbohm eta Alber, 2015). Dohaintza, elkarrekikotasuna eta merkantzia arauen arabera zaintzeak sistema moral ezberdinen logikan jardutea inplikatzeko du, askotan kontrajarriak eta gatazkatsuak izan ohi direnak (Graeber, 2012). Batetik, dohaintzak adierazten du bueltan ezer jasotzeko bermerik gabe besteak zaintzea. Bestetik, elkarrekikotasun printzipioaren arabera, bestearengandik emandakoaren itzulera proportzionala espero da. Azkenik, merkantzia oinarritutako harremanetan, ondasun eta zerbitzuen trukearen bitartez


gauzatzen da zaintza. Dohaintza eta elkarrekikotasunean pertsonarteko lotura soziala eta afektiboa izatea espero den bitartean, merkantziaren logikan ez du zertan hala izan. Hiru dimentsio horiek aldi berean gurutzatzen dira zaintza harreman eta praktiketan, eta zaintza horniduran parte-hartzen duten eragileek – familia, komunitatea, merkatua eta estatua – egunerokoan uztartzen dituzte maila batean zein bestean izan (Comas-d'Argemir, 2017).

1.3.2. Familia, komunitatea, merkatua eta estatuaren bidegurutzan

Dimentsio indibidual, familiar, afektibo eta korporalaz harago, zaintzak dimentsio soziala eta materiala du (Daly eta Lewis, 2000). Gizarteak eta sistema produktiboak gaina joko lukete eta ez lukete iraungo, egunerokoan bizitzak sostengatzeko funtsezkoak diren lanak egin gabe utziko balira. Zentzu horretan, praktika afektibo eta etikoa izateaz gain, bizi garen mundu komun hau, eta ingurune soziopolitiko eta fisikoa ulertzeko oinarrizko ikuspegi analitikoa eskaintzen du zaintzak (Daly eta Lewis, 2000).

Zaintza sozialki eta kulturalki eraikitako konstruktoa da, izan ere, bere kontzepzioa eta kudeaketa mota aldakorra da gizarte batetik bestera. Norabide horretan, Daly eta Lewis-en (2000) *zaintza sozialaren* eta Razavi-ren (2007) *zaintzaren diamantearen* kontzeptualizazioek zaintzaren hornidurak hartzen dituen forma eta modalitate konkretuak ulertzen laguntzen digute gizarte eta testuinguru soziokultural ezberdinetan, lau eragile edo aktore sozial nagusien artikulazioan arreta ipinita (ikus 1.irudia).

1. Irudia: Zaintza-eragile sozial nagusiak



Iturria: Norberak egina (Razavi, 2007).

Familia zaintza-eragile gisa

Familiak funtsezko funtzio betetzen du zaintzaren horniduran, tradizionalki beraren esku egon baita zaintzaren ardura osoa gizartean. Alabaina, emakumeen lan-merkaturatzearen, gizonezkoen erantzukizun txikiaren eta baliabide publiko nahikorik ez izatearen ondorioz, familiek hala moduz eta kostata eusten diote gertuko zaintza-beharren hazkundeari (Hochschild, 2012). Fenomeno horiek, bereziki Europa hegoaldeko herrialdeak ezaugarritzen duten zaintza eredu familiarista krisian dagoela baieztatzera eramanez. Familiaren krisiaz hitz egiten bada ere, ez dirudi horrek generoaren araberako aldaketa sakonik ekarri duenik, izan ere, gaur gaurkoz, emakumeek jarraitzen dute familietako zaintzaile nagusiak izaten (Comas-d'Argemir, 2019). Bukatzeko, esan beharra dago, zaintza familiarra gehienbat gertuko senideen edo familia nuklearraren eskutik gauzatzen dela; hala ere, zuzeneko zaintzan protagonismo txikiagoa badute ere, familia zabalak maila afektiboan eta akonpainamenduan funtzio garrantzitsua betetzen jarraitzen du (Comas-d'Argemir eta Bofill-Poch, 2021).

Komunitatea zaintza-eragile gisa

Komunitatean garatzen diren harreman sozialek ere – lagunak, bizilagunak, boluntario elkarteak etab. – zaintza horniduran parte-hartzen dute. Komunitate loturak, zaintza sare informal gisa, zaintza familiarraren sostengu garrantzitsuak dira (Comas-d'Argemir eta Bofill-Poch, 2021). Komunitatearen presentzia zaintzan nabarmenagoa izaten da landa eta herri txikietan, hiriguneetan baino. Hala ere, auzo eta erakunde ezberdinen inizatibaz, hiriguneetan ere zaintza-sare komunitarioak indartu daitezkeela erakutsi dute azken urteetan aurrera eramandako ekimenek (Vega, Martínez-Buján eta Paredes-Chauca, 2018). Horien ugaritzea argiki nabarmendu zen Covid-19aren pandemiari lotutako konfinamendu garaian (Zuñiga-Ruiz de Loizaga, Llorente-Arretxea eta Valero-Alzaga, 2022). Ongizateari eta zaintzari lotutako eztabaidetan gutxien landu den esparrua badugu ere, esan dezakegu gero eta interes eta arreta handiagoa pizten ari dela arlo sozial eta akademikoan (Martínez-Buján, 2019; Vega eta Martínez-Buján, 2017; Esping-Andersen, 1993).

Merkatua zaintza-eragile gisa

Zaintzaren antolaketan eta horniduran parte-hartzen duen beste esparru garrantzitsu bat merkatua da. Merkatuaren bitartez, etxeko zaintzaileen kontratazio pribatua edota erakunde publikoek azpikontrataturako zaintza-zerbitzuak ahalbidetzen dira. Zaintza zerbitzuak kanpora ateratzeko lehen urratsa da zerbitzuak merkaturan bilatzea, eta, ondorioz, familia askok egoitzaren aurretik lehenesten duten zaintza modalitatea izaten da (Comas-d'Argemir eta Bofill-Poch, 2021). Azken hamarkadetan, adineko pertsonak zaintzeko etxeko langileen kontratazioa nabarmen hazi da estatu mailan eta horrek bereziki zahartzaroan jazotzen den zaintzaren privatizazio eta merkantilizazio prozesua areagotu ditu (Martínez-Buján eta Moré, 2021). Gainera, Díaz eta Martínez-Buján-ek (2018) erakusten dutenari jarraiki, etxeko langile horien artean emakume atzerritarrak %62,3 dira dagoeneko.

Estatua zaintza-eragile gisa

Estatuaren eskutik eratorritako zerbitzu eta prestazioak zutabe garrantzitsuak dira zaintzaren horniduran. Eguneko zentroek eta egoitzak moduko erakundeek, esaterako, garrantzia berezia hartzen dute pertsonen menpekotasun-egoera eta zaintza beharrak areagotu eta etxean bizitzen jarraitzeko baldintzak okertzen direnean. Eredu familiar eta komunitariotik hurbilen dagoen baliabidea izaki, eguneko zentroak onarpen sozial handiagoa izaten dute egoitzaren aukerarekin alderatuz, horiek normalki azken aukera kontsideratzen baitira (Comas-d'Argemir eta Bofill-Poch, 2021).

Aipatutako lau eragileen arteko lotura, interakzio eta logikak maiz aztertu izan dira aurrez landutako literaturan eta ikerketetan (Daly eta Lewis, 2011; Razavi, 2007). Ondorioz, esan dezakeguna da herrialde eta testuinguru kultural bakoitzean zaintzak esanahia eta antolaketa ezberdina hartzen duela familiak, merkatuak, estatuak eta komunitateak daukaten parte-hartze eta elkarrekintzaren arabera (Brito et al., 2018). Konbinazio horiei dagokionez, lau eredu nagusi identifikatu izan dira: nordikoa, anglosaxoia, mediterraneanar-familiarista eta latinoamerikarra. Espainiar estatuan zein Euskal Herrian, merkatutik eta estatutik eratorritako zerbitzu eta erakundeek zaintzaren kudeaketan parte-hartzen badute ere, ez dago zalantzarik familia dela menpekotasun-egoeran aurkitzen diren pertsonen zaintza eta ongizatearen zutabe nagusia eta, askotan, bakarra (Carrasco, Borderias eta Torns, 2011). Azken hamarkadan Espainiako Ikerketa Soziologikoen Zentroak (CIS) burututako 3009/2014ko azterketan erakutsi bezala, oraindik orain, zaintza behar intentsiboak dituzten etxeko kasuen %88,1ean zaintza nagusia familiako kideren batek beregain hartzen ditu, eta %64,1ean zaintzaile hori emakumea da. Zaintza aukera eta baliabide ezberdinen artean, populazioaren %53,7k adinekoak familian izatea hobesten du. Horien artean, gero eta gehiago dira (%9,7) pertsona etxean zaindua izan dadin zaintzaile bat kontratatzen dutenak, emakume atzerritarren presentzia esparru horretan altua izanik (Díaz eta Martínez-Buján, 2018). Hainbat ikerlarik azpimarratu izan dutenari helduz, "etxean eta familiaren esku" zaindua izatearen nahi eta espektatiba kulturalari erantzuten dio zaintzaren konfigurazio nagusi horrek (Moreno-Colom et al., 2017).

Azkenik, zahartzaroari lotutako erronka demografikoek eta bizimodu aldaketek pertsonen zaintza eta haren antolaketa soziala eztabaida publikoaren erdigunera ekarri

dute, eta horri nola aurre egin pil-pilean dagoen gaia bilakatu da. Zaintzari eusteko estrategia tradizionalak – familia eta egoitzak – ez dira aski eta ez dituzte asetzen jendeak autonomiarako dituen lehentasun, desio eta espektatibak. Horrenbestez, zaintza behar eta erreproduzio sozialaren krisi egoerari aurre egiteko, funtsezkotzat jotzen da zaintzaren ekuazio horretan eragile, espazio eta paradigma berrietarantz bidea egitea.

1.3.3. Desinstituzionalizazio prozesuak

Epe-luzeko zaintzen beharrak areagotu izanaren eta familiek horiei etxean behar bezala eusteko baldintza ezaren ondorioz, instituzionalizazioak edo egoitza batera bizitzearen aukerak zainketen eguneroko kudeaketari konponbide bat eman diezaioke. Sarritan, osasun egoeraren gainbehera, autonomiaren galera edota bakardade egoerak direla medio hartzen da egoitza batera bizitzera joatearen erabakia (Saarnio et al., 2017). Nahiz eta egoitzen kontzepzio negatiboak aldatzera jo duen, erabaki hori etxe askotan gatazka iturri izan ohi da, izan ere, kasu askotan egoitzaren aukerak ez du bat egiten adinekoak dituen zaintzarekiko nahi eta lehentasunekin, eta etsipenez eta pertsonaren borondatearen aurka hartutako erabakia izaten jarraitzen du (Díaz-Veiga eta Sancho, 2013). Gainera, instituzionalizazioak ez ditu behar bezala konpontzen gero eta handiagoak diren zainketa eskaerak (plaza urriak, kuota garestiak etab.) eta herritarren autonomia eta burujabetza desioak (Barenys, 1993). Zentzu horretan, zainketak behar dituzten edo autonomia propioa izateko laguntza behar duten pertsonen beharrak, sentimenduak eta lehentasunak kontuan hartzea gero eta oihartzun handiagoa duen aldarrikapena da epe-luzeko zaintzari buruzko paradigma eta estrategia politiko berrietan (Adinberri, 2017; Eusko Jaurlaritza, 2016).

Azken hamarkadetako ikerketek erakusten dutenari jarraiki, norbere etxean bizitzen eta inguru sozialarekin harremanetan jarraitu ahal izatea da populazioaren gehiengoak zaintzarekiko duen lehentasuna eta nahia (Byles et al., 2014; Deusdad et al., 2016; López-Doblas, 2016; Wiles et al., 2012). 1990eko hamarkadatik aurrera, epe-luzeko zainketei begirako erreforma politikoek indarra hartu zuten industria osteko ongizate-sistemetan. Europa iparraldeko herrialdeetan (Danimarka, Suedia, Finlandia etab.) batez ere, egoitza handietako eredu instituzionalaren ordeztu, komunitate mailako arreta etxeakoa sustatzeari ekin zioten (Ranci eta Pavolini, 2015). Horrek zera eskatzen du:

batetik, adinekoek ahalik eta denbora gehien etxean bizitzeko eta bertan senideen zein kanpo laguntza jasotzeko eskubidea dutela aitortzea; bestetik, erakunderen batean arretak beharrezkoak suertatzen direnean, arreta ereduak etxekoia eta indibidualizatu izan behar duela. Desinstituzionalizazioa bultzatzen ari diren herrialdeetan joera hau hautematen da: bizitzaren amaierako zaintza beharrei aurre egiteko aukera gisa soilik aurreikusten da egoitza, zaintza beharrak nabarmen handitzen direnean eta etxeko zainketak aukerarik onenak ez direnean (Lolich, 2019).

Espainiar estatuan epe-luzeko zaintzetara bideratutako zerbitzu publikoen ahuleziaren ondorioz, familiek hainbat baliabide erabiltzen dituzte etxean zainduak izaten jarraitu ahal izateko eta instituzionalizazioa ahal bezainbeste atzeratzeko. Horien artean, zaintza familiako kideen artean kudeatzea, zaintza zerbitzuen kontratazioa eta eguneko zentron aukerak hobetsi izan dira (Huete-García, Chaverri-Carvajal eta Morales-Romo, 2021; Zalakain et al., 2021). Europa ipar eta erdialdeko herrialdeetan ez bezala, hegoaldeko herrialdeetan ez da gai horri buruzko eztabaida eta politika sozial argirik garatu. Aitzitik, kultura mediterranearen eta familiaristan babestuz eta zerbitzuen kostua murriztuz, familientzako laguntzak eta etxeko-zaintzaileak kontratatuzko prestazio ekonomikoak sustatu izan dira (Deusdad et al., 2017; García-Gómez et al., 2019; Martínez-Buján, 2014). Hala ere, desinstituzionalizazioaren eta arreta ereduaren eraldaketan eragitea eztabaida publikoan gero eta presenteago dagoen gaia da, eta Europako estrategia eta politiken bidetik, norbere etxean edo “norbere etxean bezala” bizitzea eta zaindua izatea ahalbidetuko duten politikak etorkizuneko helburu estrategiko bilakatu dira (Munduko Osasun Erakundea, 2017). Norabide horren adibide bat da Eusko Jaurlaritzak Matia institutuarekin batera garatutako “Etxean Ondo” programa, etxez etxeko laguntza zerbitzuak eta egoitzetako arreta ereduaren aldaketa sustatzeko helburua duena; edota berriki Gipuzkoako Foru Aldundiak osatutako etorkizuneko egoitzei buruzko liburu berdean jasotzen direnak (Etxean Ondo, 2011; Liburu Berdea, 2022). Era berean, esan beharra dago etxean zaintzera bideratutako estrategia global horrek, jendearen zaintza nahi eta espektatibei erantzutea bilatzen badu ere, baliabide eta zerbitzu publikoen kostu ekonomikoa murriztea ere baduela oinarrian; hortaz, garrantzitsua izango da estrategia horrek intentsitate handiko eta

etxean artatzeko zailak diren zaintza beharrei erantzungo dien baliabideen murrizketan izan dezakeen eragina aztertzea (Means, 2007).

Hori horrela, argi dagoena da orain arte ezagututako erakunde edo egoitza handi, inbertsonal eta asistentzialistarekin bukatzea etorkizuneko arreta ereduaren erronken artean kokatzen dela. Eredu etxekoi batek “erakunde osoaren” eredia ordezkatu beharko luke (Goffman, 1970/2017). Alabaina, desinstituzionalizazio prozesua ez da soilik eredu tradizionaleko egoitzak ixtearekin gauzatzen, baizik eta, orain arteko eraikuntzak berreraiki eta eredu berrien paradigmatik birdefinitzen. Ildo horretatik, *zahartze aktiboa* (Causapié et al., 2011) edota *pertsonan ardaztutako arretaren* (Martínez-Rodríguez, 2013) paradigma eta proposamenei heltzeak zahartzarua modu duin eta autonomoago baten bizitzea ahalbidetzen dute, erietxe eta hotelen zerbitzuetan oinarritutako egoitza ereduak pertsonen beharren neurrira eraldatuta. Finean, pertsonan eta komunitatean ardaztutako ereduak epe-luzeko arretaren duintzea eta humanizazioa bilatzen du, besteak beste, pertsonen erabakimena ahalbidetuta, pertenezia sentimendua indartuta eta zaintza jarraipen indibidual bat bermatuta. Horrek inpliketzen du zaintza eredu autoritario eta paternalistatik eredu demokratikorako jausia egitea, horretarako beharrezkoa izanik pertsonen agentzia, ahalduntzea eta konpromisoa zaitza prozesuarekin (Nord, 2016; Saarnio et al., 2016; Theurer et al., 2015).

Paradigma berri horietarako bidea eraikitzeke eta kalitatezko zaintza bermatzeko, profesionalen formakuntza eta borondate ona ez ezik, funtsezkotzat jotzen da zaintza sektoreak egiturazkoak dituen arazoei heltzea, hala nola, giza baliabideak eta lan-baldintzak hobetzea (Bodoque, Roca eta Comas-d'Argemir, 2016; Lemos, 2019; Offenhenden, 2017). Euskal erresidentzietako langile eta sindikatuen aldetik luze aldarrikatu eta borrokatzen denari erreparatuta, zaintzaileen lan-baldintza prekarioek, soldata baxuek eta lan-kargak osoki baldintzatzen dute zaintzaren kalitatea eta aipatutako arreta ereduaren eraldaketa (Irureta Azkue, 2019).

Estrategia instituzional eta herritar berritzaileak

Garaiko erronka demografikoei heltzeko asmotan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiken sailatik zaintza eta arreta eredia sakonki aldatzea proposatzen da (Adinberri,

2017; Gipuzkoako Foru Aldundia, 2022). Arestian aipatutako paradigma etxekoi eta pertsonalizatuen ildotik, eredu aldaketa horrek orain arteko gizarte zerbitzuen aldaketa kultural eta instituzionala eskatzen du, eta hainbat irizpide ditu oinarrian. Besteak beste, gizarte zerbitzuen pertsonalizazioa, tokiko zaintza ekosistemen sorrera, egoitza eta etxebizitza baliabideen diseinua birpentsatzea, sektorearen lan-baldintzen hobekuntza eta profesionalizazioa, eta ikerketa eta esperimenezko sozialari bultzada eman nahi diote trantsiziorako politika horien bitartez.

Zaintzaren eraldaketa kultural eta instituzionalera bidean, Euskal Herrian aitzindari dira Gipuzkoako hainbat udalerritan hastapen eta garapen prozesuan dauden zaintza ekosistemak. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Adinberri fundazioak gidatutako Zaintza HerriLab estrategia eta zenbait udalerriren arteko elkarlanaren baitan, menpekotasun-egoeran dauden dinekoen arretak hobetzeko proiektu komunitarioak sustatzen hasiak dira (Zaintza HerriLab, 2022). Zaintza ekosistemen bitartez, arreta pertsonalizatua bultzatu nahi da, tokiko gizarte eta osasun zerbitzuak parte-hartze komunitarioarekin artikulatuta. Egoitza edo etxebizitza ereduari dagokionez, Usurbilgo udalaren eta Matia institutuaren elkarlanaren fruitu izango dira, esaterako, pertsonan eta komunitatean ardaztutako zaintzadun etxebizitza berritzaileak (Usurbilgo Udala, 2021).

1.3.4. Zaintzaren demokratizazioa

Garaiko gizartean, zaintza-lanak modu desorekatu eta bidegabean banatzen dira familiaren eta beste eragile sozialen artean, emakume eta gizonezkoen artean, edota klase sozialari eta migrazio-estatusari dagokionean (Carrasco, 2017; Parella, 2003). Perez-Orozco eta Gil-ek (2011) diotenari jarraiki, ez dago zaintza lanen gaineko arduraren sozialik eta horrek ezberdintasun sozialak eta prekaritatea areagotzea dakar. Bestalde, zainduaren posizioa ere zainzailearekiko botere-harremanean eraikitzen da; hala, pertsonen menpekotasun-egoera batean duten erabakimena, duintasuna eta ondo artatuak izatearen eskubideak urratzen ditu (Fine eta Glendinning, 2005; Kittay, 1999). Gaitasun fisiko eta psikologikoen narriadurak eta galerak zaugarritasun egoera eragiten du zainduarengan. Hala ere, alderantziz ere, zainzailea zainduarekiko harremanean egoera zaugarrian egon daiteke, posizio soziala, lan-harremana, xantaia moral eta emozionala dela medio (Kittay, 1999).

Zaintzaren antolaketa sozial berrietara trantsizioa egiteko, beraz, zaintza demokratizatzea eta berdintasunezko harremanak sustatzea aldarrikapen feministen lehen lerroan kokatzen da (Comas-d'Argemir, 2019; Tronto, 2013). Zaintza, askotariko dimentsio eta harremanak barnebiltzen dituen kontzeptua izaki, garrantzitsua da edozein zaintza praktika demokratikok konplexutasun hori kontuan izatea. Fisher eta Tronto-ren (1990) arabera, gutxienez lau dimentsiok osatzen dute zaintza. Lehengoa, ingelesezko *caring about* edo *bestearekiko arduraz kezkatzea* izango litzateke; dimentsio horrek bestearen ongizateaz eta zaintzaz kezkatzea inplikatzeko du. Bigarrena, *caring for* edo zaintzaren *ardura hartzea*. Hirugarrenak, hots, *care-giving* edo *zaintza emateak*, zaintzaren alderdi praktikoari egiten dio erreferentzia. Laugarrenak, *care-receiving* edo *zaintza hartzeak*, zaintza prozesuan zainduaren beharrak bermatzen diren edo ez adierazten du. Oinarrizko lau dimentsio horiekin batera, Tronto-ren aburuz (2013), errespetua eta konfiantza oinarri izanik, *caring with* edo *zaintza norekin* gauzatzen den erreparatzea, testuinguru ezberdinetako zaintza praktikak demokratizatzeko lehen urratsa da.

Zaintza praktika eta harremanak beti testuinguru konkretuan kokatzen dira, eta testuinguru horien elementu garrantzitsuenetakoak pertsona arteko botere ezberdintasunak dira (Fisher eta Tronto, 1990). Hori dela eta, begien bistakoa da zaintzak auzi demokratikoak azaleratzen dituela. Historikoki, "menpekotzat" eta "ez gai" kontsideratutako subjektu eta herritarrak – haurrak, gaixo eta hauskortasun egoeran dauden pertsonak – gutxiagotuta eta ezberdintasun posizioan kokatu izan dira demokrazia liberaletan (Kittay, 1999). Hala egiten zen emakume eta esklabuekin ere, nahiz eta modernizazioarekin batera, eskubide zibil eta politikoak konkistatuz joan (Pateman, 1988). Pertsonen zaintza eta arretari dagokionez, eskubideei lotutako auzi gehienak zaintzailearen edo subjektu autonomoaren irizpideetan oinarritu izan da, zaintzaile vs. zaindua, menpekotza vs. autonomoaren arteko botere-harremanetan oinarrituta. Menpekotasun-egoerak eta zaintzaren beharrak ez die ahalbidetzen pertsonari eskubidedun herritar osotzat hartu ditzaten, eta ondorioz, zaintzaren beharra giza bizitzaren araua izan ordez, salbuespen egoeratzat hartzen da oraindik orain gure gizarteetan (Fraser eta Gordon, 1994)

Estatu mailan ere hainbat autorek *zaintzaren demokratizazioan* sakontzearen beharraz hitz egiten dute (Comas-d'Argemir, 2019; Ezquerria eta Mansilla, 2018; Tronto, 2013). Demokratizazioak, zaintza sistema eta egituraren oinarrian dauden injustizia eta ezberdintasun sozialei irtenbidea ematea inplikatzeko du demokratizazioak. Balio demokratiko eta berdinezaleetan oinarritutako zaintzaren antolaketarantz abiatzea planteatzen da kontzeptu horren bitartez.

Dagoeneko hainbat ikerlan eta esku-hartze sozialetan zaintzaren demokratizazioa planteatzen da marko teoriko eta proposamen politiko gisa (Emagin Elkartea, 2020; Ezquerria eta Mansilla, 2018). Comas-d'Argemir-ek (2019) bere lanean jasotzen duenari jarraiki, zaintza politikak ikuspegi demokratiko batetik sustatu eta jorrazteko garrantzitsuak dira honako lau ardatzak kontuan izatea.

Zaintzaren garrantziaren aitortza

Lehen ardatza zaintzaren balio sinboliko, soziopolitiko eta ekonomikoa aitortzeari buruzkoa da. Zaintzak ikusezinak dira hainbat arrazoiengatik: familiek modu altruistan eta dohainik burutzen dituztelako; zeharkatzen dituzten afektu eta betebeharrak moralak medio, zaila egiten delako lanbide gisa hartzea; eta, azkenik, emakumeek egunerokoan modu naturalizatuan burutzen dituztelako. Horrenbestez, testuinguru ezberdinetan zaintzak duen garrantzia eta zentralitatea aitortzea, eta zaintzaile zein zainduen eskubideak bermatzea funtsezkoa da zaintzaren demokratizazioan.

Zaintza arduren sozializazioa

Zaintza arduren sozializazioak, familia eta esparru pribatutik harago, beste esparru eta aktore sozialek – erakunde publikoek, komunitateak zein merkatuak – zaintzaren ardura zenbatean hartzen duten aztertzea inplikatzeko du. Zaintzaren ardura maila kolektiboan ulertzen bada, haren kudeaketari eta aktore ezberdinen parte-hartze mailari erreparatzea beharrezkoa da. Politika publikoek zaintzaren sozializazioan daukaten garrantzia nabarmentzen da ardatz honetan.

Gizon eta emakumeen arteko banaketa

Ardatz honetan emakume eta gizonezkoek zaintzaren arduran eta lan-banaketari begira daukaten erantzunkidetasunean eragitearen beharra nabarmentzen da. Nancy Fraser-

en (2008) parekidetasunaren ereduari jarraiki, emakume zein gizonezkoek soldatapeko lanari, zaintza-lanei, komunitate bizitza zein norbere denbora libreari dagokionean harreman orekatuak eta aukera berdintasuna izatea bilatzen da. Hortaz, garrantzitsua da gizonezkoak haurren zaintzan ez ezik, menpekotasun-egoeran dauden pertsona helduen zaintzan gehiago inplikatzeari, eta baita zaintzari lotutako lanbideetan sartzen hastea ere (Comas d'Argemir, 2016). Horrek, historikoki gutxietsitako praktika eta lanbidea duintzen eta ahalduz lagunduko lukeela aipatzen da.

Zainduaren nahi eta eskubideen aitortza

Zaintzaren demokratizazioak zaindua izaten ari denaren posizioa eta eskubideak aitortzea eskatzen du. Horretarako, menpekotasun, zaugarritasun eta zaintza beharrezkoaren izaera unibertsal eta partekatuaren kontzientzia izatea ezinbestekotzat jotzen da. Hau da, guztiok, maila eta intentsitate ezberdinetan bada ere, zaintzak behar ditugula onartzea. Ondorioz, epe-luzeko zaintza politikak gizarteko kolektibo konkretuen premiak asetzerara baino, herritarren eskubide eta behar komunak betetzeko funtzioa daukate, pertsonen erabakitzeko gaitasuna eta autonomia bermatuta. Modu berdintsuan, zaintzeko eta zaindua izateko eskubidea derrigortasunetik bizitzetik, konpromiso izatera pasako litzateke (Comas-d'Argemir, 2019). Gai horren inguruan, aniztasun funtzionala duten kolektiboetatik eratorritako kritika eta lanketak bereziki garrantzitsuak dira (Pié, 2012).

1.3.5. Komunitatearen lekuaz

Ikusi dugunez, familiarekin, merkatuarekin eta estatuarekin batera, zaintzaren antolaketa sozialean edo Razavik (2007) kontzeptualizatutako *zaintzaren diamantean* funtsezko esparrua da komunitatea. Esparru horren ezaugarri eta mugak zeintzuk diren oso argi ez badaude ere, gizarte psikologiatik, pertsonak bizi eta harremantzen diren tokiko testuinguruarekin, lagunarte, bizilagun eta berdinen arteko hartu-emanarekin eta amankomuneko bizitzarekin lotu izan da komunitatea (McMillan eta Chavis, 1986; Sarason, 1974). Zuñiga-Ruiz de Loizagak (2020) emandako definizioaren arabera, “espazio fisiko jakin batean garatzen den parte-hartze prozesuari egiten dio erreferentzia komunitateak, non bertan diharduten pertsona eta taldeek elkarrekotasuna eta pertenezia sentimendua garatzen duten” (209 or.). Komunitateko harreman esparru

horrek, beraz, esparru familiarraz harago, zaintza-harremanak garatzeko eta bizitzaren sostengurako funtzio garrantzitsua betetzen duela esan daiteke (Martínez-Buján, 2019).

Hori hala izanik ere, zaintzari buruzko ikerketa eta eztabaida teorikoan komunitatearen oihartzuna txikia eta ezkutukoa izan da (Esping-Andersen, 1993; Martínez-Buján, 2019). Horren arrazoien artean daude, besteak beste, 80-90eko hamarkadako ikuspegi feministek emakumeek etxean eta zaintzaren eremu “informalean” duten menpekotasuna indartzeko zapalkuntza-mekanismo gisa ikustea komunitatea (Graham, 1997). Baita, 80ko hamarkadako politika neoliberalen eta zaintzaren merkantilizazio-prozesuaren gorakada; horiekin batera, komunitateak zaintza-eragile gisa duen izaera heterogeneo eta lausoak hari buruzko ikerketa zaildu duela aipatu izan da (Martínez-Buján, 2019).

Azken urteetan, estatu espainiarrean hainbat ikertzailek gaiari buruz egindako ekarpenek, edota etxebizitza kolaboratiboen inguruko inizatibek komunitatean garatzen diren harremanek zaintzaren eguneroko kudeaketan duten garrantzia mahaigaineratu izan dute (Mogollón eta Fernández, 2016; Keller Garganté eta Ezquerria Samper, 2021; Moreno-Colom, 2020; Rodríguez-Alonso eta Comas-d’Argemir, 2017). Are gehiago, epe-luzeko zaintzei loturiko babes sozial eta instituzionala mugatua eta ezegonkorra den garaiko testuinguruan. Horrenbestez, zaintza komunitarioa indartzeak bidea zabal dakieke esparru publikoaren eta herritarraren arteko harreman eta zaintzaren antolaketa modu berriei, zainketen dimentsio afektiboari eta kolektiboari helduta (Carrasco, 2014; Martínez-Buján, 2019).

Garaiko krisi eta berregituraketa ekonomikoak ohiko zaintza eta arreta ereduak birplanteatzera garamatzatela mahaigaineratzen dute orain arteko ikerketek, gizarte politiken paradigma aldatzearen planteamenduen bidetik (Vega eta Martínez-Buján, 2017; Zalakain, 2013). Herritarren parte-hartze zuzena eta auto-eraketa sustatzen duten ikuspegiak plazaratzen dute ehun komunitarioaren eta erakunde publikoen arteko lankidetzaren beharra, eta kooperazio sozialari bideak irekiz ohiko eredu publiko-pribatuaren arteko dikotomia lausotuz, logika komun baterantz abiatzearen beharra aipatzen da (Donati, 2014; Federici, 2013; Fumagalli eta Lucarelli, 2015; Vercellone, 2015). Bestalde, auzoetako herritarrek zein erakunde publikoek sustaturiko zaintza ekimen komunitarioak haziz joan dira azken urteetan, eta akademiatik ere horiek

aztertzeko interesa gero eta nabarmenagoa da. Horien artean daude, esaterako, elkarren arteko zaintza bermatzeko sareak, adinekoen bakardade egoerak saihesteko edota zaintzaileen lan-baldintzak duintzeko ekimenak (Hernaniko udala, 2022; Moreno, 2018; Vega, Martínez-Buján eta Paredes-Chauca, 2018). Zaintzaren arloko ekimen komunitario horien susperraldia eta garrantzia gainera, inoiz baino gehiago agerian geratu zen Covid-19aren osasun krisi eta konfinamendu garaian, Euskal Herriko herri eta auzo ezberdinetan zaintza-sareen sorrera ekarrita (Zuñiga-Ruiz de Loizaga, Llorente-Arretxea eta Valero-Alzaga, 2022).

Egitasmo horien balio eta garrantzia da komunitatea zaintza esparru eta eragile gisa aldarrikatzen dutela eta ohiko zaintza esparruen arteko mugak zabaltzea eta indibidualizazioaren kalteak sahiestea dakarrela (Martínez-Buján, 2019). Zaintza-harreman komunitarioen sendotzeak laguntzen du zaintzaren ardura modu kolektibo eta partekatuan ulertzen, jada herri, auzo eta atari askotan aurrez existitu eta praktikatzen diren elkarren arteko babes eta laguntza-sareak balioan jarrita. Esparru horrekiko dagoen interes instituzional, akademiko eta diskurtsiboa gero eta nabariagoa izanik, etorkizuneko zaintza agertokietan komunitatea ezinbesteko eragile soziala izango da gizarte eta testuinguru ezberdinetako zaintzaren antolaketa soziala aztertu eta ebaluatzerako orduan. Hala ere, Martínez-Buján-ek (2019) aipatzen duenarekin bat eginik, komunitatearen agentzia gaitasuna ezin da erabili estatuak gaiarekiko duen ardura gutxitzeko, eta, atzera ere, zaintza ardurak merkatuaren, familiaren eta emakumeen bizkar uzteko. Ikuspegi feminista eta demokratiko batetik, beraz, garrantzitsua izango da komunitateak zaintzaren izaera feminizatua, aitortza eta profesionalizazio eza areagotu ez ditzan mekanismoetan begirada jartzea.

2

Menpekotasuna eta zaintza
irudikapen objektu gisa

2.1. Txanpon beraren bi alde?

Arloko literaturak iradokitzen duenari jarraiki, menpekotasunari eta zaintzari buruzko teoria eta ikerketa ildoek bide propio eta bereizia egin dutela esan daiteke, eta baita horrek maiz bi kontzeptuen arteko talka eta tentsioak azaleratu izan dituela ere (Fine eta Glendinning, 2005). Menpekotasun-egoeraren ezaugarrietako bat eguneroko jarduerak burutzeko kanpo laguntza behar izatea da. Hau da, menpekotasun-egoeran dagoen pertsonak bere ongizatea kudeatzeko behar-beharrezkoa du zaintzaren hornidura. Zaintzaren hornidurak, berriz, menpekotasun beharrei erantzuna ematea du helburu, nahiz eta, eskainitako zaintza motaren arabera, menpekotasun-egoera murriztu ordez, areagotzea ere eragin dezakeen. Horrenbestez, gaitasun fisiko eta kognitiboen galeragatik eratorritako laguntza beharren testuinguruan, zaintza hartzaile eta hornitzaileek harremanean duten posizio kontrajarria dela medio, interes, behar eta ikuspegi guztiz ezberdinak dituztela aipatu ohi izan da literaturan (Fine eta Glendinning, 2005)

Zaintzari balio positiboa eta eraikitzaileagoak esleitzen zaizkion bitartean, menpekotasuna gehienetan zahartzaroari eta autonomiaren galerari lotutako ezaugarri negatibo eta mehatxatzaile gisa ulertzen da (Cerri, 2015; Garrau eta Le Goff, 2010). Gainera, aurrez egindako ikerketek iradokitzen dutenaren arabera, askotariko dimentsio eta alderdiak barnebiltzen dituen fenomeno hori zaintzaileen ikuspegitik landua izan da bereziki, eta ez horrenbeste zaintzaren beharra duten pertsonen ikuspuntutik (Fine eta Glendinning, 2005). Biak ala biak gizarteko posizio zaugarri edo gutxiagotuak badira ere, zaintzaileengan arreta gehiago jarri izanak zerikusia izan dezake zaintza hartzaileak zaintzailearekiko mantentzen duen zaugarritasun egoera, botere eta ahots galerarekin (Ungerson, 1990; Waerness, 1984).

Alabaina, menpekotasuna eta zaintza benetan al dira hain fenomeno ezberdinak? Doktorego-tesi prozesu honetan zehar etengabe kudeatu behar izan da arazo edo gatazka kontzeptual hori. Beharbada, hainbatek iradokitzen dutena aintzat harturik, menpekotasuna eta zaintza baino, bestelako izendapen inklusiboagoak hobetsi eta erabili beharko lirатеke. Izan ere, menpekotasunak zenbait testuingurutan (arlo sozial, politiko, kultural-linguistikoa, afektiboa, psikologikoa etab.) botere-asimetria, burujabetza eta agentzia eza adierazten du (Urteaga, 2011). Zentzu horretan,

interdependentzia edo laguntza terminoak hobestea aukera bat izan liteke, zaintzaile eta zaindu arteko berdintasun-harremanak eta elkarren arteko behar izanak irudikatu eta sustatze aldera (Fine eta Glendinning, 2005). Haatik, hautua eztabaidagarria izan daitekeen arren, izendapen horiek erabiltzearen arrazoen artean dago, azken baten menpekotasuna zein zaintzak txanpon beraren bi alde baino ez dutela irudikatzen, eta batzuek zein besteaz hitz egiteak fenomeno sozial berdintsuaz aritzera garamatzala, interdependentziaren logikan.

Gainera, Europan zein Euskal Herrian epe-luzeko zaintzei begirako ezagutzak eta politika publikoak menpekotasunaren kontzeptuaren bitartez gizarteratu dira, garaiko fenomeno sozial berria objektibatuta (Artiaga, 2015). Menpekotasunaren kontzeptua da gaur gaurkoz esparru soziosanitarioan, politikoan eta akademikoan erabiltzen den terminologia, eta harekiko iruditeri partekatu bezain polemikoa existitzen da gizartean. Ondorioz, jendartean menpekotasuna zein zaintza elkarrekin ulertzen diren kontzeptuak direla esango genuke, bata zein bestea, bizitzaren hasieratik amaieraraino pertsona oro zeharkatzen duten bizi-egoera eta baldintza izanik. Hala ere, horrek ez du esan nahi terminoetako bakoitza modu finko eta zurrunean ulertu behar denik. Aitzitik, bi kontzeptuek barnebiltzen dituzten esanahiak etengabe eraikitzen eta eraldatzen ari dira, gizarte eta testuinguru soziokultural eta erlazional bakoitzean horiei ematen zaien zentzuaren eta definizioaren arabera.

Dagokigun testuinguruan, pertsonen egoera fisiko eta psikologikoak, horiei erantzuteko prestutasun eta baliabideak, edota pertsona eta taldearteko botere-harremanak barnebiltzen dituzten fenomeno sozialak islatzen dituzte menpekotasunak eta zaintzak (Fine eta Glendinning, 2005). Zentzu horretan, fenomenoak dituen inplikazio sozial eta erlazionalak erreparatuta, nekez ukatu daiteke menpekotasuna-zaintza binomioak irudikapen objektu gisa aztertua izateko dituen potentzialitateak. Gainera, gaur egun gaiak esparru publikoan sortzen duen eztabaida, kezka eta gatazka kontuan izanik, etorkizunera begira maila ezberdinetako erronka garrantzitsuak azaleratzen dituen fenomeno "berri" bat azaleratzen da.

Eraldaketa dagoen gizarte batean, menpekotasunak eta zaintzari loturiko beharrak nola kudeatu behar diren, eta horiek merezi duten lekua dago jokoan. Horrek halaberrez eskatzen du gizarte eta komunitate osoaren inplikazioa, guztiok ezbairik

gabe zeharkatzen gaituen problematika izaki. Izan gurasoen, aiton-amonen, lagunen zein bizilagunaren zaintza, izan norberaren momentuko zein epe-luzeko zaintza behar egoera, guztiok bizi dugun eta biziko dugun errealitatea da noizbait zaintzaileak eta zainduak izango garela. Ez dakiguna da noiz, non eta zein baldintzatan tokatuko zaigun egoera horiei aurre egitea. Zentzu horretan, guztiok dugu gaiarekiko zeresana, zer landua eta zer hobetua, pertsona ororen bizitza eta ongizatea aintzat hartuko duen gizarte justuago eta bizigarriagoa bidea egin nahi badugu.

Jarraian datozen ataletan garaiko testuinguruan menpekotasuna eta zaintzari lotutako esanahiaren eraikuntza eta eraldaketa ulertzeko garrantzitsuak jotzen diren kontzeptuetan sakonduko da, fenomenora hurbiltzeko baliabide teoriko eta soziopolitikoak eskainita.

2.2. Menpekotasunaren eraikuntza soziokulturala

Menpekotasunaren esanahiak eztabaidatzen eta aldatzen joan dira historikoki, unean uneko testuinguru soziokulturalaren arabera eta hari erreferentzia egiten dioten askotariko ideiek komunitatean eraikitako ezagutzekin daukate zerikusia. Soziologiatik menpekotasunaren eraikuntza soziala aztertu izan da; ikuspegi politikotik “pasibotasunari” loturik ulertu izan da; eta diskurtso biomedikoan eta politika sozialen arloan, berriz, kontzeptua zentzu positibistan erabiltzen da esku-hartze profesionala eta publikoa neurtu eta bideratzeko (Fine eta Glendinning, 2005).

Durán-ek (2006) diotenari helduz, menpekotasunaren atribuzioa maila psikologikoan, sozialean, medikoan eta administratiboan geureganatzen dugu. Psikologikoki, norberak bere buruarekiko duen pertzepzioaren bitartez; sozialki, heteropertzepzioaren eta inguru sozialeko arau, balio eta irudikapenen bitartez; medikoki, txosten klinikoan adierazten da pertsonaren menpekotasun-maila; azkenik, administrazioaren bitartez pertsonaren menpekotasun-mailaren balorazioa egiten da, politika publikoetatik bideratzen diren zaintza zerbitzu eta prestazioetara sarbidea izan ahal izateko (Durán, 2006). Fraser eta Gordon-ek (1994) menpekotasunaren genealogian iradokitzen dutenaren ildotik, gaur egun menpekotasuna pertsonaren ezaugarri negatiboekin eta arrisku sozial, legal eta ekonomikoarekin lotzeko joera dago. Ondorioz, politika sozial eta fiskalen zeregina menpekotasun-egoera horiek ahalik eta gehien murriztea izaten da.

Soziologiatik Sennet-ek (2000) dioden moduan, menpekotasunaren ideia liberalak bi aurpegi ditu, bata publikoa, eta bestea pribatua. Maila publikoan edo kanpora begira, bestearen beharrak aitortzeak ezinbestekoa eta duina dirudi. Aldiz, maila pribatuan, pertsonak lotsarazten eta estigmatizatzen ditu, norbere burua kudeatzeko gaitasun ezarekin, besteez baliatzearekin edo “bizkarroikeriarekin”, gutxiagotasun eta erruduntasun sentimenduekin lotzen baita. Horren arabera, pentsamendu liberalean menpekotasun harremani kolektiboki eta politikoki ez heltzearen arrazoiak oinarrian daude aipatutako ikuspegiak (Sennet, 2000; Tronto, 2013).

Gure gaiari dagokionez, kontzeptuari buruzko konnotazio negatibo eta estigmatizatzaileak populazioaren zahartzearen testuinguruko eztabaida demografiko eta soziopolitikoetan nabarmen areagotu direla esan daiteke (Caradec, 2010; Garrau eta Le Goff, 2010). Ikuspegi horretatik, menpekotasuna linealki lotzen da zahartzaroarekin eta aniztasun funtzionalarekin, eta definizioaren eraikuntzak berak pertsona eta talde sozial konkretuak kategorizatzen jotzen duela salatu izan da literaturan (Cerri, 2015). Hortaz, kategorizazio horrek normatiboak – osasuntsuak, “gai” direnak, independenteak, gazteak etab. – ez diren gorputzekiko irudi defizitario eta negatiboa indartzen duela esan genezake (Ferreira, 2010). Lotura eta harreman sozial moduan ulertu ordez, autonomia funtzionalaren galerara, adineko pertsonen populaziora eta zaintza behar handiak dituzten pertsonen egoeretara mugatzen da menpekotasunaren definizio hegemonikoa (Garrau eta Le Goff, 2010). Alabaina, ikuspegi positibista eta “errealistez” harago, sozialki eraikitako kategoria batez ari garen heinean, menpekotasunaren definizio eta esanahia eztabaidagarriak dira. Ondorioz, ankerra litzateke hari buruzko ikuspegi hertsia izatea (Martín-Palomo, 2016).

2.2.1. Diskurtso biomedikotik soziopolitikora

Epe-luzeko zaintzari buruzko politika publikoei buruzko atalean (1.2. atala) azaldu bezala, autonomia pertsonala sustatzeari eta menpetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak (EAO, 2006) epe-luzeko zaintzari lotutako politika publikoak aurrera eramateko oinarri eta baldintzak arautzen ditu. Legearen arabera, zera litzateke menpekotasuna:

“Adin, gaixotasun edo ezintasunen bat dela medio, pertsona batzuek modu iraunkorrean bizi duten egoera; edota autonomia fisiko, mental, intelektual edo

sentsorialaren gabezia edo galeragatik beste pertsona baten edo batzuen arreta behar dutenak eguneroko bizitzako oinarrizko ekintzak aurrera eraman ahal izateko”.

Menpekotasunaren inguruan jasotako definizio horrek 1998an Europar Kontseiluak emandako gomendioak jarraitzen ditu (Libro Blanco, 2004). Epe-luzeko zaintza beharretan esku-hartzea gauzatzeko marko normatibo eta bateratua eskaintzen du, gizarte zerbitzuetatik menpekotasun eta zaintza beharrak artatzeko prozedura eta onuradunen profilak zehaztearekin batera. Zehatz mehatz, legean jasotzen den definizio hori ondorengo ezaugarrietan oinarritzen da menpekotasuna zer den erabakitzeko:

- 1- Pertsonaren gaitasun jakin batzuk murrizten dituzten muga fisiko, psikiko edo intelektualak izatea.
- 2- Norbere zaintza eta ongizatea kudeatzeko eguneroko jarduerak aurrera eramateko zailtasunak izatea.
- 3- Hirugarren pertsona baten laguntzaren beharra izatea egunerokoan.

Hainbatek kritikatu izan dutenarekin bat eginik, menpekotasunaren kontzepzio mugatu eta hertsia bat jasotzen du hari buruzko definizioak, izan ere, maila eta intentsitate ezberdinetan bada ere, nork ez du behar gainerako pertsonen laguntza eta babesa eguneroko bizitza sostengatzeko? Guztiok daukagu elkarren beharra eta ez gara uste dugun bezain buru askeak. Kasu gehienetan, gainontzekoen – familia, lagun, bizilagun, lankide etab. – babes, ardura eta lanaren laguntzaz asetzen ditugu gure behar fisiko, emozional, sozial zein ekonomikoak. Ekintza eta erabaki gaitasuna mugatuta dagoen garaietan argi eta garbi agertzen bada ere, bizitza osoan zehar modu aldakorrean eta maila ezberdinean oinarrizkoa dugu zaintza (Paperman eta Laugier, 2005). Hortaz, menpekotasuna modu horretan ulertzeak, intentsitate handiko zaintza beharrak dituztenen identitatea eta agentzia autonomiaren galeratik eta gabeziatik eraikitze arriskua areagotu lezake; baita, bizitzari loturiko menpekotasun eta zaugarritasun-egoerak soilik arazo moduan planteatzea ere (Cerri, 2015; Garrau eta Le Goff, 2010). Zahartzaroarekin eta bizitzaren amaiera biologikoarekin batera gainbehera fisiko eta psikologiko nabarmena ematen dela onartuta ere, prozesu hori ezberdina izaten da pertsona batetik bestera. Gainera, beste menpekotasun mota batzuk ezkutatzeko arriskua areagotzen da, esaterako, menpekotasun emozionala, morala, ekonomikoa

etab. (Cerri, 2015). Hala deskribatzen dute *bizitza independenterako* foroko kideek gizartean gailentzen den menpekotasunaren kontzepzioa:

“...menpekotasun-egoerak oso gutxietsita daude gizartean; alde horretatik, inork ez du pentsatzen denok noizbait haurrak izan garenik eta menpekotasun-egoeran bizi izanik, familia izan dela behar horiei asetzeko konponbide naturala; haurtzaroaz geroztik, parentesi bat gertatzen dela esan dezakegu, eta berriro ere, zahartzaroan bizitzen ditugula menpekotasun-egoerak. Gizartean boterea duen jendea parentesi horretan kokatzen da, eta ahaztu egiten dute iraganean menpeko izan direla, eta etorkizunean ere hala izango direla. Gizarte politikatik, legeak idazten dituzten pertsonen egoera hauek biziko ez balituzte bezala tratatzen da gaia. Hori sistematikoa da ikuspuntu politiko zein ideologikotik. Hau da, badirudi menpekotasunari loturiko politikak beti besteentzat direla, non beti eraikitzen baitira beste horientzako konponbideak.”
(Planella, Moyano eta Pié, 2020, 280 or.).

Harremanaren beste aldean ere, zaintza praktikek sendabide medikoa bilatzeaz baino, pertsonaren ongizate fisiko, emozional eta soziala bermatzea helburu dutela kontsideratzea garrantzitsua da esparru horretan gailentzen den diskurtso eta ikuspegi biomedikoak gainditzeko. Zaintza beharra duen pertsona gaixorik egon badaiteke ere, ez da pertsona gaixo bat eta zaintza zerbitzuen funtzioa ez da sendatzea. Modu berdintsuan, egoitzak ez dira osasun zentroak, pertsonen beraien egunerokoa ahalik eta duinen eta ongizatez garatu ahal izateko baliabideak baizik.

Kontzepzio biomediko horrek autonomiaren kontzeptua bera ere lotura eta harreman sozial guztietatik aske dagoen ideologiara mugatzen du (Agich, 2007; Eichner, 2005). Aniztasun funtzionala duten pertsonen kolektiboek gaiaren inguruan egindako kritika eta ekarpenak garrantzitsuak izan dira norbere autonomia eta independentziaren gaineko kontzepzioa balioan jartzeko. Horien arabera, autonomia eta independentzia bermatzeko, norberak bere kabuz eta kanpo laguntza gabe egin dezakeen guztian arreta jarri baino, nor bere bizitza kudeatzeko eta eskubideen gainean erabakitze gaitasun eta baldintza sozialei erreparatu behar zaie (Castillo, Guzman eta Martín, 2010; Fine eta Glendinning, 2005). Zentzu horretan, batzuek, autonomia pertsonalaz baino, *harreman bidezko autonomiaz* hitz egitea planteatu izan dute (Mackenzie eta Stoljar, 2000). Bere

sorrera ahalbidetzen duen testuinguru, baldintza eta harreman sozialak barneratuz, autonomia ulertzeko proposamena egiten da, aurrez aipatutako autonomiaren kontzeptu indibidualista eta liberala saihesteko. Ondorioz, ikuspegi horretatik menpekotasuna eta zaintza ez lirateke kontzeptu antagoniko eta gatazkatsuak, elkarren artean osagarriak eta bata bestearen baldintza baizik (Gil, 2011; Fine eta Glendinning, 2005).

Egun zahartzaroari eta menpekotasunari loturiko politika publikoetan eta esku-hartze sozialaren eremuetan paradigma psikosoziala eta komunitarioari garrantzia ematen zaio (Karagkounis, 2019; Kumar, 2020). Pertsonen inklusio eta parte-hartze soziala bultzatzearekin bat, harreman sozialek norbere autonomiaren sustapenean duten garrantzia maiz nabarmentzen da ikuspegi eta zeregin profesionalean. Hala ere, hori horrela izanagatik ere, garrantzitsua da Cerri-k (2015) planteatzen duen kezka eta galderak hemen planteatzea. Hau da, politika sozialen eta esku-hartzeen oinarrian harreman sozialek daukaten garrantzia funtsezkoak dela kontsideratzen bada, eta ongizatea beti erlazionala dela onartzen bada, zein mesede egiten du behin eta berriz autonomia pertsonalaren diskurtso indibidualista horrek? Praktikan hori bilatzen ez dutela badirudi ere, egun ahoz aho dagoen zaintzaren pertsonalizazioaz eta “pertsona ardaztutako” arreta ereduez hitz egiteak, adibidez, ez al du pertsonak inguru familiarrarekin, komunitarioarekin, erakundearekin eta zainzaileekin dituzten harremanen inplikazioak, semantikoki eta sinbolikoki behintzat, ezkutuan eta itzaletan uzten?

Garbi dagoena da garrantzitsua dela gaia ikuspegi biomediko eta murriztaile batetik espazio soziopolitikora eramateko, gizarteak menpekotasuna eta zaintza binomioa pertsona ororen ezaugarri eta noizbait biziko duen egoera bezala irudikatzea. Hau da, “menpeko pertsonak” izan ditzaketen beharrei erantzutea ez dela talde sozial jakin batzuen beharrei erantzuteko interes partikularra, baizik eta auzi publiko eta amankomuna dela (MacIntyre, 2001; Martín-Palomo, 2016). Hori gauzatu dadin, Butler-ek (2006) zaugarritasunaren unibertsaltasuna eta etikaren kontzientzia hartzearen garrantzia azpimarratzen du, elkarren arteko zaintza sareak eta ikuspegi etikoak garatu ahal izateko. Era berean, gure izate hauskorra onartu eta aitortzearen beharra aldarrikatuz. Horrekin lotuta, zaintzaren etikari buruzko proposamen teorikoek teoria

sozial eta moral hegemonikoek egiten dutena baino modu errealistagoan onartzen dute menpekotasuna eta zaugarritasuna giza izaerari dagozkion ezaugarriak direla (Paperman, 2004; Tronto, 2013). Hartara, menpekotasuna eta zaugarritasuna pertsona guztiak berdintzen gaituzten ezaugarri gisa kontzeptualizatzen dira, logika utilitarista eta merkantilaz harago, amankomuneko bizitza eta elkarrekikotasuna garatu dadin funtsezko baldintza gisa (Legarreta, 2014; Paperman, 2011). Aldi berean, etxeko lanek eta bizitzaren iraunkortasunerako zainketek daukaten garrantzia erdigunean eta merkatuko ekonomia produktibista nagusiak zalantzan jartzen dira (Benería, 2005; Carrasco, 1991; Pérez-Orozco, 2006).

2.3. Zaintzaren etikaren ekarpenak

Zaintzaren etika edo *care* teoriak psikologia moralaren ezagutza esparruan garatu izan dira (Gilligan, 1985; Paperman eta Laugier, 2005). Proposamen teoriko horren jatorria 70 eta 80ko hamarkadetako korrante feminista anglosaxoietan kokatzen da, eta bereziki Carol Gilligan-ek (1985) "Beste ahots batean" lana argitaratzearekin bat eman zen zaintzaren etikaren ikuspegiaren susperraldi akademikoa. Ikuspegi horretatik, ordura arte Koelhergek (1981) eta tradizio Kantiarreko beste pentsalari batzuek garatutako balio moral "unibertsalak" zalantzan jartzen hasten dira, horiek emakumeen bizi-esperientziak aintzat hartzen ez dituztela kritikatu. Gilligan-ek (1982) Koelherge-ren moralitateak arrazoian oinarritutako legeak, eskubide formalak eta balioak gizonezkoek historikoki eraikitako botere-posizioari erantzuten diola mahaigaineratzen du, eta horrek ez duela bat egiten emakumeek izandako sozializazio prozesu eta balioekin. Koelherge-ren justiziaren etika baino, emakumeek zaintzaren etika garatzen dutela proposatzen du Gilligan-ek.

Zaintzaren etika horrek argudiatzen du emakumeek besteei begirako ardua eta gaitasun emozionalak garatu dituztela; balioan jartzen ditu gaitasun eta ezagutza horiek eta pertsonaren eraikuntza moralean duten garrantzia aitortzen du (Gilligan, 1985). Arau eta eskubide formalak jarraitu ordez, kontzeptu moralak erantzukizun eta harreman sozialei loturikoak direla nabarmentzen da. Hortaz, zaintzaren etikak eguneroko harreman, egoera eta testuinguru konkretuetan jartzen du begirada, ez justiziaren etikak jorratzen dituen abstrakzio, formaltasun eta printzipio unibertsaletan. Ikuspegi horretatik, beraz, zaintzaren ezaugarri eta izaera kokatua kontsideratzen da,

“beste” konkretuaren ikuspuntu eta beharrekin loturan (Benhabib eta Cornella, 1990). Norabide berdintsuan, Waerness-ek (1984) zaintza-lanak gainerako lanetatik bereizten direla aipatzen du, hain zuzen ere, zaintzaile eta zainduaren artean eraikitzen den harreman konkretu eta ez-abstraktuengatik, eguneroko esperientzia eta praktikaren bitartez jasotzen diren gaitasun eta ezagutzak izaki (Himmelweit, 1995). Bizipen eta testuinguru konkretuei lotutako fenomeno horrek Gilligan-ek (1982) teorizatutako *beste ahotsa* irudikatzen du, zaintzaren etika irudikatzen duen ahotsa, alegia. Etika hori, testuinguru patriarkal batean, etika femeninoa baino ezin da izan; testuinguru demokratiko batean, aldiz, zaintzaren lekua eta banaketa zalantzan jartzen duen giza etika beharko luke izan (Gilligan, 1982; Tronto, 2013).

Bestalde, aipatu beharra dago ez direla gutxi izan Gilligan-ek (1985) hasieran garatutako zaintzaren etikaren teoria kritikatu izan dituzten ikuspegi eta korrante feministak. Horien artean, zaintzaren etikak emakume izateko modu esentzialista irudikatzen duela kritikatzeko da, eta, ondorioz, ez dituela emakumezko eta gizonezkoen arteko botere harreman eta egiturazko ezberdintasun sozialak zalantzan jartzen (Kittay, 1999). Beste ikerlari batzuek ere Gilligan-ek egindako kasuen azterketak estatistikoki adierazgarriak ez izatea leporatu izan diote, faktore biologikoez gain, klase sozialari lotutako aldagaiak ere kontuan hartu ez izanaren ondorioz. Ikuspegi eta gogoeta kritikoez, feminitatearen, afektuen eta bestearekiko prestutasunaren erromantizaziotik eratorritako genero rolen naturalizazioan erortzeko arriskua ikusten dute zaintzaren etikan; hori emakumeentzako etika askatzailea izan ordez, etika erreazionario bilakatu daitekeela salatzen da (Carrasquer, 2013; Pérez-Orozco, 2014).

Zaintzaren etika modu esentzialistan goraiapatzeak dituen arriskuen jakitun izanik, eta egin izan zaizkion kritikak ulertuta ere, zaintzaren etikak hasieratik egiten duen ekarpen garrantzitsuenetako bat autonomiaren ikusmolde hegemoniko liberalarekin haustearena da, menpekotasuna, zaurgarritasuna eta harreman sozialak ulertzeko beste era bat proposatzen duen aldetik (Noddings, 1984; Rudick, 1989). Aurrez aipatu bezala, ikuspegi horrek bizitza politiko eta moralean gailentzen den Kant-en autonomiaren eta askatasun indibidualaren printzipioa deuseztatzen du, herritartasuna eta ekintza politikoa birpentsatzeko ikuspegi erlazionala bultzatuz (Eichner, 2005; Martín-Palomo, 2016). Gilligan-ek (1982) gizartean gailentzen den teoria morala patriarkala dela

aipatzen du, esparru publikoan (pribatuan ez bezala) gizarte lotura eta harremanengandik bereizitako identitatea edo “nia” goraiatzen duen heinean. Era berean, gizonezko langilearen autonomia osoaren edo *perretxiko-langilearen* mitoa deuseztatzen da, pertsona orok bizitzeko eta modu ustez autonomoan funtzionatzeko, oinarrian eta modu ezkutuan dituen zaintza sareak azaleratuz (Pérez-Orozco, 2014). Mito horrek, zaintza behar eta erantzukizunik gabe, egunero merkatuarentzat eskuragarri dagoen gizabanakoaren fantasia kulturala zalantzan jartzen du, izan ere, gizartean aski hedatua dagoen logika horretatik nekez aitortu daitezke zaintza-lanek eguneroko bizitzan duten garrantzia eta ezinbestekotasuna.

Aldiz, besteen zaintza eta babesaren beharra duen subjektuaren logika abiapuntu gisa hartzen bada, menpekotasunari eta zaintzaren demokratizazioari buruzko eztabaidetan murgiltzea ahalbidetzen da (Brugère, 2020; Tronto, 2013). Zentzu horretan, zaintzaren etikaren logikaren baitan, menpekotasuna ez da elkarmenpekotasunaren kontrako aldea; menpekotasunaren kontrako aldea edo esanahia antagonikoa isolamendua litzakete, hots, pertsona egiten gaituen menpekotasun-harreman eta sareetatik isolatua dagoen izaki bakartia (Izquierdo, 2003). Ideia horrekin amaitzeko, eta Tronto-k (1987) azpimarratzen duenari helduta, zaintzaren etika horretan, kultura anglosaxoi liberaletan planteatutako pertsonaren eraikuntza kultural indibidualista partekatzen ez duten bestelako ikuspegi eta subjektibitate kultural batzuek ere lekua izango lukete (Markus eta Kitayama, 1991; Kagitçibasi, 2007). Zentzu horretan, Asian eta komunitate afro-amerikarretan esaterako, “nia”-ren kontzepzio indibidualistari kontrajarriz, subjektibitate erlazionala eraikitzen dutela erakusten dute antropologian zein gizarte psikologian egindako ikerketa ezberdinek (Nobles, 1976; Rothbaum eta Trommsdorf, 2007).

Esan dugunez, zaintza beti pertsona arteko harremanean gauzatzen da eta bestearenganako ardura eta konpromisoa izatea eskatzen duen aldetik, agente eta subjektu moralaren arteko harremanak batzen ditu (Noddings, 1984). Kasu gehienetan zaintza beharra menpekotasun-egoera areagotzen denean azaleratzen bada ere, ikuspegi diakroniko batetik, zaintza pertsona guztiek bizi osoan zehar behar duten zerbait dela mahaigaineratzen da (Dammame, 2011; Paperman eta Laugier, 2005; Legarreta, 2008). Ikuspegi horrek zaintzaren inguruan pertsonak hartzen dituzten

erabaki eta estrategiak beste esparru batean kokatzen ditu. Izan ere, zaintza ez litzateke “menpeko” pertsonarenganako aldebakarreko laguntza paternalista moduan artikulatuko. Horren ordez, zaintza behar duenaren indibidualizazioan eta bizitza proiektuan babesa emateko baliabide indartsua litzateke. Hortaz, zaintzaren ideia noranzko bakarrean ulertu beharrean, hau da, zaintza ematen duenaren eta zaintza hartzen duenaren logikan, denboraren politiken inguruan garatutako Italiako lege proposamen batek, esaterako, zaintza aldebikotasunetik eta elkarrenganako hartu-emanetik ulertzeko ideia plazaratu zuen (Legarreta, 2014). Hala, zaintzaile “autonomo” eta zaindu “menpekoaren” arteko harreman asimetrikoa hausten da, zaintza eta menpekotasunaren inguruan garatzen diren interakzio eta arreta moduak interdependentziaren logikan kokatuz, eta menpekotasunaren konnotazio positiboagoak sustatzea ahalbidetuz (Fine eta Glendinning, 2005; Garrau eta Le Goff, 2010; López-Gil, 2013)

Bukatzeko, menpekotasunari eta zaintzari buruzko kontzeptualizazio eta eztabaida teoriko horiek jorrateak berebiziko garrantzia hartzen dute tesi honetan garatutako analisi eta hausnarketetan. Alde batetik, menpekotasunaren eta epe-luzeko zaintzaren esanahiak gizartean zein etikatik eta ikuspegitatik eraikitzen diren ulertzeko gakoak ematen dizkigu; beste aldetik, horiek egungo zaintzaren antolaketan eta harremanetan daukaten inplikazioaz gogoeta egiteko aukera eskaintzen digu. Gainera, eztabaida horiek garrantzia berezia hartzen dute zaintzaren antolaketa soziala ezbaian eta eraldaketan dagoen garaian. Baita, komunitatearen, hurbiltasun eta afektuzko harremanen, demokratizazioaren edota arretaren pertsonalizazioaren aldeko diskurtsoak indarra hartzen ari diren honetan ere. Hau da, kolektibitateak eta parte-hartze publiko-komunitarioak zaintzaren kudeaketan duten garrantzia nabarmentzen duten diskurtsoetan. Ildo horretan, interdependentziaren printzipioari jarraiki, interesgarria litzateke aztertzea pertsonaren kontzepzio indibidualista eta liberalean oinarritutako herritartasun eredua elkar-zaintzan eta kolektibitatean oinarritutako eredu baterantz zein mailatan aldatu den. Tronto-ren (2013) pentsamendu politikoa geure eginez, zaintzak prozesu indibiduala eta publikoa beharko luke izan, eta beharrak identifikatu eta ardurak banatzean oinarritu beharko litzateke; hau da, mundu guztiak izan behar luke aldiberean zaindua izateko eskubidea eta zaintzeko betebeharra.

3

Marko teorikoa:

Irudikapen sozialen teoria

3.1. Ezagutza sozialari buruzko teoria bat

Tesi honetan, menpekotasunaren eta epe-luzeko zaintzaren inguruan dauden esanahiak, kontzeptualizazioak eta eztabaidak jorrazteko, irudikapen sozialen teoria baliatzen da. Hurbilpen horrek, egungo gizarte konplexuetan, ertz askotatik begiratuta, garrantzitsu eta eztabaidagarri den fenomeno sozial “berria” aztertzea ahalbidetzen du, jendeak gaiaren inguruan dituen ideia eta pentsamoldeetan arakatzeko aukera emanaz. Zentzu horretan, ezagutza sozialaren azterketa oinarri duen teoria honetatik abiatuz, jendeak menpekotasuna eta epe-luzeko zaintzaren esanahiak egunerokoan nola ulertu eta barneratzen diren ezagutzea bilatzen da.

Irudikapen sozialen teoriaren sorrera Serge Moscovici frantziar psikologoari zor diogu (Moscovici, 1961, 1984, 1988). “La Psychanalyse, son Image et son Public” izenburua daraman doktorego tesian Moscovicik (1961/2007) berak, frantziar gizartean psikoanalisiari buruzko ezagutzak komunikabideen bitartez nola hedatzen ziren aztertu zituen, hasiera batean ezagutza zientifiko eta adituak zirenak eguneroko pentsamenduan nola birdefinitu eta eraldatzen ziren ulertzeko teoria aurkeztuz. Irudikapen sozialen teoriak, besteak beste, Durkheim-en (1898) irudikapen kolektiboaren kontzeptualizazioa, Lévi-Bruhl-en (1910/1985) ezagutzaren logika, Piaget-en (1929) irudikapen pentsamenduaren garapena edota Freud-en (1908) inkontzientearen teoria dauzka abiapuntu teoriko gisa (Jovchelovitch, 2007). Horrenbestez, Soziologia, Psikologia, Antropologia edota Historiaren jakintza arloen bidegurutzean kokatzen den teoria bezala aurkezten da, hau da, pertsona eta taldeak bere inguru soziohistoriko, kultural eta ideologikoaren baitan ulertzeko marko teoriko gisa (Moscovici, 1984; Moscovici eta Marková, 1998).

Bere hastapenetatik, eta gerora ere beste hainbat pentsalari eta eskolen garapen mamitsuari esker, fenomeno eta prozesu psikologikoak, testuinguru soziokultural eta historikoaren baitan txertatuta ulertzeko ikuspegia ematen du irudikapen sozialen teoriak (Wagner et al., 2000). Modu horretan, gizarte psikologian gaur egun akademian gailentzen den teoria eta ikuspegi psikologiko murrizta gaintitzea bilatu izan da, subjektua (*self*) eta objektua (*bestea*) funtzionalki bereizten dituzten epistemologia eta metodologia indibidualistetatik aldentuta (Farr, 1996). Ikuspegi soziokognitibo hegemonikoarekin alderatuz, fenomeno eta objektu sozialak, interakzio eta

komunikazio prozesu dinamikoen baitan eraikiak direla argudiatzen du irudikapen sozialen teoriak.

Irudikapen sozialen teoria, fenomeno ezberdinei buruzko ezagutza sozialaren eraikuntza eta eraldaketa jorratzen dituen aldetik, ezagutza sozialari buruzko teoria kontsideratzen da (Jovchelovitch, 2007). Alabaina, ezagutzaz eta irudikapenez hitz egiterako orduan, komeni da bi kontzeptu horien ezberdintasun eta berezitasunak argitzea. Ezagutza sozialak edozein ezagutza sistema edo moduei egiten die erreferentzia, esaterako, erlijiotik, mito, tradizio zein zientziatik eratorritako ezagutzak. Aldiz, irudikapen sozialen teoriak, irudikapen sozialetan jartzen du fokua bereziki, hau da, eguneroko bizitzatik eta ezagutza komunaren bitartez sortutako ezagutzaren azterketan. Irudikapen sozialen teoria “eguneroko bizitzaren fenomenologia” gisa ulertu daiteke (Jovchelovitch, 2007). Izan ere, teoria horren bitartez, egunerokoan pertsona eta taldearteko interakzio eta komunikazioen bidez sortutako ezagutzak jartzen dira erdigunean.

3.2. Zer dira irudikapen sozialak?

Irudikapen Sozialak testuinguru sozial eta kulturalean hedatutako ideia, balio eta ezagutza moduak dira (Jovchelovitch, 2007). Horien bitartez, norbanakoez eta talde sozialez eguneroko errealitatea ulertu eta interpretatu ahal izateko, zentzu komuna eraikitzen dute. Irudikapen sozialek inguratzen gaituena ulertzea ahalbidetu, ezagutza berriei zentzua eman eta horiei sormenez erantzuteko baliabide kognitiboak ematen dituzte (Jodelet, 1984). Emandako askotariko definizioen artean, horrela definitu izan da zehazki irudikapen soziala:

“...funtzio bikoitza duen balio, ideia, eta praktika sistema. Batetik, gizabanakoa bizi den mundu material eta sozialean orientatu eta ekitea ahalbidetzen du. Bestetik, komunitateko partaideen arteko komunikazioa eta elkar trukea ahalbidetzen du, norbere munduan eta historia indibidual zein taldean arrotzak diren alderdiak izendatzeko eta sailkatzeko kodeak eskainiz” (Moscovici, 1973, 13 or.).

Moscovici-ren kontzeptualizazioan oinarrituz, eta gerora Jovchelovitch-ek (2007) emandako definizioari helduz, irudikapen sozialek integrazio sozialerako funtzioak betetzen dituzte, eta bizi-munduaren egiturarekin guztiz lotuta daude. Hau da, subjektu

sozialen artean konfiantzazko harremanak izatea ahalbidetzen duten ezagutza eta ohitura multzoei lotuta daude. Irudikapen sozialak jada “jakintzat” ematen diren ezagutzak ulertzeko eta komunikatzeko modu espezifikoak dira, eta horregatik, errealitate sozialaren eta zentzu komunaren sorburu kontsideratzen dira (Berger eta Luckman, 1966; Moscovici, 1984).

3.2.1. Ego (*self*) – Alter (*bestea*) – Objektu hiruki semiotikoa

Irudikapen sozialak Ego (*self*) – Alter (*bestea*) – Objektuaren arteko harremanen oinarrian sortu eta garatzen dira. Teoriaren hastapenetatik, Moscovici-k eta haren jarraitzaileek, ezagutzaren eraikuntza eta eraldaketa prozesuak hiru elementu horien arteko harreman interdependenteen bitartez ematen direla berretsi izan dute (Bauer eta Gaskell, 1999; Moscovici, 1984; Jovchelovitch, 2007). Zentzu horretan, *Ego – Alter – Objektua* hiruki semiotikoa, irudikapen sozialen izaera dialogiko, erlazional eta aldakorra ulertzeko funtsezko kontzeptua da (Marková, 2003).


Alde batetik, Ego-ak, objektua irudikatzen duen subjektu edo pertsonari egiten dio erreferentzia. Ego-ak, interakzio eta testuinguru sozial ezberdinetan kokatzen den heinean, objektuari buruz askotariko irudikapenak eraiki ditzake. Bestetik, Alter-ak irudikapenaren alderdi interakzionala islatzen du. Hau da, irudikapen soziala zeren edo norekiko harremanean sortzen den zehazten du. Alter-a ere askotariko dimentsioez osaturik dago, esaterako, nazioa, erakunde bat, komunitatea, talde edo pertsona konkretu bat izan daiteke. Irudikapen soziala beraz, Ego-ak Alter-arekin duen harremanean eraikitzen da. Azkenik, Objektuak, irudikatutako objektu edo fenomenoari egiten dio erreferentzia, eta irudikapen sozialaren muina da. Hortaz, irudikapen sozialen eraikuntza, maila dialogiko eta erlazionalean ulertu beharra dago, hau da, Ego-Alter-Objektuaren arteko elkarrekintza eta komunikazio prozesuen baitan.

Marková-ren (2003) arabera, Moscovici-k beti nabarmendu izan du tentsioa dela irudikapen sozialen aldaketarako motorra. Hori dela eta, Ego-Alter-Objektuaren arteko harremanak tentsioan gauzatzen direla esan daiteke, eta horrek ezaugarritzen duela ezagutza sozialaren dinamikotasun eta aldakortasuna (Marková, 2003). Bestalde, subjektuak (ego) beste subjektu batzuekin (alter) eta objektu-munduarekin lotzen dituen komunikazio eta ekintzaren bitartez egituratzen da irudikapen soziala (Jovchelovitch, 2007). Habermas-en (1991) komunikazioaren teoriari helduz, irudikapen

sozialak komunikazio ekintza direla kontsideratzen dira; alegia, ekintza komunikatiboaren bitartez sortu eta eraldatzen dira. Kasu honetan, ekintza komunikatiboa maila diskurtsiboan (hizkuntzaren bitartez), eguneroko praktiken, askotariko erakunde eta gizarte egituren bitartez adierazten da (Habermas, 1991; Jovchelovitch, 2007).


Orain arte Ego-Alter-Objektu hiruki semiotikoari buruz azaldutakoak, bisualki azaldu izan dituzte hainbat autorek. Oinarrizko hiruki harremana Moscovici-k (1984) berak irudikatu zuen. Gerora, Jovchelovitch-ek (2007) edota Bauer eta Gaskell-ek (1999) eredu hau garatu zuten, irudikapen prozesuan ekintza komunikatiboa eta denboraren dimentsioa (iragana eta etorkizuna) txertatuta. Autore horiek egindako ekarpenari esker, irudikapen sozialen oinarrizko kategoriak modu globalago batean ulertzea ahalbidetzen da, hau da, *Ego-Alter-Objektua-komunikazio ekintza-denbora testuingurua* kontuan izanik.

2. Irudia: Moscovici-ren (1984) hiruki semiotikoa




Iturria: Jovchelovitch (2007)

3. Irudia: Jovchelovitch-en (2007) hiruki semiotikoa



Iturria: Jovchelovitch (2007)

4. Irudia: Bauer eta Gaskell-en (1999) hiruki semiotikoa



Iturria: Bauer eta Gaskell (1999)

Ego – Alter – Objektuaren arteko dinamikak azaleratzeak, fenomeno sozial ororen oinarrian interakzioa dagoela ulertzea garamatza, eta baita, irudikapena osatzen duten elementuan elkarren arteko eraginean eta harremanean ulertzea ere. Ondorioz, irudikapen sozialak, tentsio eta kontraesanetik salbu ez dauden hiruko harreman honen emaitza direla esan ohi da (Marková, 2003; Moscovici, 1984). Gainera, aurrerago alderdi epistemologikoetan sakonduko denaren aurrerapen gisa, irudikapen sozialen garapena *bestea*-rekiko interakzioan eta testuinguruarekiko loturan ulertzeak, ezagutzaren izaera monologiko eta cartesiarrarekin haustea dakar. Gizabanakoa izaki “independente” gisa eta harreman eta testuinguru sozialetik at bereizita ulertzen duen ikuspegiaren aurka, pertsonaren eta fenomeno sozialen eraikuntza inguruarekiko loturan eta harremanean garatzen dela azpimarratzen da (Jovchelovitch, 2007). Horrenbestez, Ego – Alter – Objektu hirukia, garatzen den lurralde eta testuinguru historiko, kultural eta soziopolitikoaren baitan ulertzea ere ezinbestekoa da; esan bezala, irudikapen sozial oro, interakzio eta testuinguru konkretuen baitan eratzen baita (Marková, 2008).

3.3. Irudikapen sozialen izaera dialogikoa

Irudikapen sozialen teorian, tradizio teoriko eta epistemologiko ezberdinetatik heldu izan zaio irudikapen sozialen ikerkuntza enpirikoari. Horien artean bereziki entzutetsuak dira Moscovici-ren (1984) hurbilketa soziogenetikoa, Abric-en (1994, 2001) egiturazko hurbilketa, Doisen (1990) hurbilketa soziodinamikoa eta Marková-ren (2003) hurbilketa dialogikoa. Tesi honetako ikuspegia azken korrante teoriko eta epistemologiko honekin lerrokatzen da. Ondorengo atalean irudikapen sozialen hurbilketa dialogikoaren nondik norakoak azalduko dira.

3.3.1. *Bestea* norbere baitan

Irudikapen sozialen teoriaren hurbilketa dialogikoaren garapena bereziki Marková-ri (2000, 2003) zor zaio. Hark hainbat iturrietara joz garatu zuen bere teoria; hainbaten artean, erreferente nagusi dira Simmel (1950), Baldwin (1895), Vygotsky (1978), Mead-en (1934/1967) eta Bakhtín-en (1981, 1984) interakzioari buruzko teoriak egindako ekarpenak. Marková-ren (1982) arabera, jendeak errealitate sozialarekiko ikuspegia monologikoki edo dialogikoki eraikitzen du. Ikuspegi monologikoak, norbanakoaren kognizio eta portaerak soilik hartzen ditu kontuan, norbanakoa besteekiko interakzioan eta testuinguru soziokulturalean integratutako pertsona gisa ulertu ordez (Linell, 2009).

Dialogikotasuna, aldiz, ikuspegi honen alternatiba gisa garatzen da, errealitate soziala besteekiko interakzioan eraikia dela aldarrikatuz. Zentzu horretan, “giza adimenak Alter edo bestea-erekiko harremanean errealitatea sozialak ulertzeko, sortzeko eta komunikatzeko duen funtsezko gaitasun” gisa definitu izan da dialogikotasuna (Marková, 2003: 85). Pentsamendu dialogikoaren oinarrian, beraz, natura eta giza bizitza bestearekiko loturan eta elkarmenpekotasunean eratzen denaren ideia dago. Pertsona bat besteen esperientzia, ekintza, pentsamendu eta adierazpenen menpe dagoenaren ideia, alegia. Ikuspegi horrek ukatu egiten du autonomia indibidualaren eta kanpo harreman eta baldintzetatik aske dagoen subjektu arrazionalaren ideia, eta psikologian eta zientzia sozialetan gailendu izan diren pentsamendu korrante eta paradigma monologiko eta positibistak kritikatzeko (Linell, 2009; Marková, 2003). Modu honetan, giza kognizioa maila indibidual, arrazional eta estatikoan ulertu beharrean, kognizioaren izaera kolektiboa, kontrajarria, aldakorra, eta amaigabea dela baieztatzen da (Jovchelovitch, 2007).

Linell-en (2009) arabera, dialogikotasuna edo teoria dialogikoak, giza ekintza, komunikazioa eta kognizioari buruzko hipotesi teoriko eta epistemologiko gisa ulertu daitezke. Hau da, pertsonen munduari eta objektu sozialei zentzua ematen dieten, besteekin – nazioa, erakundeak, talde, pertsona konkrituak etab. – eraikitzen dituzten interakzioen bitartez. Giza gogamen eta interakzioari buruzko izaera dialogikoa azaleratzen dituzten konstruktoak, berriz, dialogikotasunaren *printzipio axiomatikotzat* edo oinarritzat hartzen dira (Rommetveit, 1990). Ego-Alter-Objektuaren hiruki semiotikoa adibidez, epistemologia dialogikoaren axiometako bat litzateke (Marková, 2016). Hau da, *self* eta *bestea*-ren arteko harreman ontologikoak ikusarazten dituzten prozesuak barnebiltzen ditu pentsamendu eta etika dialogikoak, esaterako, konfiantza, erantzukizuna, aitortza soziala, elkarrekintza eta heteroglosia (Marková, 2016).

Irudikapen sozialak esanahien arteko harreman eta elkarmenpekotasun dialogikoan ulertu behar dira. Horrek bat egiten du aurreko atalean, irudikapen sozialen sorrera azaltzen duen hiruki semiotikoaren ideiarekin. Moscovici-k, bere lehen ekarpenetatik, ezagutzaren eraikuntza eta eraldaketa prozesua maila erlazional eta dialogikoan ulertzen zituen; hori Ego-Alter-Objektuaren arteko ezagutza dinamiken bitartez adierazi zuen eta ez hurbilpen monologikoak egingo lukeen Ego-Objektu terminoetan. Ondorioz,

irudikapen sozialak bere horretan dialogikoki eraikiak direla baieztatzen da (Gustavsson eta Selander, 2010).

Priego-Hernandez-ek (2011) bere tesian aipatzen duenarekin bat eginez, irudikapen sozialak harreman dialogiko gisa ulertu behar dira, ikuspegi edo tradizio konkretu zehatz baten abiapuntu izateaz haratago. Zentzu horretan, esan daiteke irudikapen sozialen teoria, printzipio epistemologiko eta ontologiko dialogikoen pean diharduen funtsezko teoria dela, eta horrek hurbilpen teoriko eta epistemologikoaren arteko koherentzia adierazten du (Linell, 2001, 2009; Marková, 2000, 2003). Epistemologia interakzional eta kokatua izaki, dialogikotasunak, fenomeno sozialei zentzua eta esanahia ematerako orduan, giza harremanek eta testuinguruak daukaten garrantzia mahaigaineratzen du. Ondorioz, menpekotasuna-zaintzari buruzko ezagutzaren eraikuntza eta eraldaketa prozesuetan alderdi soziokultural eta interakzionalak daukaten pisua azalertzeko ikuspegi aproposa dugu hau.

3.4. Irudikapen sozialen eraikuntza prozesuak

Irudikapen sozialen teoriak, komunikazioaren eta inplikaturako prozesu soziokognitiboen bitartez kognizio edo esanahia kolektiboak nola eraiki eta eraldatzen diren azaltzen du (Jodelet, 2001; Moscovici, 1969). Irudikapen sozial ororen helburua, ezezagun zaigun edo familiarizatuta ez dugun zerbait, ezagun eta familiar bilakatzea da (Moscovici, 1984). Hau da, ezezaguna eta arrotza zaigun mundua geureganatzea, bertan orientatu, aktiboki pentsatu eta ekitea ahalbidetzen da irudikapen sozialen bitartez. Esanahien barneratze hori bi prozesu soziokognitibo eta komunikatibo nagusiren bitartez gauzatzen da: bata, ainguraketa eta bestea, objektibazioa (Wagner eta Hayes, 2005).

3.4.1. Ainguraketa

Ainguraketa prozesuaren bitartez, esanahia eta objektu sozial ezezagun eta berriak ulergarri bilakatzen dira eta aurretiazko ezagutza sisteman integratzen dira. Mekanismo horrek, ideia arrotzak eguneratzea eta testuinguru sozial ezagunera ekartzea ahalbidetzen du, horiek sailkatu eta izendatzea ahalbidetuz (Moscovici, 1984). Modu horretan, ezezaguna dena kategoria eta iruditeria komunaren baitan ulertzea lortzen da.

Aitzitik, prozesu hori emango ez balitz fenomeno sozialak ez lirateke existituko eta mehatxu bat suposatuko lukete. Izan ere, jendeak ez lituzke horiek ulertzeko eta interpretatzeko baliabide kognitiborik izango. Hortaz, Billig-ek (1988) dioenari helduz, ainguraketa ezagutza sistemen ezaugarri unibertsala litzateke. Ainguraketa elementu ezberdinen artean, berriz, izendapena, emozioak, gaiak, antinomiak edota metaforak daude (Höijer, 2011). Tesi honek menpekotasunaren eta zaintzaren esanahiaren inguruan ematen diren eztabaida eta dialektikak azaleratzea helburu dituen heinean, gaien eta antinomia bidezko ainguraketa azalduko dira hemen.

Gai eta antinomia bidezko ainguraketa

Ainguraketa prozesuan irudikapen sozialaren eraikuntza tematikoki eman daiteke, hau da, sakoneko eta ezkutuko esanahia kategorien azaleratzearen bitartez. Moscovici-k (2000) gaien bidezko ainguraketaren bitartez irudikapen sozialen sakoneko egitura mailak antzematen direla azaldu zuen. *Gaiak* irudikapen sozialen oinarrian dauden elementuak dira, prozesu sozialen baitan garatu eta eraldatzen dira eta irudikapen berriak artikulatzen dituzte.

Gai-ekin loturan, antinomia bidezko ainguraketak, berriz, ezagutzaren dialogikotasunaren sakontzera garamatza (Marková, 2003). Horren arabera, irudikapen sozialen eraikuntza esanahi kontrajarri, gatazkatsu eta antinomikoen bitartez gauzatzen da; esaterako, *bizitza-heriotza*, *self-beste*a, *natura-kultura* eta *emozioa-arrazoia* moduko dikotomia historiko eta kulturalak pentsamendu antinomikoaren adierazgarri dira (Marková, 2003). Gainera, dialektika hegeliarrari jarraituz, esanahia antinomikoek berezki daukaten tentsioa gizarteratzean, eztabaida publikoak sortzen direla esan ohi da, horiek aldaketa sozialerako eta irudikapen berrien sorrerarako giltzarri izanik (Moscovici eta Vignaux, 2000). Gaien eta antinomien arteko harremana teorikoki nahaspilatsua bada ere, biek ala biek irudikapen sozialen oinarritzko edo sakoneko esanahiak adierazten dituzte, eta ezinbestekotzat jotzen dira irudikapen sozialen egitura eta sorrera ulertzeko.

Bestalde, irudikapen sozialen teoriaren baitan *Themata* kontzeptua baliatu izan da, kulturalki eta sinesmenetan errotutako esanahi eta ideia kontrajarriei erreferentzia egiteko (Moscovici, 2001; Moscovici eta Vignaux, 2000). Hasiera batean, *thematak*

(thema singularrean) zientziaren aurrekontzepzio historiko gisa kontsideratu ziren, eta pentsamendu zientifikoa artikulatzen zuten kontzeptu kontrajarriei erreferentzia egiten zieten (Holton, 1975). Hala, Holton-en (1975) arabera, pentsamendu zientifikoaren sorrerari bide ematen zioten antinomiek – atomoa vs. kontinuum , simpletasuna vs. konplexutasuna, analisia vs. sintesia etab. -, fisikako pentsamendu eskola ezberdinen sorrera azaltzen zuten. Hala ere, aurrez esan bezala, pentsamendu zientifikoaz gain, eguneroko pentsamendua edo ezagutza komunaren logika ere historikoki eta kulturalki partekatutako antinomia horien arabera garatzen dela esaten da (Liu, 2004; Marková, 2016). Kontzeptualki *themata* eta *gai* terminoak elkar-eraginean egonik ere, ezberdinak direla nabarmentzea garrantzitsua da. Izan ere, *thematak* historikoki errotutako eta kulturalki partekatutako ideia eta pentsamendu sozialaren logika sakonari egiten dio erreferentzia. *Gaiak*, aldiz, ikerketa kualitatibo bateko analisi unitateak dira, hau da, fenomeno jakin bati buruzko esanahiak, elkarrizketak edota sentimenduak adierazten dituzte (Taylor eta Bogdan, 1984). *Thematek* ez bezala, *gaiak* ez daukate irudikapen sozialen sorrerarako gaitasunik, eta *thematzen* adierazpen pragmatikoak kontsideratzen dira, eguneroko bizitzako testuinguru ezberdinetan forma berezia hartuz (Moscovici eta Vignaux, 2000). Zentzu horretan *thematek*, maila inplizituan irudikapen sozialen sorrera eta artikulazio funtzioa daukate, eta *gaiak*, aldiz, maila esplizituan adierazten dituzte *themata* horien agerpen kokatuak.

3.4.2. Objektibazioa

Objektibazio prozesua, berriz, oraindik ezezaguna eta arrotza dena, errealitatearen parte egitean datza (Moscovici, 1984). Ainguraketak esanahiaren familiarizazioa ahalbidetzen badu, objektibazioak esanahi horiek errealitate fisiko-materialean txertatu eta egia bilakatzen ditu, eta ezagutzari forma konkretua ematen dio. Objektibazioaren bitartez ezagutza sozialaren materializazioa eta ikusgarritasuna gauzatzen dela esan daiteke (Moscovici, 1984).

Moscovici-k psikoanaliaren irudikapenean azaldu zuen bezala, objektibazio prozesuak hiru aro ezberdin igarotzen ditu. Lehenik, *informazioaren sailkapena* ematen da, hau da, irudikapen objektua sinplifikatu eta eskematizatzen da, taldearen ezaugarri soziokulturalekin bat datozen elementuak hautatuz. Pertsona eta taldeek irudikapenaren berreraikuntza propioa egiten dute, beraien ezagutza eta balio

sistemarekin bat datozen elementuak kontsideratuz (Rateau eta Lo Monaco, 2013). Bigarrenik, informazioaren sailkapenetik eratorritako *eskema figuratiboa* eratzen da. Modu horretan, irudikapen objektua forma eta itxura konkretu batean zehazten joango da. Hirugarrenik, irudikapen sozialaren *naturalizazioa* gauzatuko da. Hau da, aurreko prozesuetatik eratutako ezagutzak zehaztetik, ezagun eta bistakoa den errealitate sozial eta materialaren parte egiten da irudikapena (Moscovici, 1969).

Objektibazioa irudi eta ikono konkretuen, emozioen eta pertsonifikazioaren bidez gauzatzen da normalki (Höijer, 2011). Komunikabide eta agenda publikoan fenomeno sozialen berri emateko irudi konkretuak zabaltzen direnean, esaterako, ezagutzaren objektibazioa ematen da. Ikerketa ezberdinek erakutsi izan duten moduan, kasu paradigmaticoak kontsideratu litezke “Dolly ardia”-ren irudiak bioteknologia eta ingeniari genetikokoari buruzko irudikapen sozialetan (Bauer eta Gaskell, 1999). Glaziarren urtzea eta hartz zuriaren irudiak ere, aldaketa klimatikoaren ondorioak irudikatzeko erabili izan dira (Höijer, 2011; Smith eta Joffe, 2009).

Bukatzeko, esan beharra dago ainguraketa eta objektibazio prozesuak kritika iturri ere izan direla irudikapen sozialen teorian (Voelklein eta Howarth, 2005). Ikuspegi kritikoen arabera, ezagutza berriak aurretiazko egitura kognitiboetan nola barneratzen diren azaltzen dituzten bi prozesu horiek, prozesu soziokultural eta kolektiboekin elkarrekintza ulertu behar dira. Aldiz, irudikapen sozialen ikerkuntzan hainbatetan gailendu izan den erredukzionismo kognitiboak, irudikapen sozialen izaera konstruktibista begi-bistatik galdu izan dute, eta horrek irudikapen sozialen teoriaren printzipioen kontra egiten duela baieztatzen da. Pertsonak informazio eta fenomeno sozialak nola ulertu eta barneratzen dituzten azaltzeko, nahikoa izango litzateke ikuspegi kognitibo hutsa baliatuta kognizio sozialaren teoriaren baitan *schemata*-ri buruzko azterketara jotzea (Semin, 1985; Voelklein eta Howarth, 2005). Aldiz, irudikapen sozialen teoriaren begiradapean lan egiten duten hainbat ikertzailek, argiki adierazten dute ainguraketa eta objektibazio prozesuak, sozialki eta kolektiboki eraikitako prozesuak direla (Jodelet, 1991; Wagner, Elejabarrieta eta Lahnsteiner, 1995).

3.5. Irudikapen sozialen funtzioak

3.5.1. Arrotza dena ezagun bilakatzea

Irudikapen sozialen funtsezko funtzioa, ezezaguna den mundua, ezagun eta familiar bilakatzea da (Moscovici, 1984). Irudikapen sozialen bitartez pertsonak beraien inguru eta gizartearekin harremanean sartzen dira, eta mundua zentzuzkoa eta ulerkorra egitea ahalbidetzen dute. Arrotzak eta ezezagunak diren irudikapen eta ezagutzak aurretiazko egitura kognitiboen baitan integratzen dira, eta fenomeno berria ulergarri bilakatzen dute. Ondorioz, esan liteke familiarizazio prozesu horretan, objektu sozial berriak konbentzionalizatzen direla, aurrerantzean objektuak berezko dituen ezaugarri eta berezitasunetara moldatuz (Höijer, 2011). Berria dena, ideia zaharrekin uztartzen da. Moscovicik (1984) deskribatuko lukeen moduan, “gaurkoa, atzokoaren bitartez kontrolatuz” gauzatzen da familiarizazio prozesua. Modu horretan, familiarizazio prozesuak gizakiak betidanik izan dituen pertenezia, identitate eta segurtasun existentzialaren beharrak asetzen laguntzen du (Jovchelovitch, 2007).

Idea horri jarraiki, tesi honetan, menpekotasuna eta zaintza, giza bizitzari berezkoak zaizkion prozesu eta fenomeno zaharrak izanagatik ere, egungo gizartean kudeatu beharreko fenomeno ezezagun eta “berria” direla iradokitzen da. Izan ere, gizarte antolamendu, egitura, bizimodu eta balioetan emandako aldaketek eraginda, menpekotasunari eta zaintzari lotutako beharrak eztabaida publiko eta soziopolitikoan murgilduta daude; etorkizunera begira ere, euskal gizartean aldakorra eta polemikoa den fenomeno izanik. Zentzu horretan, garrantzitsua da jendeak menpekotasuna-zaintza binomioa egunerokoan nola ulertu eta hari buruzko ezagutza berriak nola bereganatu eta eraikitzen dituen aztertzea.

3.5.2. Mundu sozialean aritzeko funtsak

Jovchelovitch-ek (2007) “Knowledge in context: Representations, community and culture” liburuan modu paregabeaz azaltzen duen bezala, ezagutza eta testuinguru soziokulturala elkar-eraginean eta loturan daude. Horren arabera, ezagutzaren izaera plurala eta dinamikoa da, eta ezagutzaren sorrera eta eraldaketa testuinguruko dinamika psikosozialei lotuta ulertu beharra dago beti (Jovchelovitch, 2002, 2007). Horrenbestez, irudikapen sozial ororen dimentsio eta funtzio psikosozial garrantzitsuenak ezin dira ezagutza testuinguru eta Ego-Alter-Objektu hiruki

dinamiketarik kanpo ulertu. Irudikapen sozialen funtzioak azaltzerako orduan, bereziki bost funtzio nagusi aipatuko ditugu hemen: ezagutzaren, identitatearen, orientazioaren, justifikazioaren eta komunikazioaren funtzioak, besteak beste (Abric, 1989).

Batetik, ezagutzaren funtzioak, errealitate sozialaren ulermena eta komunikazioa ahalbidetzen du (Abric, 1989). Zentzu komuneko ezagutza praktikoa izateak aktoreei ezagutza berriak eskuratzea eta marko asimilagarri eta ulergarrian integratzeko aukera ematen die. Horrek, arestian esan bezala, aurretiazko egitura kognitibo, balio eta esanahia kolektiboekin bat egin behar du (Walmsley, 2004). Ezagutzak objektu sozialari buruzko edukien ulermenari egiten dio erreferentzia eta hortaz, irudikapen sozialen “zer” galderari erantzungo lioke; objektu sozialaren eraikuntzari, alegia. Edukiak oso garrantzizkoak dira ezagutzan. Izan ere, irudikapen batean adierazitako ideia eta esanahiek aktoreek irudikatutako objektuarekin eta munduarekin eraikitzen dituzten lotura sinbolikoen berri ematen dute (Jovchelovitch, 2007).

Bigarrenik, identitate funtzioari dagokionean, irudikapen sozialek pertsona eta taldeen identitatea definitu eta horien ezaugarriak babestu eta defendatzen dituzte (Howarth, Foster eta Dorrer, 2004). Irudikapen sozialek fenomenoak ulergarri eta azalgarri egiteko baliagarriak dira, eta pertsona eta taldeek espazio sozialean aritzeko koordenadak zehazten dituzte. Nork (zein pertsonak eta norekiko harremanean) irudikatzen duen funtsezkoa da irudikapen prozesuan; izan ere, identitate indibidual eta soziala adierazteaz gain, norbanakoak espazio sozialean duen posizionamendu, estatus eta botere-harremanekin dauka zerikusia (Doise, 1973; Duveen, 2001).

Hirugarrenik, irudikapen sozialek orientazio funtzioa betetzen dute, pertsona eta taldeen ideiak, portaerak, harremanak eta praktikak sortu eta bideratzen dituzten aldetik (Walmsley, 2004).

Laugarrenik, funtzio justifikatzailea daukate irudikapen sozialek. Hau da, pertsona eta taldeek dauzkaten ideia, balio eta portaerak justifikatzea eta azaltzea ahalbidetzen da irudikapenen bitartez (Abric, 1998). Horrek, testuinguru ezberdinetan burututako ekintza eta portaerak azaldu eta babestu ahal izatea dakar. Justifikazioak eta orientazio funtzioek, irudikapen sozialen “zergatiari” heltzen diote, subjektibitatearen eta intersubjektibitatearen logikak, arrazoiak eta dinamikak ulertzeko baliagarri izanik

(Jovchelovitch, 2007). Beste hitz batzuetan esanda, pentsamendu, emozio, harreman eta portaera inkontzienteen arrazoiak ulertzen laguntzen dute.

Azkenik, irudikapen sozialen funtzio garrantzitsua haien komunikazioa da. Horren bitartez, irudikapen prozesuetan aktoreak nola komunikatu eta elkar-harremantzen diren ulertzea ahalbidetzen da. Irudikapen sozialak beti ekintza komunikatiboan sortu eta eraldatzen diren heinean, komunikazioaren analisia garrantzitsua da irudikapen sozialak ezagutza-sistemen baitan zer nolakoak diren ulertzeko, eta baita irudikapenak nola eraikitzen diren ulertzeko ere (Jovchelovitch, 2007).

3.6. Ezagutza gizarte aldakor eta konplexuetan

Ezagutza sozialaren garapena ezin da testuinguru sozialetik kanpo ulertu, bien arteko elkar-eragin eta interakzioan baizik. Ondorioz, testuinguruaren baldintza eta ezaugarriak aldatu ahala, ezagutzaren nolakotasuna ere halabeharrez aldatzen da (Jovchelovitch, 2001, 2007). Halaxe gertatzen da irudikapen sozialekin ere.

Irudikapen sozialen teoriaren abiapuntu teorikoa neurri handian Durkheim-en (1898) irudikapen kolektiboen kontzeptu soziologikoan kokatzen den arren, Durkheim-en eta Moscovici-ren teorien arteko bereizgarri nagusienetakoa testuinguru sozialak historian zehar bizi izandako eraldaketan dago (Jovchelovitch, 2007). Durkheim-ek irudikapen kolektiboen bitartez jendartean norbanakoaren eraginetik kanpo dauden eta norbanakoaren ekintzak baldintzatzen dituzten irudikapenei egiten die erreferentzia. Hau da, osotasunez eta modu homogeneo batean jendartean partekatzen diren ideia, balio, sinesmen eta iritzi sistemei egiten zaie erreferentzia, eta horiek belaunaldiz belaunaldi, instituzio eta gizarte egitura tradizionalen bidez mantentzera jotzen dutela esan ohi da. Aldiz, irudikapen sozialek testuinguru sozialaren dinamismoa, diferentziazioa eta aldakortasuna jasotzen dute, eta norbanakoak garrantzizko lekua dauka horien sorreran. Irudikapen kolektiboekin alderatuz, irudikapen sozialek errealitatearen eraikuntza ikuspegi dinamiko eta heterogeneo batetik ulertzea ahalbidetzen dute, ezagutzaren askotariko izaera eta aldakortasuna aitortuta (Moscovici, 1989). Honela adierazten du Moscovici-k irudikapen sozialen kontzeptua erabiltzearen aldeko hautua:

"Garai modernoetan sinesmen kultural edo erritu bat sekularizatua eta gizartean txertatuta dagoen heinean, nahiago dut "soziala" hitza bakarrik erabili; gizarte horretan, norbanakoen arteko elkarrizketa eta komunikazioak historikoki garrantzitsuagoak dira gizarte tradizionalenetan baino." (Moscovici eta Marková, 1998, 400 or.).

Irudikapen kolektiboetatik irudikapen sozialetara emandako bilakaera teorikoa testuinguru sozialean emandako genesi psikologiko eta eraldaketen baitan ulertu daiteke. Hain zuzen ere, teoriaren aitzindariekin batera, Jovchelovitch-ek (2001, 2007) espazio publikoaren tradizio eta destradizionalizazio prozesuei lotuta ulertzen ditu bi irudikapen mota horiek. Jarraian, kontzeptualizazio horri heltzen zaio, irudikapen prozesuak testuinguruan ulertzeko funtsezko ikuspegi gisa.

3.6.1. Irudikapen kolektiboak vs. sozialak

Jovchelovitch-en arabera (2001, 2007), irudikapen kolektiboek espazio publiko tradizionalak islatzen dituzte. Bertan, komunitateak norbanakoaren gainean duen eragina eta presioa handia da, eta lotura sozialek baldintzatzen dituzte neurri handian pertsonak munduarekiko garatzen dituzten ezagutzak. Esan bezala, irudikapen kolektiboek kognitiboki izaera homogeneoa izatera jotzen dute, eta adostasun maila handiz partekatzen dira; besteak beste, pertsona eta taldearteko diferentziazioa baxua izaten delako eta botere asimetriek (soziala, kognitiboa etab.) eraginda, partekatutako ikuspegi gainera onespenez soziala handia izaten delako. Horrek ez du esan nahi bestelako gizarte egiturak botere-harremanetatik eta hertsapen sozialetatik salbu daudenik, eta horien esanahiak antibalenteak izan daitezke. Izan ere, irudikapen kolektiboen izaera bateratzaileak komunitate eta pertenezko zentzua handiagoa izatea ahalbidetzen du, eta konfiantza eta segurtasun existentziala interakzio mota hauetatik eratortzen dela esan daiteke (Jovchelovitch, 2007b). Espazio publiko tradizionalen komunitate berdineko pertsonen arteko elkar-eragina eta babesa handiagoa izan ohi da destradizionalizatutako espazioetan baino.

Irudikapen sozialek, aldiz, espazio publiko destradizionalizatuei egiten die erreferentzia (Jovchelovitch, 2001, 2007). Testuinguru horietan, norbanakoak eta komunitateak bizi ikuskera ezberdin eta maiz kontrajarriak kudeatzen dituzte, egunerokoan barneratutako errealitatea etengabeko mugimenduan eta aldaketan izanik. Tradizioetatik eratorritako

ezagutzak gehiago baztertzen dira testuinguru horretan, eta esanahia sinboliko berriei ateak irekitzen zaizkie.

Irudikapen sozialetan askotariko ikuspegi eta perspektibek artikulatzen dituzte pertsonen diskurtso eta ekintzak, eta aldaketara irekita daude. Pertsona arteko harremanak ere, zurrinak izan ordez, dinamikoak izaten dira. Gainera, aktoreen arteko lotura sozial eta emozionalak berdintsu edo demokratikoagoak izan ohi dira, eta autonomia eta kooperazioa nabarmentzen dira balio gisa. Irudikapen sozialek berrikuntza kudeatzen dute eta hau ainguraketa eta objektibazio prozesuen bitartez gauzatzen da. Modu horretan, esanahia berriak aurretiazko egitura kognitiboetan uztartu eta integratzen dira, ezagutza komun bilakatuz. Esan bezala, testuinguru honetako irudikapen prozesuak zabalagoak, malguagoak eta ezegonkorragoak izaten dira, eta ohikoa izaten da irudikapen ezberdinen arteko aldiberekotasuna eta talka adieraztea (Jovchelovitch, 2007)

Hemen garrantzitsua da nabarmentzea ezagutzaren garapen eta bilakaera ez dela modu lineal batean ulertzen. Aitzitik, espazio tradizionalan gailentzen diren mito eta sinesmenetatik, sekularizatutako eta indibidualizatutako espazioetara bidea egiten duen prozesu bezala ulertzen da. Ezagutzaren eraldaketaren nozioa jarraia eta ziklikoa da, eta ordezkapena baino, ezagutzen arteko koexistentzia ematen da (Vygotski eta Luria, 1993). Ezagutzaren pluraltasun honen bitartez, norbanakoak eta komunitateek mundu sozialari zentzua ematen diete eta bertan aritu daitezke.

3.6.2. Polifasia kognitiboa

Irudikapen sozialak beti testuinguru soziokultural eta egoera konkretuen arabera izaten diren heinean, haien izaera plurala da eta dinamismoz beteak daude. Hortaz, polifasia kognitiboaren kontzeptuak ezagutzaren dialogikotasuna, ezagutza mota ezberdinen arteko aldiberekotasuna eta talka azaleratzen du (Moscovici eta Marková, 2000). Irudikapen sozialen teorian, *Polifasia Kognitiboaren* kontzeptuaren bitartez azaldu izan da ideia hori.

Ezagutzaren izaera eta dinamika ulertzeko funtsezko kontzeptua dugu polifasia kognitiboa, eta esparru publiko ororen funtzionamendu soziokognitiboaren ezaugarria da (Jovchelovitch eta Priego-Hernández, 2015). Irudikapen sozialen teorian, Moscovici

(1976) izan zen kontzeptua erabiltzen lehena. Hark, frantziar gizartean psikoanalisi nola ulertzen zen aztertzerakoan, irudikapen objektuaren inguruan aurkitutako heterogeneotasun soziokognitiboa deskribatzeko erabili zuen polifasia kognitiboa. Hala ere, kontzeptuaren jatorria gizarte zientzietan XX. mende hasieran eta Piaget-en (1929) ezagutzaren logikaren teoriaren inguruan emandako eztabaidetan kokatzen da; ezagutzaren eta testuinguru sozialaren arteko lotura eta honen arrazionalizazioari buruzko eztabaidetan, hain zuzen ere (Jovchelovitch, 2002). Moscovici-k honela deskribatu zuen pertsona edo talde beraren baitan ezagutza mota ezberdin eta kontrajarrien arteko koexistentzia:

“... talde bera, eta mutatis mutandis, norbanakoa bera, gai da esparru ezberdinetan erregistro logiko ezberdinak erabiltzeko, ikuspegi, informazio eta balio ezberdinekin... pertsonaren eta bere ingurunearen arteko harreman espezifikoak buruzko ezagutza mota ezberdinen koexistentzia dinamikoak, interferentziak edota espezializazioak polifasia kognitiboaren presentzia adieratzen dute.” (Moscovici, 1969, 285-286 or.).

Horren arabera, polifasia kognitiboaren presentzia hipotesi eta salbuespena izatea baino, ezagutza sistemen oinarria eta funtsa da (Moscovici, 1969). Ondorioz, irudikapen sozialen eraikuntza esanahia eta arrazionaltasun mota ezberdinen bitartez ematen dela aho batez baieztatzen da; horrek, modu zuzenean, interakzio sozial eta testuinguru kultural ezberdinetako dinamikek irudikapen sozialen sorkuntzan duten garrantziaz ohartarazten gaitu. Renedo-k eta Jovchelovitch-ek (2007) esango luketen moduan, polifasia kognitiboak, kognizioa eta ezagutza, sortzen diren testuinguru soziokulturalean ulertzea, eta esparru publikoan hedatzen diren ezagutza mota ezberdinak aldi berean nola partekatzen diren teorizatzea ahalbidetzen du.

Polifasia kognitiboaren kontzeptualizazioak eta ikerketak gero eta indar handiagoa hartu du gai ezberdinen inguruko irudikapen sozialak jorratzen dituzten ikertzaileen artean (Jovchelovitch eta Priego-Hernández, 2015; Provencher, Arthi eta Wagner, 2012). Aurrez egindako ekarpenen artean, aipatzekoak dira osasun gaiei lotutako irudikapen sozialak aztertzen dituzten ikerketak. Besteak beste, Wagner eta kolaboratzaileek (1999), Indiako Patna hirian eromenari eta osasun mentalari buruzko ikerketa burutu zuten eta bertan, kultura trantikoan eta *ayurvedan* errotutako osasun sistemak,

mendebaldetik eratorritako osasun sistemaren ideiak zenbateraino barneratu zituen aztertu zuten. Jovchelovitch eta Gervais-ek (1999), Ingalaterrako komunitate txinatar batean osasunari eta gaixotasunari buruzko ezagutza tradizionalen eta konbentzional-mendebaldarren arteko koexistentzia aztertu zituzten. De-Graft Aikins-ek (2002), berriz, Ghanan diabetesaren inguruan profesionalek zituzten irudikapen biomediko eta etnomedikoen arteko adostasun eta gatazka mailan jarri zuen arreta. Azkenik, Provencher-ek (2007) Erresuma Batuan txerto hirukoitz birikoaren eztabaidaren harira, haur txikien amek txertoari zentzua emateko erabiltzen zituzten ezagutzak argitara eman zituen.

Bestalde, polifasia kognitiboaren kontzeptualizazioari helduz, testuinguru eta prozesu soziokulturalak ezin dira ezagutzatik at ulertu, baizik eta haren oinarri eta sorburu gisa (Jovchelovitch eta Priego-Hernández, 2015). Psikologiaren tradizio kognitibista eta Cartesiarrean sarritan kognizioa testuingurutik kanpo ulertu izan da, kontraesanik gabeko logika bakarrari segika; hau da, norbanakoaren eraikuntza eta garapena ingurunetik deslotua eta bakartua egongo balitz moduan. Polifasia kognitiboaren bidez ideia horrekin apurtzen da, eta egitura kognitiboek identitateari eta komunitateari loturik forma hartzen dutela aldarrikatzen da. Zentzu horretan, hainbat ikerketetan agerian utzi izan da sistema kognitibo polifasikoek askotariko *self* edo identitateak adierazten dituztela eta horiek irudikapen sozialen eraikuntza eta erabilera bideratzen dituztela (Renedo, 2010). Horren adibide da Renedo-k eta Jovchelovitch-ek (2007) Londresen etxerik gabeko pertsonen inguruko diskurtso profesionalen inguruan egindako ikerketa. Bertan, profesionalek beraien jardunari buruz dituzten ezagutza eta esku-hartze hurbilketen inguruko gatazkak erakusten dira, eta polifasia eta polifonia kognitiboa funtsezko baliabideak dira fenomenoari zentzua emateko (Renedo, 2008; Renedo eta Jovchelovitch, 2007)

Horrez gain, Jovchelovitch-en eta Priego-Hernández-en (2015) arabera, polifasia kognitiboaren teoriar sakontzeak ikuspegi eta bide berriak zabaltzeko ditzake gizarte psikologiaren esparruan. Izan ere, jatorri eta izaera ezberdinetako ezagutzen aldiberekotasun eta kontraesanak aztertzeaz gain, ezagutza moten artean gertatzen diren eraldaketak adierazten ditu. Norabide horretan, Priego-Hernández-ek (2017) Mexikoko emakume gazte indigenek osasun sexualari buruz zituzten irudikapen sozialen

eraldaketak aztertu zituen. Bertan, sekretu eta lotsaren kulturaren oinarritutako ezagutza tradizionalak hiriko bizi estilo berrietatik eratorritako ezagutzekin nola uztartzen ziren agerian utzi zituen. Gizarte psikologian eta irudikapen sozialen teorian, lan hori aitzindaritzat jo daiteke fenomeno sozialei buruzko ezagutzaren eraldaketak nola ematen diren enpirikoki azaltzerako orduan. Hortaz, esanahien koexistentziaz harago, irudikapen sozialen eraldaketa dinamikoa nola gauzatzen den ulertzeko ikuspegia ahalbidetzen du polifasia kognitiboaren azterketak, eta horrek Moscovici-ren jatorrizko asmo teorikoetara garamatza; fenomeno sozial ezberdinek barnebiltzen dituzten “ezagutza moten eraldaketa -oreka eta bilakaera- aztertzeraz”, alegia (Moscovici, 1961/2008, 191 or.).

Polifasia kognitiboaren dimentsioak

Ezagutza mota ezberdinen arteko topaketak eta eraldaketak maila makroan eta mikroan eman daitezke; hau da, maila kolektiboan zein indibidualean (Priego-Hernandez, 2011). Norbanakoaz ari garenean ere polifasia kognitiboa norbere baitan ematen da; izan ere, egitura psikologikoak *bestea*-rekiko askotariko interakzioak barneratzen ditu (Bakhtin, 1984; Hermans eta Kempen, 1993). Modu horretan, self-aren izaera ere dialogikoa dela azaltzen da, ezagutzarena izan ezik. Bestalde, irudikapen sozialetan polifasia kognitiboaren presentzia hiru dimentsio ezberdinetan nabarmentzen da: eduki, prozesu eta emozio mailan, hain zuzen ere (Jovchelovitch, 2007) (ikus 1. Taula).

1. Taula: Polifasia kognitiboaren dimentsioak

Dimentsioa	Osagaia	Kontraesan maila
Edukia	Semantikoa / sinbolikoa	Objetuak zer esanahi duen
Prozesua	Logika / Arrazoiketa	Objektuaren inguruan nola pentsatzen den
Emozioa	Afektiboa	Objektuaren inguruan zer sentitzen den

Iturria: Jovchelovitch (2007)

Batetik, edukiari dagokion egoera polifasikoak, irudikapen objektuari buruz pertsonek, taldeek eta komunitateek eraikitzen dituzten esanahia kontrajarrien koexistentziari egiten dio erreferentzia. Horrek, irudikapenaren alderdi semantikoa azaleratuko luke. Bestetik, egoera polifasikoa irudikapen prozesuari lotuta agertzen da, eta irudikapenaren alderdi logikoari erreferentzia egiten dio. Hemen, objektu sozialari buruzko arrazoiketa eta pentsatzeko modu ezberdinak nola kudeatzen diren azaleratzen da. Azkenik, emozio, sentimendu eta afektu kontrajarrien bitartez ematen zaie zentzua irudikapen sozialei, eta horrek irudikapen objektuari buruz sentitzen dena adierazten du. Aurrez egindako ikerketetan polifasia kognitiboa bereziki eduki mailan azertu izan da, eta aldiz, prozesu eta emozio mailako garapen teorikoa eta ikerketa enpirikoak oso urriak dira (De-Graft Aikins, 2012; Priego-Hernández, 2017). Hala ere, irudikapen sozialen dimentsio hauen azterketari heltzeak aurrera begirako eremu zabal eta oparoa eskaintzen du irudikapen sozialei ikuspegi eta ertz ezberdinetatik heltzeko.

3.6.3. Ezagutza topaketa eta eraldaketa prozesuak

Polifasia kognitiboaren eta haren aldaerak ulertzeko funtsezko oinarriak *self* eta *bestea*-ren arteko aitortpen prozesuak dira. Hau da, ezagutza mota ezberdinen topaketa dialogikoaren arabera zehazten da polifasia kognitibo mota (Jovchelovitch eta Priego-Hernández, 2015; Marková, 2003). Zentzu horretan, polifasia kognitiboaren izaera aldakorra, eta ezagutza ezberdinen arteko komunikazio eta elkar-trukearen araberakoa da. Harreman honetan, funtsezko elementuetako bat aitortzarena da (Jovchelovitch, 2007).


Aitortzak ezagutza prozesuetan betetzen duen funtzioa ezinbestekoa da ezagutza topaketak aztertzeko; baita interakzio horiek dialogikoak diren edo ez zehazteko ere. Mead-en (1934/1967) gizarte psikologiari jarraituz, jakina da *self*-aren edo *nia*-ren kontzientzia, bestearekiko harremanean eta perspektiban garatzen dela. Ondorioz, bestearekiko perspektiba hartzea eta aitortza, gogamenaren, *nia*-ren eta komunitatearen oinarrian dagoela esaten da (Farr eta Rommetveit, 1995). Modu berdintsuan, teoria dialogikoa tradizio horretatik eratortzen den heinean, ezagutza mota ezberdinen arteko topaketak espazio intersubjektibo eta komunikatiboaren baitan ematen dira, eta bertan zehazten da zenbateraino aitortu edo ukatzen diren bestearen ezagutzak (Jovchelovitch eta Priego-Hernández, 2015).

Horrenbestez, *bestea*-ren ezagutzaren aitortza funtsezkoa da emaitza kognitiboei bide ematen dien komunikazio eta arrazoiketa estiloetan. *Bestea*-ren ezagutza aitortzeak, adiera askotariko diskurtso eta perspektiben aitortza inplikatzeko du. Aldiz, ez aitortzeak edo ukatzeak, adiera bakarreko diskurtsoa sortzen du, eta normalki hertsatzailea eta inposatzailea izan ohi da (Linell, 2009). Gainera, ezagutza prozesuak estatus eta botere asimetriari estuki loturik daude; izan ere, ezagutza motza batzuek besteek baino botere handiagoa izaten dute beraien autoritatea, zilegitasuna eta egia ezartzeko. Beste ezagutza batzuk ordea, sinbolikoki desakreditatu, gutxietsi eta ezjakintzat hartzen dira (Sammur eta Sartawi, 2012). Dinamika horien adibide dira, esaterako, zientzietatik eta adituengandik eratorritako ezagutzek, tokiko komunitate, kultura eta identitateetatik eratorritako ezagutzek baino prestigio eta botere handiagoa izatea irudikapenak inposatzeko (Aveling, 2011; Howarth, Foster eta Dorrer, 2004). Zentzu horretan, *bestea*-ren ezagutzaren onarpenak, diferentziaren kudeaketa eta integrazioa inplikatzeko du. Aldiz, ukapenak, ikuspegi eta praktika monologiko eta inposatzaileetan jausteko duen arriskua handia da.

3.6.3.1. Egoeraren lehentasuna, hibridazioa eta desplazamendua

Oinarri teoriko horretatik abiatuz, Jovchelovitch eta Priego-Hernández-ek (2015) hiru polifasia kognitibo mota daudela proposatu eta izendatzen dituzte. Horietako bakoitza ezagutzaren koexistentzia eta emaitza kognitibo mota konkretuen bidez ezaugarritzen da (ikus 5. Irudia).

5. Irudia: Ezagutza topaketa motak



Iturria: Norberak egina.

Batetik, *egoeraren lehentasunari* erreferentzia egiten dion prozesuak, askotariko ezagutzen aitortzea eskatzen du, non ezagutza mota bakoitza egoera eta testuinguru sozialaren arabera erabiltzen den. Hau da, egoera konkretuei aurre egin ahal izateko, ezagutza bat edo beste erabiltzen da, eta tentsioa adierazten duten esanahiak orekatu egiten dira. Modu horretan, eguneroko konplexutasunari erantzuteko ezagutzaren erabilera funtzionala eta praktikoa izatea ahalbidetzen da. Jovchelovitch eta Priego-Hernández-en (2015) arabera, polifasia kognitiboaren aldaera hori izan da teorikoki gehien aztertu eta ikertu izan dena.

Bestetik, *hibridazioak*, ezagutzaren elkartruke eta elkarrekintza konplexuak adierazten ditu. Ezagutza mota ezberdinen arteko uztarketa eta konbinazioak, “berriak” diren ezagutza motei bide ematen die. Hibridazioan, *bestea*-ren ezagutzaren aitortza ematen da, eta esanahia kontrajarrien integrazioa gauzatzen da irudikapen berrien sorreran.

Azkenik, *ordezkapen* prozesuan, ez da bestea-ren ezagutzaren aitortzen ematen eta ez dago elkarren arteko interakziorik. Ordezkapenaren bitartez, ezagutza mota ezberdinen artean, bakarra hobesten da eta besteak baztertu egiten dira. Ezagutzaren ordezkapena maila indibidualean adierazten bada ere, kontraesanaren kudeaketa kulturak bideratzen du. Ildo honetan, Jovchelovitch eta Priego-Hernandez-en (2015) arabera, esanahien

aldiberekotasun eta aurkakotasuna modu ezberdinean bizitzen dira mendebaldeko eta ez-mendebaldeko esparru publikoetan. Izan ere, ezagutza moten arteko bereizketa eta konplexutasuna nabariagoa da mendebaldeko pentsamendu eta antolaketa sozialean.

Polifasia kognitiboaren aldaera hau, Festinger-ek (1957) garatutako disonantzia kognitiboaren teoriarekin lotu izan da (Panagiotou eta Kadianaki, 2019). Disonantzia kognitiboaren bitartez, norbanakoan kontraesana sortzen duten ezagutzak baztertzen dira, norbere identitatea positiboki babestu eta orekatzeko. Arrazoiketa modu hori bereziki mendebaldeko arrazoiketa printzipio eta balioei lotuta dagoela argudiatzen da, kontraesanik onartzen ez duen pentsamenduaren logika eta tradizioari jarraituta. Aldiz, ezagutzen arteko kontraesana eta aurkakotasuna testuinguru kultural ezberdinetan egiaztatu denez gero, disonantzia kognitiboa, polifasia kognitiboaren beste aldaera bat bezala ulertzea iradokitzen da (Jovchelovitch eta Gervais, 1998; Jovchelovitch eta Priego-Hernández, 2015; Wagner et al., 2000).

3.7. Konfiantza indibidualizazio eta arriskuaren gizartean

Konfiantza (zein mesfidantza) dinamikak funtsezkoak dira gizarte moderno eta konplexuak ulertzeko; eta baita irudikapen sozialak ulertzeko ere (Marková eta Gillespie, 2007; Jovchelovitch, 2007b). Garaiko testuinguruan gero eta gehiago hitz egiten da esparru ezberdinetatik – politikan, ekonomian, akademian, komunikabideetan etab. – konfiantzaren behar eta garrantziaz. Konfiantzaren diskurtsoak bete-betean egungo esparru publikoa hartu duela esan daiteke.

Marková eta Gillespiek (2007) azaltzen dutenari helduz, horren arrazoia gero eta indibidualistagoa den gizartean dago. Kohesio sozialaren hausturak pobrezia, biolentzia eta delinkuentziaren gorakada ekarri eta ongizate-sistemak mehatxatzen ditu. Horrek, demokrazia ahalbidetzen duen konfiantza soziala arrakalatzen du (Inglehart, 1999). Bestalde, konfiantzari buruzko auzien mahaigaineratzea, harremanen konplexutasunaren hazkundearen, informazio jario handi eta bizkorren eta hondamendi ekosozialaren garaian, etorkizuna aurreikustea zaila den testuinguruan ulertu beharra dago (Ganbetta, 1988; Warren, 1999). Interpretazio horrek bete-betean Beck-ek (1992) arriskuaren gizarteaz irudikatutakoarekin bat egiten du. Jendartean orain arteko muga guztiak hausten eta aldatzen ari direnaren pertzepzioa ari da errotzen, gero eta mundu

ezegonkor eta aldakorrei kudeatu eta zentzua eman nahian. Ziurgabetasunak eta ezegonkortasunak – aditu, erakunde, komunitatearekiko etab. – ezaugarritzen dute gizarte garaikide post-moderno edo Bauman-ek (2000, 2001) deituko liokeen gizarte likidoa. Testuinguru horretan, menpekotasun eta zaintza beharrei eusteko egitura tradizionalen gainbeherak, ehun familiar eta komunitarioaren zatiketa eta politika publikoen ahuleziarekin batera, arlo horretan jendeak zituen itxaropenak eta zaintzaren etorkizun soziala ezbaian jarri dituela nabaria da (Vega eta Martínez-Buján, 2017). Hortaz, inoiz baino gehiago elkarrekintzan eta konfiantzan oinarritutako harreman sozialak berreraikitzea erronka garrantzitsua da fenomeno eta arazo sozialei irtenbide kolektiboa emate aldera.

3.7.1. Konfiantza irudikapen sozialen teorian

Literaturan, konfiantzari buruzko definizioari dagokionez, hiru ezaugarri edo elementu nagusi nabarmentzen dira. Lehenik eta behin, beste pertsona, objektu, talde edo erakunde batean konfiantza izateko *borondate* edo jarrera izatearekin lotzen da (Siegrist, Cvetkovich eta Roth, 2000). Bigarren elementuak *espektatibari* egiten dio erreferentzia, besteak norberarentzat garrantzitsua den ekintza egingo duenaren espektatiba, alegia (Mayer, Davis eta Schoorman, 1995). Hirugarren elementuak, berriz, *zaugarritasuna* adierazten du, hau da, beste-ekiko harremanean konfiantza jartzen duen pertsona edo aldea zaugarritasun eta menpekotasun egoera batean kokatzen da (Mayer, Davis eta Schoorman, 1995). Laburbilduz, “zaugarritasuna adierazteko eta besteen ekintza eta asmoei buruzko espektatiba positiboak izateko pertsonak daukaten prestutasun” gisa ulertzen da konfiantza (Yamagishi eta Yamagishi, 1994, 132 or.). Giddens-ek (1991) dioenari helduz, konfiantza fede ekintza gisa ere ulertu daiteke, besteak norberarenganako jarrera positiboa izango duenaren sentimendu eta esperantzan oinarritua.

Ikuspegi soziologiko eta psikosozial batetik, *self* – *bestea*-ren arteko interakzioak konfiantzatik abiatzen dira, eta interakzio horiek ezinbestekoak dira sozializazio eta komunikazio prozesuan (Jovchelovitch, 2007b). Horrenbestez, konfiantza gizarteko indar sintetiko eta artikulatzaile garrantzitsuenetako bat da, eta funtsezko osagaia da sentimendu psikosozialaren eta ezagutza sozialaren eraikuntzan (Simmel, 1950). Konfiantzarik gabe gizartea nekez eratu liteke, hondoratzeko eta suntsitzeko arriskua

handia izanik. Hortaz, elkartasunaren, elkarrekikotasunaren, segurtasunaren eta kapital sozialaren kontzeptuekin ere parekatu izan da konfiantza (Putnam, 2000; Putnam, Leonardi eta Nanetti, 1993).

Maila akademikoan konfiantzari buruzko ikerketen gorakada ere nabarmena da, eta horien artean arrakastatsuak dira gizarte eta erakundeekiko dagoen konfiantza orokorra kuantitatiboki neurtu eta ebaluatzen dituzten eskalak (Inglehart, 1999; Yamagishi eta Yamagishi, 1994). Hala ere, eskala hauen dimentsio bakarreko hurbilpen teoriko eta enpirikoa kritikatu izan da literaturan, eta konfiantzaren izaera kokatua azpimarratu izan da. Horrela, konfiantzaren izaera polisemikoa eta aldakorra nabarmentzen da (Marková eta Gillespie, 2007). Norbanakoak konfiantzaren esanahia garatzen du sozializazio eta komunikazio prozesuaren bitartez, tokian tokiko ezagutza sistemekin bat eginik. Zentzu horretan, pertsona, talde edota erakunde ezberdinetan – gurasoak, lagunak, estatua, profesionalak, jainkoa etab. – konfiantza izateak, interakzio, komunikazio eta finean, konfiantza mota eta esanahia ezberdinak garatea inplikatzeko du. Askotariko harreman eta egoera hauek direla medio, konfiantza ezin da modu monologikoan ulertu, baizik maila dialogikoan (Gillespie, 2007; Linell, 2009). Ondorioz, pertsonen arteko komunikazioa, elkarrekintza eta elkar-ulermenerako oinarria eskaintzen duten aldetik, konfiantza prozesuak garatzeko funtsezkoak dira irudikapen sozialak. Irudikapen sozialak ulertzea, berriz, ezinbestekoa izango da konfiantza testuinguru eta maila ezberdinetan aztertzeko (Jovchelovitch, 2007)

Konfiantza ainguraketa prozesuan

Kapitulu honetan zehar azaldu den moduan, irudikapen sozialen eraikuntza ainguraketa eta objektibazio prozesuen bitartez gauzatzen da (Wagner eta Hayes, 2005). Prozesu horietako bakoitzak barnebiltzen dituen funtzio eta elementu ezberdinen artean, konfiantza garrantzitsua da fenomeno sozial berrien ainguraketa prozesuan. Horren garrantzia, bereziki, familiarizazio printzipioari lotuta ulertu daiteke; hau da, alde aurretik ezagun eta geureganatuak ditugun ezagutzei lotuta (Luchmann, 2000).

Moscovici-ren arabera (1984), partekatutako esanahi unibertsoetan, jendeak “etxean” bezala sentitu nahi izaten du, hori oztopatzen duen desadostasun eta borroka arriskuak sahiestuta. Ezezagun eta arrotz ditugun ezagutza eta fenomenoek, berriz, beldurra eta

mesfidantza sortzen dute (De-Graft Aikins, 2012). Beldurra arrotasunari, ezezagunari eta familiarra ez den mundu arriskutsuari lotuta agertu ohi bada, konfiantza, berriz, ezagun, hurbileko eta identifikatzen dugunarekin lotzen da. Modu horretan soilik errazten da bestea-rekiko komunikazioa eta bizitza komunitarioa; hau da, amankomuneko mundu sinbolikoa (Luchmann, 2000).


Alabaina, Jovchelovitch-ek (2007) ondo azaldu bezala, esparru publikoaren moderno eta heterogeneoen testuinguruan, fenomeno sozialei buruzko esanahi kontrajarri eta berrien aldiberekotasuna maizago kudeatzeak, energia psikosozial handia eskatzen du egunerokoaren kudeaketan. Zentzu horretan, garai moderno eta konplexuetan ezinbestekoa bilakatzen da konfiantza eta segurtasun iturri diren ezagutzen bilaketa. Era berean, segurutzat jotzen diren ezagutzetan oinarritutako portaerak izatea eta erabakiak hartzea ahalbidetzen du konfiantzak (Watier eta Marková, 2004).

3.7.2. Kontzeptu polisemiko eta dialogikoa

Konfiantza kontzeptu polisemiko eta dialogiko gisa ulertzeak zera esan nahi du: konfiantza *self*–*bestea*-ren arteko harremanetan oinarritzen den konstrukto dialogikoa dela, eta bizitza sozialeko testuinguru eta egoera ezberdinetan hartzen duela forma eta esanahia (Marková eta Gillespie, 2007). Hori dela eta, konstrukto psikologikoz harago, konstrukto historiko eta soziokultural gisa ere ulertzen da. Irudikapen sozial gisa ere ulertu liteke konfiantza, izan ere, modu inplizituan zein esplizituan egunerokoan jendeak fenomeno sozial ezberdinen inguruan partekatzen dituen komunikazio eta interakzio sozialetan dago une oro (Jovchelovitch, 2007b).

Ikuspegi honekin bat eginez, Marková eta Gillespie-k (2007) zein Jovchelovitch-ek (2007b) konfiantzaren azterketa lau mailatan antolatzen dute. Horien arabera, pertsona arteko harremanen oinarrietatik hasi eta komunitate-gizarte maila orokorrean garatzen diren elkarrekintzak artikulatzen ditu konfiantzak. Modu horretan, konfiantzaren dimentsio pertsonal, pribatu eta pertsona artekotik hasi eta talde-arteko konfiantza, profesionala eta erakundeei begirako konfiantzaraino iristen den eredua proposatzen da (ikus 6. Irudia).

6. Irudia: Konfiantzaren kontzeptualizazioa



Iturria: Marková eta Gillespie (2007)

- 1) *Pertsona artekoa / Lehen mailakoa*: maila honek konfiantzaren oinarri ontologikoari egiten dio erreferentzia, hau da, haurtzarotik hasita garatzen den oinarrizko konfiantzari. Maila honen eredu paradigmaticoa izango litzateke Erikson-ek (1968) teorizatutako haur eta gurasoen artean sortzen diren lehen interakzio eta hartu-emanak.
- 2) *Komunitarioa*: maila komunitarioak bizi-mundu ezagun eta ezezagunen esparru lokalari egiten dio erreferentzia, non ezberdinen arteko irudikapenak, ezagutza eta balioak partekatzen diren. Bertan zehazten dira konfiantza sozialaren oinarriak.

- 3) *Erakunde / antolakuntzazkoa*: maila hau eguneroko bizitza soziala antolatu eta egituratzen duten praktika eta kontratu arautuarekin dago lotuta. Horiekiko konfiantza eta zilegitasuna garrantzitsua da beraien funtzio soziala ziurtatzeko.
- 4) *Soziala*: Esparru publiko orokorrari eta estatuari dagokio. Dimentsio honetan konfiantza maila orokor, abstraktu eta inbertsonalean ulertzen da, eta norbanakoak gizartearekin duen lotura zehazten da.

Lehen bi mailek – pertsona artekoak eta komunitarioak- bereziki izaera pertsonal eta familiarreko harremanak barnebiltzen dituzten heinean, “berezkotzat” jo ohi dira, eta modu naturalizatuan edo “inkontzienteki” eraikitako konfiantzari erreferentzia egiten diete. Aldiz, erakundeei eta gizarteari begirako konfiantzak abstrakzio eta erreflexibitate maila handiagoa eskatzen du. Horrenbestez, eta hasieran esandakora itzuliz, *self – bestea*-ren arteko harreman guzti hauetan kontzeptualizatu eta analizatu daiteke konfiantza (Jovchelovitch, 2007; Marková eta Gillespie, 2007).

Konfiantzaren dimentsioak

Konfiantzaren kontzeptuak, elkar-eraginean dauden hiru dimentsio barnebiltzen ditu. Horiek dira arrazionaltasuna, emozioa eta praktika soziala (Watier eta Marková, 2004).

Batetik, konfiantza eguneroko arrazoiketan eta ezagutza sozialean oinarritzen da; hau da, ez da ez-jakintasan edo ezerezetik sortzen (Liu, 2011). Horrek esan nahi du besteenganako loturak eta joerak ere gizartean txertatutako, negoziatutako eta instituzionalizatutako ezagutzetan sustraituak daudela. Zentzu horretan, konfiantza izatea edo ez izatea ez da maila indibidualean ebaluatu eta erabakitzen den zerbait; kolektiboki eta gizarteko egitura eta sozialekin harremanean eraikitzen den zerbait baizik (Liu, 2011).

Bestetik, pentsamendu arrazionaletik harago, pentsamendu emozionalean eta sentimendu psikosozialetan oinarritzen da konfiantza. Segurtasun, zuhurtzia eta arrisku ezarekin lotzen da. Mesfidantza, berriz, segurtasun eza, susmo txar eta beldur sentimenduekin lotzen da (Watier eta Marková, 2004).

Azkenik, praktika soziala barnebiltzen du; hau da, konfiantza eguneroko praktika eta ekintza sozialaren bitartez egikaritzen eta iraunarazten da denboran zehar.

3.8. Menpekotasuna eta zaintza irudikapen sozialen teorian

Irudikapen sozialen teoriatik abiatuz, hainbat ikerketa hurbildu izan dira menpekotasunaren eta epe-luzeko zaintzaren gaira. Horien artean, nabarmentzekoak dira bereziki zahartzaroaren, osasunaren eta adinekoen zaintzaren inguruko irudikapen sozialak aztertu izan dituzten ikerketak (Brito et al., 2018; Flick et al., 2002; Nagel, Contarello eta Wachelke, 2011; Torres et al., 2015; Veloz, Nascimento-Schulze eta Camargo, 1999).

Ikerketek oro har, menpekotasuna, zahartzaroaren eta zaintza prozesuen alderdi negatibo eta ilunekin lotzen dela iradokitzen dute; eta zaintza, berriz, elementu positiboagoekin lotzen da (Hedler et al., 2016; Torres et al., 2015). Ildo horretan, zahartzaroari buruzko irudikapen sozialak landu izan dituzten ikerketek zahartzaroari buruz esanahi anibalenteak gailentzen direla nabarmendu izan dute. Adinekoaren jakintza eta bizi esperientziak alderdi positiboekin lotzen diren heinean, alderdi negatiboak bakardadearekin, gaitasun fisiko eta kognitiboen galerarekin, heriotza, zaurgarritasun, menpekotasun eta etsipen sentimenduekin lotzen dira (Sousa eta Cerqueira, 2005; Veloz, Nascimento-Schulze eta Camargo, 1999; Torres et al., 2015). Zahartzaroa bakardadeari eta eguneroko bizitzako aktibotasun eta autonomiaren galerari lotzen denaren ebidentzia partekatua da nazioarteko literaturan (Ampudia, 2000; Brito et al., 2018; Flick et al., 2002; Mendoza, 1999). Gainera, beste pertsonen zaintzaren menpe egoteak – familia, zaintzaileak etab. – sarritan ezintasun, inpotentzia eta gauza ezaren sentimenduak eragiten du pertsonengan, zainduaren ongizate emozionala eta harreman soziofamiliarak kaltetzen dituela erakutsiz (Brito et al., 2018; Tavares et al. 2013).

Bestalde, pertsonak norbere autonomia eta erabakiak hartzeko duen gaitasunaren arabera definitzen dira menpekotasun-egoerak. Horrela erakutsi izan da osasunaren esparru profesionalean egindako ikerketetan (Flick et al., 2003). Horien arabera, XXI. mende hasieran zahartze positibo eta aktiboaren paradigma bultzatzeko nazioarteko ikuspegi eta politika publikoen garapenarekin du zerikusia kontzeptualizazioak (Causapié et al., 2011; OME, 2002). Zahartzaroan, eguneroko jarduerak eta autonomia pertsonalak duen garrantzia nabarmentzen du paradigma horrek, hiru ezaugarri nagusietan oinarrituz: gaixotasunik ez izatea edo hauei lotutako arriskuak saihestea,

gaitasun funtzional fisiko eta kognitiboak babestuak izatea, eta bizitzarekiko konpromiso aktiboa erakustea (Rowe eta Kahn, 1997). Horrez gain, modu positiboan zahartu ahal izateko, erabakigarriak izango dira pertsonen dituzten baliabide sozioekonomikoak, fisikoak, pertsonalak zein osasun eta gizarte zerbitzuetarako sarbidea (Contarello et al., 2016). Zentzu honetan, gerontologiatik datozen zahartze positiboaren aldeko diskurtsoak eragina izan dute zahartzaroari eta osasunari buruzko irudikapen sozialetan. Diskurtso horietan gaztetasunean, bizi estilo independentean, aktiboan eta produktiboan oinarritutako ikuspegiak goraiatu izan ohi dira (Cerri, 2015; Rozanova, 2010; Ylance, Williams eta Wadleigh, 2009).

Txanponaren beste aldean, adinekoaren zaintzari buruzko irudikapen sozialak landu izan dira irudikapen sozialen teoriaren ikuspegitik. Zahartzearekin bezala, zaintzari buruzko irudikapen sozialak alderdi positibo zein negatiboekin lotzen direla azaleratu izan dute ikerketek. Pertsonaren bizitza eustera begirako ekintzak – garbitasuna, elikadura, botiken ardurak, estimulazioa etab. – eta zainduarekiko ardurak, prestutasun eta maitasun sentimenduek barnebiltzen ditu alderdi positiboak (Hedler et al., 2016; Souza eta Menezes, 2009). Alderdi negatiboak, berriz, zaintza prozesuarekiko segurtasun gabeziarekin, zainzailearen rola inposaketarekin, gainkarga eta estresarekin lotzen dela aipatzen da Aguiar eta kolaboratzaileek (2011) egindako ikerketan.

Bestalde, garai historiko, sozial, kultural eta ekonomikoaren arabera zaintzaren hornidurak eta banaketak ezaugarri ezberdinak hartu izan baditu ere, zaintzaren ardurak nagusia familietako esparru pribatu eta feminizatuaren esku geratzen da (Batthyány, Genta eta Perrotta, 2014; Moreno-Colom et al., 2017). Zentzu horretan, egindako ikerketa ezberdinek irudikapen sozialen alderdi soziokulturalak aztertzearen garrantzia mahaigaineratu izan dute, eta zahartzaroari zein zaintzari buruzko irudikapen sozialak testuinguruaren eta aldaketa sozialen arabera direla baieztatu (Brito et al., 2018; Camargo et al., 2014). Esate baterako, Brito eta kolaboratzaileek (2018) erakusten duten moduan, Brasilgo testuinguru kulturean zaintzaren ardurak bereziki familiarena dela kontsideratzen da; Italian, berriz, familiarekin batera, estatuarengan kokatzen da zaintzaren ardurak (Brito et al., 2018; Chiatti et al., 2013). Norabide berdintsuan, estatu espainiarrean egindako zenbait ikerketek, epe-luzeko zaintzaren esanahiak zaintzaren kultura familiaristan jatorria dutela nabarmentzen dute (Moreno-Colom, 2017).


4

Ikergaia eta helburuak

Tesi honek menpekotasuna eta epe-luzeko zaintzak eguneroko pentsamoldean nola ulertzen eta kudeatzen diren aztertzea du xede, eta horretarako irudikapen sozialen teorian oinarritzen da. Zehazki, teoriaren hurbilketa dialogikoak, gaiaren inguruan ematen dabilzan eztabaida, tentsio eta eraldaketak aztertzeke marko aproposa eskaintzen du eta etengabeko aldaketa testuinguruan ezagutza ezberdin eta maiz kontrajarriak eguneroko pentsamenduan nola azaleratzen diren aztertzea ahalbidetzen du. Hurbilpen horrek, menpekotasunari eta zaintzaren inguruko ikuspegi, praktika, harreman zein emozioak testuinguru soziokultural eta erlazional konkretu baten baitan ulertzeke aukera paregabea ematen du eta ezagutzaren eraikuntza eta eraldaketak testuinguruarekin etengabeko harreman eta elkarrizketan ulertzen laguntzen du. Zentzu horretan, menpekotasunaren eta zaintzaren izaera, irudikapen objektu gisa, dinamikoa, malgua eta askotarikoa dela esaten dugu. Hau da, bere esanahia kokatzen den testuinguru kultural – egitura soziala eta balio-sistema – eta erlazionalean – pertsona, talde eta erakundeen arteko eta baitakoa – eraiki, hedatu eta definitzen da.

Epistemologia dialogikoan oinarrituz, tesi honetan menpekotasunaren eta zaintzaren azterketan alderdi soziokultural eta erlazionalek daukaten pisua eta garrantzia mahaigaineratzea bilatzen da (ikus 7. Irudia). Alde batetik, fenomenoari buruz jendeak zer nolako diskurtsoak, bizipenak eta pentsamoldeak dituen ulertu nahi da, eta testuinguru soziokulturalean hartzen duten esanahia eta nolakotasuna aztertu. Bestetik, aktore eta eragile ezberdinen arteko harremanetan, horiekiko uste eta sinesmenak barne, menpekotasunaren eta zaintzarekiko esanahiak nola artikulatzen diren ulertu nahi da. Izan ere, menpekotasunaren eta zaintzaren izaeraren erdigunean kokatzen dira pertsona, talde, komunitate eta erakunde artean ematen diren loturak. Irudikapen sozialen oinarrian dagoen prozesu psikosoziala izanik, konfiantzaren azterketak menpekotasunaren eta zaintzaren inguruan jendeak dituen ezagutzak, praktika sozialak eta erabaki hartzeak ulertzen laguntzen du tesi honek (Jovchelovitch, 2008; Watier eta Marková, 2004). Horretaz gain, konfiantza izaera ezberdineko zaintza-harremanen artikulazioan eta ongizatean funtsezko elementua ere bada (Gilbert, 2020). Gizarte mailarari orokorrean erreparatuz, inoiz baino garrantzitsuagoa dirudi pertsona, talde, erakunde eta gizarteko harremanak sendotzea, kohesio soziala eta elkarren arteko bizikidetzeta eta zaintza sustatzeko.

7. Irudia: Tesiaren kontzeptualizazioa



Iturria: Norberak egina.

Ikergaiaren interesari dagokionez, aipatu da nazioartean zein Euskal Herrian bizitzen ari den trantsizio eta aldaketa soziokultural, politiko eta ekonomikoek, epe-luzeko zaintzari buruzko auziak, eztabaidak eta proposamen berriei heltzea ekarri dutela. Horrek, tradiziozko zaintzaren kultura eta antolaketa familiaristan eraldaketak eragin ditu. Biziaren luzapen edo demokratizazioak, familia egituren aldaketak eta balio individualisten hedapenak, besteak beste, bereziki zahartzaroari lotutako menpekotasun eta zaintza beharrei politika publikoetatik erantzun kolektiboa ematearen beharra mahaigainean jarri dute (Comas d-Argemir, 2015, 2019). Fenomeno horietako bakoitzak aldaketa nabarmenak ekarri ditu gizartean eta ongizate-sisteman,

eta bizikidetzarako oinarri eta arauak aldatu ditu. Zentzu horretan, zaintza krisiaren kontzeptuak, kapitalaren, enpleguaren eta erreproduzio sozialaren arteko etengabeko tentsioari eta zaintzaren egungo antolaketa soziopolitikoaren mugei erreferentzia egiten die (Pérez-Orozco, 2014).

Norena da zaintzaren ardura gizartean? Familiek zein puntutaraino hartu behar dituzte beregain senideen zaintza beharrak? Zaintzaile baten kontratazioa, eguneko zentroak edota egoitzak aukera posible eta desiragarriak al dira? Nola espero dugu eta nahiko genuke zainduak izatea? Zer espero daiteke besteengandik – familia, lagunak, erakundeak – menpekotasun eta zaintza behar egoera batean? Etxe eta kaleko elkarrizketa askotan presente dauden kezka eta gai arantzatsu bezain potoloak direla ezin da ukatu, guztiok ukitzen gaituen auzi partekatua izanik. Horrekin batera, gizarte justu eta berdinzale batera bidean, auzi eta erronka soziopolitiko garrantzitsuak zeharkatzen dituen gai baten aurrean gaude; hala nola, arrakala sozialak murriztea (generoa, klasea, migrazio -estatusa, etab.), bizitza duintzeko ezinbestekoak diren lan eta aktoreen aitortza edota ondo zaindua izateko eskubide unibertsala bermatzea. Zentzu horretan, garrantzitsua da auzi hauek esparru publikoan kokatu eta zaintzaren antolaketa eta kudeaketa proposamen berriak birpentsatzea komunitate zein instituzio mailan. Euskal Herrian, dagoeneko badaude norabide horretan lanean ari diren mugimenduak eta gauzatzen ari diren proposamenak. Tesi honen bitartez, menpekotasunari zein zaintzari buruz ditugun ideiak eta portaera sozialak ulertzeko markoa eskainiz, errealitate horri heldu eta berau ulertu eta hobetzen saiatzeko ekarpen xumea egin nahi izan da.

4.1. Ikerketa galderak

Aipatutako testuinguru eta arazo soziala abiapuntu izanik, tesi honek ondorengo galdera eta helburuei erantzutea bilatzen du:

1. Zeintzuk dira jendeak gaur egungo gizartean menpekotasuna eta epe-luzeko zaintzen inguruan dituen ideia eta ezagutzak?

Ikerketa galdera horrek tesiko lehen azterlanari egiten dio erreferentzia: *“Menpekotasuna eta epe-luzeko zaintzaren esanahia trantsizioan: tentsio eta kontraesanen azterketa”*.

2. Nola ari dira eraldatzen menpekotasunaren eta epe-luzeko zaintzaren inguruko esanahiak garaiko aldaketa soziokultural, politiko eta ekonomikoen testuinguruan?

Ikerketa galdera horrek tesiko bigarren azterlanari egiten dio erreferentzia: *“Nondik gatoz eta norantza goaz? Epe-luzeko zaintzari buruzko ezagutzaren eraldaketak”*.

3. Zer nolako harremana du zaintzari begirako konfiantzak pertsonen eguneroko ongizatearekin?

Ikerketa galdera horrek tesiko laugarren azterlanari egiten dio erreferentzia:

“Zaintza familiarraz harago: erakundeenganako konfiantzaren garrantzia ongizatean”

4. Zeintzuk dira konfiantzaren oinarri soziokulturalak menpekotasunaren eta epe-luzeko zaintzaren testuinguruan?

Ikerketa galdera horrek tesiko hirugarren azterlanari egiten dio erreferentzia: *“Nork zainduko nau? zaintza-eragileenganako konfiantzaren eta balio kulturalen arteko harremanak”*

4.2. Helburu orokorrak eta zehatzak

1. Menpekotasunaren eta epe-luzeko zaintzaren irudikapen soziala aztertzea, hari lotutako ezagutza, balio eta praktika sozialak Euskal Herriko testuinguru soziokulturalean nola eraiki, artikulatu eta eraldatzen diren aztertuz.

Helburu orokor honi erantzuteko asmoz, ondorengo helburu zehatzak lortu nahi dira:

- 1.1. Menpekotasunari eta epe-luzeko zaintzaren auziak garaiko gizartean zer nolako eztabaida, tentsio eta gatazkak pizten dituen identifikatzea.
- 1.2. Zaintza eredu eta paradigmen trantsizio soziokulturala aztertzea, ezagutza sistemen eraldaketan arreta ipinita.
- 1.3. Konfiantzaren konstruktoak menpekotasuna eta zaintzari buruzko irudikapen sozialetan betetzen duten funtzioaz gogoeta egitea.
- 1.4. Zaintza-eragileenganako konfiantzak pertsonen ongizatean nola eragiten duen analizatzea.

- 1.5. Menpekotasun eta zaintzaren testuinguruetan konfiantza zein esanahia soziokulturaletan oinarritzen den aztertzea.

Jarraian datorren kapituluan, ikerketa-galdera eta helburu horiek lortzera begira baliatu den hurbilketa epistemologikoa eta metodologikoa aurkezten da.

5

Alderdi epistemologiko
eta metodologikoak

Aurreko kapituluetakoa ataletan zehar tesi honen gaia testuinguratu, hurbilpen teorikoa azaldu eta ikerketa galdera eta helburuak aurkeztu dira. Kapitulu honen asmoa, berriz, tesiaren alderdi epistemologiko eta metodologikoei heltzearena da, hau da, ikerketa *nola* burutu den azaltzea. Dagoeneko, irudikapen sozialen teoriaren alderdi epistemologikoen zertzelada batzuk marko teorikoaren atalean azalduta, hemen modu sakonagoan azalduko dira tesiaren oinarri filosofikoak eta erabilitako estrategia metodologikoak.

5.1. Paradigma dialogiko eta konstruktibista “ahula”

Irudikapen sozialen teoriak, ezagutzari eta errealitate sozialari buruzko ikuspegi konstruktibista du oinarri. Horren arabera, norbanakoek modu aktiboan eta soziokulturalki eraikitzen dute ezagutza, eta eguneroko bizitzari zentzua ematen diote. Hala ere, irudikapen sozialen ikuspegi konstruktibista “ahula” dela iradokitzen da, irudikapen objektuari buruzko elaborazio soziala oinarri erreal eta materialetik abiatuz egiten delako (Lupton, 1999; Smith eta Joffe, 2012). Irudikapen objektuaren eraikuntza soziokulturala eta sinbolikoa aitortzen bada ere, objektuaren materialitatea eta objektibotasuna barneratzen da irudikapen prozesuan. Jakina, mundu sozialaren objektibotasuna ere sozialki eraikia da. Izan ere, objektibotasun hori giza praktika eta ikuspegiak denboran zehar iraun eta instituzionalizatzearen ondorioz sortzen da, belaunaldiz-belaunaldi transmititutako errealitate sozial eta sinbolikoak egitate eta ezagutza komun bilakatuz (Renedo, 2008).

Irudikapen sozialak konstrukzio gisa ulertzen diren aldetik, konstrukzio hauek dialogikoak ere badira (Marková, 2003). Irudikapen sozialen teoria norbanakoaren ontologia erlazional eta dialogikoaren ikuspegitik abiatzen da, eta ondorioz, ezagutza prozesu dialogikoen baitan eraiki eta eraldatzen dela kontsideratzen da. Norbanakoa soilik *bestea*-ren bitartez eraikitzen da, hau da, *bestea*-rekiko harreman dialogikoan. Aurreko ataletan aipatu den bezala, besteak askotarikoak izan daitezke, esaterako, nazioak, erakundeak, komunitate, pertsona konkretuak edota giza ohitura eta sinesmen konkretuak (Marková eta Gillespie, 2007). Horiekiko harremanean ematen da irudikapen prozesua, beti ere, modu kokatu eta aldakorrean. Hurbilpen epistemologiko horren garrantzia, hain zuzen ere, ezagutzaren izaera amaigabea eta malgua azaleratzean datza (Bakhtín, 1981). Norbanakoa izaki dialogikoa den heinean, sortzen

dituen esanahiak eta fenomeno sozialei ematen dien zentzua ez dira finkoak eta aldaezinak. Aitzitik, askotarikoak diren *beste*-ekin elkarrizketarako zabalik dago, eta hori komunikazio eta ekintza sozialean gauzatzen da (Renedo, 2008). Ideia horren harira, Marková-ren (2000) ondorengo aipuak ongi adierazten du dialogikotasunaren funtsa zertan datzan:

“Irudikapen sozialen eta komunikazioaren teoria ez da esperientzia kolektiboen arteko interdependentzia, eta horien berinterpretazioa norbanakoaren eta taldeen baitako ikuspegi, ekintza eta praktikan nola gauzatzen den aztertzer mugatzen. Irudikapen sozialen teoriak, bereziki, funtsezko duen dialogikotasuna azpimarratzen du; hau da, esanahien arteko interdependentziak tentsio dinamikoa, esanahien eta komunikazio estiloen eraldaketa, polifonia eta talka.”
(Marková, 2000, 455-456 or.)

Pasarte horrek, irudikapen sozialen izaera dinamiko, malgu eta aldakorra agerian uzten du, eta hori irudikapen objektu batek barnebiltzen dituen ezagutza eta esanahia ezberdinen arteko tentsio eta gatazkan gauzatzen dela argudiatzen da. Hau da, tentsioa, kontraesana eta gatazka daude ezagutzaren garapenaren oinarrian. Horrek bat egiten du ere Hegel-en (1977) pentsamendu dialektikoarekin. Izan ere, epistemologia positibista eta monologikoan, ezagutza errealitateari buruzko ikuspegi bukatu eta definituan oinarritzen den heinean, epistemologia dialogikoan berriz, ezagutzaren izaera erlazionala, dinamikoa eta amaigabea defendatzen da (Linell, 2009).

Ondorioz, epistemologikoki komunitate zientifikoaren aurrean posizionatzeak, inplikazio zuzenak dauzka ikerketa ekintzan, ezagutza zientifikoari buruzko jatorrian eta ikerlanak burutzerako orduan. Hain zuzen ere, ezagutza eta errealitate sozialari buruzko ikuspegi ezberdinetatik abiatzen baitira. Praktika zientifikoari dagokionez, paradigma dialogiko eta konstruktibistaren helburua ez da sortutako ezagutzaren fidagarritasun eta balideziaren baieztapen arrazionalista, baizik eta ezagutzaren dinamikak eta aldaketa sozialak ulertzeko ikuspegi kolektibo eta etikoak garatzea. Bestetik, ikertzaileak irudikapen objektuari buruzko ezagutza, parte-hartzaileekin eta ingurune sozialarekin harremanean eraikitzen duela jabetu behar du, ikerketa bera harreman gisa ulertuz (Gergen eta Gergen, 2000). Horretarako garrantzitsua izango da ikertzaileak (*self*) ikertuarekin (*bestea*) duen harremanaz hausnartzea, eta norbere kokapen eta

abiapuntu soziokulturalak azalaraztea; ikertzaileak sortzen duen ezagutza ez baitago bere harreman eta testuinguru sozialeko dinamiketatik kanpo.

Kapitulu honetan zehar sakonduko den bezala, tesi honetan paradigma epistemologikoa ez da ulertzen lubakietatik, eta horren adierazle da tradizioz paradigma positibista eta monologikoari lotu izan zaion metodo kuantitatiboa kualitatiboarekin batera uztartzea. Horrek, batzuen begietan kontraesana eta ahultasuna suposatu dezake. Izan ere, ikertzailearen ikuspegi eta diskurtso monologikoa saihestu eta ikerketaren alderdi erlazionalak praktikan jartzeko metodo kualitatiboak hobetsi izan dira literaturan (Renedo, 2008, Priego-Hernandez, 2017). Hala ere, atal honetan, tesi osoan zehar konstante bat izan den eta irudikapen sozialen teoriaren oinarri den epistemologia azaltzen da, aldi berean horrek sor ditzakeen ustezko inkoherentzia eta kontraesan metodologikoak argudiatuz.

5.2. Ikertzaile eta ikertuaren arteko elkarrekintza

Ikerketaren izaera dialogikoa eta konstruktibista abiapuntu izanik, ezinbestekoa da ikertzaileak (*self*) ikergaiarekin eta parte-hartzaileekin (*bestea*) sortutako harremanei buruzko gogoeta ezagutzaren eraikuntza prozesuaren erdigunean kokatzea (Marková, 2003, 2016). Hau da, ikertzailea errealitate sozial eta politikotik at ez dagoen pertsona dela onartzeak, ezinbestean eramaten du ezagutza prozesuan ikertzaileak duen rol aktiboa eta honen inplikazioak mahaigaineratzera. Zer ikertu denaz gain, *nola* ikertu denaren inguruko gogoeta egitea edota ikertzaileak prozesuan zehar bizi izandako esperientzia eta rol aktiboa aitortzea, tesi proiektu honen oinarrian jartzen dira. Horretarako, ezinbestean, ikertzaileak ikergaiarekiko duen lotura, parte-hartzaileekin izandako harremana, bidean sortutako zailtasunak eta horiek konpondu edo leuntzeko baliabideak argitara ekarri behar dira.

Lehenik eta behin, ikertzailearen kokapen soziokultural eta historikoa kontuan izanik, garrantzitsua da ikertzaileak ikerketa objektuarekin dialogikoki nola harremantzen den hausnartzea, izan ere, harreman hauetan eraikitzen dira ikerketa objektua eta ondorioak. Gainera, aurrerago ikusiko den bezala, ikerketaren gaineko gogoeta prozesua edo *erreflexibitatea* agerian uztea ikerketa kualitatiboen kalitatea ebaluatzeko irizpide garrantzitsua ere bada (Bauer eta Gaskell, 2000).

Erreflexibitatearen garrantzia ikerketa kualitatiboen baitan mahaigaineratu izan da bereziki. Ikerketa kuantitaboa ez bezala, ikertzaile kualitatiboak ikerketa prozesua gardentasunez azaldu beharra izaten du lanaren garrantzia eta balioa bermatzeko. Tradizio kuantitatiboak, eratortzen den epistemologia positibista dela eta, neurri handi batean, ikerketaren muga sozialak nola definitzen, aurre egin eta negoziatzen diren azaltzea ekidin izan du. Hala ere, hainbat ahotsetatik erreflexibitateak ikerketa kuantitatiboan duen aplikazio eta erabilgarritasuna aldarrikatu izan da, hari buruzko gogoetak eta praktikak ikerketa ezberdinetan azaleratuz (Ryan eta Golden, 2006).

Edozein dela ikerketara egiten den hurbilketa epistemologiko eta metodologikoa, erreflexibitatea, ikertutako komunitatearekiko eta ezagutzarekiko jarrera etikoaren adierazle da (Howarth, 2000). Aitzitik, norabide bakarrez ikertzailearen ahotsa eta begirada lehenestek, diskurtso monologikoari eta ikertzailearen botere posizioa handitzeari bide ematen dio (Linell, 2009). Hortaz, kalean eta komunitatean bezala, akademian pertsonen abiapuntu, bizipen eta kokapen sozialak ikerketaren begirada eta garapena osoki baldintzatzen dutela jakitun izanik, ikerketa prozesuetan norbere partzialtasun eta neutraltasun ezak sortzen dituzten joerez ohartaraztea baino ez da geratzen. Tesi honen posizionamendu epistemologiko eta metodologikoak ez du ezagutza unibertsal eta "objektiboa" sortzea bilatzen. Ezagutza ez da ulertzen ikergaitik eta ikertuengandik bereizita, baizik eta errealitatean txertatuta eta harekiko etengabeko elkarriketan (Gergen eta Gergen, 2000). Bide honetan, Jovchelovitch-ek (2007) dioenaren ildotik, fenomeno psikosozialen azterketan garrantzitsua da ikertzaileak ikerketa prozesuan duen inplikazioa ezagutu eta kudeatzeko gaitasuna garatzea.

Ikerketa esperientzian murgiltzeak ardura eta konpromisoa eskatzen du; lantzen den gaiarekiko eta ikertzeko moduekiko ardura. Bakhtín-en (1986) arabera, berezko dialogikotasuna dela medio, egileak bere sormen lanarekin arduraz konprometitzearen beharra du. Ideia horrekin guztiz ados izanik, ikertzaile guztien erronka izan beharko litzateke ikergaiarekiko zein gizartearekiko konpromisoa garatzea, eta hau neurri handian ikerketa ekintzaren nolakotasunean arreta ipiniz lortzen da. Hau da, nondik eta nola ikertu den argitan jarritz, eta prozesuan zehar sortutako gogoetak eta ikaspenak publiko zabalari jakinaraziz. Jarraian, hurbilpen dialogikoaren oinarriari helduz, labur-labur azalduko da landa-lanean nola jorratu eta kudeatu diren ikerketa objektuarekiko

urruntzea eta inplikazioa. Izan ere, urruntze-gerturatze tentsio hori lantzea ezinbestekoa da parte-hartzaileenganako entzute aktiboan trebatzeko. Urruntze ariketa egitea besteen ahotsak eta bizipenen berezitasunak perspektibaz ezagutzeko garrantzitsua bezainbeste da ikerketa esparruan aktiboki inplikaturik egotea (Jovchelovitch, 2007; Renedo, 2008). Hain zuzen ere, tentsio dialogiko horren baitan gauzatzen da ikerketa ekintza, hau da, pertsona arteko ezberdintasun eta kidetasunaren kudeaketan (Howarth, 2000). Jarraian, lehen pertsonan azalduko da ikertzaileak ikergaiarekiko eta parte-hartzaileekiko izan duen posizionamenduari buruzko gogoeta.

Menpekotasunarekin eta epe-luzeko zaintzarekin nire harremana bereziki familiartekoa izan da. Bereziki, aiton-amonen zaintza prozesu gazi gozoak zeharka bizi izan ditut, zaintzaile nagusia izan gabe. Boluntarioki zein maila profesionalean ere, aukera izan dut zaintza lanen egunerokoa ezagutzeko aniztasun funtzionaldun pertsonekin eta zaharren egoitza batean. Hala ere, esperientzia hauek ez dira denboran zehar luzatu. Nire burua emakume gazte, euskaldun eta zuri gisa kokatzen dut, langile klasetik datorren familia testuinguru batean hazi eta hezia izan dena eta Euskal Herriko Unibertsitatean Soziologia ikasketak burutzeko aukera izan duena, doktorego ikasketei jarraipena emanik. Zentzu horretan, kontziente naiz parte-hartzaileekin izandako harremanak guztiz baldintzatzen dituela norbere kokapen sozialak eta bizi istorioak, besteekiko konplizitate eta ezberdintasunak.

Bizi izandako ikerketa esperientziei dagokionez, aurrez-aurre elkartu nintzen adinekoaren zaintza familiarean bizi izandako pertsonekin, etxez etxeko zaintza lanetan aritzen ziren emakumeekin (horietako gehienak migratuak) eta egoitza ezberdinetan bizi ziren adinekoekin. Galdetegien kasuan, datu-bilketa online burutu zen, eta ez zen eman pertsona arteko horrelako topaketa eta hartu-emanik. Elkarrizketatuetako batzuk, senideen kasuan gehien bat, herrikideak eta gertukoak nituen. Ondorioz, momentu batzuetan "ikertzaile" rola eta gaiarekiko distantzia jartzea ez zen lan erraza izan, nahi edo ez, nire burua parte-hartzaileenekin identifikatzen nuelako eta testuinguru eta bizipen sozial berdintsuak partekatzen genituelako. Hortaz, behar baino gehiago inplikatzeko eta hitz-egitea saihesten ahalegindu nintzen. Ez zen hala gertatu migratutako zaintzaileen eta egoiliarrean kasuan. Esaterako, zaintzaile gehienak ez nituen aurrez ezagutzen eta jakitun nintzen sozialki integratutako eta klase ertaineko akademiko zuri

eta arrotz gisa ikusi ahalko nindutela, eta horrek ardura handia suposatzen zidan beraiekin berdintasun, enpatia eta gertuko harremana sortzerako orduan. Konfiantza, konplizitatea eta ikerketarekiko asmo eta kezka sozialak gardentasunez adieraztea balio garrantzitsuak izan ziren horretarako. Adineko egoiliarren kasuan ere, nahiz eta gehienek kognizio eta komunikazio gaitasunak egoera onean mantentzen zituzten, gehienetan aurrez prestatutako elkarrizketa gidoia eta ariketa moldatu behar izan nituen, batik bat hizkuntza erabilera moldatuta eta ulergarri eginez. Bizi egoera zaurgarriak izanik, hizkuntza eta jarrera paternalistak ekiditen saiatu nintzen, eta horretarako ahalik eta gehien pertsonen erritmoa, autonomia, intimitatea eta hitza errespetatzen saiatu nintzen. Azken kasu honetan, egoitzako profesionalek bideratu zituzten parte-hartzaileekin loturak, eta horrek nolabait niganako mesfidantzari eta urruntasunari bide eman ziezaiokeen, nolabait beraien parte-hartzea erakundearen autoritatearen menpe geratzen delako. Nire burua gertutasunez eta modu konfidentzian aurkeztu nintzen, lanaren nondik norakoak eta asmoak zeintzuk ziren argi azalduz.

Behin elkarrizketak amaituta, parte-hartzaile bakoitzarekin izandako elkarrizketetan eta balorazioan, gehienek adierazi zuten parte-hartu izanaren poza eta esperientzia positiboa. Askok aipatzen zuten faltan nabaritzen zutela zaintzarekin zituzten bizipenak jende gehiagorekin partekatzea, eta duen garrantziagatik, gaia gizarteratzea. Egunerokoan oso presente dagoen errealitatea izanik ere, elkarrizketek pentsarazi egin zirela onartzen zuten eta gehienetan ezkutuan geratzen den eta inork heldu nahi ez dion errealitatea dela aipatzen zuten; etxez etxeko zaintzaileek bereziki, inpotentziaz, tristuraz eta estigmatik bizi zuten egoera. Online bidezko galdetegian parte-hartzaileen *feed-back-a* txikiagoa izan bazen ere, azken iruzkin eta gogoetarako atalean askok gaiarekiko zituzten ikuspegiak azaleratu zituzten. Galdetegia luzea izanagatik ere, garrantzitsua eta interesgarria zela iradokitzen zuten, eskerrak emanaz aurrera eramaten nabilen lanagatik. Hortaz, argi geratu zen modu ezberdinetan tesiko ikerketa ezberdinetan parte-hartu zuten pertsonen positiboki bizi izan zutela prozesua, eta gaiarekiko zituzten ikuspegi eta bizipenak adierazteko baliagarri izan zitzaizela.

5.3. Irudikapen sozialen teoria eta epistemologia feminista lotuz

Ezagutza paradigma positibista eta indibidualistatik aldentzen diren heinean, irudikapen sozialen teoriaren eta ikerketa feministaren arteko kidesunak eta loturak anitzak dira (Arruda, 2010; Soubelet-Fagoaga, 2019). Biak ala biak modernitatean zeharkatzen duen trantsizio paradigmaticoaren baitan kokatzen dira eta zientzia positibista eta kartesiarraren gailentasunarekin kritiko diren ikuspegi epistemologiko eta metodologiko berritzaileei bide ematen die (de Sousa Santos, 1989). Zentzu horretan, psikologian eta oro har gizarte zientzietan nagusi den ikuspegi *mainstream* eta hegemonikoaren kritika egiten duten teoria konstruktibista eta erlazionalean aurki ditzakegu bien arteko kidesunak. Jarraian, irudikapen sozialak ikuspegi feministatik lantzen dituzten ikertzaileek iradokitzen dutenaren ildotik, bi ikuspegi eta jarrera epistemologikoen partekatzen dituzten hainbat ezaugarri aletuko dira (Serrano-Oswald, 2013; Soubelet-Fagoaga, 2019).

5.3.1. Ezagutza testuinguruan kokatzea

Irudikapen sozialek, beti ere, interakzio, egoera eta testuinguru konkretuetan hartzen dute esanahia, eta ondorioz, haien izaera dinamiko eta kokatuaz hitz egiten da (Jovchelovitch, 2007). Irudikapen bat ezin da ulertu sortzen den testuinguru historiko, soziokultural eta ideologikoa kontuan izan gabe. Izan ere, beti daude irudikatzen duen pertsona, talde edo gizartearen balio eta ezagutza sistemetan txertatuak, edota momentuko egoeraz baldintzatuak. Ezagutza sortzen den testuinguruan ulertu eta interpretatzearen ideia berdintsua aldarrikatzen du teoria feministak ere; ezagutza eta metodo zientifikoaren ikur izan diren objektibotasun, neutraltasun eta unibertsaltasun idealetatik at, ezagutza beti kokatua eta testuinguruaren arabera dela azpimarratzen da (Haraway, 1995; Serrano-Oswald, 2013). Objektibotasun eta unibertsaltasunaren izenean, ezagutza androzentriko eta kolonialistak behin eta berriz erreproduzitzea kritikatzeko zaio positibismoari, eta ikerketa prozesua inoiz ez dagoela ikertzaileen balio eta posizionamendu sozialek at. Ildo horretan, ezagutza nondik eta nola eraikitzen denaren hausnarketa barneratzen da, generoa, klase soziala, arraza, identitate kulturala eta bestelako kategoria soziopolitikoaren eta horietatik sortutako botere asimetriaren garrantzia mahaigaineratuz ikerketa prozesuetan (Espinosa-Miñoso, 2014). Teoria eta hurbilpen feminista bakar eta absoluturik ez dagoela aitortuta ere, esan daiteke

pentsamendu binarioaren, erredukzionismoaren eta zientziaren neutraltasunaren gaineko sinesmenaren kritika amankomuna egiten dutela guztiek. Kritika horrekin bat egiten du irudikapen sozialen teoriak ere (Arruda, 2010).

5.3.2. Subjektibotasuna eta agentzia

Norbanakoaren agentzitatea eta subjektibotasuna ere, irudikapen sozialen teorian eta teoria feministan oso presente dagoen gai bat da. Durkheim-en (1898) irudikapen kolektiboen teoriak norbanakoaren inguruan duen ikuspegi determinista eta pasiboa birpentsatuz, irudikapen sozialen teorian norbanakoaren ekintza eta sormen gaitasuna aitortzen da errealitatearen eraikuntzan (Wagner eta Hayes, 2005). Modu honetan, norbanakoak irudikapen prozesuetako agente aktibo gisa kontsideratzen dira, norbere identitate eta ideologiak defendatu, negoziatu zein errefusatzeko gaitasuna daukaten heinean (Howarth, 2006). Teoria feministari dagokionez, ezagutzaren eraikuntzan alderdi subjektibo, afektibo zein kulturek daukaten garrantzia mahaigaineratzen da, eta norbanakoak ikerketa prozesuan duen rol aktiboa erdigunean jartzen da. Gainera, ikertzaile (*self*) eta ikertuaren (*bestea*) gaineko hausnarketa bultzatzen da, ikerketan parte-hartzen duten pertsonen posizioa ahalduntzeko eta ikerketaren gizatasuna bilatzeko (Blazquez, 2010). Hori horrela, irudikapen sozialen teoriak eta teoria feministak bat egiten dute, subjektuak ezagutza prozesuan duen rola aitortuz. Irudikapen sozialen teorian, irudikapena ikertzaile eta parte-hartzaileen arteko interakziotik eratorria dela azaltzen da, teoria feministan bezala (Blazquez, 2010; Gergen eta Gergen, 2000; Longino, 1988).

5.3.3. Baztertutako errealitateekiko interesa

Irudikapen sozialen teoriak zein ikerketa feministak historikoki baztertuta eta ahotsik gabe izan diren ezagutza eta gaiei aitortza egiten die; biek ala biek, nor bere modura, hegemonikoak eta hainbatetan zapaltzaileak diren ikerketa ildoetan aintzat hartu izan ez diren errealitateei heltzen die (Arruda, 2010). Irudikapen sozialen teorian, ezagutza, askotarikoa eta deszentralizatu dela aipatzen da. Ondorioz, ezagutza mota ezberdinen arteko elkarrizketa eta aitortzan jartzen du arreta, “goi” mailako eta “behe” mailako ezagutzen arteko botere-harremanak eta menperatzea saihestuta (Jovchelovitch, 2007). Irudikapen sozialen bidez, pertsonen eguneroko esperientzia eta ezagutza komunari loturiko esanahiak azaleratu eta balioan jartzen dira eta ezagutza mota batzuk –

legitimatua – ez dira besteen gainera jartzen. Hortaz, azpiratutako ezagutza eta bizipenei ahotza ematen ahalegintzen da. Norabide berdintsuan, ikerketa feministaren asmoetako bat historikoki bazterrean kokatu diren errealitateei heldu eta emakumeen bizipen eta esperientziak ikusaraztea izan da (Harding, 1987; Martín-Palomo eta Terrón, 2014). Tesi proiektu honen lehen ezaugarri bereizgarri eta kontzientea sozialki gutxietsia, feminizatua, prekarizatua eta arrazializatua dagoen errealitatera hurbiltzea izan da. Zaintza historikoki eta kulturalki, eremu pribatuari, bizitzaren erreproduzioari eta feminitateari lotuak izan dira, emakumeei esleituz zaintzaren ardura eta arau morala; ondorioz, menpekotasunari eta adinekoen zaintzari lotutako esanahiak ezin ditugu botere asimetrietatik kanpo ulertu (Carrasco, Borderías eta Torns, 2011). Bestalde, produkzioa, gaztetasuna eta buruaskitasuna goraiatzeko dituzten balio eta ikuspegi baten, “menpekoaren” kategoria pertsona eta talde sozial konkretuekin lotzen da – zahartzaroa, aniztasun funtzionala, gaixotasun egoerak etab. –, horiei buruzko irudi negatiboa eta estigma indartuz (Garrau eta Le Goff, 2010; Mackenzie eta Stoljar, 2000). Zentzu horretan, errealitate eta gai hauei buruzko irudikapen sozialak ikertzeak lagundu dezake sozialki eta politikoki azpiratutako bizipen eta esperientziak balioan jartzen eta horien garrantzia aitortzen.

5.3.4. Ikuspegi erlazionala

Irudikapen sozialen teoria zein ikerketa feministak ikergai eta objektuarekiko ikuspegi erlazional eta dialogikotik abiatzen dira (Arruda, 2010). Marko teorikoaren kapituluan azaldu bezala, irudikapen sozialak *self* eta *beste*-ren arteko interakzioan oinarritu eta eraikitzen dira, eta konstrukzio dialogikoak kontsideratzen dira (Marková, 2003; Moscovici, 1984). Ondorioz, irudikapen sozialak beti interakzioak eta testuinguruak baldintzatuta eraiki eta eraldatzen dira. Ikuspegi honek bat egiten du ikerketa feministak zientzia paradigma positibistari egiten dion kritikarekin. Horren arabera, ikerketa gai edo objektu bat ezin da ulertu bere testuinguru eta subjektibitate kanpo, eta ikertzailea ere inoiz ez da kokatzen aztergai duen objektutik kanpo, harekiko harreman eta tentsioan baizik (Arruda, 2010).

Bestalde, ikuspegi feministatik abiatzen den zaintzaren teoria edo etikak fenomeno sozialen hurbilketan ikuspegi erlazionala txertatzearen garrantziaz ohartarazten du, eta honek bete-betean irudikapen sozialen hurbilpen dialogikoarekin bat egiten du (Gilligan,

Tronto eta Hochschild, 2013). Zaintzaren ikuspegitik, giza zaurgarritasuna eta loturaren existentzia unibertsala da, eta ondorioz, pertsona guztiak dira zaintza emaile eta hartzaile bizitzan zehar, nahiz eta bizitzako aro batzuetan zaintza beharrak areagotzen diren (Molinier eta Legarreta, 2016). Modu horretan, erabateko autonomiaren eta pertsonari buruzko ikuspegi indibidualistarekin apurtzen da, kontzeptualizazio horiek partzialak eta behin-behinekoak direla kontsideratuz. Hortaz, zaintzaren teoriak gure ahuleziaren, hauskortasunaren eta giza loturen ezinbestekotasuna mahaigaineratzen ditu (Molinier eta Legarreta, 2016; Paperman, 2004, 2011). Ideia horrek guztiz bat egiten du irudikapen sozialen epistemologia dialogiko eta intersubjektiboarekin, non bestee-
rekiko interakzio eta aitortzan oinarritzen den ezagutzaren eraikuntza (Marková, 2003, 2016).

5.4. Triangulazio metodologikoa

Irudikapen sozialak enpirikoki ikertzerako orduan askotariko metodo kualitatibo zein kuantitatiboak erabili izan dira (Flick, Foster eta Caillaud, 2015). Hori dela eta, irudikapen sozialen izaera eklektikoa nabarmentzen da. Egun, metodo kualitatiboek irudikapen sozialen azterketan leku garrantzitsua eta propioa badaukate ere, horiei lotutako eztabaida epistemologiko eta metodologikoak baztertuak izan ziren denbora luzean gizarte psikologian (Flick eta Foster, 2008). Hori horrela izan da tradizioz gizarte psikologiaren irudi esperimentalak eta positibista gailendu izan delako; eta horrek, ezinbestean, irudikapen sozialen teoriaren eraikuntza eta hedapenean ere eragina izan du (Rizzoli, et al, 2018).

Irudikapen sozialak aztertzeko metodoa aukeratzeko, lehendabizi ikergaiari eta ikerkuntza moduari lotutako hausnarketa eta hautua egin beharra dago. Hau da, *zer* aztertu, *zergatik* eta *zertarako* galderei jarraitu eta erantzun beharra dago; horren arabera, metodo bat edo beste erabiltzeko arrazoiak ezberdinak baitira. Gainera, aurrez esan bezala, irudikapen sozialen teoriak ez du lehenesten metodo bat besteen artean. Horregatik, ikerlariak zein metodo erabili nahi duen erabakitze garrantzitsua izango da *zer* eta *nola* aztertu nahi duen zehaztea (Flick, Foster eta Caillaud, 2015). Tesi honen kasuan, esaterako, garrantzitsua izango da menpekotasunaren eta epe-luzeko irudikapen sozialaren baitan zein alderdi eta dimentsio aztertu eta landu nahi diren zehaztea metodo bat edo beste aukeratzeko orduan, eta metodo ezberdinen arteko

konbinaketa justifikatzerako garaian. Ikuspegi pragmatiko batetik, ikerketa galdera eta helburuetara hobekien egokitzen diren metodoak lehenetsi eta uztartzearen estrategia *triangulazio* kontzeptuaren bitartez justifikatzen da. Triangulazioa, bateragarritasun epistemologikoa aintzat hartu gabe, unitate enpiriko berberak aztertzeko bi ikerketa-estrategia edo gehiago konbinatzean datza (Denzin, 1970/1978).

Alabaina, triangulazioak ikerketaren baitan sortzen diren tentsio epistemologikoak kudeatu beharra dakar. Psikologiaren arloan tentsio horiek gizarte eta natur zientzien artean lehenetsitako paradigmei loturikoak izan daitezke. Gainera, psikologiari lotutako tentsio historikoetan gizarte psikologiaren jakintza esparruari loturikoak nabarmenagoak dira, norbanakoaren eta gizartearen arteko elkargunean dagoen diziplina izaki. Gizarte psikologia zientzia nomotetiko eta esperimetal gisa definitu izan da denbora luzez, non norbanakoa testuinguru sozialari deslotua ulertu izan den. Horren aurrean, zenbait autorek izaera sozialagoa duen eta kritikoagoa den gizarte psikologia baten garapena bultzatu dute, disziplinaren helburua bera pertsona eta gizartearen arteko interakzio eta berezko gatazkaren azterketara bideratuta (Abreu Lopes eta Gaskell, 2015; Moscovici, 2012). Irudikapen sozialen teoriari dagokionean, tentsioak diziplinartekoak izan ohi dira, hau da, psikologiak soziologiarekin, antropologiarekin edota historiarekin dituen kidetza, elkarlotura eta mugei dagozkienak; baita, irudikapen sozialen azterketari lotutako tradizio epistemologikoari loturikoak. Tesi honen kasuan, irudikapen sozialen teoriara ikuspegi dialogiko batetik abiatzen da, eta tradizio horretan ikerketa paradigma positibista eta esentzialistak gogor kritikatuak izan dira, paradigma konstruktibista eta kualitatiboen alde eginez. Ondorioz, hurbilpen epistemologiko horren baitan metodo kuantitatibo eta estatistikoak ere baliatzeak sor lezakeen talka eta kontraesanak aintzat hartzen dira. Hala eta guztiz ere, garrantzitsua eta interesgarria da tradizio eta metodo ezberdinen arteko uztarduratik sor daitezkeen ezagutza aldaeretan arreta ipintzea eta hauen arteko mugak zentzu itxian ez ulertzea. Azken finean, ikertzailearen begirada, asmo eta helburuek zehazten baitute ikerketa prozesua nola eramango den aurrera. Beraz, tentsioak tentsio eta kontraesanak kontraesan, triangulazio epistemologiko eta metodologikoari heltzea funtsezkoa da irudikapen sozialen edukiak eta mundu sozialean kokatutako objektu/fenomeno jakin baten eraikuntza aztertzeko garaian (Apostolidis, 2006; Caillaud et al., 2019).

Tesi honetarako, irudikapen sozialen izaera eklektikoa eta triangulazio metodologikoaren printzipioak oinarri hartu dira eta ikerketa metodo ezberdinak erabili dira menpekotasunaren eta epe-luzeko zaintzari buruzko irudikapen sozialei dimentsio eta ikuspegi ezberdinetatik heltzeko. Egindako ikerketa enpirikoak maila kualitatibo zein kuantitatiboan landu dira, eta tradizio epistemologiko eta metodologiko ezberdinak uztartzeak sortu ditzakeen kontraesan, tentsio eta tirabirak kontuan izanik ere, metodo kualitatibo eta kuantitatiboen arteko konbinazioa zentzu positiboan ulertzen da (Caillaud et al., 2019). Esan bezala, metodo baten edo bestearen aukeraketa automatikoa egin aurretik fenomenoak *zergatik* eta *zertarako* aztertzen den kontuan izatea da garrantzitsuena, hau da, hautu epistemologiko eta metodologiakoaren kontzientzia izatea. Horrek ere, eztabaida metodologikoa, ikerketa kualitatiboa eta kuantitiboaren arteko lehia, botere-harreman eta konplexuez harago ulertzen eta lantzen lagundu dezake (Gergen, Josselson eta Freeman, 2015).

5.4.1. Kuantitatibo vs. kualitatibo eztabaidaz harago

Ikuspegi feminista eta kritikoa darabilten hainbat ikertzailek iradokitzen dutenaren ildotik, posible eta beharrezkoa da ustez kontrajarriak eta lehiakide diren tradizio epistemologiko eta metodologikoen arteko zubiak eraikitzea (Westmarland, 2001). Eztabaida metodologikoa ezaugarritu duten dikotomiez harago – objektibotasuna vs. subjektibotasuna, arrazoa vs. emozioa, gogamena vs. gorputza – joan daitekeela erakusten du horrek, baldin eta ezagutza nola sortzen denaren inguruko gogoetaz gain, ezagutza hau *nork* eta *zertarako* erabiltzen duen kontsideratzen bada (Harding, 1986). Erabiltzen diren metodologiez gain, metodo bakoitza zein ikuspegi eta helburu jarraituz baliatzen den kontuan izan beharra dago, hau da, gizarteko eta pertsona arteko botere-harreman eta posizioak mantentzeko edota aldaketa eta justizia soziala bultzatzeko erabiltzen diren (Westmarland, 2001). Zentzu horretan, galdeketa, eskala kuantitatiboek eta analisi estatistikoek ere, elkarrizketa sakonek bezainbesteko balioa izan dezakete, bakoitzaren funtzioa eta ekarpena ikerketan zein den argi izan eta ikertzailearen posizionamendu eta ikuspegiak norabide eraldatzailea badute (Maynard, 1994). Kelly, Regan eta Burton-ek (1992, 150 or.) diotenaren ildotik, “erabilitako metodoak ez du ikerketa feminista izatea ziurtatzen, metodoa nola eta zertarako erabiltzeak baizik”. Hori dela eta, metodo kualitatiboak fenomenoari buruzko

esanahietan sakontzen eta modu ulerkorrean hurbiltzen laguntzen duen moduan, metodo kuantitatiboa garrantzitsua izan daiteke joera eta prozesu psikosozialen ezagutza eta identifikaziora modu orokorrean hurbiltzeko.

Tesi honetan, metodo kualitatibo zein kuantitatiboa uztartu dira menpekotasunaren eta epe luzeko zaintzaren irudikapen sozialen alderdi eta dimentsio ezberdinak aztertzeko. Irudikapen soziala maila kualitatiboan lantzeak menpekotasunari buruzko eztabaidan eta eraldaketan dauden ezagutza eta esanahietan sakontzeko aukera ematen du. Baita, gaien inplikaturako aktore sozialek gaiaren inguruan dituzten bizipenak, diskurtsoak eta ikuspegiak bertatik bertara ezagutu eta sentitzea. Bestalde, tesiaren alderdi kuantitatiboa zaintza-eragileenganako jendeak duen konfiantza-maila aztertzeko baliatu da. Horrek menpekotasuna eta zaintzari buruzko irudikapen sozialen eraikuntzan eta harremanetan funtsezkoa den elementu bat operazionalizatu eta ikerketa tresna bat sortzeko eta bestelako aldagaiekin nolako harremana duen analizatzeko aukera ematen du. Ondorengo taulan, tesia artikulatzen duten lau ikerketa enpirikoen helburuei jarraiki, baliatutako teknika eta estrategia metodologikoak aurkezten dira (Ikus 2. Taula).

2. Taula: Tesiaren estrategia metodologikoak

KONZEPtualIZAZIOA	MENPEKOTASUNA ETA EPE-LUZeko ZAINtZA	IKERKETA ESTRATEGIA ETA HELBURUAK
	1. Azterlana: Esanahien arteko tentsio eta gatazkak	<ul style="list-style-type: none"> • Hitzen asoziazio askea (GEM) + elkarrizketa indibidualak (n=26): menpekotasuna-zaintzari buruzko balio, ideia eta esperientziak biltzea.
	2. Azterlana: Ezagutzaren eraldaketa	<ul style="list-style-type: none"> • Hitzen asoziazio askea (GEM) + elkarrizketa indibidualak (n=26): menpekotasuna-zaintzari buruzko ezagutza moten eraldaketak identifikatzea.
	3. Azterlana: Konfiantza eta ongizate psikosoziala	<ul style="list-style-type: none"> • Galdetegia (n=174): zaintza-eragileenganako konfiantza neurtu eta honek pertsonen konfiantza orokorrarekin duen lotura aztertu.
	4. Azterlana: Konfiantzaren eraikuntza soziokulturala zaintzan	<ul style="list-style-type: none"> • Galdetegia (n=174): zaintza-eragileenganako konfiantza neurtu eta balio soziokulturalekin duen harremana aztertu.

Iturria: Norberak egina.

Esan bezala, metodo kualitatibo eta kuantitatibo ezberdinen arteko uztarketa edo triangulazioa burutu da tesia osatzen duten lau ikerketa enpirikoen bitartez (Flick, 2007). Hortaz, hitzen bidezko asoziazio askea eta elkarrizketa indibidual erdi-egituratuek jendeak menpekotasunari eta epe-luzeko zaintzen inguruan dituen ikuspegi, balio eta ezagutza naturalizatuetan arakatzeko aukera ematen dute. Menpekotasunari buruzko ezagutzaren oinarrian dauden ageriko eta ezkutuzko gaietan sakontzea ere ahalbidetzen da (Moscovici eta Vignaux, 2000). Aldiz, hurbilketa kuantitatiboan oinarrituz, galdetegiaren hurbilketaren bitartez, jendeak menpekotasun eta zaintzari loturik duen konfiantza aztertu nahi izan da, zaintza-eragile ezberdinenganako konfiantza maila dialogiko eta multidimentsionalean neurtuta (Markovà eta Gillespie, 2007). Ikerketa estrategia eta tradizio ezberdinen erabilerak irudikapen sozialak maila eta ikuspegi ezberdinetatik lantzea ahalbidetzen du. Hala ere, tesi honetan garrantzitsutzat jotzen da kontraesan metodologiko eta epistemologikoez jabetu, eta ahal den neurrian zubiak eraiki eta horiek kudeatzen ikastea.

5.4.2. Hitzen asoziazio askea (GEM metodoa)

Hitzen asoziazio bidezko ikerketa edo GEM metodoa (Grid Elaboration Method) teknika baliagarria da jendeak modu naturalistan eta bat-batean menpekotasuna eta epe-luzeko zaintza nola irudikatzen dituzten aztertzeko (Joffe eta Elsey, 2014). Metodo horrek, pertsonen beraien egunerokoan fenomeno eta arazo sozialekin nola engaiatzen diren eta nola barneratzen dituzten ulertzeko eta horien inguruko pentsamendu, emozio eta portaerak azalertzeko aukera ematen du.

Irudikapen sozialen ikerketan oso erabilia den metodoa da eta izaera ezberdineko gaiak aztertu izan dira honen bitartez, esaterako, arriskuari eta osasunari lotutako irudikapen sozialak (Smith eta Joffe, 2012; Washer eta Joffe, 2006). Bereziki tradizio estrukturalan (*nukleo zentral eta periferikoaren teoria*) erabili izan den metodoa bada ere, maila narratibo eta dialogikoan ere landua izan da. Izan ere, hainbatek kritikatu izan dute perspektibak estrukturalak ezagutzaren izaera soziala, komunikatiboa eta dinamikoa antzemateko dituen gabeziak (Liu, 2004). Hori dela eta, tesi honetan, menpekotasunari buruzko hitzen asoziazioa modu sakonean eta iradokitako esanahien nondik norakoak aztertu dira.

5.4.3. Elkarrizketa indibidualak

Elkarrizketa indibidualak jendeak testuinguru soziokultural konkretuan menpekotasunari eta zaintzari buruz dituen sinesmenak, balioak, bizipen eta motibazioak ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen du (Gaskell, 2000). Metodo hori baliagarria da eta oso erabilia izan da gai ezberdinei buruzko irudikapen sozialak aztertzeko. Izan ere, elkarrizketak maila indibidualean burutu izanagatik ere, horien izaera beti da soziala eta historikoa. Hau da, pertsonen beraien kontakizun indibidualaz harago, aztergai den fenomenoari buruz gizartean hedatzen diren ideia, diskurtso eta eztabaidak hizkuntzaren bitartez komunikatzen dituzte (Marková, 2003)

Gainera, irudikapen sozialen azterketan, fenomeno sozialen inguruan eraikitzen den ezagutza komuna ulertzea xede izanik, garrantzitsutzat jotzen da “kaleko pertsona arruntek” dituzten irudikapenak ulertzea, ezagutza zientifiko eta adituetatik aldenduz (Moscovici, 1973). Horrek ere, parte-hartzaileen irudikapenak eskutik eskura eta sortzen diren testuinguruan ulertzeko aukera ematen du, maiz ikertzaileek eta botere instantziek dituzten irudikapen eta mundu ikuskeren inposaketa saihestuz (Farr, 1993).

Ondorioz, menpekotasuna eta zaintzari buruzko ezagutzak egunerokoan nola kontzeptualizatzen eta biziak diren ezagutzeko ezinbestekoa da ikerketa prozesuan jendearen ahots eta errealitate ezberdinekiko kontaktua barneratzea.

5.4.4. Galdetegia

Galdetegia populazioak zaintza baliabide eta iturri ezberdinenganako konfiantza neurtzeko erabili da. Konfiantza funtsezko elementua da pertsonak zaintzari buruz aurrera eramaten dituzten praktika sozialak eta erabakiak ulertzeko, eta menpekotasun-zaintzari buruzko irudikapen sozialak artikulatzen ditu (Watier eta Marková, 2004). Eskala kuantitatibo baten eraikuntzak, konfiantzaren konstruktoa zaintzaren testuinguruan operazionalizatzea ahalbidetu du. Irudikapen sozialen teoriaren baitako kontzeptualizazioari jarraiki, konfiantza maila kokatuan aztertu da, Ego-Alter-Objektuaren arteko dinamikak bere baitan barnebilduta. Zentzu horretan, konfiantzan arreta jartzeak menpekotasun eta zaintzari buruzko irudikapen sozialak maila interakzional eta dialogikoan aztertzeko aukera paregabea eskaintzen du (Marková eta Gillespie, 2007). Irudikapen sozialen hurbilpen dialogikoan metodologia kualitatiboan alde egin izan bada ere, tesi honetan galdetegiaren erabilera hobesteak aukera eman du zaintzari begira populazioak duen konfiantzak bestelako aldagai psikosozial eta kulturalekin duen harremana aztertzeko.

5.5. Atal kualitatiboa: menpekotasuna eta zaintzaren esanahiak

Irudikapen sozialen teoria ikerketa ikuspegi konstruktibista "ahulean" oinarritzen dela esan ohi da (Lupton, 1999; Smith eta Joffe, 2012). Ikuspegi horretatik menpekotasunaren eta epe-luzeko zaintzaren errealitate fisikoa eta materiala aitortzen den arren, maila soziokulturalean eta dialogikoan eraikitzen den fenomenoak dela defendatzen da (Smith eta Joffe, 2012). Ildo horretan, *analisi tematikoa* metodo kualitatibo egokitzat jotzen da pertsona eta taldeek beraien eguneroko testuinguru soziokulturalean gaiaren inguruan azaleratu eta eraikitzen dituzten esanahiak aztertzeko (Braun eta Clarke, 2006; Burr, 1995).

5.5.1. *Analisi tematikoa*

Analisi tematikoa teknika zabala eta malgua izanik, askotariko teoria eta ikuspegi epistemologikora ondo egokitzen da. Gizarte psikologian, esaterako, fenomenologia

sozialak (Fereday eta Muir-Cochrane, 2006) eta irudikapen sozialen teoriak (Farr eta Moscovici, 1984) darabilten ikuspegieta landua izan da teknika hori. Irudikapen sozialen ikerkuntzan bereziki, osasun eta gaixotasunari edota larrialdi klimatikoari lotutako kontzepzio publikoak aztertu izan dira *analisi tematikoaren* bitartez (Smith eta Joffe, 2012). Horretaz gain, analisi mota honek irudikapen sozialak ikuspegi dialogiko batetik aztertzeko duen potentzialitatea aipatzen da. Izan ere, irudikapen sozialen eraikuntza gaien eta *Thematzen* artikulazioaren bitartez ulertzea ahalbidetzen du, hau da, ezagutza sozialaren oinarri eta sorburu diren esanahia edo antinomiak azaleratuta (Liu, 2004; Marková, 2007).

Askotariko ikerketa kualitatiboen artean, *analisi tematikoak* ikerketa prozesuan bildutako informazio eta datuetan pertsonak iradokitzen dituzten *Gaiak* identifikatu, aztertu eta horiek testuinguru konkretuetan hartzen duten garrantzia komunikatzea ahalbidetzen du (Boyatziz, 1998; Braun eta Clarke, 2006). *Analisi tematikoaren* funtsa, beraz, aztergai den gai eta fenomeno sozial baten inguruan adierazten diren gai nagusiak identifikatu eta lantzea da. Gai bat aztergai den informazioaren baitan dagoen esanahia konkretu batek osatzen du, eta ikerketa galderarekin lotuta dagoen esanahia garrantzitsu baten berri ematen du (Braun eta Clarke, 2006). Gurera etorri, gai batek menpekotasuna eta epe-luzeko zaintza eguneroko pentsamenduan nola irudikatzen den ulertzeko informazioa ematen du. Beraz, irudikapen sozialak tokian tokiko testuinguruan azaleratzen diren gai ezberdinen bitartez artikulatzen dira.

Analisi tematikoaren eta bestelako metodoen arteko ezberdintasunak

Metodo kualitatibo ezberdinen artean *analisi tematikoak* tradizio epistemologiko eta teoria ezberdinetara egokitzeko duen malgutasuna nabarmentzen da (Braun eta Clarke, 2006). Hori horrela, psikologian elkar bizi diren paradigma esentzialista/errealista zein konstruktibistari loturik erabili daiteke *analisi tematikoa*. Hurbilpen esentzialista/errealistak pertsonengandik eratorritako esanahiak, diskurtsoak eta esperientziak azaltzea du helburu. Hurbilpen konstruktibistan, aldiz, esanahia horiek pertsonengandik eratorrita baino gizartean hedatutako ideia eta kontzeptualizazio gisa ulertzen dira (Braun eta Clarke, 2006). Modu berdintsuan, posizio teoriko eta epistemologiko jakinei lotuak dauden metodo kualitatiboak daude, eta baita horietatik bereizten direnak (Ikus 3. Taula).

3. Taula: Teoria eta epistemologiaren arabeko metodo kualitatiboak

Posizio teoriko eta epistemologiko jakin bati lotuak	Posizio teoriko eta epistemologikotik bereziak
<ul style="list-style-type: none"> • <i>Elkarrizketaren analisisa</i> (CA) (Hutchby eta Wooffitt, 1998). • <i>Analisi fenomenologiko interpretatiboa</i> (IPA). • <i>Oinarritutako teoria</i> (Glaser, 1992; Strauss eta Corbin, 1998). • <i>Diskurtso analisisa</i> (Burman eta Parker, 1993; Potter eta Wetherell, 1987; Willig, 2003). • <i>Analisi narratiboa</i> (Murray, 2003; Riessman, 1993). 	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Eduki analisisa</i> (Berelson, 1952). • <i>Analisi tematikoa</i> (Boyatzis, 1998; Braun eta Clarke, 2005)

Iturria: Norberak egina.

Analisi tematikoa, *eduki analisia*arekin batera, ez da lotzen posizio teoriko eta epistemologiko jakin batekin, eta honek modu batean balioan jartzen du teknika honek duen malgutasuna eta askatasun teorikoa. Malgutasun horrek, hala ere, ez du esan nahi edozein modutan erabili daitekeen analisi mota denik. Izan ere, arau, irizpide eta prozedura konkretuak jarraitu behar dira ongi egindako *analisi tematikoa* ziurtatzeko. Irudikapen sozialen teoriara etorri, eduki analisisa zein *analisi tematikoa*, sarritan erabili izan dira fenomeno ezberdinen irudikapen sozialak aztertzeko.

Alde batetik, *eduki analisisa* datuen inferentzia erreplikagarri eta baliagarriak bere testuinguruan egitea ahalbidetzen duen ikerketa teknika bat da (Krippendorf, 1980). Partzialki kuantitatiboa den metodotzat jotzen da da, izan ere, kategoria jakin batzuk testu edo irudi batean zenbat aldiz (maiztasuna) agertzen diren analizatzen du (Joffe eta Yardley, 2004). Eduki analisisan, esaterako, *Alceste* metodoa oso erabilia izan da masa komunikabideei eta irudikapen sozialei lotutako ikerketan (Idoiaga, Gil de Montes eta Valencia, 2017; Kalampalikis, 2005; Silva et al., 2014). *Alceste* (Reinert, 1996), kluster

analisi beharrezkoan oinarritzen den analisi lexikal estatistikozko metodoa da, eta horren helburua hizkuntzaren bitartez adierazten diren esanahia errepikakorrek eta hitzen arteko antzekotasun eta ezberdintasun estatistikoak identifikatzea da (Wagner eta Kronberger, 2003). Analisi mota hori egiteko *Iramuteq* eta *Alceste* moduko software programak erabiliak izan dira irudikapen sozialen azterketan (Idoiaga, Gil de Montes eta Valencia, 2017). Metodo horrek datu kualitatiboan kuantifikazio egiten duen aldetik, hainbat autorek kritikatu izan dute bere izaera “erdi” kualitatiboa eta testuingurutik deslotua izategatik.

Bestalde, *analisi tematikoa* gai da *eduki analisiaren* sistematizazioa eskaintzeko, baina horretaz gain, kategorien maiztasunaren azterketa testuinguru soziokulturalaren baitako esanahien analisiarekin konbinatzeko aukera ere ematen du (Joffe eta Yardley, 2004). *Analisi tematikoak* ikerketa kokatzen den testuinguruan datu kualitatibo gordinei eta horien inguruan ikertzaileak egiten duen interpretazioa eta hausnarketa prozesuari leial eusten die, kodeen maiztasunari garrantzia eman ordez (Braun eta Clarke, 2019). Teknika kualitatiboan hurbilpen interpretatiboa defendatzen dutenen aburuz, azterketa benetan kualitatiboa egitea ahalbidetzen du *analisi tematikoak* (Joffe eta Yardley, 2004)

Gai-en identifikazio mailak

Gai bat identifikatu eta lantzerako orduan gutxienez hiru gauza izan behar dira kontuan. Lehenengoa, kodifikazio prozesuaren nolakotasunari dagokiona. Bigarrena, gaiaren identifikazio-mailari dagokiona. Hirugarrena, gaiaren tamainari dagokiona.

1. Kodifikazio induktiboa vs. teorikoa

Analisi tematikoari hasiera emateko ezinbestekoa da bildutako informazio eta datu kualitatiboak (gure kasuan elkarrizketetatik jasoak) kodifikatzen hastea. Hau da, esanguratsu kontsideratzen diren esanahiak izendatzen hastea. Kodifikazio prozesua bi modu ezberdinetan burutu daiteke: alde batetik, kodifikazio induktiboa deritzona dago, eta bestetik, maila teorikoan burututako kodifikazioa (Braun eta Clarke, 2006). Lehenengoan, hitzez hitz irakurri eta kodifikatzen dira datuak, ikertzaileak aurrez dituen aurreiritzi eta interes teorikoei ahalik eta toki gutxien ematen ahaleginduz (nahiz eta badakigun ikertzailearen subjektibotasuna beti presente dagoela). Analisi mota hori datuetan oinarritutakoa dela esan ohi da, datu gordinetatik eratorri eta eraikitzen baitira

ondoren *gai* bilakatuko diren esanahia multzo zabalak. Bigarrenean aldiz, kodifikazio prozesua maila teorikoan burutzen da, hau da, ikertzaileak gaiarekiko duen interes teoriko edo analitikoak gidatzen du analisia. Ondorioz, kodifikazio teorikoarekin datuen alderdi konkretuetan jartzen da arreta, norbere eredu edo interes teorikoari jarraiki.

Beraz, *analisi tematikoari* ekiterako orduan garrantzitsua izango da datuak *nola* eta *zertarako* kodifikatu nahi diren argi izatea. Hau da, zein helbururi eta irudikapen sozialak zein mailatan aztertu nahi diren zehaztea garrantzitsua izango da. Zentzu horretan, kodifikazio inductiboak menpekotasunari eta epe-luzeko zaintzari buruz dauden irudikapenetara modu irekian eta kokatuan hurbiltzeko aukera ematen du, hau da, esanahiak testuinguru konkretuan analizatzeko. Kodifikazio teorikoa, berriz, aproposagoa izango da irudikapen sozialean ageri diren esanahia konkretuak eta aurrez beste ikerketa batzuetan aipatutakoak identifikatzeko.

2. Maila semantikoa vs. latentea

Identifikazio mailari dagokionean, *gaiak* maila semantiko eta esplizituan aztertu daitezke, edota maila latente eta interpretatiboan (Boyatzis, 1998). Hurbilpen semantikoaren bitartez *gaiak* maila deskriptiboan eta gainazaletik lantzen dira, hau da, pertsonak aipatzen dituzten esanahiak modu sakonean eta interpretatiboan burutu gabe. Aldiz, latente edo ezkutuan dauden *gaien* analisia datuen deskribapenetik harago doa, eta pertsonak aipatzen dituzten ideia eta esanahien zergatiak eta inplikazioak aztertzen saiatzen da. Horrek, ikertzailearen esfortzu eta gaitasun interpretatibo handiagoa eskatzen du, izan ere, *gaiak* deskribatu ordez, testuinguruan hartzen duten esanahia eta zentzua bilatzea inplikatzeko du (Burr, 1995).

Maila latente-interpretatiboan burututako *analisi tematikoa* ikerketa paradigma konstruktibistan kokatu ohi izan da. Horren helburua irudikapen soziala artikulatzen duten *gaien* aurkikuntza eta deskribapena izateaz harago, horien lanketa eta eraikuntza egitea da (Braun eta Clarke, 2006). Gainera, agerikoak ez diren *gaien* interpretazioak aukera ematen du horien sorrera bultzatzen dituzten ezagutza, ideologia eta kontzeptualizazioetan sakontzeko; baita irudikapen sozialen sorburu diren *Thematzen* ainguraketa soziokulturala analizatzeko ere (Moscovici eta Vignaux, 1994).

3. *Gaien* prebalentzia

Azkenik, *gai* baten osaera eta entitatearen irizpideak eztabaidatuak izan ohi dira *analisi tematikoa* gidatzen duen ikuspegi eta hurbilpen epistemologikoaren arabera. Tradizio positibista eta kuantitatiboari jarraiki, kodeak kuantifikatu, kodifikatzaile ezberdinen arteko kontsentsua edota Kappa Cohen balioen erabilera hobesten dute batzuek *gaien* gailentasuna aztertzeko. Aldiz, modu konstruktibistan burututako *analisi tematikoak*, ikertzaileak prozesu analitikoan duen rol aktiboa eta ardura erreflexiboa nabarmentzen du (Braun eta Clarke, 2019). Ikuspegi honetatik, kodeek ikertzaileak esanahia-multzoen inguruan egiten duen interpretazioaren berri ematen dute, eta hortaz, ikertzaileak berak - dituen datu eta teorietan oinarrituz, eta gaitasun interpretatiboez baliatuz - egiten duen analisi erreflexiboaren emaitza da *analisi tematikoa*. Ondorioz, kodeen zenbaketan oinarritutako irizpideen ordeztu, ikertzailearen uste eta koherentziaren garrantzia nabarmentzen dute *gai* batek beste baten aldean duen gailentasuna erabakitzeke. Ikertzailearen irizpideak (ikuspegi positibistatik maiz uste izaten denaren kontra) betiere argudiatuak eta ongi oinarrituak izan behar dute ikerketa helburu eta testuinguruarekin harremanean. Horrekin batera, *gaiak* aztergai den fenomenoaz azaltzeko duten garrantzia nabarmendu beharra dago.

5.5.2. *Analisi tematikoa* urratsez urrats

Behin *analisi tematikoaren* inguruko kontzeptualizazioa eta oinarritzko ezagutzak izanik, Braun eta Clark-ek (2006) proposatzen duten urratsez urratsezko analisi prozedura azalduko da modu laburrean.

1. Urratsa: Norbere datuekin familiarizazioa

Analisi tematiko on bat egiteko ezinbestekoa da lehenik eta behin norbere datu kualitatiboekin harreman estuan sartzea. Horrek, datu eta informazio guztia transkribatu eta behin eta berriz irakurri eta bere egitea inplikatzeko du. Azken batean, norbere datuak dira *analisi tematikoaren* funtsezko elementuak eta horrek ahalbidetuko du analisiaren sakontasun maila. Lehen urrats hau funtsezkoa da edozein analisi mota – induktiboa vs. teorikoa – eta maila – semantikoa vs. interpretatiboa – hobesten delarik ere. Momentu horretan ere, garrantzitsua da lehen ideia eta oharrak hartzen hastea.

2. Urratsa: Lehen kodeen sorkuntza (*gai* potentzialetarako kodeak)

Behin norbere datuekin familiarizatuta, kodifikazio prozesuaren bidea zabalduko da, lehen kodeak sortzeari ekinez. Kodeak datuetan ageri diren eta ikertzailearentzako garrantzitsu eta esanguratsuak diren esanahiak – semantikoak zein ezkutukoak – dira. Kodifikazio prozesuari arreta berezia jartzea garrantzitsua izango da ondoren sortuko diren *gaiak* edukiz eta forman janzteko. Garrantzitsua da ahalik eta gehien kodifikatzea, interesgarri eta ikertzailearen atentzioa hartzen duten esanahia guztiak izendatu eta kodifikatzea, izan ere, horrek ahalbidetuko du ondorengo *gaien* aberastasuna eta sakontasuna.

Kodifikazio prozesua eskuz (orrian, boligrafo eta errotuladoreak erabiliz) edota software programa estatistikoaren laguntzaz burutu daiteke. Tesi honen kasuan, ATLAS.ti programa erabiliz burutu da kodifikazio prozesua (Friese, 2014).

3. Urratsa: *Gaien* elaborazioa

Datuen lehen kodifikazioa bukatuta eta oinarri hartuta, *gai* potentzialak identifikatzeari ekingo zaio hirugarren urrats honetan. Horretarako, garrantzitsuak diren kodeak hautatu beharra dago, kode ezberdinen arteko harreman eta loturak lantzearekin batera. Kodeak beraien artean harremanean jartzea eta elkar integratzea esanahia multzo zabalagoak sortzea ahalbidetuko du eta *gaita* osatuko duten elementuak irudikatzen lagunduko du. Interpretazio lana errazteko lagungarri izan daiteke kodeak modu bisual eta grafikoan irudikatzea, esaterako, kode, *gai* zein *azpi-gaien* arteko loturak irudikatzen dituzten mapak erabiliz.

4. Urratsa: *Gaien* berrikuspena

Laugarren urratsean, *gaiak* zehaztu, hobetu eta fintzeari ekingo zaio. Horretarako, *gaiak* babestuko dituzten datuen berrikuspena egin beharko da, barne sendotasuna eta funtsa bermatzeko. Bestalde, datuetatik eratorritako aipuen berrikuspena egin beharra dago, *gaiak* egokitasunez islatzen direla ziurtatzeko. Horiek egokiak ez balira, zuzendu eta *gaiak* birdefinitu beharko lirake. Behin berrikuspen prozesua bukatuta, *gai* bakoitzaren berezitasunak eta identitatea ongi adierazita egon beharko dute, eta identifikatutako *gaiak* bildutako datuak azaleratzen lagundu beharko lukete.

5. Urratsa: *Gaiak* definitu eta izendatu

Fase honetara helduta, *gai* bakoitzaren izaera eta esentzian arreta jarri beharra dago, datuen zein elementu barne-hartzen dituzten argi izanik. Komeni da *gaiak* eta *azpi-gaiak* elementu ezberdin asko eta konplexuak ez barne-hartzea, izan ere, horrek interpretazio eta komunikazio soziala zailtzen du. Behin *gai* eta *azpi-gaiak* zeintzuk diren eta adierazi nahi dutena zehaztuta, horiek izendatu behar dira. *Gaien* izenburuek zehatzak eta ulerterrazak izan behar dute, hartzaileek erraz identifikatzeko modukoak.

6. Urratsa: *Gaien* komunikazioa

Analisi tematikoari itxiera emateko, kodifikazio eta interpretazio prozesu sakonetik eratorritako *gaiak* narratiboki azaldu eta jakinarazi behar dira, betiere aipuek babestuta. *Gaiak* publiko zabalera – artikuluen argitalpen edota hitzaldien bidez – modu koherente eta erakargarrian zuzentzea komenigarria izango da, hartzaileei *gaien* funtsa eta garrantziaz jakinarazteko.

ATLAS-ti software programa

Tesi honetan *analisi tematikoa* ATLAS-ti software programaren laguntzaz burutu da. Datu analisi kualitatiboa errazten duten programa ezberdinen artean, programa horrek elkarriketatik eratorritako datuak modu antolatu eta sistematikoan lantzea ahalbidetzen du. ATLAS-tik datuen kodifikazio eta interpretazio prozesua errazten du, horretarako ematen dituen aukeren bitartez. Horien artean, oharrak idaztea, kodeen sorkuntza eta beraien arteko harremanak zehaztea, kodeen zenbaketa eta uztarketa, kategoria zabalago edo familien sorkuntza, *gai* eta azpi-gaien antolaketa, kode eta *gaien* mapa adieraztea etab. Eskuz eta modu tradizionalen egindako analisi kualitatiboen aldean, programa informatiko hau erabiltzeak abantaila asko ditu. Izan ere, informazio iturri guztia bateratuta eta modu bisualean ondo antolatua izaten laguntzen du. Hala ere, datu kualitatiboak lantzea ahalbidetzen duten bestelako programa estatistikoen aldean (Iramuteq, Alceste eta Evov, besteak beste), Atlas-tik ez duela inolako analisirik egiten argitzea komeni da. Hau da, ikertzaileari analisi prozesua errazteko tresna bat da, eta ondorioz, abstrakzio, sakontze eta interpretazio gaitasuna ikertzailearen esku geratzen da.

5.6. Atal kuantitatiboa: zaintzari begirako konfiantza

5.6.1. Konstruktoaren definizioa eta kontzeptualizazioa

Epe-luzeko zaintza testuinguruetan konfiantzari buruzko azterketa aurrera eramateko, neurketa eskala bat eraikia izan zen. Badira aurrez konfiantza pertsonarte, erakunde zein gizarte mailan aztertu izan dituzten eskala balidatuak (Breyer, 2015; Rotter, 1967; Yamagishi eta Yamagishi, 1994). Aldiz, gaur arte, epe-luzeko zaintzaren testuinguruan konfiantza modu kokatuan neurtzen duen eskalarik ez da aurkitu. Zentzu horretan, tesi honen behar eta interesei heltzen zien eskala berri bat sortzearen beharra ikusi zen. Lehenik eta behin, konfiantzaren kontzeptua landu eta operatiboki definitu zen, zaintza testuinguruan barnebiltzen zituen dimentsio edo interakzio esparru nagusiak identifikatuz (Marková eta Gillespie, 2007). Horretarako, Razaviren (2007) zaintzaren diamanteari buruzko kontzeptualizazioari jarraitzea baliagarria izan zen. Horren arabera, menpekotasun eta epe-luzeko zaintza egoeran dauden pertsonak artatzeko erabiltzen diren laguntza eta zerbitzuen multzoak familiarik, estatutik, merkatutik eta komunitatetik eratorritako baliabideak barnebiltzen ditu, herrialde bakoitzeko ongizate eta zaintza sistemaren arabera horien arteko konbinazioa ezberdina izanik (Ikus 1.3.2. atala). Zaintzaren inguruan ematen diren interakzio maila ezberdinak modu dinamiko eta kokatuan kontuan hartzen dituen aldetik, kontzeptualizazio honek Marková-k eta Gillespie-k (2007) proposatutako konfiantzaren kontzeptualizazioarekin bat egiten zuen (ikus 3.7.2. atala).

5.6.2. *Item*-en eraikuntza

Konfiantzaren eskala osatzen duten *item*-en sorreran, gaiari buruzko literatura berrikusi eta aurrez kualitatiboki pertsonen menpekotasun eta zaintzarekin izandako bizipen eta esperientziak aztertu ziren (Gilbert, 2020). *Item*-ak garatzeko metodoari dagokionez, lehenik eta behin literaturatik egindako elkarrizketetatik eta eskura dauden eskalen berrikuspenetik abiatuz, *item*-en bateria bat sortu zen. Ondoren, *item*-ak sailkatu edo multzokatu ziren konstruktoaren definizioetara eta operazionalizatutako dimentsiotara hobeto egokitzeke. Prozesu guztian zehar ikertzaileak tesiko zuzendariekin eztabaidatuz adostu zuen *item* bakoitzaren egokitasuna. Yamagishi eta Yamagishi-ren (1994) konfiantza neurtzeko eskalari jarraituz, eskala bost puntuko Likert motakoa zen (1=ezer ez, 5=asko). *Item*-ak euskaraz eta gazteleraz sortu ziren, eta ondoren, bi bertsioak bi

ikertzaile independentek berrikusiak izan ziren eskalaren ulermena eta baliozkotasuna bermatzeko. Jarraian, lan horretarako sortutako eta erabilitako konfiantzaren eskala erakusten da.

“Mesedez, orain, une batez zahartzaroan kokatutako mendekotasun-egoera baten inguruan hausnartzeko eskatuko dizugu. Irudikatu eguneroko bizitza aurrera eramateko beste pertsonen laguntza beharko duzun balizko menpekotasun-egoera bat (autonomia fisikoaren galera, narriadura kognitiboa edota gaixotasun-egoera direla eta). Egoera horretan, zure eguneroko behar fisiko eta emozionalak garatzeko maila ezberdinetako laguntzak beharko dituzu.

Zahartzaroko menpekotasun-egoera batean, zenbatekoa da zure KONFIANTZA ondorengo pertsona, talde eta erakundeengan? Ondorengo eskalaren balioak erabili galderei erantzuteko eta borobildu egokien deritzozun erantzuna.

1=Ezer ere ez	2=Gutxi	3=Zertxobait	4=Dezente	5=Asko
---------------	---------	--------------	-----------	--------

1. Etxeko kideak (bikotekidea, seme-alabak, anai-arrebak, gurasoak, pisukideak etab.)	1	2	3	4	5
2. Familia zabaleko beste pertsona batzuk	1	2	3	4	5
3. Lagun-minak	1	2	3	4	5
4. Lagun taldea (adbz. kuadrila)					
5. Bizilagunak	1	2	3	4	5
6. Auzo edo herriko elkarteak	1	2	3	4	5
7. Boluntariotza	1	2	3	4	5
8. Espazio publikoaren egokitzapena (mugikortasuna)	1	2	3	4	5
9. Gertuko zerbitzu sozialak	1	2	3	4	5
10. Eguneko zentroak	1	2	3	4	5
11. Zahar-etxe publikoak	1	2	3	4	5
12. Zahar-etxe pribatuak	1	2	3	4	5
13. Etxeko zaintza zerbitzuak	1	2	3	4	5
14. Baliabide teknologikoak	1	2	3	4	5

5.6.3. Eskalaren egokitasuna

Eskalaren egokitasuna *fidagarritasun eta balidezia* irizpideak jarraituz egiaztatu zen (Villavicencio-Caparó, Ruiz-García eta Cabrera-Duffaut, 2016). Lehenik eta behin, eskalaren barne sendotasuna neurtu zen, Cronbach Alfa koefizientea SPSS programa informatikoaren bitartez kalkulatu. Hogeitaz lagunekin burututako proba pilotua eskalaren egokitasuna frogatzeko baliatu zen. Hasiera batean eskala hogeitamar *item*-ez osatuta zegoen. Egokitasuna proba pilotuan ebaluatu ondoren, hamalau *item* kentzea erabaki zen, horien izaera nahasgarri eta errepikakorra zela iritzita. Modu honetan, hamasei *item*-ez osatutako eskala bati bide eman zitzaion.

Eskala hau oinarri hartuta, analisi faktorial esploratzailea burutu zen, 0.85eko Cronbach Alfarekin. Faktore analisi esploratzaileak lau faktoreen berri ematen zuen, eskalaren bariantzaren % 63.18 azalduz. Hala ere, eskala horretako bi *item* ezabatzea erabaki zen, beraien kontzeptualizazioa faktore bakoitzean problematikoa baitzen. Azkenik, hamalau *item*-ez osatutako eskala hobestu zen. Faktore analisisia errepikatu eta lau faktoreko eskala berretsi zen, bariantzaren % 67.24 azalduz eta .85eko Cronbach alfa fidagarritasuna ziurtatuz.

Bukatzeko, identifikatutako lau faktoreak izendatu ziren. Horietako bakoitzak Razavi-k (2007) zaintza sistemaren baitako esparruak irudikatzen zituen: lehen faktoreak familiari (gertukoa eta zabala) lotutako konfiantza adierazten zuen; bigarrenak, lagunarteari lotutakoa; hirugarrenak, komunitateari lotutakoa; laugarrenak, erakundeei loturiko konfiantza. Hortaz, zaintza testuinguruetakoa konfiantza neurtzeko eskalak konfiantzaren maila interpersonalak, komunitario eta instituzionalak kontsideratzen zituen (Marková eta Gillespie, 2007).

5.7. Kalitatezko ikerketarako bermeak

Estrategia metodologiko jakin bat hautatu ondoren, ikertzaileak jarraibide eta irizpide argiak behar ditu, ikerketa prozesua praktika egokien bitartez burutu dela bermatzeko. Edozein dela erabiltzen den metodoa, praktika egokien deskribapena esplizituki azaltzea garrantzitsua da.

Ikerketa kuantitatiboak, ikerketa kalitatearen ebaluazioari dagokionez, luze eta ongi garatutako diskurtsoa du. Diskurtso horrek ikerketaren kalitatea fidagarritasun, balidezia eta adierazgarritasun irizpideen arabera kontsideratzen ditu (Campbell eta Stanley, 1966). Aldiz, ikerketa kualitatiboaren fokua eta interesa bestelakoa da. Bere balio eta egokitasuna ez datza aldagaien neurketan. Ikerketaren emaitza eta ondorioetara ez da iristen prozedura estatistiko eta datuen kuantifikazioaren bitartez. Ikerketa kualitatiboak aldagaien arteko harremanak, aurreikuspen eta orokortzeaz baino, ikergai den fenomenoak testuinguru konkretuan hartzen dituen esanahiak nabarmendu, ulertu eta zabaldu nahi ditu. Horretarako, teknika, prozedura eta irizpide zehatzak erabiltzen ditu.

Tradizio positibista eta kuantitatibotik hurbilpen kualitatiboari gehien leporatu izan zaion arazoa edo gabezia, ikerketa datu, tresna eta emaitzen erabilgarritasunari eta aplikagarritasunari buruzkoa izan da. Ikuspegi horretatik, ikerketa kualitatiboaren balioa eta estatusa zalantzan jarria izan da maiz. Hala eta guztiz ere, fidagarritasuna, balidezia eta adierazgarritasuna ikerketa kuantitatiboan funtsezko irizpide badira ere, ikerketa kualitatiboaren kalitatea ebaluatzeko ez dira egokiak. Ondorioz, ikerketa kuantitatiboak bere irizpide propioak dituen bezala, ikerketa kualitatiboan praktika onen alderdiak modu autonomoan antzemateko hainbat irizpide proposatu izan dira (Bauer eta Gaskell, 2000).

5.7.1. Ikerketa kualitatibo eta kuantitatiborako irizpide baliokideak

Autore ezberdinek ikerketa kalitatea ebaluatzeko irizpideen oinarrian erantzukizun publikoa dagoela kontsideratzen dute. Izan ere, ikerketa on batek beti jendartearen babesa izatea eskatzen du (Bauer eta Gaskell, 2000). Ikerketa prozesua beti dago, edo egon behar luke behintzat, bizi den gizarte eta testuinguruarekin harremanean eta konpromisoan. Ondorioz, ezagutzaren sorkuntza moduek (metodologiak) ere publikoarekiko duten erantzukizuna bermatu beharra daukate, batez ere bi kategoria edo adierazleren bitartez. Bata, ikerketak helarazten duen konfiantza da, eta bestea berriz, ikerketaren garrantzia. Bi adierazle hauek hurbilketa kualitatibo zein kuantitatiboa darabilten ikerketen kalitatea ebaluatzeko erabilgarriak dira (Ikus 4. Taula).

4. Taula: Kalitatezko ikerketa adierazleak

Tradizio kuantitatiboa	Adierazleak	Tradizio kualitatiboa
<ul style="list-style-type: none"> • Neurrien fidagarritasuna (k) • Barne balidezia (k) • Laginaren tamaina (k) • Laginaren adierazgarritasuna (g) • Kanpo balidezia (g) • Neurrien balidezia (g) 	<p>Konfiantza (k)</p> <p>Garrantzia (g)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Triangulazioa eta erreflexibitatea (k) • Prozeduraren argitasuna (k) • Korpusaren eraikuntza (k, g) • Analisiaren azalpen sakona (k, g) • Berritasuna (g) • Komunikazioaren balidazioa (g)

Iturria: Bauer eta Gaskell (2000)

Konfiantzaren adierazleek ikerketaren irakurle edo hartzaileari ziurtasuna ematen die ikerketa emaitzak prozedura eta metodo zientifiko arautu eta gardena jarraituz landu direla bermatuta; ikertzailearen irudimen edo subjektibotasun hutsaren emaitza ez direnaren ziurtasuna, alegia (Bauer eta Gaskell, 2000). Taulan ageri den moduan, ikerketa kualitatiboan konfiantza a) triangulazioa eta erreflexibitateak, b) prozeduraren argitasunak, c) korpusaren eraikuntzak eta d) analisiaren azalpen sakonak adierazten dute. Tradizio kuantitatiboan, aldiz, a) neurrien fidagarritasunak, b) barne balideziak eta c) laginaren tamainak.

Garrantziaren adierazleek, berriz, ikerketaren barne eta kanpo prozedurak kontuan hartuz zehazten dute ikerketaren bideragarritasuna eta inpaktua (Bauer eta Gaskell, 2000). Hala ere, bi tradizioek modu ezberdinean adierazten dute ikerketaren garrantzia eta berritasuna. Tradizio kuantitatiboan, hipotesien egiaztatzearen bidez adierazten da, eta kualitatiboan aldiz, maila konprentsibo eta sentikorrean adierazten da. Hortaz, garrantzia tradizio kualitatiboan a) korpusaren eraikuntza, b) analisiaren azalpen mamitsua, c) berritasuna eta d) komunikazioaren balidazioaren bitartez ziurtatzen da.

Tradizio kuantitatiboan aldiz, a) laginaren adierazgarritasuna, b) kanpo balidezia eta c) neurrien balideziaren bitartez.

Jarraian, puntuz puntu eta modu laburrean azalduko dira tesi honen hurbilpen kualitatiboaren inguruan kontsideratutako kalitate irizpideak, hurbilpen kuantitatiboaren baitako irizpideak dagoeneko aurreko atalean esplizituki azaltzen baitira.

5.7.2. Kalitatearen ebaluazioa ikerketa kualitatiboan

a) Triangulazioa eta erreflexibitatea (konfiantzaren adierazle)

Tesi honetan metodologia ezberdinen triangulazioaz baliatu da ikerketa objektura hurbiltzeko. Triangulazioak ikerketa ikuspegi ezberdinen arteko uztarketatik sortzen diren ahultasunak eta kontraesanak kudeatzera daraman aldetik, ikerketa prozesuaren gaineko hausnarketa sakona bultzatzen du. Horrek, ezinbestean, ikertzaileak ikerketa objektuarekiko eta parte-hartzaileekiko duen posizio harremanaz hausnartzera eramaten du, modu agerian erakutsiz zein den ikertzailearen abiapuntu eta kokapen soziala eta gaiarekiko duen motibazio eta ikuspegia. Kontu horiek erreflexibitateari lotutako atalean (ikus 5.2. atala) esplizituki adierazten dira.

b) Gardentasuna eta prozeduraren argitasuna (konfiantza eta garrantziaren adierazle)

Datuen bilketa eta analisi prozeduren argitasuna agerian uztea funtsezko alderdiak dira kalitatezko ikerketa lanetan. Ikerketa kualitatiboan gardentasunak ikerketa kuantitatiboan barne eta kanpo balidezia irizpideen antzeko funtzioak betetzen ditu. Hori dela eta, datuen bilketa eta analisi prozedura kualitatiboa ikerketa bakoitzean nola eraman den xehetasunez aipatzen da. Tesian egindako hautu epistemologiko eta metodologikoak zehatz azaltzen diren heinean, ikerketa prozedura nola eraman den ulertzea ahalbidetzen du.

c) Korpusaren eraikuntza (konfiantza eta garrantziaren adierazle)

Korpusaren eraikuntza eta laginaren adierazkortasuna (ikerketa kuantitatiboan) funtzionalki baliokideak diren irizpideak dira. Alabaina, korpusaren eraikuntza informazioaren saturazio bitartez eraikitzen da. Laginaren tamaina ez da garrantzizko

irizpidea ikerketa baten kalitatea ebaluatzerako orduan. Tesi honen kasuan, korpusaren eraikuntzak zaintzaileekin, senideekin eta adinekoekin egindako hogeitasei elkarrizketak barne hartzen dira. Jasotako informazioaren zabalera eta sakontasuna nahikoa zela iritzita, irizpide hori betetzen dela uste da.

d) Azalpen mamitsua (konfiantza eta garrantziaren adierazle)

Tesia osatzen duten ikerketa enpirikoetan parte-hartzaileengandik jasotako hitzez-hitzeko aipuak emaitzen oinarritzko sostengu gisa baliatu dira. Elkarrizketak parte-hartzaileen berezko hizkuntzan transkribatuak izan ziren, euskaraz zein gaztelaniaz. Parte-hartzaile euskaldunen kasuan, transkribapenak beraien euskalkian jaso eta landu ziren, nahiz eta emaitzetan aurkezten diren aipuak euskara batura ekarriak izan. Gaztelaniazko aipuak ere, euskara batura ekarri dira emaitzetan.

e) Berritasuna (garrantziaren adierazle)

Ikerketa baten garrantzia bere berritasun eta sorpresaren arabera izan ohi da. Ikerketa kuantitatiboan atal hori hipotesiak egiaztatu edo faltsutzearen bitartez egikaritzen da. Ikerketa kualitatiboan, aldiz, emaitzen inguruan egindako interpretazioa ongi argudiatu eta erakutsi behar da. Zentzu horretan, egindako ikerketa enpirikoetan hasierako ideia, susmo eta galderei erantzuten zaie. Hori ez da egiten soilik aipuak azaleratu eta emaitzak deskribatzearen bitartez, emaitzek duten garrantzia, inplikazio eta ekarpenak mahaigaineratuz baizik.

f) Komunikazioaren balidazioa (garrantziaren adierazle)

Elkarrizketetatik edota testuen bitartez landutako datuak eta horien inguruan ikertzaileak egiten duen interpretazioa parte-hartzaileekin adostuz komunikazioaren balidazioaren irizpidea lortzen da. Horretarako, ikerketa prozesu parte-hartzaile eta interaktibo bat gauzatzen da, ikertzaile eta parte-hartzailearen artean datuen trataera eta interpretazioa adostuz eta egiaztatuz. Teknika horrek sinesgarritasuna eta sendotasuna ematen dio ikerketa prozesuari. Izan ere, ikerketa prozedura maila dialogiko eta etikoan burutzen da, aktore sozial ezberdinen ikuspegiak errespetatuta eta horiekiko sentsibilitatea erakutsita (Bauer eta Gaskell, 2000).

Tesi proiektu honetan, ikerketa praktikaren garrantzia eta balio etiko-politikoa aitortu, eta etorkizuneko ikerketetan barneratzearen beharra ikusten bada ere, alderdi horri heltzea zaila eta zalantzakorra izan daiteke. Komunikazioaren balidazioak parte-hartzaileak ikerketan modu aktiboan eta denboran zehar inplikatzeko eskatzen du, eta hori lortzea kasu askotan ez da samurra izaten. Esaterako, etxez etxe 24 orduz zaintza lanetan aritzen diren emakumeen kasuan, lanez eta norbere bizitzarako denbora eta baliabidez eskas ibiltzen direla ikusita, transkribapenen eta emaitzen txostenak irakurtzeko denbora eskatzea gainkarga bat suposatuko luke kasu askotan. Egoitzetan elkarriketatutako adineko pertsonen kasuan ere, kasu gehienetan gaitasun kognitiboak eta irakurketa-idazketakoak mantentzen bazituzten ere, horrelako ariketa erreflexibo bat eskatzea egoiliarrei zein erakundeei ez da aproposena eta egingarriena. Bestalde, parte-hartzaileak ikerketa prozesuaren erdigunean eta gidari jartzeak, ikerketa kulturaren aldaketa eta ahalduntzea eskatzen du, eta gaur gaurkoz, inplikazio eta interes maila hori daukaten pertsonak (parte-hartzaile zein ikertzaileak) gutxiengo bat dira. Haatik, horrek ez du kentzen aurrerantzean horrelako teknika dialogiko eta parte-hartzaileei heltzea garrantzitsua ez denik, betiere horretarako baldintzak sortzen badira. Alternatiba gisa, eta ikertzailearen ahots eta ikuspegiaren gailentasuna leuntze aldera, “berdinen” arteko bilera eta eztabaidan oinarritua dago tesi proiektu honen diseinua eta garapena (Flick, 2007). Zentzu horretan, ikerketa prozesu osoa eta datu analisia tesiko bi zuzendarien eta doktoregaiaren ezagutza, iritzi eta ikuspegiaren arteko interakzioen eta elkarriketan burutu da. Gainera, ikerketa enpiriko ezberdinen bitartez landutako emaitza eta ondorioez parte-hartzaileak jakinarazi dira, eta hitzaldi eta artikulu formatuan publiko zabalean hedatuak izan dira.

5.8. Kontsiderazio etikoak

Tesi honetan burututako ikerketa enpiriko guztietan alderdi etikoak osoki kontsideratu dira. Lehenik eta behin, tesi proiektua burutu ahal izateko EHU-ko Etika batzordearen oniritzi txostena eskuratu zen (M10_2018_228). Behin berme hau izanda, elkarriketa eta galdeketa bidezko ikerketak burutu ahal izan ziren. Parte-hartzaileei begirako arriskuak edo kalteak arretaz aztertu eta saihestu ziren hainbat alderdiri erreparatuz.

Batetik, elkarrizketa indibidualetan zein galdeketan parte-hartu zuten pertsona eta erakunde guztiei aurrez azaldu zitzaizkien ikerketaren helburu eta nondik norakoak, ahoz zein informazio-orri bat helaraziz. Guztiek sinatu zuten baimen informatua eta elkarrizketen kasuan, ahotsaren grabazioa hartu zen baimendutako kasuetan. Ikerketa prozesu osoan datuen konfidentzialtasuna, anonimotasuna eta borondatezko parte-hartzea ziurtatu da. Ikerketa tresnen eraikuntza eta garapen egokia ziurtatzera begira, hauen egokitasuna datuak bildu aurretik pilotatzeak ondoeza sor lezaketen elementuak eta item-ak identifikatzea ahalbidetu zuen.

Bestetik, parte-hartzaileen eta ikertzailearen arteko interakzio eta komunikazio prozesuan sor eta erreproduzitu litezkeen botere-harremanak kontuan izatea eta horiek saihestea ahalegindu da. Alderdi hori zaintzea bereziki garrantzitsua da, egoera zaurgarrian dauden hainbat pertsonekin hartu-emana izan den aldetik; esaterako, egoitzetan bizi eta menpekotasun-egoeran dauden adinekoen kasuan edota etxez etxeko zaintza lanetan aritzen diren migratutako emakumeen kasuan. Egoera horietan garrantzitsua da parte-hartzaile eta ikertzaileen arteko harremanak zeharkatzen dituzten ezberdintasun sozial eta kulturalak kontuan izatea, eta arrakala horiek ez zabaltzeko jarrera eta kontzientzia izatea, pertsonen arteko berdintasuna, errespetua eta duintasuna oinarri izanik. Azkenik, ikerketa ezberdinetan lortutako eta landutako emaitzak pertsona eta erakunde parte-hartzaileekin partekatu ziren, egindako azterlanak ikerketa kongresu eta aldizkarietan hedatuz.

6

Lehen azterlana

Menpekotasunaren eta epe-luzeko zaintzaren esanahia trantsizioan: tentsio eta kontraesanen azterketa

Castelo, U., Gil de Montes, M., Larrañaga, M. eta Soubelet-Fagoaga (2022). Dependency and Aged Care in Spain: tensions and contradictions in a society in transition. *Analyses of Social Issues and Public Policy*, 22, 626–647. <https://doi.org/10.1111/asap.12310>

Laburpena

Menpekotasunari eta epe luzeko zainketei lotutako eztabaida eta eraldaketak gailentzen ari dira egungo gizartean. Ondorioz, jendeak hainbat kezka, zailtasun eta kontraesan kudeatu behar izaten ditu egunerokoan. Ikerketa honen helburua gizartean zahartzaroko menpekotasunari buruzko esanahiak aztertzea da, irudikapen sozialen teoria abiapuntu hartuz. Hogeitasei elkarrizketa burutu ziren Gipuzkoan zaintzaren esperientzia familiarrean bizi izandako pertsonekin, etxez etxeko soldatapeko zaintzaileekin eta zahar-etxeetan artatuak ziren adinekoekin. Emaitzek irudikapen sozialak zazpi gairen bitartez artikulatzen zirela erakutsi zuten, kultura, erakunde eta harremanen dimentsio psikosozialei loturiko tentsio eta ideia kontrajarriak agerian utziz. Eztabaidan irudikapen sozialen izaera dinamiko eta dialogikoa azpimarratzen da, egungo testuinguruan menpekotasunaren eta zaintzaren antolaketak plazaratzen dituen eztabaidak ulertzeko gako batzuk emanaz.

Gako hitzak: menpekotasuna, epe luzeko zaintzak, irudikapen sozialak, polifasia kognitiboa.

Sarrera

Epe luzeko zainketei heltzea egungo erronka soziala da. Azken hamarkadetan izandako aldaketa demografiko, ekonomiko, teknologiko eta sozio-kulturalek agerian uzten dituzte zaintzaren inguruan gertatzen ari diren eraldaketak, bai nazioartean zein Euskal Herrian (Deusdad, Comas-d'Argemir eta Dziegielewski, 2016; Spasova et al., 2018). Espainiar estatuan epe luzeko zaintzei loturiko politika eta laguntzak autonomia pertsonala sustatzeari eta menpekotasun-egoeran dauden pertsonei laguntzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak (Menpekotasunari buruzko Legea) arautzen ditu (EAO, 2006). 2.2 artikulua honela definitzen du *menpekotasuna*: «Adinagatik, gaixotasunagatik edo ezgaitasunagatik eta autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensorialik ez izateagatik edo horien galeragatik, beste pertsona batzuen laguntzaren beharra izatea eguneroko bizitzako beharrei aurre egiteko; esaterako, zaintza pertsonala, etxeko lanak, mugikortasuna, orientazioa, eta beste pertsonak eta objektuak ezagutzeko gai izatea». Menpekotasun beharrei arreta emateko sistemaren jatorrizko helburua, honi egin zaizkion kritikak kontuan izanik, arreta-zerbitzuen unibertsalizazioa eta profesionalizazioa bermatzea izan da; batetik, pertsonek arreta jasotzeko duten eskubide subjektiboa aitortzea dakar legedi honek, senideek eta ordaindu gabeko zaintzaileek, bereziki emakumeek, beren gain hartzen duten zama arinduz (Aguilar-Hendrikson, 2020; Mendekoen arretarako euskal sistema publiko baten aldeko plataforma, 2006; Hernando, 2006).

Hego Euskal Herriko ongizate eta zaintza erregimenak eredu familiarista eta mediterraneanarretik edaten du, eta gaur gaurkoz, eredu hori trantsizioan dagoela esaten bada ere, horren gailentasuna agerian uzten da literaturan (Emagin Elkarte, 2020; Rodríguez-Cabrero eta Marbán-Gallego, 2013; Ranci eta Pavolini, 2015). Ekonomia feministak bere aldetik, agerian utzi du bereziki mendebaldeko gizarteek bizi duten zaintza krisi eta eskasia (Perez-Orozco, 2006). Horren arabera, pertsonek zaintza beharrei heltzeko dauzkaten baliabideak familian zein komunitate mailan gero eta urriagoak dira, eta merkatuak agindutako produkzio denbora eta logiken arabera antolatzen dira bizitzaren sostengurako aukerak. Besteak beste, populazioaren zahartzeak, emakumeen lan merkaturatze masiboak, familia egituraren txikiagotzea eta askotariko ereduaren hedapena edota balio indibidualisten gorakadak zaintzaren krisian

eragina izan dute. Egoera honek ezinbestean arrakala sortu du jendartean, gero eta gehiago baitira zaintzari lotutako beharrak eta gero eta urriagoak horiek artatzeko baliabideak (Comas d'Argemir, 2019; Theobald eta Luppi, 2018). Egoera horrek, pertsonen etorkizunean non, nola eta noren eskutik zainduak izan nahiko luketen eta ingurukoen zaintzaren ardurari buruzko kezkek, ziurgabetasunak eta kontraesanak areagotu egin ditu (Eurostat, 2019; Del Barrio eta Sancho, 2015). Horrenbestez, zeintzuk dira familien testuinguruan, zaintzaileek eta zainduak izaten ari direnek gaiaren inguruan plazaratzen dituzten arazo eta kezkek? Zer nolako eztabaidak ematen ari dira menpekotasunaren inguruan? Zein mailatan islatzen da zaintza ereduaren inguruan bizitzen ari den eraldaketa eta krisia eguneroko diskurtso eta ikusmoldeetan?

Galdera horiei erantzun asmoz, ikerketa honen helburu nagusia zahartzaroko menpekotasunaren inguruko irudikapen sozialak aztertzea da. Horretarako, irudikapen sozialen teorien oinarritzen gara (Moscovici, 1984). Irudikapen sozialak pertsona, talde zein komunitateek gai eta auzi sozial garrantzitsuen inguruan dituzten ideia, sinesmen eta sentipen multzoa dira, betiere pertsona arteko komunikazio eta elkarrekintzan eraikiak (Markovà, 2003). Irudikapen sozialen bidez, pertsonen bizi diren testuinguruari lotutako esanahiak eta ezagutzak bereganatu eta barneratzen dituzte, komunikazioa eta identitate sozialaren garapena ahalbidetuz (Moscovici, 1984). Teoria horri jarraiki, irudikapen sozialak ainguratze eta objektibatze prozesuen bidez eraiki eta hedatzen dira. Hortaz, menpekotasunari buruzko eguneroko ezagutza eta pentsamenduak nola eraikiak diren azaltzerako orduan, prozesu horien garrantzia kontuan izatea komeni da (Wagner eta Hayes, 2005). Ainguratzearen bitartez, irudikatutako objektuari buruzko esanahia barneratzen dute pertsonen, aurrez dituzten balio eta sinesmen kulturaletan oinarrituz. Objektibazioaren bidez, berriz, irudikatutako objektua, ideia, sinbolo edota metafora zehatzetan gauzatzen da, aurrez ezezaguna zen fenomeno familiarizatu eta egiazko errealitate bilakatuz.

Irudikapen sozialen teoriaren ikuspegitik gaira hurbildu diren ikerketek, zahartzarokan ematen diren zainketei buruz dauden ikusmolde anibalenteen berri eman izan dute testuinguru soziokultural ezberdinetan (Brito et al., 2018; Nagel, Contarello eta Wachelke, 2011). Horien arabera, zahartzea positiboki ulertzen da adineko pertsonen bizi osoan garatutako jakinduriari eta esperientzia aipatuz. Aldiz, gaixotasunak, menpekotasunak

zein bakardadeak zahartzearen alde iluna erakusten dute. Zahartzaroaren alderdi negatiboak ere instituzionalizazioarekin, sare sozial eta familiarren hausturarekin, eta autonomiaren zein produktibitatearen galerarekin lotu ohi izan dira (de São José et al., 2015; Torres et al., 2015; ; Veloz, Nascimento-Schulze eta Camargo, 1999). Azken ideia horrekin bat, zahartzaroko ongizateari buruzko kontzepzio biomediko eta produktibista gailentzen dela aipatzen da, autonomia funtzionalaren eta pertsonalaren garrantzia nabarmenduta (Medeiros, 2017; Nolan et al., 2014). Bestalde, zaintzak gorputzaren eta emozioen dimentsioa barnebiltzen ditu, baita gizarte eta familia-harremanak ere, eta horiek sentimendu kontrajarriei lotuta ulertu ohi izaten dira (Aguiar et al., 2011). Hainbat ikerketen arabera, zaintzaren esanahien muinean dauden elementuek maitasuna, pazientzia eta osasunarekin dute zerikusia. Elementu periferikoak aldiz, familiarren babesarekin, higieinarekin, eguneroko ekintzekin, erantzukizun eta dedikazioarekin lotu izan dira (Hedler et al., 2016; Scopinho eta Rossi, 2017). Horretaz gain, zaintzaren alderdi negatiboak zaintzaileek jasaten duten gainkarga eta estresarekin daude lotuta (Aguiar et al., 2011). Gainera, azpimarratu beharra dago genero, klase eta jatorriari lotutako ezberdintasunen eta arrakala sozialen baitan oinarritzen direla menpekotasun eta zaintzaren ardurak gure gizartean (Batthyány et al., 2013; Ravenswood eta Harris, 2016).

Irudikapen sozialen hurbilpen dialogikoaren arabera, fenomeno sozialei buruzko esanahiak kokatuak eta soziokulturalki eraikiak dira, ideia eta ezagutza sistemen arteko tentsio eta gatazkak izanik hauen oinarri eta sorburu (Marková, 2003). Ikuspegi horretatik, irudikapen sozialak pertsona arteko elkarrizketa eta komunikazio sozialean sortu eta negoziatzen dira eta hainbat egilek nabarmendu izan dute ezagutza sozialaren izaera dinamikoa eta aldakorra (Jovchelovitch, 2007; Jovchelovitch eta Priego-Hernández, 2015; Linell, 2009). Moscovici aitzindariak (1961) garatutako Polifasia kognitiboaren kontzeptuak giza kognizioaren izaera hori berresten du. Polifasia kognitiboaren “tentsio-tesiaren” arabera, objektu berari buruzko ezagutza ezberdinak eta kontraesankorrak kudeatzen dituzte pertsonak, bai testuinguru sozialean, zein maila indibidualean, irudikatutako objektuaren inguruko “ideia-borrokari” bide emanik. Ildo beretik, Jovchelovitch eta Gervais-ek (1999) Ingalaterrako komunitate txinatar batean eta Wagner eta kolaboratzaileek (2000) Indiako iparraldean dagoen Patnan egindako

ikerketek pertsona eta komunitateek osasunari eta gaixotasunari buruzko ezagutza ezberdinak aldi berean kudeatu eta borrokatzen dituztela erakutsi izan dute, irudikapen sozialak testuinguru soziokulturalarekin harremanean eraikiak direla erakutsiz (Jovchelovitch eta Gervais, 1999). Giza-kognizioaren barne aniztasuna, malgutasuna eta izaera kokatua dela defendatzen da ikuspegi horretatik egindako ikerketetan, eta Markovàk (2008) dioenari jarraituz, pentsamendu polifasikoan arreta jartzeak "*aukera ematen dio ikertzaileari gizartean pentsatzeko eta ezagutzeko dauden moduetan aldaketa errazten, zailtzen, eragiten edo gidatzen duten baldintzak zeintzuk diren azaleratzen*" (479. or.). Beste era batera esanda, fenomeno sozial ezberdinen inguruko eguneroko pentsamenduaren oinarrian dauden ezaugarri eta prozesu soziokulturalak identifikatzeko ikuspegia eskaintzen du Polifasia Kognitiboaren kontzeptuak; eta ikuspegi hau funtsezkoa da gure testuinguruan menpekotasunari eta zaintzari loturik pertsonak nola pentsatu, jokatu eta hartzen dituzten erabakien nondik norakoak ulertzeko (Arthi, 2012; Moloney, Williams eta Blair., 2012; Priego-Hernández, 2017; Renedo eta Jovchelovitch, 2007).

Lan honetan, irudikapen sozialen ikuspegi teorikoa baliatzen da zahartzaroko menpekotasunari buruz gizartean errotutako esanahia soziokulturalak sakonago ulertzen laguntzeko, eta egungo tentsio eta kontraesanak zeintzuk diren ezagutzeko. Beraz, gaiari buruz dauden ikuspegiak egun ematen ari diren eraldaketa eta eztabaida sozialak azaleratzen laguntzea espero da ikerketa honekin.

Metodoa

Prozedura

Ikerketa hau Gipuzkoako hainbat udalerritan burutu zen, irudikapen sozialak zaintza-harremanetan inplikaturako agente ezberdinen ikuspegitik aztertuz. Lagina elur-bola teknikaren bitartez osatu zen, hau da, ikerketan parte-hartutako pertsonen eta ikerlarien inguruko pertsonen kontaktuen bitartez parte-hartzaile berriekin lotura egin zen (Atkinson eta Flint, 2001). Batetik, familia testuinguruan adinekoaren zaintzaren esperientzia bizi izandako pertsonak kontaktatu ziren, eta adinaren (18 urtetik gorakoak), zainketaren iraupenaren (urtebetetik gorakoak) eta generoaren (%50 emakumeak) arabera irizpideak jarraitu ziren. Bestetik, adinekoei bideratutako etxez etxeko zaintza eta arreta zerbitzuetan urtebete baino gehiagoko esperientzia zuten langileak kontaktatu ziren. Azkenik, egunerokoan arretak jasotzen zituzten adineko egoiliarrek kontaktatu ziren, erakunde eta egoitza ezberdinetako profesionalen laguntzaz. Adinekoen kasuan, ikertzaile nagusia zentroetako kudeatzaileekin harremanetan jarri zen, eta profesionalak gaitasun kognitibo eta komunikatiboak babestuak zeuzkaten parte-hartzaile posibleak hautatu zituzten. Parte-hartzaile guztiei aurrez azaldu zitzaizkien ikerketaren nondik norakoak eta horretarako informazio-orri bat banatu zitzaien. Beraien parte-hartzea borondatezkoa izan zen eta ez zuten horregatik ordainsaririk jaso.

Ikerketa honek Euskal Herriko Unibertsitateko etika batzordearen oniritzia jaso zuen landa-lana aurrera eraman ahal izateko (M10_2018_228). Parte-hartzaile guztiek baimen informatua sinatu zuten eta ikerketa prozesu osoan beraien eskubideei buruzko informazioaz jakitun izan ziren.

Parte-hartzaileek zahartzaroko menpekotasunari buruz zituzten iritzi eta ikuspegiak sakonago ezagutzeko asmoz, elkarrizketa erdiegituratuak burutu ziren. Elkarrizketak bakarkakoak eta aurrez prestatutako elkarrizketa-gida baten oinarrituak izan ziren. Elkarrizketa guztiak ikertzaile nagusiaren eskutik eraman ziren aurrera parte-hartzaileen etxeetan zein espazio publikoan. Adineko egoiliarren kasuan, elkarrizketak egoitzetako logela eta espazio pribatuetan burutu ziren. Elkarrizketatuen ahotsa grabatua izan zen

onartutako kasuetan, eta ukatutako kasuetan, informazioa idatziz jaso izan zen. Parte-hartzaileen hautuzko hizkuntzan burutu ziren elkarrizketak, euskaraz zein gaztelaniaz.

Irudikapen sozialak aztertzeko aurrez baliatutako teknikak jarraituz (Joffe eta Eley, 2014), elkarrizketari lehendabizi galdera ireki eta ez-zuzentzaileen bitartez hasiera eman zitzaion. Teknika horrek pertsonen gaiaren inguruan naturalizatua eta errotuta zituzten pentsamenduak aztertzeko aukera eskaintzen du (Adb. Zer datorkizu burura menpekotasunaz pentsatzean? Zer sentimendu eta pentsamendu ekartzen dizkizu gogora menpekotasunak?). Behin ariketa hori egin eta gero, bestelako galderak luzatu zitzaizkien parte-hartzaileei (Adb. Nola bizi duzu menpekotasuna eta zainketa zure egunerokoa? Zer iradokitzen dizute gaur egun iraupen luzeko zainketek? Behar izatekotan, nola nahiko zenuke zaindua izatea?). Komunitateak menpekotasunaren esanahia kolektiboki nola eraikitzen duen ulertze aldera, galdera gida berdintsua izan zen parte-hartzaile guztientzat. Elkarrizketek 30-45 minutuko iraupena izan zuten, eta 2018ko maiatza eta 2019ko urtarrila bitartean burutu ziren.

Parte-hartzaileak

Ikerketa honetan Gipuzkoan bizi ziren hogeitasei pertsonen parte hartu zuten: familiaren baitan adinekoaren zaintzarekin lotutako esperientziak zituzten hamaika pertsona, zazpi etxeko zaintza langile eta hainbat zahar-etxetan bizi ziren eta legez menpekotasun-mailaren bat aitortua zeukaten zortzi adineko pertsona. Horien artean, hamasei pertsona emakumezkoak ziren eta hamar gizonezkoak. Gazteenak hogeita bost urte zituen eta zaharrenak, aldiz, laurogeita hamahiru. Parte-hartzaileek ez zeukaten beraien arteko senidetasun edo lan harremanik (ikus 1. Taula).

Taula 1

Parte-hartzaileen ezaugarri soziodemografikoak

Parte-hartzaileak	Sexua	Adina	Jatorria
1. Senidea (adinekoaren alaba)	Emakumea	25	Gipuzkoa
2. Senidea (adinekoaren alaba)	Emakumea	40	Gipuzkoa
3. Senidea (adinekoaren biloba)	Emakumea	25	Gipuzkoa
4. Senidea (adinekoaren biloba)	Emakumea	28	Gipuzkoa
5. Senidea (adinekoaren biloba)	Emakumea	38	Kuba
6. Senidea (adinekoaren semea)	Gizonezkoa	57	Gipuzkoa
7. Senidea (adinekoaren semea)	Gizonezkoa	63	Gipuzkoa
8. Senidea (adinekoaren semea)	Gizonezkoa	66	Gipuzkoa
9. Senidea (adinekoaren semea)	Gizonezkoa	67	Gipuzkoa
10. Senidea (adinekoaren biloba)	Gizonezkoa	39	Gipuzkoa
11. Senidea (adinekoaren iloba)	Gizonezkoa	42	Gipuzkoa
12. Etxeko langilea	Emakumea	29	Nikaragua
13. Etxeko langilea	Emakumea	31	Nikaragua
14. Etxeko langilea	Emakumea	39	Nikaragua
15. Etxeko langilea	Emakumea	41	Nikaragua
16. Etxeko langilea	Emakumea	52	Bolivia
17. Etxeko langilea	Emakumea	36	Gipuzkoa
18. Etxeko langilea	Emakumea	36	Gipuzkoa
19. Adineko egoiliarra	Emakumea	77	Gipuzkoa
20. Adineko egoiliarra	Emakumea	87	Gipuzkoa
21. Adineko egoiliarra	Emakumea	91	Gipuzkoa
22. Adineko egoiliarra	Emakumea	91	Gipuzkoa
23. Adineko egoiliarra	Gizonezkoa	70	Gipuzkoa
24. Adineko egoiliarra	Gizonezkoa	78	Gipuzkoa
25. Adineko egoiliarra	Gizonezkoa	85	Gipuzkoa
26. Adineko egoiliarra	Gizonezkoa	93	Gipuzkoa

Datu-analisisia

Behin elkarrizketa guztiak hitzez hitz transkribatu ondoren, jasotako informazioaren analisi tematikoa burutzeari ekin zitzaion (Braun eta Clarke, 2006). Metodologia kualitatiboen baitan, analisi tematikoa teknika egokitzat jo ohi da elkarrizketetan ageri diren gaiak lantzeko eta esanahiak sortzen diren testuinguruan interpretatu ahal izateko. Analisi tematikoaren ikuspegi konstruktibistik, gaien lanketa eta eraikuntzak, jendeak gai zehatzen inguruan dituen ideia eta usteak identifikatu eta testuinguruan interpretatzeko aukera ematen du (Joffe eta Yardley, 2004).

Lehenik eta behin, ikertzaile nagusiak elkarrizketa guztiak irakurri eta berrirakurri zituen. Ondoren, Atlas-ti software programaren laguntzaz, informazioa hitzez hitz kodifikatua izan zen modu induktibo baten eta interpretazio gehiagorako tarterik utzi gabe. Hartara,

lehen kodifikazio prozesua datu gordinen baitan burutu zen, aurrez sortutako kodifikazio esparru edo eredu teoriko zehatzik jarraitu gabe (Braun eta Clarke, 2006).

Bigarrenik, hasierako kodifikazioan oinarrituta, eta arloko literaturaren laguntzaz, kategoria zabal eta abstraktuagoak sortu ziren. Horrela, analisi prozedura deduktiboagoari ekin zitzaion, datu analisia aurrez finkatutako teoriaren ikuspegitik aztertuz. Azkenik, informazioa ikuspegi psikosozialaren arabera antolatu zen, zeinak irudikapen sozialetan maila anitzeko (kultura, erakundeak eta harremanak) ikuspegia barneratzea ahalbidetzen duen (Doise eta Valentim, 2015). Behin kategoriak dimentsio psikosozialen arabera antolatuta, ikertzaileek aurrez sortutako kategoriak berrartu zituzten, esanahia kontraesankorrak eta tentsioak adierazten zituzten gaiak identifikatzeko.

Gaien egokitasuna literaturan oinarritua eta ikerketa taldearen baitan eztabaidatuak eta adostuak izan ziren. Informazioaren analisia modu erreflexiboan eta malguan burutu zen, ikertzaileek irudikapen sozialen eraikuntzan betetzen duten rol aktiboa eta sortzailea kontuan hartuta (Braun eta Clarke, 2006). Hortaz, paradigma kualitatiboaren baitan kokatuz, ikerketa honen kalitatea datuen sinesgarritasunean eta garrantzi sozialean oinarritzen da, ikerketa prozedurari buruzko xehetasunak garbi azalduz eta ikertzaileen subjektibotasuna eta gaiarekiko duten posizionamendua ikerketa prozesuan barneratuz (Bauer eta Gaskel, 2000; Braun eta Clarke, 2020).

Emaitzak

Emaitzek zahartzaroko menpekotasunari buruzko irudikapen sozialak hiru dimentsio analitikoetan eta zazpi gairen bitartez artikulatzen zirela erakutsi zuten (ikus 2. Taula). Irudikapen sozialen ikuspegi konstruktibista kontuan izanik, gaiek, banakako eta taldearteko esperientzia eta posizionamenduez haratago, euskal testuinguruan gaiaren inguruan ematen ari diren eztabaida eta esanahien arteko tentsioak azaleratu zituzten (Braun eta Clarke, 2006). Jarraian emaitzetan landutako gaiak aurkezten dira (ikus 2. Taula).

Taula 2

Menpekotasunaren irudikapen sozialaren dimentsioak eta gaiak

1. <i>Dimentsioa:</i> Balio soziokulturalen aldaketa	1. <i>Gaia:</i> Familismoa vs. Indibidualismoa 2. <i>Gaia:</i> Produksioa vs. Erreproduksioa 3. <i>Gaia:</i> Menpekotasuna vs. Autonomia
2. <i>Dimentsioa:</i> Zaintzaren antolaketaren aldaketa	4. <i>Gaia:</i> Naturalizazioa vs. Profesionalizazioa 5. <i>Gaia:</i> Etxea vs. Egoitzak
3. <i>Dimentsioa:</i> Zaintza harremanen aldaketa	6. <i>Gaia:</i> Partekatze komunala vs. Merkatukoa 7. <i>Gaia:</i> Zaintza praktikoa vs. Emozionala

Balio soziokulturalen aldaketa

1. Gaia: Familismoa vs. Indibidualismoa

Tentsiorik nabarmenena familiak adinekoaren zainketaren inguruan izan beharreko ardura eta erantzukizunari buruzkoa izan zen. Emaitzek agerian utzi zuten familia eta emakumeetan oinarritzen den zaintzarekiko ikuspegi tradizionalagoa eta balio “berrien” arteko aldiberekotasuna eta gatazka. Balioen trantsizio hau ondorengo aipuan adierazten da:

“Gaur egun bizimodua aldatzen ari da. Lehen gurasoak etxean zaintzen ziren, baina gaur egun gutariko bakoitzak bere bizitza dauka, leku ezberdinetan bizi gara eta bizitza zaildu egiten da.

Orduan, orain ez da duela urte batzuk bezala, eta jada ez daukazu familiaren babesik. Seme-alabak kanpoan bizi izaten dira askotan, bat Txinan eta bestea Japonen...” (Gizona, 67, senidea)

Parte-hartzaileek gizartean zaintza antolatzeke eredu zahar eta berriez hitz egin zuten, gaur egun familiaren baitan eta elkarren arteko obligazioak eta espektatibak betetzeko dauden zailtasun eta mugak aipatzearekin batera. Alde horretatik, zenbaitzuek familiarterko zaintzaren tradizioa lehenesteko ikuspegia adierazten zuten, senidearen zainketa beharrak artatzeko eredu onuragarri eta desiragarriena dela aipatuz. Ondorengo aipuan adierazten da honakoa:

“Nire amona 100 urterekin hil zen eta nire izebek bere azken egunera arte zaindu zuten. Ez da ulertzen, gure buruan ez da sartzen pertsona bat egoitza batera eramatea, soilik zuk zure bizitza lasaiagoa izateko. Ezinezkoa da, guk adibidez tribu baten parte izatearen sentimendu hori daukagu.” (Emakumea, 41, zaintzailea)

Kontrako ikuspegi batetik, beste parte-hartzaile batzuek familiak adinekoa zaintzeko duen betebeharra zalantzan jarri zuten eta zaintzeak suposatzen duen zama eta kostu psikologiko eta pertsonala aipatzen zituzten, jarraian adierazten den bezala:

“Eskubidea daukazu azkenean zure bizitza egiteko eta ez hain karga handia hartzeko, ez? Nik seme-alabak izango banitu, zaintzaile bezala egon naizenez orain, ba ez nuke nahi nire seme-alabentzako hori, baldintzatu egiten diezu bizitza, ez dut nahi hori. Nere familiako inori ez diot hori egin nahi, edo lagunei edo maite dudan jendea ez dut baldintzatu nahi.” (Emakumea, 39, senidea)

2. Gaia: Produksioa vs. Erreproduksioa

Adierazten zen bigarren tentsio sistematiko bat enplegua, zaintza eta norbere bizitza bateratzeko eta horien arteko oreka lortzeko zailtasunari dagokio. Ildo horretan, Harris eta Young-ek (1981) garatutako “erreproduksio sozialaren” kontzeptuak pertsonak lan-merkatuan ematen duten denbora – ondasun eta zerbitzuen ekoizpena bideratua – eta zaintzarako denborak – bizitza sostengatzera bideratutako lanak- kudeatzeko izaten dituzten gatazkak eta talkak ulertzen laguntzen du. Horri jarraiki, parte-hartzaileek zaintzaren antolaketa produkzioarako esparruak egunerokoak hartzen duen lehenetasunaren araberakoa dela iradokitzen zuten, jarraian adierazten den moduan:

“Seme-alabek badakite, egun baten bat eta hurrengoan besteari tokatzen zaiola. Ostegunetan izan ezik, egunero daukat norbait bisitan. Beraien modura antolatzen dute egutegia, guztiak ari direlako lanean. Horrela antolatzen dugu dena.” (Gizona, 93, adinekoa)

Horrekin batera, maiz aipatzen zen senitartekoaren zaintzaz arduratzeak bizitza pertsonal eta laboralarekin dakarren bateraezintasuna, eta hau senideen arteko harremanetan eztabaida eta liskar iturri izan ohi dela. Norbere bizitza eta enpleguarekin bateraezintasuna, galkarga, askatasun galera, zaintzeko baliabide eza edota erruduntasun sentimenduak maiz aipatzen dira, ondorengo aipuetan adierazten den bezala:

“Azkenean ultimatum bat eman nion nire familiari. Ezin nuen egunero lau edo bost ordu lo egiten jarraitu, astebururo etxean, ezin mugitu eta bizitza gabe. Aita zahar-etxera eramatea erabaki genuenean askatasun pixka bat izan genuen gure bizitzetan, baina hala ere, egunero bera bisitatzeraz joatea erabaki genuen.” (Gizona, 57, senidea)

Produktzio eta erreproduktzioarako esparruen arteko tentsioak zaintzaren banaketaren desorekan ere nabari da, generoa, klasea eta jatorriaren araberako ezberdintasun sozialetan oinarri hartuta. Migratutako etxez etxeko zaintzaileek bereziki, adinekoaren zaintza inork egin nahi ez duen lan bat bezala eta lan hauetan jarduteak dakarren estigma eta prekaritatea aipatzen zuten, jarraian azaltzen den moduan:

“Nahiz eta familia askok zaintzaileei soldata on bat ordaintzeko aukera izan, ez dute hala egiten, eta horregatik ari gara borrokatzen eta hau lan zaila dela aldarrikatzen. Familiak ez dira konturatzen zein gogorra den egiten dugun lana, eta ez dute baloratzen, normalean beraiek egiteko prest ez daudena. Tarteka pertsona batzuk esaten digute: zuengatik ez balitz, nor etorriko litzake herrialde honetara lan hauek egitera?” (Emakumea, 29, zaintzailea)

3. Gaia: Menpekotasuna vs. Autonomia

Autonomiarekin borrokan, menpekotasunari buruzko definizio hegemonikoak funtsezkoak izan ziren gaiari buruzko eguneroko pentsamenduan, eta bereziki zahartzaroko menpekotasun-egoerei buruz zeuzkaten irudikapen eta sentimenduak adierazten zituzten parte-hartzaileek (Cerri, 2015). Nahiz eta, zahartzaroaren inguruko irudikapen anibalenteak –ikuspegi positibo zein negatiboak- aipatzen ziren, menpekotasunaren inguruko ikuspegi negatiborako joera gailentzen zen parte-hartzaileen diskurtsoetan. Horien baitan leudeke pertsonen narriadura fisikoa eta

kognitiboa, laguntzaren beharra, ezintasuna eta inpotentzia nabarmentzen duten ikuspegiak:

“Zahartzaroak ere badu bere xarma. Samurtasuna eragiten du nigan baina aldi berean tristetu egiten nau. Adibidez, gure egunerokoan gure onena ematen saiatzen gara baina konturatzen zara pertsona horrek ez duela hobera egingo, eta ez direla beteko zuk dituzun espektatibak. Momentu horietan hori da gertatzen dena, zeren eta pertsona horren egoerak ez du hobera egingo, alderantziz.” (Emakumea, 47, zaintzailea)

Bestalde, autosufizientziaren ideari, baliagarri sentitzeari eta besteentzako zama eta oztopo ez izateari lotuta ulertzen zen menpekotasuna. Ondorengo aipuetan irudikatzen da honakoa:

“Burura datozkidan hitzak, ba, jainkoari eskerrak gaur egun oraindik nire burua defendatzeko gai naizela. Autosufizientzia? Hori da, baliagarri naizela, gai naizela, ez? Baliagarri... ni bakarrik garbitzen naiz, bakarrik janzten naiz, galtzerdiak bakarrik janzten ditut. Hemen uzten ez didaten gauza bakarra, nire kabuz dutxatzea da. Bestela, momentuz ez dut inoren beharrik, ez dut inorendako traba izan nahi.” (Emakumea, 91, adinekoa)

Horrekin batera, autonomia pertsonala ahal bezain beste luzatu, bizimodu aktiboa izatearen garrantzia eta zaugarritasun egoeran pertsonak erabakitzeke duen gaitasunaren inguruko kezkek plazaratzen ziren, jarraian ageri den bezala:

“Beldurra eta segurtasun eza eragiten dit gauzak nire kabuz ezin egin ahal izateak, eta nire sentimenduak eta erabakiak adierazi ahal ez izateak.” (Emakumea, 39, zaintzailea)

Azkenik, populazio zaharkituetan bizitzaren luzapenak dakartzan erronkez hitz egiten zen eta zahartzaroko bizitza kalitatea eta ongizatea bermatzearekin lotutako gaiak aipatzen ziren (Medeiros, 2017). Horrek bizitza-heriotza prozesuei lotutako balioak jartzen ditu jomugan, muturreko zaugarritasun eta menpekotasun egoera baten bizi izateak merezi ote duen moduko zalantzak eta kezkek adieraziz. Horren adibide da ondorengo aipuan parte-hartzaile batek eutanasiar iradokitzen zuena:

“Nik zalantza daukat azken urtebete edo bi urteak merezi izan zuten bizitzea ze berak sufritzen zuen eta besteok ere. Gainera, ez zen ikusten zera, hobetzeko edo luzatzeko aukera minimorik. Hor zalantza handia daukat e, nire iritziz e, uste dut ez duela merezi ba modu artifizial baten eta botikei esker bizitzea jada iristen denean muturreko egoera batera. Hemen ez dago eutanasia edo, nahi duzun eufemismoa erabili ba hori ez dago legeztatuta eta ez dakizu zer egin behar dan,

eta medikuak ere ez dute soluziorik ematen eta familian ere denek ez dute iritzi berdina izaten.”
(Gizona, 67, senidea)

Zaintzaren antolaketaren aldaketa

4. Gaia: Naturalizazioa vs. Profesionalizazioa

Laugarren gaia zaintza lanari atxikitzen zaizkien esanahiei buruzkoa zen. Irudikapenetan parte-hartzaileek zaintzaren ikuspegi naturalizatuak eta profesionalak uztartu eta bien arteko koexistentzia eta tentsioa agertzen zituzten. Alde batetik, emakumeek maitasunez “besteen” ongizatera begira egiten duten jardunaren irudikapena zegoen, eta bestetik, formakuntza, kualifikazioa eta aitortza behar duen jardunaren inguruan hitz egiten zen. Zaintza historikoki emakumeei atxikitu izan zaien rol, gaitasun eta dohain bat izan da, ondorengo aipuan adierazten denez:

“Orain ez da lehen bezala. Lehen emakumeek ez zuten lanik egiten eta etxean egoten ziren. Egia da beraien lanak edukitzen zituztela, baina norbait gaixorik bazegoen familian, emakumeak arduratzen ziren beraren zaintzaz.” (Gizona, 66, senidea)

Horrekin batera, parte-hartzaile gehienek zeukaten aipagarri zaintza lanek barnebiltzen duten emozionalitatea, zainduarekiko maitasun-harremanetan eta pazientzian oinarritua. Ideia hoti honako aipuan islatzen da:

“Gu zaintzen gaituzten guztiak bikainak dira, eta aitortu behar diegu egiten duten lana. Zuk ez dakizu zein maitasunekin zaintzen dituzten, non dauden ere ez dakiten pertsonak. Emakume gaixoek pazientzia gehiegi daukate...eta nik horiek baloratzen ditut, emakume gaixoek daukaten pazientzia.” (Emakumea, 87, adinekoa)

Bestalde, naturalizatorako joerarekin batera, parte-hartzaileek zaintza profesional eta kualifikatuaren beharra ere aipatzen zuten. Euskal Herrian hazten ari den sektore profesionala da epe luzeko zaintzarena, eta zaintzaileei gutxieneko kualifikazioa eskatzen zaie beraien jardunerako (Moreno-Colom et al., 2017). Horrek erakusten du zaintzara bideratutako lanek gero eta trebetasun profesional handiagoa eskatzen dutela, eta gero eta gehiago ari direla esparru profesionalera zabaltzen. Ezagutza horien trantsizioa honako aipuan azaltzen zuen parte-hartzaile batek:

“Badakit gaur egun gero eta eskakizun gehiago daudela jendeak horrelako pertsonekin lan egiteko, eta ondo iruditzen zait, zeren horrelako pertsonekin askotan edozein modutan zaindu izan da, inolako titulazio gabe. Eta nik zaindu dezaket, baina tira...agian denok dakigu garbitzen

baina pertsona horrek bere burua dauka, nahiz eta ondo edo gaizki egon, orduan beharrezkoa iruditzen zait gutxieneko formakuntza bat behintzat.” (Emakumea, 25, senidea)

Etxekotasunaren, neskametzaren eta profesionalizazioaren arteko bidegurutzean, esanahia horiek eragina daukate zaintzaileen identitate sozial eta profesionalaren eraikuntzari begira (Hansen eta Kamp, 2016). Horri lotuta, parte-hartzaileek zaintzaileek langile gisa dituzten eskubideei eta lan-baldintzei lotutako auziak zituzten hizpide eta eremu informalean zein formalean bizitzen dituzten gatazkak adierazten zituzten, honako aipuan ageri den moduan:

“Horrelako etxeko lanetan ez dut nire burua ikusten luzera begira... Ez dut nire burua horrelako lanetan ikusten batez ere ondo baloratuta ez dagoelako eta nahiago dut erakunde edo enpresa batean lan egin, adibidez. Orain, ziurtagiri profesionala lortu dudala egoitzetan edo lan egiten saiatuko naiz. Badakit zaintzaren esparru berdina dela, baina ezberdina da. Etxean harremana estuagoa da, baina nahiago dut nire burua beste testuinguru baten ikusi.” (Emakumea, 29, zaintzailea)

5. Gaia: Etxea vs. Egoitzak

Beste gai nagusi bat zaharren egoitzetan ematen diren arreta eta zaintza ereduie loturikoa zen. Alde batetik, parte-hartzaileek beharrezkoa izanez gero izan nahi luketen zaintza moduari lotuta beraien lehentasunak eta nahiak aipatu zituzten. Zentzu horretan, parte-hartzaile gehienek etxeko testuinguruan eta inguru hurbilean bizitzen jarraitzeko lehentasuna adierazten zuten. Hala ere, menpekotasun egoerak eraginda zaintza beharrak areagotu ahala, etxean bizitzen jarraitzearen zailtasunez jabetzen ziren. Kasu horretan, zaharren egoitza batean bizitzeko aukera onartzen zuten, ondorengo aipuan ageri den moduan:

“Nire iritziz, ahal den heinean behintzat, jendeak bere etxean eta inguruan bizitzen jarraitzen izateko laguntzak bideratu beharko lirateke, ez zahar-etxean. Ulertzen dut egoera askotan hau oso zaila dela, baina erronka norbera bere etxean bizitzen jarraitzea da. Baliabide gehiagoren beharra dago, badakigu zahar-etxeak daudela, baina hori falta da: jendea bere inguruan mantentzea eta zaintzaileak etxeetara joan ahal izatea zaintzera.” (Emakumea, 36, zaintzailea)

Kasu gehienetan, zaharren egoitza batean bizitzea azken aukera eta baliabide gisa ikusten zen, etxean baldintza onetan bizitzea zailtzearen ondorioz. Egoitzekiko irudi negatiboa familia eta komunitate bizitzarekiko hausturarekin eta itxialdiarekin lotu ohi

da (Daniel et al., 2019). Ildo honetan, parte-hartzaileek instituzionalizazioarekiko zituzten ideia kontrajarriak irudikapen hauekin harremanean ulertu daitezke:

“Hasieran erabateko ukapena zen. Baina egoerak gero eta gehiago okerrera egin ahala, zahar-etxera eraman behar izan genuen aitona, eta neurri handian familiak egin zuen presioagatik onartu zuen. Hala esan genion: zein beste aukera geratzen zaizkizu?” (Emakumea, 28, senidea)

Etxean bizitzen jarraitu nahi izatea edo, hala ezin bada, etxean moduan bizitzea pertsonak zaintzarekiko zeuzkaten lehentasun eta espektatiben alderdi garrantzitsua zen. Hori hala, adinekoek egoitzetan etxean baleude bezala sentitzeari balioa ematen zioten, ondorengo aipuan adierazten den bezala:

“Nire etxea da, erresidentzia nire etxea kontsideratzen dut eta arrain bat uretan bezala sentitzen naiz! Zaintzaileak eta gutaz arduratzen diren pertsona guztiak bikainak dira, eta hori baloratu beharra daukagu.” (Emakumea, 87, adinekoa)

Egoitza eredu tradizionalak ematen duten zerbitzu inpertsonalaren pertzepzioarekin alderatuz, parte-hartzaileek arreta pertsonalizatuagoaren eta epeltasunaren beharra aipatzen zuten. Ondorengo aipuan adierazten den ildotik, horrek erakusten du arreta-ereduen inguruko tentsio eta eztabaiden existentzia:

“Ikusten da populazioa zahartzen dioala, alderantzizko piramide bat dabil sortzen eta horrek azken batean gizartearen beharrak ere aldatzen ditu. Orduan hemendik aurrera nik uste beste zerbitzu mota batzuk baloratzen hasi beharko direla. Agian ez da erresidentzia bat irtenbidea, baina bai jendea etxeetara joatea zaintzera edo pisu txikiak eraiki bost pertsonekin. Beharrak aldatzen doazenez, nik uste balorazio bat egin beharra dagoela.” (Emakumea, 36, zaintzailea)

Zaintza harremanen aldaketa

6. Gaia: Partekatze komunala vs. Merkatukoa

Menpekotasunaren irudikapen sozialetan tentsio iturri garrantzitsua ziren zaintza-harreman eta praktikak zeharkatzen dituzten ahaidetasun, elkarrekikotasun eta lan-harremanak (Comas d-Argemir, 2017; Walsh eta Shutes, 2013). Fiske-ren harreman-ereduen teoriatik abiatuz (Fiske, 1992), "Partekatze komunaleko" eta "Merkatu preziozko" harreman sozial motak bereiz daitezke. "Partekatze komunala" beste pertsona batekin amankomuneko lotura gauzatzen denean ematen da, esaterako, senidetasuna, adiskidetasuna edota pertsona arteko lotura emozionala. Eredu horretan, harremanak altruistak eta baldintzarik gabekoak izatea espero izaten da. Aldiz,

“Merkatu preziozko” harremanak trukearen proportzionaltasun logikaren inguruan eratzen dira, zerbitzu eta diruaren trukaketa izaki ohiko ereduak. Literaturak diotenaren ildotik, bi harreman mota horiek testuinguru eta momentu berean indarra hartzen dutenean, harremanek gatazkatsuak izatera jotzen dute, batzuek zein besteek ez baitituzte zaintza-harremanarekiko uste eta espektatiba berdintsuak izaten (Fiske, 1992). Bi ereduaren arteko koexistentzia eta tentsioak zaintzaile eta zainduen arteko lotura afektibo eta amankomunei dagokienean agertzen ziren, familiaren babesa kanpoko zaintzaileengandik ordeztzea zailtzat jotzen zen heinean. Ideia hau ondorengo aipuan adierazten zuen parte-hartzaile batek:

“Nire familiak zaintzailea jarri nahi izan zidan, baina ez nuen nahi izan. Hemen ostegunetan bakarrik egoten naiz, baina bueno baita hemengo lagunekin ere. Nire seme-alabek ematen didatenarekin alderatuta, babesa ez da berdina, baina gutxienez badaukat lagun bat ostegunetan jolasteko eta paseatzeko.” (Gizona, 93, adinekoa)

Aldi berean, zaintzaileek tentsioa sentitzen zuten. Tentsio hori zainduarekin eta familiarekin lan harremana izan eta aldi berean haiekin lotura emozionala eraikitzearekin loturik ageri zen. Hau ondorengo aipuan adierazten da:

“Gainera, uste dut bere familiarekin izatean, babestuago sentituko dela, ez da? Bera maite duten pertsonen inguratuta... agian ni ez naiz bere behar afektiboak asetzeko gai, zeren eta menpeko pertsonen maitasun askoren beharra daukate. Baina aitortu beharra daukat, egoera honek zaintzailea hutsik uzten duela, bereziki lan honek pertsona gaixotzen duelako.” (Emakumea, 41, zaintzailea)

Gainera, pertsonen beren egunerokoan, itxaropen eta desira kontrajarriak zituzten zainketa motari eta premia egoeran izan nahi lituzketen harremanei dagokienez. Maitasuna, sostengua eta epeltasuna sentitzea parte-hartzaileek aipatzen zituzten faktore garrantzitsuak dira, despertsionalizazioa, bakardadea eta “gauza” balira moduan tratatuak izateak kezkatzen zituen bitartean. Testuinguru horretan, pertsonen zaintzari buruz zituzten balio moral eta desioekin borrokatu behar izaten zuten, maiz familiarengandik eta zaintzaileengandik espero den konpromisoa eta betebeharra zalantzan jarriz. Honakoa ondorengo aipuetan adierazten da:

“Nik ordaintzen dudana pertsona baten eskutik zaindua izan nahiko nuke, baina ez izatea pertsona ezezagun bat. Askotan ikusten dira egoerak non zaintzaileak adinekoa gorpildun aulkian eramaten duen eta hitz bat ere ez dutena egiten! Orduan, nik ez nuke nahi hori. Gertuko pertsona

batek ni zaintzea nahiko nuke, nahiz eta barrutik nahiagoko nukeen zaintzen nautenak seme-alabak izatea. Nahi eta ezinezko egoera bat da.” (Emakumea, 25, senidea)

7. Gaia: Zaintza praktikoa vs. Emozionala

Azken gai honek zaintza-harremanak zeharkatzen dituzten dualtasunak eta arreta motak agerian utzi zituen. Teoriaren arabera, zaintzaren bi alderdi nagusi bereiz daitezke: zaintza praktikoa eta zaintza emozionala (Kittay eta Feder, 2002). Zaintza praktikoa pertsonari ematen zaion arreta praktikoa edo instrumentalari egiten dio erreferentzia; hala nola, gorputz garbitasuna, mugikortasuna, botikak ematea eta elikaduraz arduratzea. Honakoa ondorengo aipuetan adierazten da:

“Janariaz, botikez eta deskantsuaz arduratzea litzakete. Pertsona bat menpekoa da soilik beste pertsona baten laguntza behar duenean dutxatzeko edota janzteko.” (Emakumea, 31, zaintzailea)

Zaintza emozionalak, berriz, pertsona arteko inplikazio afektiboari egiten dio erreferentzia. Parte-hartzaileek hainbat ezaugarri izan zituzten aipagarri, esaterako, pertsona arteko enpatia, pazientzia, maitasuna, laguntasuna, besteen beharren kontsiderazioa etab. Hona hemen horien azalpena:

“Menpeko pertsona bat bazara, noski behar duzula afektua, errespetua eta enpatia. Nire ustez funtsezkoa da. Zaintzeko gai bazara benetan, ez dit axola lan moduan edo ez. Baina zure lana pertsonak zaintzea bada pertsona hori pixka bat ezagutu beharra daukazu gutxienez.” (Emakumea, 36, zaintzailea)

Zaintzaren alderdi emozionala kontsideratuz, zaintzaile eta zainduen arteko harremanetan tentsioak eta kontraesanak azaleratzen ziren. Pertsonak zaintzaileek zituzten zereginari buruz eztabaidatzen zuten, eta horietako batzuk kudeatzeko zailak direla aipatzen zen; esaterako, zainketa pertsonala edo emozionala. Tentsioa bereziki zaintzaileak zainduarekiko izan behar duen inplikazio emozional mailarekin eta horren mugak ezartzearekin zegoen lotuta, ondorengo aipuetan ikus daitekeen bezala:

“Bereziki gustatuko litzaidake zaintzen gaituztenak pertsona atseginak eta maitekorrak izatea. Agian, gure egoeraren ulermen handiagoa izatea nahiko nuke. Badakigu enpatikoak ez diren pertsonak daudela, jakina, baina printzipioz pertsonak dituen ezaugarriak ulertuko dituen pertsonak behar ditugu.” (Gizona, 70, adinekoa).

Eztabaida

Lan honen helburua zahartzaroko menpekotasunari buruzko esanahiak kolektiboki nola eraikiak diren ikertzea izan zen, eta horretarako fenomenoarekin inplikaturako senideek, zaintzaileek eta adineko pertsonen zituzten ikuspegi eta bizipenak aztertu ziren. EAE-ko arreta sisteman gertatzen ari diren paradigma eta kultura aldaketak kontuan hartuta, menpekotasuna eta zahartzaroko zainketak – fenomeno sozial gisa – nola irudikatuak diren ulertzeko gako batzuk ematen ditu azterlan honek. Horrekin batera, esanahien arteko dialogikotasun eta tentsioetan oinarrituz, Polifasia Kognitiboaren kontzeptualizazioak norbanakoan zein kolektibitateen baitan ematen diren krisi eta eztabaidak ulertzeko ikuspegi teorikoa eskaintzen du (Jovchelovitch eta Priego-Hernández, 2015).

Ikerketa honetan menpekotasunaren irudikapen sozialak zazpi gai ezberdinetan adierazten diren tentsio eta kontraesanen bitartez adierazten dira, euskal gizartean gaiak pizten dituen eztabaiden nondik norakoak ulertzeko gako batzuk emanez. Aurrez landutako literaturan, zaintzaren antolaketa sozialean izandako eraldaketak azaltzen dituzten faktoreak aipatzen dira, besteak beste, familiek egungo egoeran zaintzari aurre egiteko dituzten baliabide eskasia agerian utzita (Deusdad, Pace eta Anttonen, 2016). Egoera horrek zaintzaren erantzukizuna bereziki migratutako eta pobretutako emakumeen gain jartzera eramaten du, historikoki gutxietsitako lanbidea izaki (Moré, 2018). Bestalde, bizitzen ari den trantsizio soziodemografikoak eta populazioaren zahartzeak, osasunari eta adinekoei bideratutako arreta-eredu instituzionalei buruzko eztabaidak piztu ditu, pertsonan eta komunitatean ardaztutako ikuspegi berriei bide emanez (Martínez Buján, 2019; Nolan et al., 2014). Hainbat ikerketek erakutsi izan duten moduan, menpekotasun-egoerak, zaugarritasunak eta zaintza beharra izateak zahartzearen alde iluna eta beldurgarria irudikatzen dute (Torres et al., 2015; Wachelke eta Contarello, 2010). Aipatutako faktoreak kontsideratuz, ikerketa honek balio kulturaleri, erakundeei eta pertsona arteko harremanei dagokienean pertsonen egunerokoan bizi eta kudeatzen dituzten tentsio eta gatazkak azaleratzen ditu.

Batetik, dimentsio kulturalari dagokionean, agerian geratzen dira zaintzari buruzko ikuspegi eta balioen arteko tentsio eta talkak. Aurrez landutako literaturari helduz, pertsonen zaintzari eta zahartzeari buruz dituzten pentsamoldeen oinarrian daude

familiako eginkizunak, zaintzak suposatzen duen zama, kontziliazioa, zein zahartze osasuntsu eta autonomoarekin bat egiten duten ideiak (Britto et al., 2018; Camargo et al., 2014; Contarello et al., 2016; Medeiros, 2017). Gure emaitzek, pertsonen ideia horiek modu gatazkatsuan bizi dituztela adierazten dute. Familiari lotutako betebeharrak eta norbere autonomia lehenesten duten balioen arteko talka, enplegua zaintzarekin eta norbere bizi proiektuarekin bateraezina izatea, menpekotasunaren kontzepzio negatiboak edota zaintzaren inbisibilizazioari loturiko esanahiak agerian uzten dira. Horrekin batera, “menpekotasuna vs autonomia” izendatutako gaian bereziki adierazten den bezala, parte-hartzaileengan 39/2006 Mendekotasun Legeak emandako diskurtso ofiziala edo instituzionala gailentzen dela antzeman daiteke, menpekotasuna bereziki, adinari, ezintasunari eta gaixotasunari loturik ulertzen den heinean (Cerri, 2015). Ildo horretan, menpekotasunari buruzko definizio eta ezagutza “profesionalak” eta normatiboak gaiari buruzko eguneroko pentsamenduan nola txertatu eta errotzen den ere ikusi daiteke (Moscovici, 1961, 1984).

Bestetik, erakundeen dimentsioan, zaintza lanari eta egoitzetan ematen diren zainketei loturiko esanahien tentsioak azaleratzen dira. Aurrez egindako ikerketekin bat eginez, zaintzari loturiko ideia tradizional eta profesionalizatuen arteko koexistentzia eta talka adierazten da, non horiek inplikazioak dituzten zaintzaileen lan-baldintzen hobetzeari eta garapen profesionalari begira (Hedler et al., 2016; Moreno-Colom et al., 2017; Sconpinho eta Rossi, 2017). Bestalde, egoitzetan eman ohi diren arreten nolakotasuna zalantzan jarri eta norbere inguruan eta etxean bezala sentitzeari garrantzia ematen zaio (Daniel et al., 2019; Diaz-Veiga eta Sancho, 2013; Koren, 2010). Desio horrek bat egiten du “tokian zahartzearen” espektatiba kulturalarekin zein zahartze autonomo eta ahaldundura begirako estrategia soziopolitikoaren ildoarekin (Munduko Osasun Erakundea, 2017; Wiles et. a, 2012).

Azkenik, agerian geratzen dira pertsonen zaintza-harremanetan kudeatzen dituzten tentsio eta kontraesanak (Fiske, 1992). Aurrez egindako ikerketek erakutsi bezala, pertsonen tentsioak bizitzen dituzte zaintza-harremanetan, pertsona arteko hurbiltasunean, ahaidetasunean eta elkarrekiko espero den hartu-emanen (Siira et al., 2019; Walsh eta Shutes, 2013). Tentsio eta kontraesan horiek areagotu egiten dira harremanean lotura profesionala, familiarra eta pertsonala aldi berean kudeatu behar

izaten denean eta testuinguru emozional gogorretan eta zaintzaile-zaindu arteko botere-desoreken baitan ematen badira (Van Bochove eta Zur Kleinsmiede, 2019). Azkenik, zaintzaileen eta zaintza-hartzaileen arteko harremanetan ematen den tentsio emozionala agerian uzten da (Tronto, 2013). Horrek zainduarekiko zaintzaileak bizitzen duen inplikazio emozionala neurtzea inplikatzeko du, eta garrantzia berezia hartzen du arreta-sareen konfigurazioak, alderdi tekniko eta afektiboek eta sare formal eta informalei dagokienez, gero eta konplexuagoa eta bereziagoa den testuinguruan (Comas d'Argemir, 2017).

Irudikapen sozialen teoriaren ikuspegitik, zahartzaroko menpekotasunaren irudikapen sozialak ezagutza-mota ezberdinen arteko koexistentzian eta tentsioan ainguratzen direla erakusten da (Jovchelovitch eta Priego-Hernández, 2015; Marková, 2003). Hori horrela, pertsonak bizi diren testuinguru soziokulturalean fenomenoari buruzko esanahiak nola barneratzen dituzten ulertzeko teoria aurkezten da. Irudikapen sozialen azterketan gailendu ohi izan den erredukzionismo kognitiboa saihestuz, irudikapen sozialen izaera kokatu eta konstruktibistari heltzen diogu, irudikapen prozesuetan testuinguru soziokulturalean ematen diren dinamikek duten garrantzia nabarmenduta (Jovchelovitch, 2007; Wagner eta Hayes, 2005). Hortaz, irudikapen sozialen eduki eta prozesuen azterketan oinarrituz, ezagutzaren eraikuntza eta eraldaketak nola gertatzen diren aztertzeko ikuspegi berritzailea eskaintzen da.

Irudikapen sozialen teoriaren hurbilketa dialogikoaren arabera, kontrakotasuna adierazten duten esanahiek irudikapen sozialen izaera anitza eta dinamikoa islatzen dute. Marková-ren (2003) arabera, kontrako taxonomien – Themata – arteko tentsioek eta interdependentziak irudikapen sozialen eta eztabaida publikoen sorrera bultzatzen dute (Moscovici eta Vignaux, 1994). Ideia horren argitan, zahartzaroko menpekotasunaren irudikapen sozialak artikulatzen dituzten gaiak, kulturalki errotuak dauden antinomien adierazpen praktikoa gisa interpreta litezke, betiere ainguraketa eta objektibazio prozesuen baitan oinarrituak (Liu, 2004). Literaturari jarraiki, zaintzaren, zahartzaroaren zein osasunari inguruko esanahia gatatzeko produktio-erreproduktio, publiko-pribatu, arrazoia-emozioa, independentzia-menpekotasuna, aktibo-pasibo, self-besteia, osasuna-gaixotasuna, garbitasuna-zikinkeria eta bizitza-heriotza moduko konstruktoei loturik agertzen dira (Cerri eta Alamillo-Martínez, 2012;

Medeiros, 2017; Tronto, 2013). Tentsio horiek azaleratzen diren neurrian, ikerketa honetako emaitzak baliagarriak izan litezke etorkizunean gaiari buruzko esanahietan eta balioetan sakontzeko eta testuinguru soziokultural ezberdinetan fenomenoak hartzen duen zentzua ulertzeko gako batzuk ematen ditu (Markova, 2003; Smith eta Joffe, 2012).

Interdependentziaren ideiarekin lotura estuan, irudikapen sozialak familiek, zaintzaileek eta adineko pertsonen fenomenoari buruz dauzkaten ahots, diskurtso eta jarrera anitzen elkarrizketan eraikiak direla iradokitzen da; betiere menpekotasuna - zaintzarekin loturan – guztiok barne hartzen gaituen kontzeptu erlazional eta kolektibo gisa ulertuta (Dant, 1988; Fine eta Glendinning, 2005; Guzmán, Moscoso eta Toboso, 2010). Akademiaren giza kognizioaren inguruan gailentzen den ikuspegi indibidualistatik harago, pertsonen menpekotasunaren eta zahartzaroko zainketei buruzko esanahiak testuinguru soziokultural eta erlazionalarekin loturan nola barneratu eta birdefinitzen dituzten ulertzeko ikuspegia ematen du ikerketa honek (Voelklein eta Howarth, 2005). Hortaz, gizartean dauden ahots eta jarreraren inguruko ikuspegi holistikoa izateak menpekotasunaren ikuspegi inklusiboagoa sustatzen du, esanahi ezberdinen arteko dialektika eta zaintza harremanean bestea-ren posizioa aitortuz (Jovchelovitch, 2007). Hau funtsezkoa da zaintzan inplikaturako aktore sozial ezberdinen arteko komunikazioa, elkar ulertzea eta konfiantza sustatzeko (Linnell, 2009).

Aplikazio sozialari dagokionez, ikerketa honekin menpekotasunari buruz pertsonen dituzten pentsamoldeak eta portaerak ulertzeko ikuspegi kokatua eskaintzen da, maiz gatazkatsuak izan ohi diren zahartze eta zaintza prozesuak modu positiboagoan kudeatzea ahalbidetzearekin batera (Foster eta Walker, 2015; Montgomery et al., 2017). Azkenik, emaitzetan aurkeztutako gaiak gako batzuk eman ditzakete dagoeneko Gipuzkoan zaintza ekosistemen inguruan pil-pilean dauden erronka soziopolitikoei heltzeko eta Covid-19aren testuinguruan nabarmen azaleratu diren auziak kolektiboki eztabaidatzeko (Comas-d'Argemir eta Bofill-Poch, 2021; Gipuzkoako Foru Aldundia, 2022; Usurbilgo udala, 2021), besteak beste: Nolako parte-hartze maila daukate gizarteko eragile ezberdinek (familiak, komunitateak, estatuak eta merkatuak) zaintzaren arloan? Nola demokratizatu zaintzaren inguruko harreman sozialak eta ardurak? nola sustatu erakundeenganako eta komunitare sareenganako konfiantza

herritarrengan? Nola duindu eta ahaldundu zahartzaroari eta epe-luzeko zaintzei lotutako iruditeria eta praktika sozialak?

Ikerketaren mugak

Irudikapen sozialak beti ere testuinguru soziokultural eta historiko jakinean kokatuak daudela kontuan izanez, emaitzetan aipatzen diren gaiak zuhurtasunez interpretatu beharra azpimarratzen dugu. Alde batetik, laginketaren mugak beregain hartzen dituzte egileek. Ikerketaren hasiera bateko helburua zahartzaroko menpekotasunari begira gizaratean dauden eztabaidak eta eraldaketa soziokulturalak aztertzea izanik, egunerokoan gaiarekin inplikaturako aktore nagusiengan jarri zen fokua. Hala ere, eztabaida hauen nondik norakoak modu zabalagoan eta beste ikuspegi batzuetatik ulertu ahal izateko ere bestelako ahotsak barneratzea ere garrantzitsua izango litzakeela uste dugu. Esaterako, maila profesionalean eta egoitzetan lan egiten duten zaintzaileak, norbere etxean bizi eta arretak behar dituzten adinekoak, boluntario sareak, eragile komunitarioak etab. Guztiontzako bizi on eta duinak bermatze aldera, zaintzaren inguruan ematen dabiltzan eraldaketetan eta norabideetan sakonduko duten ikerketak garrantzitsuak izango dira etorkizunera begira.

7

Bigarren azterlana

Nondik gatoz eta norantza goaz? Epe-luzeko zaintzari buruzko ezagutzaren eraldaketak

Castelo, U., Gil de Montes, M., Larrañaga, M. (2022). "Where do we come from and where are we going?" a study about the transformation of knowledge related to long-term care. Under 2nd revision: *Journal of Health Psychology*.

Laburpena

Garaiko zaintzaren krisiak agerian uzten ditu epe-luzeko zaintza sistemari loturik gertatzen ari diren tentsio eta eraldaketa sakonak zein zaintza paradigma eta eredu berriekiko interesa. Irudikapen sozialen teoria abiapuntu hartuz eta polifasia kognitiboaren kontzeptua baliatuz, etxez etxeko zaintzaileek, senideek eta adineko egoiliarrek zaintzari buruzko esanahien eraldaketa zein modutan adierazten duten aztertzea du helburu ikerketa honek. Emaitzek hiru eraldaketa nagusiren berri ematen dute. Ideia eta balio familiaristen ordezkapena, batetik. Bestetik, zaintza kanpora ateratzearen eta profesionalizatzearen ondorioz sortutako kontraesan sozial eta moralen kudeaketa. Azkenik, zaintza modalitate eta arreta eredu berritzaileei lotutako esanahien sorrera. Ahots eta posizio bereizietatik zaintzari buruzko ezagutza berriak egunerokoan nola barneratu eta kudeatzen diren ezagutzeko eredu teorikoaren ekarpena mahaigaineratzen da. Aplikazioari dagokionez, zaintza arloko politikak eta prozesu soziokulturalak gidatzeko gako batzuk eman ditzake ikerketa honek.

Gako hitzak: Polifasia Kognitiboa, epe-luzeko zaintza, irudikapen sozialak, trantsizio kulturala.

Sarrera

Gizarte modernoetako epe-luzeko zaintza sistemak aldaketa eta berregituratze prozesu sakonean hurbilduta daude (Spijker eta Zueras, 2020). Azken hamarkadetan demografian, familia egituretan, genero harremanetan eta balioetan izandako aldaketen ondorioz, “gizon ogi-irabazle eta etxeakoandrea” oinarritutako zaintza eredu tradizionala kolokan dago (Martínez-Buján, 2019). Familiek senideekiko dauzkaten ardura eta loturen ohiko kontzepzio kultural eta moralak auzitara ekarri ditu horrek, esparru publiko eta profesionalerako jausia ematearekin batera (Deusdad, Pace eta Anttonen, 2016; Finch eta Groves, 1993; Vega, 2009). Hortaz, familiak betetzen duen funtzio zentralarekin batera, nabaria da erakunde publikoek eta merkatuak – emakume atzeritarren eskutik – egungo zaintzaren antolaketa sozialean betetzen duen funtzio garrantzitsua (Bettio, Simonazzi eta Villa, 2006; Comas-d’Argemir, 2019).

Bestalde, gainean diren erronka soziodemografikoei heltzeko, zahartzaroari lotutako beharrei eta arreta-eredu berritzaileak bultzatzeko egitasmoak sustatzen hasiak dira nazioartean zein euskal autonomia erkidegoan (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2022; Spasova et al., 2018). Horien asmo nagusia gero eta menpekotasun eta zaintza behar handiagoak izango dituen gizartera egokitutako ongizate politikak bultzatzea da, pertsonan eta komunitatean ardaztutako paradigmen bidetik (Martínez-Rodríguez, 2013; Wiles et al., 2012). Zentzu horretan, arreta ereduak dagokionez, egoitza tradizional eta inpertsonalak eraldatzera begirako egitasmoak mahaigainean eta eztabaida publikoan daude, Covid-19aren osasun krisiak adineko pertsonen populazioan eta erakundeetan izandako inpaktuak nabarmen azaleratu bezala (Anttonen eta Koarsio, 2016; Deusdad, 2020; Ranci eta Pavolini, 2015).

Zaintzaren kultura eta antolaketaren krisi eta eraldaketa testuingurua abiapuntu harturik, ikerketa honen helburu nagusia epe-luzeko zaintzari buruzko ezagutza eraldaketak aztertzea da. Hau da, pertsonen maila indibidual zein kolektiboan fenomeno sozial honen inguruko ezagutza eta ideia berriak egunerokoan nola barneratu eta kudeatzen dituzten ezagutu eta identifikatzea. Izan ere, ezagutza eraldaketak zein motatakoak diren eta zein norabidetan gertatzen ari diren erreparatzeak gako garrantzitsuak eman ditzake jendearen ikuspegi eta praktikak ulertze aldera; eta baita maila aplikatuan zaintzaren arloko aldaketa sozialak aurreikusi eta kudeatzeko. Hortaz,

nondik gatozen, non gaude ulertu eta etorkizuneko norabideak hobeto bideratzeko lanabesak eskaini ditzake ezagutza eraldaketak nola gertatzen diren erreparatzeak, zaintzaren inguruan bizitzen ari diren auziak eta tentsioak ulertzeko ikuspegia eskainiz.

Aurrez egindako ikerketetan, aldaketa soziodemografiko, ekonomiko, kultural zein digitalek zaintzaren antolaketa sozialari begira dituzten erronkak eta inplikazioak luze eta zabal azaldu izan badituzte ere, eraldaketa horiek ezagutza mailan eta irudikapen sozialen ikuspegitik nola adierazten diren gutxiago landu izan da (Priego-Hernández, 2017). Hortaz, ikerketa honetan hurbilpen honetatik abiatzen gara zaintzaren azterketara. Horretarako, zaintzarekin inplikaturako aktore eta eragile sozial nagusien ahots eta bizipenen azterketa hartzen da oinarri gisa. Horien artean, etxez etxeko zaintzaileak, zaintza esperientzia bizi izan duten senitartekoak eta menpekotasun-egoeran dauden adineko egoiliarak.

Ezagutzaren eraikuntza eta eraldaketa gizartean nola gertatzen den aztertzeko aukera paregabea ematen duen aldetik, irudikapen sozialen teorian oinarritzen da ikerketa hau (Moscovici, 1961, 1984). Irudikapen sozialak, gizarte eta komunitate mailako fenomenoengatik inguruan partekatuta, eztabaidatu eta negoziatzen diren ideia, balio eta ezagutza multzoa dira (Moscovici, 1988; Wagner eta Hayes, 2005). Horien bitartez, eguneroko bizitza kudeatu, mundu sozialean aritu, orientatu eta ekiteko baliabide kognitiboak izatea ahalbidetzen da eta fenomeno sozialen inguruan jendeak nola pentsatzen duen ulertzeko funtsezkoak dira (Jodelet, 1989). Zentzu horretan, gizartean zaintzaren inguruan partekatzen diren ikuspegi, portaera eta praktika sozialak nolakoak diren ulertzeko, garrantzitsua da fenomeno kolektiboki nola irudikatua den ezagutzea. Aurrez egindako ikerketetan, zaintzaren irudikapen anibalenteen berri ematen da; alderdi positiboen artean, bestearen ongizateari begirako ekintzak daude, hala nola, maitasuna, dedikazioa, garbiketa, elikadura eta estimulazioa. Alderdi negatiboen artean berriz, zaintza-prozesuetan bizi den segurtasun eza, inpotentzia eta zaintzaile rola inposizioa eta gainkarga leudeke (Aguilar et al., 2011; Hedler et al., 2016). Era berean, zaintzak tokiko kultura eta antolaketa sozialaren arabera esanahia hartzen duela erakusten da, hau da, familiak, estatuak, merkatuak eta komunitateak zaintza-horniduran betetzen duten funtzioaren arabera (Batthyány, Genta eta Perrota, 2013; Brito et al., 2018; Moreno-Colom et al., 2017).

Teoriaren ikuspegi dialogikotik, irudikapen sozialak pertsona eta taldeak kokatzen diren testuinguru soziokultural eta erlazionalaren arabera eraiki, hedatu eta eraldatzen dira (Marková, 2003). Egindako ikerketek iradokitzen dutenari jarraiki, zaintzari buruzko irudikapen sozialak tentsioari eta aldaketari lotuta daude, tokiko prozesu soziokulturalekin elkarrekintzan (Castelo et al., 2022). Hortaz, jendeak irudikatutako objektuari buruzko ezagutza, posizio eta ahots ezberdin eta maiz kontrajarriak kudeatzen dituzte (Doise, 1984, Jodelet, 1989; Renedo, 2007). Ideia hori *Polifasia kognitiboaren* kontzeptuak jasotzen du, hain zuzen ere. Polifasia kognitiboak ezagutza mota ezberdinen arteko aldibereko kudeaketa eta gatazka azaltzen du eta pertsona eta talde baten arrazoiketa modua beti kokatuak, dinamikoak eta malgua dela adierazten du (Moscovici, 1961/2008). Egoera, harreman eta prozesu sozialekin etengabe elkarrekintzan izanik, ezagutza etengabe osatzen eta eraikitzen dagoela baieztatzen da polifasia kognitiboaren bitartez eta ondorioz, aukera eskaintzen du ezagutzaren eraldaketaren azterketan murgiltzeko (Jovchelovitch eta Priego-Hernández, 2015).

Polifasia Kognitiboa adierazten duten prozesuetan arreta jartzeak baliabide garrantzitsua eskaintzen du, pertsonak testuinguru eta egoera sozial ezberdinetan zaintzari buruz adierazten dituzten ezagutza eraldaketak identifikatzeko (Panagiotou eta Kadianaki, 2019; Priego-Hernandez, 2017). Zentzu horretan, Jovchelovitch eta Priego-Hernándezek (2015) kontzeptu honetatik sortutako eredu teorikoan, ezagutzaren eraldaketa islatzen dituzten hiru prozesu soziokognitibo aipatzen dituzte, horietako bakoitzak ezagutza mota ezberdinen arteko tentsioa eta aldiberekotasuna modu ezberdinean adierazten dituela azalduta:

- 1) *Ordezkapena*: ezagutza mota jakin bat bultzatu eta defendatzen da eta ezagutza edo irudikapen alternatiboa baztertu.
- 2) *Egoeraren lehentasuna*: ezagutza mota konkretuak lehenesten dira testuinguru eta egoera sozial ezberdinen beharrei erantzuteko.
- 3) *Hibridazioa*: ezagutza mota ezberdinak aldi berean erabili eta uztartzen dira, eta ezagutza berrin sorrera ematen da.

Hiru prozesu hauek azken urteetan argitaratutako hainbat ikerketetan enpirikoki aztertu izan dira. Zehazki, Priego-Hernandezek (2017) lehendabizikoz erabili zuen eredu teoriko

hau osasun sexualari buruzko ezagutzak Mexikoko emakume gazte indigenetan eraldaketan zirela azalertzeko. Horren arabera, medikuntza konbentzionalak eta modernitateak eraginda, osasun sexualari buruzko ezagutza berriak sekretuaren kulturaren eta medikuntza tradizionalen oinarritutako ezagutzekin batera uztartu eta kudeatzen dituzte belaunaldi berrietako emakumeek. Bestalde, berriki Txipren burututako beste ikerketa batean, mendebaldeko herrialdeetan haragia jateak pertsonengan eragiten dituen kontraesan psikologikoak ikuspegi soziokultural batetik azaltzeko erabili izan da eredu teoriko hori, disonantzia kognitiboaren teoria klasikoa eztabaidara ekarrita (Panagiotou eta Kadianaki, 2019). Burututako ikerketa horiek, testuinguru soziokulturean eraikitako ezagutza motei erreparatzeak jendeak egoera ezberdinetan nola pentsatu, arrazoitu eta jokatzeko duen azaltzeko duen garrantzia mahaigaineratzen dute.

Egindako lanen bidetik, ikerketa honetan modernizazioak eraginda epe-luzeko zaintzari buruzko ezagutza mota edo sistemak nola aldatzen ari diren eta fenomenoarekin inplikaturako aktore eta eragile ezberdinengana eraldaketa horiek nola adierazten diren azalerratu nahi da. Hasieran esan bezala, familiararen inguruan ardatzaturako zaintzaren kultura eta antolaketari buruzko kontzepzioak ezbaian daude eta aldi berean kontzepzio berrien agerpena ematen ari da azken hamarkadetan. Zentzu horretan, polifasia kognitiboaren azterketa teorikoan oinarritzeak, ekarpen garrantzitsua egin dezake epe-luzeko zaintzaren irudikapen sozialak nola eraldatzen ari diren ezagutzeko.

Metodoa

Prozedura

Ikerketa hau Gipuzkoako testuinguru soziokulturalean kokatzen da. Gipuzkoaren egitura sozioekonomiko nagusia sektore industrialetik dator eta gero eta gehiago tertziarizaziora zuzenduta dagoen lurraldea da. Zentzu horretan, zahartzaroari lotutako ekonomia eta zaintza sektorea ere, nabarmen ari dira hedatzen euskal lurralde honetan (Larrañaga, Rodríguez eta Jubeto, 2019). Ikerketa honetarako, zaintzaren gaiarekin inplikaturako hogeitasei pertsonak elkarrizketatuak izan ziren; horien artean, adineko pertsona baten zaintzaren esperientzia bizi izandako senideak (n=11), etxez etxeko soldatapeko zaintzaileak (n=7) eta egoitza ezberdinetan bizi ziren adinekoak (n=8). Laginketa, elur-bolaren teknika (Atkinson eta Flint, 2001) baliatuz osatu zen, parte-hartzeko honako irizpideak jarraituz: adinez nagusi izatea (18 urtetik gora), zaintzarekin esperientzia eta inplikazioa (urtebete baino gehiago), generoari dagokionez parekidetasuna (%50 emakumeak) eta gaitasun kognitiboak mantentzea (profesionalen irizpideak jarraituz). Guztira, hamasei emakumez eta hamar gizonez osatu zen lagina; gazteenak hogeita bost urte zituen eta zaharrenak, berriz, laurogeita hamahiru. Parte-hartzaileen artean ez zegoen harreman familiar eta profesionalik (Ikus. Taula 1).

Ikerketa honek Euskal Herriko Unibertsitateko etika batzordearen oniritzia jaso zuen landa-lana aurrera eraman ahal izateko (M10_2018_228). Parte-hartzaile guztiek baimen informatua sinatu zuten eta ikerketa prozesu osoan beraien eskubideei buruzko informazioaz jakitun izan ziren.

Taula 1

Parte-hartzaileen ezaugarri soziodemografikoak

Parte-hartzaileak	Sexua	Adina	Jatorria
1. Senidea (adinekoaren alaba)	Emakumea	25	Gipuzkoa
2. Senidea (adinekoaren alaba)	Emakumea	40	Gipuzkoa
3. Senidea (adinekoaren biloba)	Emakumea	25	Gipuzkoa
4. Senidea (adinekoaren biloba)	Emakumea	28	Gipuzkoa
5. Senidea (adinekoaren biloba)	Emakumea	38	Kuba
6. Senidea (adinekoaren semea)	Gizonezkoa	57	Gipuzkoa
7. Senidea (adinekoaren semea)	Gizonezkoa	63	Gipuzkoa
8. Senidea (adinekoaren semea)	Gizonezkoa	66	Gipuzkoa
9. Senidea (adinekoaren semea)	Gizonezkoa	67	Gipuzkoa
10. Senidea (adinekoaren biloba)	Gizonezkoa	39	Gipuzkoa
11. Senidea (adinekoaren iloba)	Gizonezkoa	42	Gipuzkoa
12. Etxeko langilea	Emakumea	29	Nikaragua
13. Etxeko langilea	Emakumea	31	Nikaragua
14. Etxeko langilea	Emakumea	39	Nikaragua
15. Etxeko langilea	Emakumea	41	Nikaragua
16. Etxeko langilea	Emakumea	52	Bolivia
17. Etxeko langilea	Emakumea	36	Gipuzkoa
18. Etxeko langilea	Emakumea	36	Gipuzkoa
19. Adineko egoiliarra	Emakumea	77	Gipuzkoa
20. Adineko egoiliarra	Emakumea	87	Gipuzkoa
21. Adineko egoiliarra	Emakumea	91	Gipuzkoa
22. Adineko egoiliarra	Emakumea	91	Gipuzkoa
23. Adineko egoiliarra	Gizonezkoa	70	Gipuzkoa
24. Adineko egoiliarra	Gizonezkoa	78	Gipuzkoa
25. Adineko egoiliarra	Gizonezkoa	85	Gipuzkoa
26. Adineko egoiliarra	Gizonezkoa	93	Gipuzkoa

Datu-bilketa

Datuen bilketa elkarrizketa erdi-egituratuen bitartez burutu zen. Elkarrizketak indibidualak izan ziren, eta aurrez prestatutako gida batean oinarritu ziren galderen nondik norakoak. Hiru atal nagusi jorratu ziren elkarrizketetan. Batetik, pertsona bakoitzak menpekotasunari eta zaintzari loturik izandako bizipen pertsonala. Bestetik, menpekotasun eta zaintza prozesuari loturiko harremanen (familiarekiko, zaintzaileekiko eta adinekoarekiko) nolakotasuna. Azkenik, zaintzari buruzko espektatiba, lehentasun eta satisfakzio-mailaz galdetu zitzairen, galderak aktore bakoitzaren berezitasunei egokituta (adbz. Zer iradokitzen dizu populazioaren zahartzeak eta zaintza beharren areagotzeak? Nola, non eta noren eskutik nahiko zenuke zaindua izatea? nola sentitzen zara zaindua?). Elkarrizketak ikertzaile nagusiak burutu zituen parte-hartzaileen

etxeetan, espazio publikoan eta egoitzetan xede honetarako egokitutako espazioetan. Parte-hartzaileek onartutako kasuetan, elkarrizketen ahotsa grabatua izan zen eta beraien hautuzko hizkuntzan komunikatu ziren, euskaraz zein gaztelaniaz. 30-35 minutuko iraupena izan zuten. Elkarrizketa guztiak 2018ko maiatza eta 2019ko urtarrilaren epe-tartean burutuak izan ziren.

Datu-analisia

Elkarrizketetatik bildutako informazioa Jovchelovitch eta Priego-Hernandez-en (2015) Polifasia Kognitiboaren eredu teorikoaren ikuspegitik landu eta analizatu ziren. Ikerketa honetan, aurrez argitaratutako emaitza tematikoak baliatu ziren irudikapenaren azterketara hurbilpen berri bat egiteko. Anlisi tematikoaren emaitzek, jendeak menpekotasunari eta epe-luzeko zaintzari loturik egunerokoan bizitzen zituzten tentsio soziokulturalak eta moralak agerian uzten ziren, zazpi gairen elaborazioaren bitartez (Castelo et al., 2022).

Lehen gaiak, *Familismoa vs. Indibidualismoa*, zaintzaren kultura familiaristari loturiko tentsio eta eztabaidak plazaratzen zituen. Bigarren gaian, *Produkzioa vs. Erreprodukzioa*, norbere enplegua, zaintza eta bizitzarako denbora uztartzeko zailtasunak eta zaintzaren balorazio sozialari buruzko tentsioak jorratzen ziren. Hirugarren gaiak, *Menpekotasuna vs. Autonomia*, menpekotasunari buruzko ikuspegi negatiboaren pisua azaleratzen zuen, bereziki, gaixotasunari, zahartzaroari, narriadura eta autonomia funtzionalaren galerara loturik. Laugarren gaian, *Naturalizazioa vs. Profesionalizazioa*, zaintzaren naturalizazioa (feminitateari eta maitasunez egindako lana) eta profesionalizazioaren arteko aldiberekotasuna eta talka nabarmentzen zen. Bostgarren gaiak, *Etxea vs. Egoitza*, zaintzaren instituzionalizazioari loturiko eztabaidak agerian uzten zituen. Seigarren gaiak, *Partekatze komunala vs. merkatukoa*, senidetasunean eta merkatuko zerbitzuetan oinarritutako harreman sozialen uztarketak sorrarazten dituen zailtasun eta tentsioak agerian uzten zituen. Azkenik, zazpigarren gaiak, *Zaintza instrumentala vs. Emozionala*, tentsioak zaintzaileak zainduarenganako izan behar duen inplikazio emozional eta afektibo mailari loturik agertzen ziren.

Ikerketa honetan, aurrez argitaratutako ikerketaren emaitzetatik abiatuz, irudikapen sozialaren edukietan ez ezik, prozesuetan jartzen da arreta. Irudikapen soziala

artikulatzen zuten zazpi gai edo tentsio horiei loturik polifasia kognitiboa zein modutan adierazten zen aztertu zen, analisi tematiko deduktibo eta teorikoagoari bide emanaz (Boyatziz, 1998; Braun eta Clarke, 2006). Modu horretan, jendeak zaintzari buruz dituen ikuspegiaren eraldaketak identifikatu eta testuinguru soziokulturalean hartzen duen zentzua interpretatzeko aukera ematen da, ikuspegi konstruktibistari jarraiki (Braun eta Clarke, 2020; Joffe eta Yardley, 2004). Lehendabizi, datuekin eta gaiekin familiarizatzeko berriro heldu zitzaion elkarrizketa eta kodifikatutako esanahia bakoitza sakon irakurri eta berrikusteari. Jarraian, gai bakoitza osatzen zuten kode eta aipuak analizatu ziren, eta horietako bakoitzean *ordezkapenari*, *egoeraren lehentasunari* eta *hibridazioari* loturiko prozesuak nola adierazten ziren analizatzeari ekin zitzaion. Atlas-ti software programa informatikoa baliatuta, aipu bakoitza kodifikatu zen prozesu soziokognitiboaren arabera eta konkurrentzia analisia burutu zen. Konkurrentzia analisia modu sistematizatu baten ahalbidetu zuen zazpi gaiak hiru prozesuekin nola uztartzen ziren ikusten. Azkenik, prozesu bakoitza zaintzaileengan, senideengan eta adinekoengan nola azaleratzen zen analizatu eta aipu adierazgarrienak sailkatu ziren.

Ordezkapena, *egoeraren lehentasuna* eta *hibridazioari* loturiko prozesuen egokitasuna literaturan oinarrituta eta ikerketa taldearen baitan landua eta adostua izan zen. Ikertzailearen subjektibotasuna ikerketa-prozesuaren erdigunean dagoela ulertzen den arren, ikerketaren kalitatea eta fidagarritasunerako irizpideak jarraituz burutu da analisi eta interpretazio prozesu osoa; horretarako, urratsez-urrats eta modu sistematikoan azaltzen da nola burutu den datuen analisi prozesua eta horren koherentzia teorikoa (Bauer eta Gaskel, 2000).

Emaizak

Emaizta nagusiei erreparatuz, menpekotasunari eta epe-luzeko zaintzari lotutako ezagutzaren eraldaketak agerian uzten zituzten senideen taldeak, zaintzaileek eta egoitzetan zainduak ziren adineko pertsonak. Ezagutzaren *ordezkapena*, *lehentasuna* eta *hibridazioa* adierazten zuten prozesuen bitartez, parte-hartzaileek zein ezagutza mota baztertu edo ordezkatzeko zituzten, egoera sozialaren arabera zein ezagutza lehenesten zituzten eta zein ezagutza berri bide ematen zioten azaleratzen da (ikus. 2. Taula)

1) Zein ezagutza mota ordezkatzeko dira?

Ordezkapen prozesuak, pertsonak dituen ideia eta balioak zalantzan jartzen dituzten ezagutza alternatiboen bazterketari egiten dio erreferentzia. Ikerketa honetan parte hartu zuten senitartekoen zaintza ikuspegi eta praktika tradizionalak dagokionez testuinguru aldakorra mahaigaineratzen zuten, egungo egoeran senitarteko baten zaintzaz arduratzeak dakartzan zailtasunak, kostu pertsonal eta sozialak aipatuz. Zentzu horretan, senideak ziren, bereziki, zaintzaren inguruko balio aldaketa mahaigaineratu zutenak, eta egungo belaunaldietan aurrekoetan ez bezala zaintzen dela argudiatzen zuten. Horrek zaintzari lotutako balio tradizionalen ordezkapena azaleratzen du, pertsona horiek ez baitaude prest aurreko belaunaldiek zaintzen zuten bezala zaintzeko. Senideen ahotsetatik, zaintzaren tradizio familiarista eta arau morala zalantzan jartzen da, familiak zaintzaren zamatik “aska” ditzakeen bestelako baliabide, aukera eta zerbitzu profesionalak kontsideratuz. Ideia hori ondorengo aipuan adierazten da:

“Lehen gurasoak etxean zaintzen ziren, baina orain bakoitzak bere bizitza egiten du, denok bizi gara leku ezberdinetan eta gero eta zailagoa da. Orain ez da gauza bera, orain gazteak, gizonak, bai emakumeak lanera ari dira. Beraz, ez da lehen bezala. Lehen emakumeak ez zuen kanpoan lan egiten, eta familiako norbait gaixotzen bazen, emakumea joaten zen zaintzera eta txandaka ibiltzen ziren. Baina gaur egun, edo denok leku ezberdinetan bizi gara edo denok gaude nahiko lanpetuta.” (Gizona, 67 urte) (1. gaia: Familismoa vs. Individualismoa)

Kontrako ikuspegi batetik, jatorri latinoamerikarra zuten etxeko zaintzaileek, bertako zaintzaren antolaketa eta kudeaketa kritikatzeko zuten, senideek zainduarekiko daukaten ardura eza arbuatuz. Familiak zaintzan izan beharreko zentraltasuna defendatzen zuten eta lan egiten zuten etxeetako familiek zaintzarekiko zeukaten konpromiso, arreta eta ardura falta aipatzen zuten. Emakume horiek etorkizun hurbilean beraien herrialdeetara

itzuli eta beraien seme-alaba eta gurasoen zaintzaz arduratzea espero zuten. Era berean, adinekoen zaintza lanetan ikusten zuten bakardadea eta ahanzturaz beldur ziren. Zaintzaren indibidualizazioa errefusatu eta arbuiatzen zituzten, eta beraien jatorri eta ohitura kulturalarekin bat egiten duten balioak defendatzen zituzten; hala nola, zainduarekiko familiak duen betebeharrak morala defendatuz eta egoitzaren aukera baztertuz. Ondorengo aipuan adierazten den moduan, zaintzaileek beraien kulturarekiko lotura sinbolikoa eta emozionala islatzen zuten ordezkarien prozesuaren bitartez:

"Ni ez naiz bertakoa, eta nire familiarekin itzuliko naiz. Gatozen lekutik, denei gustatzen zaigu familian eta etxean zahartzea. Gertukoagoa eta intimoagoa delako, eta adinekoa ez delako zama bat. Han, adineko pertsona batek 90 urte bete eta gero ere, ematen eta maitasuna eskaintzen jarraitzen du." (Emakumea, 52 urte, zaintzailea) (1. gaia: Familismoa vs. Indibidualismoa)

2) Zein ezagutza mota hasten dira kontsideratzen eta kudeatzen?

Egoera konkretuari loturiko ezagutza prozesuen bitartez, pertsonak egoera eta testuinguru sozial ezberdinetara egokitze ezagutza ezberdin eta maiz kontrajarriak erabili eta lehenesten dituzte. Ikerketa honen kasuan, alde batetik, senitartekoen norbere enplegua eta zaintza lanak bateratzeko zailtasunak aipatzen zituzten. Ondorioz, bestelako zaintza aukera batzuk bilatzen zituzten merkatuan eta erakunde bitartez, esaterako, zaintzaileen kontratazioa, eguneko zentroak eta egoitzak. Zaintza kanpora ateratzeak eta zaintza "ezezagunen" esku usteak kontraesanak eta erru sentimenduak sorrarazten zizkien senitartekoei. Horrek, aldi berean, talka egiten zuen norbere bizitza, ongizatea eta autonomia lehenestearekin. Ideia hori honako aipuak iradokitzen du:

"Badirudi adineko pertsonak trapu zaharrak balira bezala abandonatuta daudela. Hala ere, nik ez dut uste hori horrela denik, ez dut uste seme edo alaba batek hori nahi duenik bere gurasoentzat. Baina gaur egungo egoeran, lan egin behar dugu eta ez dago behar adina denbora menpekotasuna duen pertsona bat guk nahi dugun baldintzetan zaintzeko." (Emakumea, 25 urte, senidea) (2. gaia: Produkzioa vs. Erreprodukzioa)

Etxeko zaintzaileen kasuan, etxekotasuna, neskametzak eta kualifikazioaren bidegurutzean dauden zaintzari buruzko ikuspegiak loturik, egoerari loturiko ezagutza prozesuak identifikatu ziren (Hansen eta Kamp, 2016). Ideia horiekin tentsio eta gatazkan, parte-hartzaileek lanbidearekin izandako bizipen eta urtetako esperientziak balioan jartzen zituzten, maila sozialean eta profesionalean bizi duten aitortza ezaren

gaintetik. Zentzu horretan, beraien jardunaren alde emozional eta erlazionalaren garrantzia eta esanahia azpimarratzen zuten, eta beraien zaintza esperientziak diskurtso horietara moldatzen zituzten. Hori ondorengo aipuan ikus liteke:

"Bai, nik ere daukadan lana ez da erraza. Gutariko askok behar ekonomikoa dugu eta lan honetara jotzen dugu, ezta? Agian beste lan batzuk egin ditzakegu, baina uste dut guk ondo egiten dugula lan hau, egoera honi maitasun eta afektu maila bat jartzen diogulako, ulertzen? Ez dugu lana dirua irabazteko bakarrik eta gure sentimenduak inplikatu gabe ulertzen." (Emakumea, 41 urte, zaintzailea) (7. gaia: Zaintza instrumentala vs. Emozionala)

Autonomiaren eta botere-harremanen negoziaketa etengabekoa da zaintza praktika eta harremanetan. Autonomia eta autosufizientziaren balioaren lehentasuna parte-hartzaile guztiek nabarmentzen zuten ideia bat izan zen. Ondorioz, hirugarren pertsona edo erakundeen esku-hartzea zaintzan, tentsio eta gatazka iturri izan ohi da zaintzari loturiko erabakietan. Egoerari lotutako ezagutza prozesuak, zaintza beharrak dituzten adineko pertsonen kasuan, beraien zaugarritasun-egoera onartzean eta laguntza beharrari irtenbide bat bilatu beharraren ondorioz azaleratzen ziren. Egoera horretan, egoitza batera bizitzera joatearen aukera, baliagarri eta desiragarri gisa kontsideratzen zuten, ezagutzak egoera konkretuaren alde moldatuz. Gainera, kasu batzuetan instituzionalizazioaren esperientzia positiboak pertsonak zaharren egoitzari buruz zituzten aurretiazko ikuspegiak birdefinitu ditzakeela ikusi zitekeen, ondorengo aipuan adierazten den bezala:

" Iritsi zen une bat...non okerrago nengoen, irristatu egiten nintzen, adibidez, eta lurrera eroriz gero ezin nintzen altxatu; beraz, oso zaila izan zen konturatzea ezin nuela horrela bizi. Beraz, hona etorri nintzen, eguneko 24 orduetan nire burua zaintzen duten lekura, hemen botoiak daude. Gelan gauzak hobetuz joan gara. Beno, batzuetan denbora pixka bat behar izaten dute zaintzaileek, baina etorriko direla jakiteak lasaitasuna ematen dizu." (Gizona, 70 urte) (3. gaia: mendekotasuna vs autonomia)

3) Zein ezagutza mota berri sortzen ari dira?

Hibridazio prozesuaren bitartez, pertsonak jatorri ezberdinetako ezagutzak erabiltzen ditu aldi berean, ezagutza berriei bide emanez. Emaitzek senideen diskurtsoetan hainbat ezagutza nahasten zirela erakusten zuten, eta horiek epe-luzeko zaintzak familiaretan kudeatzeko egun dituzten zailtasunei irtenbidea ematera bideratuak zeuden, nahiz eta

ez izan beti esperotako konponbidea. Alde batetik, zaintza zerbitzuen etxeko kontratazioa aipatzen zen aukera gisa. Bestalde, egoitzetan bizi ziren adinekoentzat, zaintzailearen kontratazioa familia eskuragarri ez dagoen uneetan bakardadea saihesteko eta komunitatearekin loturak izaten jarraitzeko aukera gisa ere ikusten zen. Parte-hartzaileek zaintza aukera eta modalitate mistoak aipatzen zituzten, familiaratik, merkatutik eta erakunde publikoetatik eratorritako zaintza harreman eta praktikak uztartuz. Ondorengo aipuan eredu familiar eta profesionalari lotutako ezagutzen nahasketa hibridoa agerian uzten da:

"Gurasoekin bizi naizenez, arratsaldeak nik ematen ditut haiekin. Gero, nire ahizpa, adibidez, goizetan etortzen da, udaletxetik zaintzaile gisa kontratatua dagoelako. Ezin izan genuen beste ezer lortu, eta erabaki genuen berak lanik ez zuen bitartean gurasoak zainduko zituela. Beraz, ez da gauza bera gurasoentzat, kanpoko norbaitek haiek zaintzea edo haien alaba izatea. Noski, baina ze arazo ekartzen du horrek? Bada, nire ahizpak ez dakiela bere lanerako eta familiarako denbora bereizten". (Emakumea, 36 urte, senidea) (6. gaia: Partekatze komunala vs. merkatukoa)

Bestalde, parte-hartzaile guztiek ikusten zuten menpekotasunaren eta epe-luzeko zaintzaren eremua hazten ari den eremu profesional gisa, eta horietan gero eta nabarmenagoa da migratutako emakumeen presentzia. Zentzu horretan, zaintza lanetan diharduten emakumeek etorkizuneko aukera eta irtenbide profesional gisa ikusten zuten zaintzaren arloan kualifikatzea, lan-baldintzak eta balorazio soziala hobetzera begira. Ideia hori ondorengo aipuak islatzen du:

"Orain titulazioa lortzeko ikasten ari naizela, atea pixka bat gehiago irekitzen dira enpresetara, erakunde edo eguneko zentro batera. Zaintzaren eremu berdina da, baina atseginagoa da. Hara zoaz, babes pixka bat ematen duzu, baina ez da etxean bezala. Egia da etxeko zaintza hurbilagoa dela, baina nahiago dut nire burua hortik kanpora ikusi. Aurrera begira ez naiz gehiago etxeetan lanean ikusten, ez dagoelako ondo baloratuta, eta nahiago du erakunde edo enpresa batean lan egitea." (Emakumea, 29 urte, zaintzailea) (4. gaia: Naturalizazioa vs. Profesionalizazioa)

Azkenik, parte-hartzaileek instituzionalizazioari buruz dituzten iritziek arreta-eredu berrien garapenera bideratutako ezagutzekin bat egiten zuten, familiararen eta egoitza tradizionalen alternatiba gisa. Kasu gehienetan, egoitzetako arretaren despertsonalizazioa kritikatzeko zen, eta gertuko inguru eta komunitatetik lotura izatearen garrantzia mahaigaineratzen zen. Zentzu horretan, egoitzetan ziren adinekoek zaintzaren pertsonalizazioa, ordutegiaren malgutasuna eta ondo artatuak izatearen

garrantzia mahaigaineratzen zituzten, arreta eredu tradizionalekin talkan. Ideia hori ondorengo aipuak irudikatzen du:

"Hemen gehien aldatuko nukeena agian arratsaldeko zortziak goizegi dela oheratzeko. Horregatik uste dut ordutegia malguxeagoa izan litekeela. Gainera, batzuetan menpekotasun handia duten pertsonak leku batean utzi eta hor geratzen dira egun guztian, eta uste dut hobeto ulertu beharko genituzkeela pertsonak. Baina jakina, badakigu pertsona batzuk ez direla enpatikoak eta hemen pertsonaren ezaugarriak ikusi behar dira, horixe da printzipioz behar duguna." (Gizonezkoa, 70 urte, adinekoa) (7. gaia: Zaintza instrumentala vs. Emozionala).

Taula 2

Menpekotasunari eta epe-luzeko zaintzari buruzko ezagutzaren eraldaketak

Prozesua	Ahotsa	Aipu esanguratsuak
Ordezkapena	Senidea	<p>"Gustatuko litzaidake nire familiako pertsona guztiek beraien bizitza egiten ikustea. Gustatuko litzaidake ni bisitatzea etortzea, noizean behin elkarrekin bidaiatzea, baina egunerokoan senide bakoitza bere bizitza egiten ikustea nahiko nuke." (Emakumea, 25 urte, senidea) (1. gaia: Familismoa vs. Indibidualismoa)</p> <p>"Lehen gurasoak etxean zaintzen ziren, baina orain bakoitzak bere bizitza egiten du, denok bizi gara leku ezberdinetan eta gero eta zailagoa da. Orain ez da gauza bera, orain gazteak, gizonak, bai emakumeak lanera ari dira. Beraz, ez da lehen bezala. Lehen emakumeak ez zuen kanpoan lan egiten, eta familiako norbait gaixotzen bazen, emakumea joaten zen zaintzera eta txandaka ibiltzen ziren. Baina gaur egun, edo denok leku ezberdinetan bizi gara edo denok gaude nahiko lanpetuta." (Gizona, 67 urte) (1. gaia: Familismoa vs. Indibidualismoa)</p>
	Zaintzailea	<p>"Gaur egun asko hitz egiten da adineko pertsonetaz, baina azkenean ez dut ikusten haiek tratatzeko modua ezberdina denik. Hori senideengandik hasi behar dela uste dut, haiek baitira kanpoan daudenak eta beraien zaintzan ez daudenak. Batzuetan zera esaten digute: lan haiek egitera etortzen zireten pertsonengandik ez balitz, nork egingo lituzke?" (Emakumea, 39 urte) (1. gaia: Familismoa vs. Indibidualismoa)</p> <p>"Ni ez naiz bertakoa, eta nire familiarekin itzuliko naiz. Gatozen lekutik, denoi gustatzen zaigu familian eta etxean zahartzea. Gertukoagoa eta intimoagoa delako, eta adinekoa ez delako zama bat. Han, adineko pertsona batek 90 urte bete eta gero ere, ematen eta maitasuna eskaintzen jarraitzen du." (Emakumea, 52 urte, zaintzailea) (1. gaia: Familismoa vs. Indibidualismoa)</p>
Testuinguruaren lehentasuna	Senidea	<p>"Badirudi adineko pertsonak trapu zaharrak balira bezala abandonatuta daudela. Hala ere, nik ez dut uste hori horrela denik, ez dut uste seme edo alaba batek hori nahi duenik bere gurasoentzat. Baina gaur egungo egoeran, lan egin behar dugu eta ez dago behar adina denbora menpekotasuna duen pertsona bat guk nahi ditugun baldintzetan zaintzeko." (Emakumea, 25 urte, senidea) (2. gaia: Produktzioa vs. Erreproduktzioa)</p> <p>"Aitonaren kasuan, bera eta familia etsita geundenean bakarrik erabaki genuen egoitzara eramatea. Hasieran, erabateko ukapena zen bere partetik, urte askoan bakarrik bizi izan baitzen. Beraz, hasieran erabat ukatzen zuen egoitzara joatea. Baina gerora egoera zaila zela onartu zuen, eta familiak ere presio pixka bat egin zuen. Argi esan genion: Ze aukera geratzen zaizu? Gogorra zen, hara hiltzera joan zen eta". (Emakumea, 28 urte) (5. gaia: Etxea vs. Egoitzak)</p>
	Zaintzailea	<p>"Azkenean gu hona gatoz eta zaintza lanak egiten ditugu, ez horretarako ikasi dugulako, baizik eta egunerokoak esperientzia hau eman digulako. Eta batzuetan erakunde eta egoitza horietan lan egiten duen jendeak baino esperientzia handiagoa izan dezakegu." (Emakumea, 39 urte) (4. gaia: Naturalizazioa vs. Profesionalizazioa)</p> <p>"Bai, nik ere daukadan lana ez da erraza. Gutariko askok behar ekonomikoa dugu eta lan honetara jotzen dugu, ezta? Agian beste lan batzuk egin ditzakegu, baina uste dut guk ondo egiten dugula lan hau, egoera honi maitasun eta afektu maila bat jartzen diogulako, ulertzen? Ez dugu lana dirua irabazteko bakarrik eta gure sentimenduak inplikatu gabe ulertzen." (Emakumea, 41 urte, zaintzailea) (7. gaia: Zaintza instrumentala vs. Emozionala)</p>

Hibridazioa

Adineko pertsona

"Orain ez nintzateke berriz etxera itzuliko. Alde batetik bakarrik bizi nintzelako eta Rajoy jaunak – Espainiako orduko presidentea – 637 euro bakarrik ematen zizkidalako pentsiorako. Bizi nintzen lehengo etxea zaharregia zelako bota behar izan zuten, eta eraiki zituzten etxe berri batzuetara eraman ninduten. Han 215 euro ordaindu behar nituen alokairuan, 74 euro eskaieran, gero argia, ura, eta jan egin beharra zegoen. Eta gero berogailua ezin zen ordaindu. Inoiz ez nintzen kexatu, iloba konturatu eta egoitzara ekarri ninduten arte." (Emakumea, 77 urte, adinekoa) (5. gaia: Etxez etxeko laguntza erakundearen aurrean)

"Iritsi zen une bat...non okerrago nengoen, irristatu egiten nintzen, adibidez, eta lurrera eroriz gero ezin nintzen altxatu; beraz, oso zaila izan zen konturatzea ezin nuela horrela bizi. Beraz, hona etorri nintzen, eguneko 24 orduetan nire burua zaintzen duten lekura, hemen botoiak daude. Gelan gauzak hobetuz joan gara. Beno, batzuetan denbora pixka bat behar izaten dute zaintzaileek, baina etortzen direla jakiteak lasaitasuna ematen dizu." (Gizona, 70 urte) (3. gaia: mendekotasuna vs autonomia)

Senidea

"Zahartzarora ahalik fisikoki eta buruz ahalik eta osasuntsuen iristea espero dut. Zaindu ordea, ez dakit nork zainduko nauen. Kuadrilan teoria bat daukagu hainbat lagunen artean. Erretiroa hartu eta beste leku batera bizitzera joatea da. Gutako gehienok ez daukagu bikoterik, ez eta pertsonarik ardurapean, orduan aukera bat da denok etxe batera bizitzera joatea..." (Gizona, 57 urte, senidea) (1. gaia: Familismoa vs. Indibidualismoa)

"Iritsi zen momentu bat non esan genuen: zergatik ez dugu hartzen zaintzaile bat egunean ordu batzuk osaba zaintzeko? Horrela, izeba lasaitu eta arnas pixka bat har lezake. Orduan, neska bat ekartzea erabaki genuen, hegoamerikarra zen, goizean bi orduz lan egiten zuen eta hiru ordu arratsalde. Lehengusuak eta biok askotan lanagatik ezin izaten genuen berarekin egon eta." (Gizona, 42 urte, senidea) (2. gaia: Produktzioa vs. erreproduktzioa)

"Gaur egun familia gero eta ahulagoa da; beraz, ez duzu familiaren laguntzarik seme-alabak kanpoan daudelako, bat Txinan eta bestea Japonian... egoera honi erantzuteko gizariek alternatiba serioagoak eskaini beharko ditu, eta horietako bat zaharren egoitza gehiago eraikitzea izango da. Orain ere badaude, baina gehiago, hobeto planifikatuta eta beste eredu batekin, ez da?" (Gizona, 66 urte, senidea) (5. gaia: Etxea vs. Egoitzak)

"Gurasoekin bizi naizenez, arratsaldeak nik ematen ditut haiekin. Gero, nire ahizpa, adibidez, goizetan etortzen da, udaletxetik zaintzaile gisa kontratatua dagoelako. Ezin izan genuen beste ezer lortu, eta erabaki genuen berak lanik ez zuen bitartean gurasoak zainduko zituela. Beraz, ez da gauza bera gurasoentzat, kanpoko norbaitek haiek zaintzea edo haien alaba izatea. Noski, baina ze arazo ekartzen du honek? Bada, nire ahizpak ez dakiela bere lanerako eta familiarako denbora bereizten." (Emakumea, 36 urte, senidea) (6. gaia: Partekatze komunala vs. Merkatukoa)

Zaintzailea

"Orain titulazioa lortzeko ikasten ari naizela, atea pixka bat gehiago irekitzen dira enpresetara, erakunde edo eguneko zentro batera. Zaintzaren eremu berdina da, baina atseginagoa da. Hara zoaz, babes pixka bat ematen duzu, baina ez da etxean bezala. Egia da etxeko zaintza hurbilagoa dela, baina nahiago dut nire burua hortik kanpora ikusi. Aurrera begira ez naiz gehiago etxeetan lanean ikusten, ez dagoelako ondo baloratuta, eta nahiago du erakunde edo enpresa batean lan egitea." (Emakumea, 29 urte, zaintzailea) (4. gaia: Naturalizazioa vs. Profesionalizazioa)

"Ahal den heinean, laguntzak pertsona bere inguruan bizitzen jarraitzeko bideratu beharko lirateke, eta ez egoitzetan. Ulertzen dut egoera batzuk oso zailak direla, baina erronka etxean bertan bizitzen jarraitzea da. Baliabide gehiago behar dira horretarako, badakigu zaharren egoitzak badaudela, baina hori falta da: pertsonak beraien ingurutik ez ateratzea eta zaintzaileak etxeetara joatea." (Emakumea, 36 urte, zaintzailea) (5. gaia: Etxea vs. Egoitzak)

Adineko pertsona

"Nire semea hemendik urrun bizi da, eta nahikoa du bere lanarekin eta familiarekin. Beraz, asteazkenetan mutil batek laguntzen nau, hegoamerikarra da. Asteazkenetan laguntzen nau eta horrela ez naiz bakarrik egoten, beste egun osoa geldirik pasatzen dut. Atzo bingoan izan ginen." (Gizona, 85 urte, adinekoa) (2. gaia: Produkzioa vs. Erreprodukzioa)

"Hemen gehien aldatuko nukeena agian arratsaldeko zortziak goizegi dela oheratzeko. Horregatik uste dut ordutegia malguxeagoa izan litekeela. Gainera, batzuetan menpekotasun handia duten pertsonak leku batean utzi eta hor geratzen dira egun guztian, eta uste dut hobeto ulertu beharko genituzkeela pertsonak. Baina jakina, badakigu pertsona batzuk ez direla enpatikoak eta hemen pertsonaren ezaugarriak ikusi behar dira, horixe da printzipioz behar duguna." (Gizonezkoa, 70 urte, adinekoa) (7. gaia: Zaintza instrumentala vs. Emozionala).

Eztabaida

Ikerketa honetan, Gipuzkoan menpeketasunari eta epe-luzeko zaintzari lotutako ezagutzetan ematen ari diren eraldaketan azaleratzen dira. Polifasia Kognitiboaren eredu teorikoaren azterketan oinarrituz, eta senide, zaintzaile eta adinekoen ahotsetatik abiatuz, epe-luzeko zaintzari buruzko ezagutza sistemetan ematen ari den trantsizioa erakusten da. Emaitzek, jendeak zaintza eredu tradizional eta berriei lotutako ikuspegi eta praktika gatazkatsu eta kontraesankorrak kudeatu behar izaten dituztela iradokitzen dute.

Alde batetik, senideek eta zaintzaileek zaintzaren betebeharrak eta arau moralaren inguruan dituzten pentsamoldeetan dauden aldaketa eta eztabaidak azaleratzen dira, eta familismoaren inguruko eztabaida kulturalen berri ematen da (Moreno-Colom, 2017). Egun zaintza, enplegua eta norbere bizitzarako denbora uztartzeko dauden tentsio eta zailtasunen ondorioz, zaintza-lanak kanporatzeak eta erakundetzea aukera gisa kontsideratzen da, familiaren zaintzarekiko ardura osoa errefusatuz. Migratutako zaintzaileen kasuan, aldiz, familiaren aldeko diskurtsoak adierazten dira, eta senitartekoen aldetik bizitzen ari den ezagutza ordezkapena kritikatzeko da. Zentzu horretan, jatorri kulturalaren arabera eraldaketa soziokulturalak nola ezberdin bizitzen diren iradokitzen da. Jovchelovitch-ek (2007) dioenari jarraiki, zaintzari loturiko ezagutza eta balio familiaristen ordezkapena modu lineal eta unibertsalean baino, modu ziklikoan ulertu beharra dago, azterketa kokatzen den testuinguruaren eta garai historikoaren arabera. Zentzu horretan, Espainiako kasuan Covid-19aren osasun krisiak zaintza sistematan izan zuen inpaktua aintzat hartuta, hainbat autorek ohartarazi izan dute eredu familiarista sostengatzen duten ideiak berrindartzearen arriskua (Comas d-Argemir eta Bofill-Poch, 2021).

Bestetik, zaintza-lanek kanporatzerak eta erakundetzerak jo duten testuinguruan, jendeak ideia eta ikusmolde kontraesankor eta polemikoak kudeatzen dituzte egoera sozial berrien beharretara egokitzean. Literaturaren arabera, beste pertsonen laguntzaren beharra onartzea zein egoitza baten bizitzea zahartzaroari lotzen zaizkion alderdi beldurgarri eta negatiboak dira; hala ere, menpeketasun-egoeran denbora luzez etxean bizitzea jarraitzea gero eta zailagoa denean, pertsonak kanpo laguntza eta baliabideak onartu behar izaten dituzte (Daniel et al., 2019; Torres et al., 2015). Ideia honen ildotik,

ikerketa honetan, izan senideek zein adinekoek, eguneko zentrora edo egoitza batera joatearen aukerak eta erabakiak, egoeraren arabera gailentzen diren ezagutzen bitartez kontsideratzen hasten direla erakusten da. Zaintzaileen irudikapenetan, berriz, zaintzaren alderdi formal-profesionalen eta informalen arteko tentsioa nabaritzen da, zaintzaren jatorri altruista, familiar eta feminizatuarekin lotuta (Moreno-Colom et al., 2017; Vega, 2009). Zaintza-lana sozialki gutxietsita dagoen jarduna izan arren, zaintzaileek beraien jardun profesionalari zentzua ematen diote, alderdi emozionalai, bizipenei eta irakaspenak lehenetsiz. Aurreko literaturak iradokitzen duenaren ildotik, senideek, zaintzaileek eta adinekoek kudeatzen dituzten ezagutza eraldaketek zentzua hartzen dute esparru pribatua zein publikoa, familiarra zein profesionala aldeberean uztertzen diren zaintza testuinguruan (Cerri eta Alamillo-Martínez, 2012).

Azkenik, zaintza behar eta modalitate behar berriei egokitzeari dagokionez, hibridazio prozesuaren bitartez zaintzarekiko ezagutza berriak nola garatzen diren erakusten da. Literaturaren arabera, sare familiar eta informaletatik harago, zaintza praktika eta harremanak aldatzera jo dute forma zein konfigurazioari dagokionez, eta honek zaintzaren hornidura misto edo hibridoa izatea dakar (Cerri eta Alamillo-Martínez, 2012). Aldi berean, epe-luzeko zaintza beharrei erantzuteko sektore profesionalaren hedapenak, emakume migratzaileentzat irtenbide profesionala eta familia autoktonoek zaintzaren ardura beraien esku uztea ekarri du (Bettio, Simonazzi eta Villa, 2006). Etxeko lanen eta zainketen kontratazioa fenomeno berria ez den arren, haren nazioartekotzea jotzen da berritasun gisa, etxeko lanen mundu mailako antolaketa berri bati bide emanez (Comas-d'Argemir, 2019; Ehrenreich eta Hochschild, 2003). Zentzu horretan, parte-hartzaileek familia eta sare informaletatik harago, merkatuan bestelako zaintza ereduak kontsideratzen hasten direla erakusten dugu, egoera berrietara egokitzeko formulak eta alternatibak bilatuz. Bestalde, pertsonan eta komunitatean ardaztutako arreta paradigmen ildotik, pertsonak gero eta gehiago arretaren pertsonalizazioaren eta malgutasunaren alde egiten dutela erakusten da (Koren, 2010; Rodríguez, 2013). Honek bereziki egoitzetako arreta ereduak birpentsatzea dakar, norbere bizitza proiektuei eta autonomiari zahartzaroan eta zaugarritasun-egoeran lehentasuna emanez. Hortaz, etorkizuneko ikerketei begira ezagutza mota ezberdinen arteko hibridazioa kontuan izateak, egunerokoan ezagutza berriak nola barneratzen diren aztertuz, aukera eman

dezake epe-luzeko zaintzei buruzko etorkizuneko berrikuntzak sozialak aurreikusi eta sustatzeko.

Ekarpen teorikoari dagokionez, aurrez egindako lanek iradokitzen dutenarekin bat etorritik, zaintzari begirako ezagutzaren eraldaketak nola gauzatu eta azaleratzen den aztertzeko eredu teoriko berritzailea aurkezten da. Are gehiago, pertsona eta taldeek zaintza moduko fenomeno eta erronka sozial "berriak" egunerokoan nola ulertu eta kudeatzen dituzten ulertzeko aukera ematen du Polifasia Kognitiboaren azterketak (Jovchelovitch eta Priego-Hernández, 2015). Horrekin batera, zaintzari buruzko eztabaidan zuzenean inplikaturako aktoreen ahotsak kontuan izatea garrantzitsua dela mahaigaineratu nahi izan da, norbere posizio, bizipen eta subjektibotasunetik zaintzari buruzko ikuspegiak nola adierazten diren erakusteko. Irudikapen sozialen izaera dialogikoa eta dinamikoa da, eta zaintzaren inguruan eraikitzen diren identitate eta ezagutzak, modu finko eta zurrunean baino, modu kokatuan eta malgutasunez baizik ezin dira ulertu (Bakhtín, 1984; Breakwell, 1993; Renedo, 2010). Zaintzaren ikuspegi erlazional eta diakronikotik nabarmentzen den bezala, pertsona guztiak gara menpeko eta zaurgarri, eta gaixotasun, haurtzaro edo zahartzaroko egoerez harago, zaintzaren beharra ez da eteten bizitzan zehar (Legarreta, 2014; Paperman eta Laugier, 2005). Ondorioz, pertsonak bizitzan zehar menpekotasun eta zaintzari lotutako ahots eta posizio ezberdin eta maiz kontrajarriak, zaintza emaile edo hartzaile gisa, kontuan izatea garrantzitsua da ezagutza eraldaketen nolakotasuna eta norabidea ulertzeko.

Era berean, gizartean ezagutzaren eraikuntza eta eraldaketa nola gauzatzen den ulertzea garrantzitsua da psikologiaren arloan. Horretarako, Jovchelovitch eta Priego-Hernándezek (2015) tresna teoriko baliotsua eskaintzen dute, berriki osasunaren arloan egindako ikerketen bidetik (Aikins, 2003; Panagiotou eta Kadianaki, 2019; Priego-Hernández, 2017). Hurbilpen teoriko horretatik abiatuz, ikerketa honetan zaintzaren arloan gertatzen ari diren eraldaketak ulertzeko ikuspegi bat eskaintzen da, prozesu soziokulturalak eta prozesu soziokognitiboaren arteko elkarrekintza oinarri hartuta eta testuinguruak ezagutza objektu eta subjektuarekin duen lotura epistemologikoki landuta (Moscovici, 1969). Jovchelovitch-ek dionari jarraituz (2002, 2007), pertsonen arrazoiketa modua, eredu kartesiar eta linealetik aldentzen da, eta ezagutza-sistema aldakor eta irekien baitan ezaugarritzen da, ezagutza mota ezberdinek irudikapen objektu berari

zentzua ematen diotenez gero. Zentzu horretan, etorkizuneko ikerketei begira interesgarria litzateke gaiaren inguruan dauden eztabaidei heltzea bestelako ahots, bizipen eta posizioetatik. Horrek, zaintzaren antolaketa sozial berriei heltzeak planteatzen dituen erronka soziokulturalak sakonago ulertzen lagunduko luke.

Inplikazio sozialei dagokionez, adituen eta erakundeen eskutik zaintza sistema eta ereduaren inguruko trantsizioaz hitz egiten den honetan, gaiari buruzko eztabaida eta komunikazio sozialaren nondik norakoak ulertzen lagundu dezake ikerketa honek. Hortaz, garrantzitsua izan daiteke gizartean jada gertatzen ari diren ezagutza eraldaketak kontuan izatea, etorkizuneko proposamen eta aldaketa soziopolitikoak bideratze aldera. Zaintzaren arloko zerbitzu, programa eta politika berrien diseinuak kontuan izan beharko lituzkete egun ematen ari diren prozesu eta aldaketa kulturelek nola eragingo duten etorkizuneko zaintza harreman eta praktiken hobekuntzan.

Ikerketaren mugak

Zaintzari lotutako ikusmolde, ideia eta portaera sozialak aztertzerako orduan, ezagutzaren eta irudikapen sozialen izaera kokatua eta aldakorra barneratzea ezinbestekoa irudikatzen zaigu ikerketa honetan (Jovchelovitch, 2007). Hortaz, emaitzak eta horien interpretazioa dagokien testuinguruan ulertu beharra daude, beste eremuetara orokortu gabe. Bestelako ikerketetan, zaintzari loturiko beste posizio eta diskurtso batzuk kontuan izatea garrantzitsua litzateke ezagutza eraldaketan aztertzerako orduan, hala nola, etxean bizi diren adinekoena, zaintzaile profesional eta adituena.

8

Hirugarren azterlana

Zaintza familiarraz harago:
erakundeenganako konfiantzaren
garrantzia ongizatean

Laburpena

Covid-19aren osasun krisiaren garaian epe-luzeko zaintza sistemaren ahuleziak azaleratu ziren, bereziki erakundeetatik eratorritako arreten gaineko beldurra eta mesfidantza soziala areagotuz. Testuinguru horretan, modu argian azalerazi zen populazioaren ongizatea bermatzeko ezbaian den zaintza-sistemarenganako konfiantza berreraiki eta sustatzeak duen garrantzia. Jarraian aurkezten den lanaren helburua, populazioak garai horretan zaintza-eragileenganako zuen konfiantza ongizatearekin nola lotzen zen aztertzea da. Gipuzkoako populazio orokorreko 174 pertsonak hartu zuten parte ikerketa transbertsal honetan. Epe-luzeko zaintzaren inguruan gailentzen diren irudikapen sozialekin bat eginik, jendeak familia eta gertuko harremanetan adierazten zuen konfiantza gehien, erakundeetatik eta komunitatetik eratorritako zaintzarekin alderatuta. Horrekin batera, adinean aurrera joan ahala, jendeak zaintza-eragileenganako konfiantza gutxiago adierazten zuen, erakundeenganako konfiantza pertsonen ongizatearekin lotzen zela erakutsiz. Ikerketa honen bitartez, konfiantzak zaintza-harremanen artikulaziorako eta ongizate psikosozialaren sustapenerako duen garrantzia mahaigaineratzen da; pandemiak adineko pertsonengan eragin handiagoa izan zuen neurrian, erakundeekiko konfiantza murriztu eta etorkizunarekiko ziurgabetasunak areagotu zituela ondoriozta daiteke.

Gako-hitzak: konfiantza, epe-luzeko zaintza, ongizatea, Covid-19, irudikapen sozialak.

Sarrera

Zaintzaren krisia eta eraldaketa

Azken hamarkadetan egitura sozioekonomikoan, politikoan zein kulturalen izandako eraldaketek, eta Covid-19aren testuinguruan azaleratutako osasun krisiak, agerian utzi dituzte epe-luzeko zaintza sistemaren ahulezia eta mugak (Comas d-Argemir eta Bofill-Poch, 2021; Deusdad, 2020; Perez-Orozco, 2014; Spijker, J. eta Zueras, 2020). Familia egituren txikitzea eta horien aniztasuna, emakumeen lan-merkatuaz masiboa, bizi-itxaropenaren luzapenak eta menpekotasun-egoeren areagotzeak “gizon ogi-irabazle eta etxeke andreaken” figuran oinarritutako ereduaren bideragarritasuna eta desiragarritasuna zalantzan jarri dituzte (MacInnes eta Pérez-Díaz, 2009; Rodríguez-Cabrero eta Marbán-Gallego, 2013; Scott eta Braun, 2006; Thornton eta Young-DeMarco, 2001). Egun, familiarako zaintzaren nagusitasunarekin batera, estatuak, merkatuak eta komunitateak hartzen dute parte epe-luzeko zaintzen kudeaketan, auzi pribatu izatetik auzi soziopolitiko izatera igarota (Bettio eta Verashchagina, 2012; Daly eta Lewis, 2000; Razavi, 2007). Gainera, Covid-19aren osasun krisiaren baitan agerian utzi bezala, adineko pertsonen bizi-baldintzak eta ongizatea bermatzera begirako zerbitzu, baliabide eta politika publikoek berebiziko garrantzia hartu dute garai historiko honetan (Comas-d’Argemir, 2015; Deusdad, 2020).

Zaintza ereduari lotutako balioak, antolaketa eta harremanak ezbaian eta aldatzen dauden honetan, etorkizunean non, nola eta nork zainduko gaituen kezka nagusia da gizartean (Castelo et al., 2022; Deusdad et al., 2016; Vega, 2009). Lan honetan, zainduko gaituzten pertsona, talde eta erakundeenganako jendartean dagoen konfiantza aztertzen da. Horretarako, epe-luzeko zaintzen irudikapen sozialen azterketa hartzen da konfiantza prozesuak analizatzeko abiapuntu teoriko gisa.

Epe-luzeko zaintzaren irudikapen sozialak

Irudikapen sozialak dialogikoki eraikitako ideia, balio eta praktiken multzoa dira eta fenomeno sozialak ulertzeko eta kudeatzeko ezinbesteko baliabide kognitiboak eskaintzen dituzte (Jovchelovitch, 2007; Moscovici, 1961). Irudikapen sozialen teoriak, pertsonen beraien egunerokoan eta testuinguru kulturalen sozialki garrantzitsuak diren auziei ematen dieten zentzua eta esanahia ulertzen laguntzen du.

Ikerketa honetan, jendeak zaintza-eragile ezberdinenganako duen konfiantza, epe-luzeko zaintzari buruz partekatzen diren irudikapen sozialen baitako prozesu kokatu eta erlazional gisa ulertzen da (Marková eta Gillespie, 2007). Ondorioz, jendeak zaintzari buruz eraikitzen dituen esanahiak eta harekiko daukaten hurbiltasun eta inplikazio-mailak aztertzea garrantzitsua da konfiantza aztertzerako garaian (Jovchelovitch, 2007; Miguel, Valentim eta Carugati, 2012).

Bestalde, pertsonen ongizate fisikoa eta emozionala sustatzera begirako ekintza eta harreman – material, afektibo eta sinbolikoak – multzoari erreferentzia egiten dien kontzeptu soziokultural eta erlazionala da zaintza (Daly eta Lewis, 2000; Finch eta Groves, 1983; Graham, 1983). Epe-luzeko zaintzen alderdi soziokulturalak jorratu izan dituzten ikerketek erakutsi bezala, zaintzaren ardura bereziki familiarteko betebeharrak afektibo eta moralekin lotzen da (Batthyány, Genta eta Perrotta, 2013; Hochschild, 2001; Moreno-Colom, 2017). Hala ere, zaintzaren ardura nork izan beharko lukeenaren kontzepzioa – familia vs. estatua/erakundeak – ezberdina izaten da testuinguru kultural eta soziopolitikoaren arabera (Britto et al. 2018; Chiatti et al., 2013). Irudikapen sozialen ikuspegi dinamikoari jarraiki, zaintzari buruzko irudikapen sozialak aldakorrak dira pertsona edo talde sozialek objektuarekiko daukaten distantzia, inplikazio eta ezagutzamailaren arabera (Lo Monaco eta Guimelli, 2008; Miguel, Valentim eta Carugati, 2012). Zentzu horretan, jendeak zaintzarekiko edo zaindua izatearekiko duen hurbiltasun eta esperientzia sozialaren arabera – zaintzarekin izandako bizipena, generoa, adina, klase soziala etab. – irudikapen sozial ezberdinak eraikitzen ditu (Gastaldi eta Contarello, 2006; Miguel, Valentim eta Carugati, 2012; Molinary eta Speltini, 1998; Schulze, 2011; Spini eta Doise, 1998).

Zaintza-eragileenganako konfiantzaren garrantzia ongizatean

Literaturan konfiantzaren garrantzia azpimarratzen da kalitatezko zaintza-harreman eta praktikak garatu eta mantentzeko begira (Gilbert, 2020; Sevenhuijsen, 2003). Hortaz, populazioak menpekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko erabiltzen diren laguntza eta zerbitzu ezberdinengan duen konfiantza aztertzea garrantzitsua da zaintzaren inguruko harremanen kudeaketa hobetu eta pertsonen ongizatea sustatzeko (Dwyer et al., 2009; Cook and Brown-Wilson, 2010; Rosemond, Hanson eta Zimmerman, 2017; Shin, 2015)

Definizio hedatuenaren arabera, *“Pertsonak norbere zaugarritasuna adierazteko eta besteen ekintza eta asmoei buruzko itxaropen positiboak izateko daukaten prestutasuna, eta espektatiba horiei loturiko jarrera eta sinesmen multzoetan”* oinarritzen da konfiantza (Yamagishi eta Yamagishi, 1994; Mayer, Davis eta Schoorman, 1995). Yamagishi eta Yamagishi (1994), elkarlotuta dauden bi konfiantza mota bereizten dituzte: Batetik, bestearen ezagutzan oinarritutako *“konfiantza zehatza”*, non pertsonak ezagun dituen pertsona, talde edo egoeretan (familia, lagunak, profesionalak, erakundeak etab.) jartzen duen konfiantza. Ikerketa honen kasuan, zaintza-eragileenganako konfiantzak, konfiantza zehatzari egingo lioke erreferentzia. Konfiantza mota hori funtsezkoa da epe luzean harreman sozial osasuntsu eta konprometituak ahalbidetzeko (Igarashi et al., 2008). Bestetik, *“Konfiantza orokorra”* dago, zeinak pertsonak zuzenean ezagutzen ez dituzten pertsonen inguruko sinesgarritasunari buruzko espektatibak barnebiltzen dituen (adb. *“Pertsonen gehiengoa oro har zintzoa da”*) (Yamagishi 2001: 143). Konfiantza zehatzarekin alderatuta, konfiantza orokorrak *“beste”* ezezagunenganako hurbilketa eta harreman sozial berrien eraikuntza ahalbidetzen du, eta ongizate indibidual eta kolektiborako funtsezko osagaia da (Barefoot et al., 1998; Doekhie et al., 2019; Helliwell eta Wang, 2011; Nummela, Raivio eta Uutela, 2012; Miething, Mewes eta Giordano, 2020; Rotenberg, Chmielowiec eta Patel, 2021; Putnam, 1993). Azken ideia horri lotuta, sistema politikoen demokratizazioak, kohesioak eta ongizate-sistemari lotutako pertsonen esperientzia eta pertzepzioek pertsonen konfiantza orokorra areagotzen duten faktoretzat jotzen dira (Inglehart, 1999; Kumlin eta Rothstein, 2005; Nannestad, 2008; Rothstein eta Stolle, 2008). Horrenbestez, epe-luzeko zaintzak ongizate sistemen funtsezko zutabe diren aldetik, herritarrek zaintzaren esparru publikotik eta erakundeetatik eratorritako zerbitzu eta baliabideenganako konfiantza, pertsonen konfiantza orokorrean eragina duen aldagai garrantzitsua izatea espero daiteke (Comas-d’Argemir, 2015; Glanville eta Andersson, 2013).

Erakundeen krisia eta adinkeria Covid-19 garaian Euskal Herrian

Zaintza ereduaren krisi eta eraldaketaren testuinguruan, Covid-19aren osasun krisiaren mundu mailako hedapenak inpaktu nabarmena izan du zaharren populazioan eta egoitzetan (Deusdad, 2020; Gardner, States eta Bagley, 2020). Espainiar estatuan

gaixotasunak populazio zaurgarrienak kolpatu zituen gehienbat, adinekoen populazioan eta egoitzetan kutsatzeko arriskua eta heriotzak eraginez, eta oihartzun mediatiko handia izanik (Comas-Herrera et al., 2020). Erakundeen eskutik kudeatutako zerbitzuak (menpekotasunaren prebentziorako zerbitzuak, eguneko zentroak, etxez etxeko laguntzak) bertan behera utzi eta egoitzak itxi egin ziren, menpekotasunari lotutako beharrak esparru publikotik artatu gabe utziz eta sektoreko profesionalen lan-karga eta prekaritatea ere agerian utziz; horrek, erakundeetatik eratorritako zerbitzuenganako mesfidantza eta urruntasun soziala eragin zuen (Comas d-Argemir eta Bofill-Poch, 2021)

Osasun krisiaren kudeaketari loturik, hainbat lanetan mahaigaineratu izan da komunikabideen eta erakundeen (gobernua, osasun arreta etab.) eskutik adinkerian oinarritutako ikuspegi, diskurtso eta praktikei bide eman izana (Ayalon, 2020; García-Soler et al., 2020; Previtali, Allen eta Varlamova, 2020). Pandemiak pertsonen zaurgarritasun, beldur eta segurtasun ezaren pertzepzioa areagotu zituen heinean, egoera honek bereziki adinekoen egunerokoa, eskubideak eta ongizatea kaltetu zituen (AGE Platform Europe, 2020; Brooke eta Jacson, 2020; Miller, 2020).

Testuinguru soziokultural eta historiko horretatik abiatuz, ikerketa honetan honakoa espero da erakustea: batetik, Euskal Herriko zaintzaren tradizio familiarista kontuan izanik, jendeak zaindua izaterako garaian konfiantza-maila altuagoa izango duela familian eta gertuko pertsonengan beste zaintza-eragileengan duen konfiantzarekin alderatuta – komunitatea eta erakundeak – . Bestetik, adinekoak zaindua izatetik eta horrek sozialki planteatzen dituen kezka eta ziurgabetasunetatik hurbilago dauden heinean, zaintza-eragileenganako konfiantza zahartzen joan ahala jaistea espero daiteke. Horrenbestez, Covid-19aren testuinguruan, zaintza sistema osoa kolokan jarri zen aldetik, egoitzekiko beldurra eta urruntze soziala areagotu zela pentsa daiteke eta horrek eragin zuzena izatea pertsonen ongizatean.

Metodoa

Parte-hartzaileak

Gipuzkoako populazio orokorreko 174 pertsonen hartu zuten parte ikerketa honetan. Horietatik 48 gizona eta 126 emakumezkoak, batez beste 38,83 urterekin (SD=16,99). Parte-hartzaile gehienek (%45) familiako zaintzaile gisa esperientziaren bat bizi izan zuten, eta %20 familiako adineko baten zaintzaile nagusia zen. Gainera, parte-hartzaileen %35ek adierazi zuen etxeko zerbitzua kontratatu zuela, eta %9ak zaintza zerbitzu profesionalean (egoitzetan etab.) lan egin zuen. Gutxi batzuek adierazi zuten boluntario lanetan aritu izana (% 1) eta legez aitortutako menpekotasun-egoeran aurkitzea (% 3). Parte-hartzaile guztiak Euskal Herrian bizi ziren datuen bilketaren momentuan.

Prozedura

Landa lana 2020ko martxoa eta uztaila bitartean burutu zen, Covid-19aren osasun krisiak eragindako itxialdi garai betean. Parte-hartzaileekin kontaktazioa sare sozialen bitartez burutu zen. Ikertzaileak bere sare sozialetan (Facebook, WhatsApp eta Gmail) argitaratu eta partekatu zuen online bidezko galde-sorta ("google forms"). Honekin batera, gizarte-ekimeneko elkarteek galde-sorta hedatzen lagundu zuten; besteak beste, egoiliarren senideen bi elkarte, boluntariora bideratutako hiru elkarte, eta pentsiodunen bi elkarte kontaktatu ziren. Horietariko bakoitzari ikerketa-proiektuaren nondik norakoak azaltzeko gutun bat bidali eta ikerketan parte-hartzeko gonbita luzatu zitzaion, aldi berean galde-sorta beraien inguru hurbilean ere zabaltzeko eskatuz. Parte-hartzea borondatezkoa izan zen, eta ez zen ordainsaririk izan parte-hartzeagatik. Ikerketan parte-hartzeko irizpideak honakoak ziren: Adinez nagusi izatea (18 urte baino gehiago), irakurtzeko eta idazteko gaitasunak izatea eta aurrez aurre paperean galde-sorta betetzeko zeuden zailtasunak kontuan hartuta, internetera sarbidea izatea. Parte-hartzaile guztiek euskaraz zein gaztelanian bete zezaketen galde-sorta.

Ikerketa honek landa lana aurrera eramateko, Euskal Herriko Unibertsitateko Etika Batzordearen onarpena aurrez jaso zuen (M10_2018_228). Gainera, parte-hartzaile guztiek beraien borondatezko baimena eman zuten idatziz, eta ikerketa-prozesu osoan zehar beraien zegozkien eskubideez informatuak izan ziren.

Neurbideak

Aldagai soziodemografikoak

Ezaugarri soziodemografikoei dagokionean, honako aldagaiak hartu ziren kontuan: generoa (1=emakumea, 2=gizona, 3=beste bat), adina, legearen arabera menpekotasun-maila (1=arina, 2=aurreratua, 3=altua) eta zaintzarekin izandako esperientzia (1= familiako lehen zaintzailea, 2=etxez etxeko zerbitzuak, 3=egoitzak, 4=familia bizipena, 5=lan komunitarioak).

Zaintza-eragileenganako konfiantza

Aurretiazko literaturan konfiantza neurtzeko eskalei jarraituz, 14 itemeko eskala bat eraiki zen, pertsonen zaintza-eragileengan zuten konfiantza maila neurtzeko (Yamagishi eta Yamagishi, 1994). Parte-hartzaileek 1etik (ezer ez) eta 5era (guztiz) bitarteko eskala batean ($\alpha=.85$) erantzun zezaketen (Adb. "Irudikatu eguneroko bizitza aurrera eramateko beste pertsonen laguntza beharko duzun balizko mendekotasun egoera bat, autonomia fisikoaren galera, narriadura kognitiboa edota gaixotasun-egoera direla eta. Egoera honetan, zure eguneroko behar fisiko eta emozionalak garatzeko maila ezberdinetako laguntzak beharko dituzu. Egoera honetan, zenbatekoa da familian daukazu konfiantza?"). Eskala horrek konfiantza lau zaintza esparrutan neurtzen zuen, horietako bakoitzaren egokitasuna erakutsita: familiarekiko konfiantza ($\alpha=.53$), lagunekiko konfiantza ($\alpha=.69$), komunitatearekiko konfiantza ($\alpha=.76$) eta erakundeekiko konfiantza ($\alpha=.87$). Familiarekiko konfiantzaren kasuan, Cronbachen alfaren balioak ez zuen lortu maila egokia. Hala ere, kontuan hartu behar da dimentsio hori bi itemekin soilik eraikia zela, eta horrek azal lezakeela arazo hori. Honetaz gain, faktore analisi esploratzailearen emaitzek faktore bakoitzaren pisu faktorialen egokitasuna azaleratu zuten (ikus 1. Taula)

Taula 1

Faktore analisi esploratzailearen emaitzak

Item	Pisu faktoriala			
	1	2	3	4
1. Faktorea: Konfiantza familian				
1. Gertuko familia	.77	.16	-.05	.00
2. Familia zabala	.71	.17	.34	.07
2. Faktorea: Konfiantza lagunengan				
3. Gertuko lagunak	.27	.63	.39	.17
4. Lagun taldea (adb. Kuadrila)	.39	.72	.07	.12
3. Faktorea: Konfiantza komunitatean				
5. Bizilagunak	.35	.08	.68	.12
6. Auzo/herriko elkarteak	.16	.11	.83	-.01
7. Boluntariotza	-.11	.14	.72	.15
8. Espazio publikoa (mugikortasuna, herrigunea)	-.04	-.02	.65	.21
4. Faktorea: Konfiantza erakundeengan				
9. Tokiko zerbitzu sozialak	.08	.08	.31	.78
10. Eguneko zentroak	-.08	.17	.15	.84
11. Egoitza publikoak	.03	.16	.11	.82
12. Egoitza pribatuak	-.09	.37	.05	.69
13. Etxez etxeko zerbitzuak	.13	.18	.23	.80
14. Gailu teknologikoak	.25	.44	.02	.65

Oharra. N=174. Erauzketa-metodoa ardatz nagusiaren faktORIZAZIOAREKIN eta erroztazio zehiarrarekin burutu zen (Promax eta Kaiser normalizazioa).

Konfiantza orokorra

Konfiantza orokorra neurtzeko Yamagishiren “General Trust” eskalaren egokitzapen espainiarra erabili zen (Montoro et al., 2014). 1etatik (gutziz desados) 5erako eskalan (gutziz ados) oinarrituta, pertsonen pertsonen zintzotasun eta konfiantzaren pertzepzioa bost item-en bidez neurtu zen (Yamagishi eta Yamagishi, 1994, 146. or.). Eskalaren fidagarritasuna egokia izan zen ($\alpha = 0,90$).

Datu analisia

Alde batetik, MPlus 8. Software programa erabiliz, faktore analisi berreztailearen analisia burutu zen “zaintza-eragileenganako konfiantzaren” lau dimentsioko ereduaz zertutako populazioan bat zetorrela zehazteko. Doikuntzaren egokitasuna lau indizeren bidez ebaluatu zen: Erro karratuaren batezbestekora hurbilpena (RMSEA, $\leq .05$ egokia, $\leq .08$ onargarria, $>.10$ eredu baztertu), konparaziozko doikuntza-indizea (CFI, $\geq .90$ onargarria, $\geq .95$ egokia), Tuck-Lewis indizea (TLI, $\geq .90$ onargarria, $\geq .95$ egokia)

eta batez besteko hondar estandarizatua (SRMS, $<.08$) (Bentler, 1990). Bestetik, jendeak familian, lagunengan, komunitatean eta erakundeengan zuen konfiantza-mailaren batz bestekoen konparaketa egin zen errepikapen neurriko t-student froga baliatuz. Azkenik, Pearson korrelazio bitarrak eta erregresio linealak burutu ziren adinaren aldagaiak zaintza-eragileenganako konfiantzan eta konfiantza orokorrean zein modutan eragiten zuen aztertzeko. SPSS 24. Software programa estatistikoa erabili zen horretarako.


Emaitzak

Jarraian, aurrera eramandako analisisen emaitzak aurkezten dira hiru atal ezberdinetan banatuta. Lehen atalean, ikerketa honetan kontsideratutako lau zaintza-eragile nagusienganako –familia, lagunak, komunitatea, erakundeak- konfiantzaren eredu frogatzen da analisi berrezailearen bitartez; horrekin batera, errepikapen neurriko t-student analisisaren emaitzek familiarekiko konfiantzak beste eragileekiko konparazioan duen gailentasuna azaleratzen da. Bigarren eta hirugarren ataleko emaitzek, berriz, zaintza-eragile ezberdinenganako konfiantza adinean aurrera joan ahala nola jaisten den erakusten dute, zahartzaroko ongizatera begira zaintza erakundeenganako konfiantzak duen garrantzia azaleraziz.

a) Familiaren lehentasuna zaintza-eragileenganako konfiantzan

Lehendabizi, menpekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko erabiltzen diren laguntza eta zerbitzuenganako konfiantza zein dimentsioen arabera antolatzen zen ikusteko, faktore analisi berrezailea burutu zen. Aurretiazko literaturak iradokitzen duenaren ildotik, emaitzek zaintza-eragileenganako konfiantza lau faktoretako ereduaren bitartez adierazten zela erakutsi zuten (Razavi, 2007). Horien artean zeuden familiarekiko, lagunenganako, komunitatearekiko eta erakundeenganako konfiantza. Eredu horrek doitze egokia erakutsi zuen [χ^2 (71, N = 174) = 161.732; RMSEA = .086; CFI = .91; TLI = .90; SRMR = .07] (ikus 1. irudia). Horretaz gain, faktoreen arteko korrelazioak eta pisu faktorialak estatistikoki esanguratsuak ziren (.40 eta .98 balioen artean) (ikus 1. irudia).

1. Irudia: Zaintza-eragileenganako konfiantza eskalaren eredu faktorialaren estimazio estandarizatuak



Bestalde, zaintza-eragile ezberdinengan parte-hartzaileek zeukaten konfiantza-maila aztertu eta horien arteko ezberdintasunak ikusteko, errepikapen neurriko hiru t-student froga burutu ziren eragile bakoitzarenganako konfiantza-maila bikoteka aztertuz. Emaiztekin agerian utzi zuten jendeak zaindua izaterako garaian familian zuela konfiantza gehien (\bar{X} = 3.88; ED=.77) komunitatearekin eta erakundeekin alderatuta – komunitatea [t(173)=15.14, p=.000, d=1.32] (\bar{X} = 2.86; ED=.75) eta erakundeak [t(173)=8.50, p=.000, d=.84] (\bar{X} = 3.23; ED=.76) –. Familia eta lagunenganako konfiantzaren artean, berriz, ez zen ezberdintasun esanguratsurik aurkitu - lagunak [t(173)=.764, p=.45, d=.06] (\bar{X} = 3.83; ED=.88). Horrek adierazten du jendeak kulturalki sare familiar eta informaleenganako espektatiba altuagoak jarriak dauzkala, esparru publiko zein komunitarioan ematen den zaintzarekin alderatuta.

b) Zaintza-eragileenganako konfiantza zahartu ahala

Zaintza-eragileenganako konfiantza eta konfiantza orokorraren arteko lotura ezagutu, eta bi neurri hauek adinaren aldagaiarekin nola harremantzen ziren aztertzeko, Pearson

korrelazio bitarrak burutu ziren. 2. Taulan ikusi daitekeen bezala, adinean aurrera joan ahala zaintza-eragile guztienganako konfiantza familian, lagunengan, komunitatean zein erakundetan jaitsi egiten zen, aldagai hauen arteko korrelazio negatiboa agerian utzita. Horretaz gain, zaintza-eragileenganako konfiantza, modu esanguratsuan eta positiboki lotzen zen konfiantza orokorrarekin, bi konfiantza moten (zehaztua eta orokorra) arteko elkar eragina eta lotura baieztatuz.

Bestalde, erregresio lineal bidezko lau analisi eraman ziren aurrera adinak esparru ezberdinetako konfiantza zein mailatan aurreikusten zuen aztertzeko. Emaitzek adinaren aldagaiak jendeak zaintza-eragile guztienganako zeukan konfiantza modu esanguratsuan aurreikusten zuela adierazten zuten. Hau da, zahartzen joan ahala, konfiantza baxuagoa zen familian ($\beta = -.17$, $p < .05$), lagunengan ($\beta = -.31$, $p < .001$), komunitatean ($\beta = -.22$, $p < .01$) eta erakundeetan ($\beta = -.28$, $p < .001$). Aldiz, adinak ez zuen modu esanguratsuan aurreikusten konfiantza orokorra. Ondorioz, adinak konfiantzaren alderdi situazionalarekin zuen harremana agerian uzten da, eta ez ordea konfiantza orokorrarekin.

Taula 2

Aldagai guztien estatistiko deskriptiboak eta Spearman korrelazio bitarrak

	M	SD	1	2	3	4	5	6
1. Adina	38.83	16.19	-					
2. Konfiantza orokorra	3.581	.78	-.07	-				
3. Konfiantza: familia	3.87	.78	-.16*	.37**	-			
4. Konfiantza: lagunak	3.83	.88	-.31**	.24**	.24**	-		
5. Konfiantza: komunitatea	2.86	.75	-.22**	.37**	.37**	.34**	-	
6. Konfiantza: erakundeak	3.23	.76	-.28**	.18*	.18*	.15*	.45**	-

* $p < 0.05$. ** $p < 0.01$. *** $p < 0.00$.**c) Erakundeekiko konfiantzaren garrantzia zahartzaroko ongizatean.**

Konfiantza orokorra pertsonen ongizatearen adierazle garrantzitsu bat izaki, ikerketa honen beste helburuetako bat zaintza erakundeenganako konfiantzak, konfiantza orokorraren zein mailatan aurreikus zitzakeen aztertzea izan zen. Horretarako erregresio lineal bidezko analisiak burutu ziren. Emaitzetan agerian utzi zen, bestelako eragileekin gertatzen ez zen bezala – familia $B = .000$, $t(173) = .071$, $p = .94$; lagunak $B = -.001$, $t(173) = -.612$, $p = .542$; komunitatea $B = .000$, $t(173) = .292$, $p = .770$ –, jendeak erakundeenganako zuen konfiantzak modu positiboan aurreikusten zuela konfiantza orokorra, beti ere adinaren aldagaia kontuan hartuz gero. Emaitzek, erakundeenganako konfiantzaren eta adinaren arteko interakzio efektu esanguratsua zegoela azaleratu zuten, eta horrek konfiantza orokorrean eragina zuela ($r^2 = .06$; $F = 3.72$; $B = .001$, $t(173) = 2.32$, $p = .02$) (Ikus 1. grafikoa). Hau da, erakundeenganako konfiantza-mailak, pertsonak zahartu ahala daukaten konfiantza orokor maila aurreikusten zuen. Gazteen artean, erakundeekiko konfiantza izatea ez zen elementu erabakigarria haien konfiantza orokorrean; aldiz, adinak gora egin ahala, erakundeekiko konfiantzak, konfiantza orokorra aurreikus zezakeela azaleratzen da. Ondorioz, esan dezakegu, erakundeenganako konfiantza zahartzaroko ongizatearen aldagai garrantzitsu bat izan zela Covid-19aren osasun krisiaren lehenengo hilabeteetan.

Grafika 1

Erakundeenganako konfiantzaren eta adinaren arteko interakzioa, konfiantza orokorra aurreikusteari begira



Eztabaida

Krisi soziosanitarioa, ekonomikoa eta zaintzaren antolaketa ezbaian dagoen garai ziurgabe honetan, zaintza-eragileenganako konfiantza berreraikitzearen garrantzia mahaigaineratzen da ikerketa honekin. Horretarako, zaintza kontzeptu dialogiko gisa ulertzeko ikuspegia aurkezten da, esparru soziokulturalean eta pertsonen familian, lagunekin, komunitatean eta erakundeen baitan dauzkaten harreman sozialen baitan esanahia hartzen duena (Markovà eta Gillespie, 2007).

Markovàren (2003) epistemologia dialogiko eta erlazionaralaki jarraiki, konfiantza askotariko dimentsioetako harremanak – pertsona artekoak, profesionalak, instituzionalak zein sozialak – artikulatzen dituen funtsezko osagaia eta bitartekoa da (Marková, Linell eta Gillespie, 2008). Ondorioz, jendartean zaintza-harreman eta ekintzak nola artikulatzen diren eta testuinguruan hartzen duten esanahia aztertzerako konfiantzaren ikuspegi hori bereziki garrantzitsua da ikerketa honetan. Izan ere, zaintzaren etika feministak iradokitzen duenari helduz, menpekotasuna eta zaugarritasunak zeharkatutako bizitzak eta harremanak sendotzeko funtsezko muina da konfiantza, eta horren sustapena ezinbestekoa da zaintza esparru publikoan kokatu eta kudeatzeko (Baier, 1994; Sevenhuijsen, 2003). Ikerketa hau epe-luzeko zaintzaren irudikapen sozialen testuinguru teorikoan kokatzen da, eta jendartean zaintza-eragileenganako dagoen konfiantzari buruzko azterketa jorratzen da. Ildo horretan, aurkezten diren emaitzek aurrez zaintzaren irudikapenak jorratu dituzten ikerketek diotenarekin bat egiten dute (Batthyány, Genta eta Perrotta, 2013; Brito, 2018; Moreno-Colom, 2017).

Batetik, gure emaitzek zaindua izaterako garaian jendeak bestelako zaintza-eragileen aldean (komunitatea sareak eta erakundeak) familiarekiko adierazten duen lehentasuna erakusten dute, gaur gaurkoz jendearen zaintzarekiko konfiantza eta espektatibak familia eta gertuko harreman sareekin lotzen direla azaleratuz. Ideia hori ez da harriztekoa familiaren inguruan antolatzen den zaintzaren kulturaren ezaugarriak aintzat hartzen badira (Rodríguez-Cabrero eta Marbán-Gallego, 2013; Moreno-Colom, 2017). Gainera, berriki egindako ikerketen arabera, Covid-19aren krisiak eta itxialdiak, familian eta etxeko esparru pribatuan kudeatutako zaintza ereduaren indartzea ekarri du, emakumeak izanik bereziki testuinguru horretan zaintza-lanaren ardurua nagusia

hartu dutenak (Comás d-Argemir eta Bofill-Poch, 2021). Eredu horrek hainbat arrisku ditu, izan ere, familian oinarritutako zaintzaren idealak, zaintza beharrak artatzeko politika publikoen ahultasunarekin batera, zaintza-lanen gizarteratzea, birbanaketa eta profesionalizazioa oztopatzea dakar (Moreno-Colom, 2017). Hori hala izanik ere, azken hamarkadetan izandako aldaketa eta zaintza beharrak areagotzearen ondorioz, zaintza “formalek”, zerbitzu profesionalek, eta neurri txikiagoan komunitate sareek, zaintzaren horniduran duten presentziaren gorakada nabarmentzen dute hainbat ikerketek, herritarrek zaintza baliabide horiek gero eta gehiago aintzat hartzea ekarriz (Del Barrio eta Sancho, 2015; Moreno-Colom, 2020; Scott eta Braun, 2006).

Bestetik, jendeak adinean aurrera egin ahala, zaintza-eragileengan konfiantza gutxiago dutela erakusten dute emaitzek. Gerontologiatik eta selektibitate sozioemozionalaren teoriaren ikuspegitik jorratutako ikerketetan, zahartu ahala pertsonen besteenganako konfiantza zehatz eta orokor gehiago izatera jotzen dutela iradokitzen da (Li eta Fung, 2013). Horren arabera, zahartzearen eta denboraren ikuspegi mugatuaren ondorioz pertsonen helburu emozional esanguratsuak lehenesten dituzte, eta parte-hartze eta lotura sozialek bizitzaren zentzuan garrantzia hartzen dute (Lancee eta Radl, 2012). Aldiz, ikerketa honetan, adinez zaharrenak direnek zaintza-eragileenganako konfiantza txikiagoa izateak zentzua izan dezake, adinekoek epe-luzeko zaintzarekiko daukaten hurbiltasun-maila handiagoa kontuan hartzen bada. Hau da, irudikapen objektuarekiko dagoen gertutasunak eta bizitako krisi zaintza eta osasun krisi testuinguruan azaldu ditzake emaitza hauek (Miguel, Valentim eta Carugati, 2012). Pertsonen, zahartzen diren neurrian, oro har, hurbilagotik bizitzen dituzte gurasoen, hurbileko pertsonen eta norberaren zaintza prozesuak, eta baita, honen kudeaketak inguru soziofamiliarrean, ekonomikoan eta balioetan sortarazten dituzten zailtasun eta gatazkak ere (Castelo et al., 2022). Ondorioz, zaintzari lotutako kezka eta ziurgabetasunak heldutu eta zahartzearekin bat areagotu egiten direla pentsa daiteke, etorkizun hurbilari lotutako elkarrizketak eta zalantzak plazaratuz: Nork zainduko nau ni zaharra naizenean eta laguntza behar dudanean? Zer espero dut nire inguru familiar, lagunarte, erakundeetatik zaintza behar dudanean? Zenbateraino dagokit niri hurbilekoen zaintzaz arduratzeak? Gainera, Covid-19aren osasun krisiaren baitan populazio zaurgarriek bereziki bizitako babesgabetasun sozial eta instituzionalak, adinkerian oinarritutako

ikuspegi eta praktikak azaleratu ditu, zahartzaroaren estigmatizazioa eta balio galera eraginez (Ayalon et al., 2020; Previtali, Allen eta Varlamova, 2020; Brooke eta Jackson, 2020; Comas d-Argemir eta Bofill-Poch, 2021; Deusdad, 2020). Ikerketa honetan, esperientzia bital eta sozial horiei erreparatzea garrantzizkoak izan daitezkeela iradokitzen da, zaintzarekiko konfiantza adinaren arabera nola aldatzen den azaltzen laguntzeko.

Azkenik, erakunde eta arreta zerbitzuenganako konfiantza, zahartzaroko konfiantza orokorra aurreikusteko aldagai garrantzitsua dela erakusten da. Aurrez aipatutakoaren ildo beretik, pertsonak adinean aurrera joan ahala, erakundeetatik eratorritako zaintza zerbitzu eta baliabideak erabiltzeko aukera hurbilagotik bizi dutela pentsa daiteke, eta ondorioz, horiekiko konfiantza izatea alderdi garrantzitsua da ongizatean. Aurrez egindako ikerketei helduz, jendartean erakundeei eta ongizate sozialari begirako dauden pertzepzio eta sinesmenek harremana dute testuinguru kultural eta herrialde ezberdinetan dagoen konfiantza orokor mailarekin, eta kohesio eta berdintasun sozial altuena duten gizarteetan adierazten dira konfiantza maila altuenak (Inglehart, 1999; Nannestad, 2008). Konfiantza orokorraren inplikazioak garrantzitsuak dira, izan ere, pertsona, talde eta erakundeen arteko lankidetzeta eta kooperazioa indartzea ahalbidetzen du, eta pertsonak zoriontsuago izaten, osasun fisikoa hobetzen edota bizi-itxaropena luzatzen laguntzen du (Barefoot et al., 1998; Nummela, Raivio and Uutela, 2012; Miething, Mewes and Giordano, 2020).

Konfiantza orokorraren izaerari buruzko teoria kontrajarrien artean, zenbait autorek konfiantza bizitzan zehar egonkor mantentzen den konstruktoa dela aipatzen dute, eta beste batzuek, berriz, harreman sozialen eta konfiantza zehatzak haren garapenean betetzen duten funtzioa nabarmentzen dute (Dinesen eta Sønderskov 2018; Paxton and Glanville, 2015; Freitag and Traunmüller, 2009; Van Lange, 2015). Bigarren ideia horri helduta, emaitzek konfiantza orokorra, harreman eta egoera zehatzen araberrako konfiantzarekin lotzen dela adierazten dute. Horien artean, zaintza erakundeenganako konfiantza izateak konfiantza orokorra aurreikustera begira betetzen duten funtzioa nabarmentzen da (Nannestad, 2008). Horrenbestez, konfiantza zehatzaren aldean, konfiantza orokorraren izaerak egonkorra dirudien arren, oraindik ere esperientzia eta egoera espezifikoaren bidez aurrean eta eraldatu egin daiteke. Horrek garrantzia berezia

hartzen du menpekotasun eta epe-luzeko zaintza beharrak artatzeko bideratutako politika publikoak mugatuak, eta hauen estaldura soziala eta kalitatea eztabaida iturri diren testuinguruan (Comas-d'Argemir, 2015; Comas d-Argemir eta Bofill-Poch, 2021; Deusdad et al., 2016; Ranci eta Pavolini, 2015). Zentzu horretan, ikerketa honen bitartez, herritarren eta bereziki adineko pertsonen bizi-kalitatean eragiteko erakundeetatik eratorritako zaintza zerbitzu eta prestazioengan konfiantza sustatzearen garrantzia nabarmentzen da.

Lan honen ondorio teorikoei dagokionez, konfiantza irudikapen sozialen teoriaren baitatik jorratzeak, konfiantzari buruzko ikerketan bide berriak irekitzen dituela iradokitzen da (Jovchelovitch, 2007; Markovà eta Gillespie, 2007). Izan ere, hurbilketa soziokognitiboa oinarri duten ikerketen aldean, konfiantza testuinguru soziokultural, koiuntural eta erlazionalaren arabeko prozesu gisa ulertzen da. Ondorioz, zaintza-eragileenganako konfiantza, Euskal Herrian zaintzaren antolaketa eta ereduaren inguruan gertatzen ari diren eztabaida eta eraldaketen argitan aztertu eta ulertzearen garrantzia plazaratzen da. Bestalde, hurbilketa dialogikoari lotutako ikerketa metodoen erabilerari dagokionean, aurrez egindako ikerketetan maila kualitatiboan landu izan da konfiantza (Markovà eta Gillespie, 2007; Pirttilä-Backman et al., 2017). Aldiz, ikerketa honetan konstruktoaren izaera dialogikoa eta dimentsio aniztuna maila kuantitatiboan landu da, zaintza-eragileenganako konfiantza neurtzeko tresna bat operazionalizatuz. Hortaz, etorkizuneko ikerketei begira, tresna honek osasun, komunitate eta gizarte mailako aldagaiekin dituen harremanak aztertzea garrantzitsua izan daiteke.

Ikerketaren aplikazio sozialari dagokionez, konfiantzaren sustapenean indarrak jartzea jendeak zaintza prozesu eta harremanetan dituen bizipenak, segurtasun eta ongizate-maila hobetzen lagundu dezake, zaintzaren dimentsio psikosozialak esparru ezberdinetan lantzeko aukera emanez. Gainera, konfiantzaren sustapena funtsezkoa da etorkizuneko ongizate eta zaintza sistemaren ehun sozial, komunitarioa eta instituzionala indartzeko (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2022). Xede horri begira, garrantzitsua dirudi konfiantzan eragiten duten alderdi soziokulturaletan sakontzen jarraitzea. Bukatzeko, ikuspegi etiko eta soziopolitiko batetik, konfiantza funtsezko elementua da zaintzaren kontzientzia kolektiboa eta aktore/eragile ezberdinen arteko elkarmenpekotasuna eta partaidetza bultzatzeko (Martín-Palomo, 2016; Tronto, 2013).

9

Laugarren azterlana

Nork zainduko nau?

Zaintza-eragileenganako konfiantzaren eta balio kulturalen arteko harremanak

Laburpena

Epe-luzeko zaintzei loturiko egitura tradizionalak krisian eta trantsizioan dauden garaiotan, non eta nola zainduak izango garen kezka nabaria da gizartean. Hortaz, zaintza sistemari begirako konfiantzaren eraikuntzak garrantzia berezia hartzen du testuinguru horretan. Ondorengo ikerketak, zaintzari begira populazioak familian, lagunengan, komunitatean eta erakundeengan duen konfiantzan eragiten duten alderdi soziokulturalak aztertzea du helburu. Gipuzkoako 174 pertsonak hartu zuten parte ikerketa transbertsal honetan. Emaitzek zera erakusten dute: (1) kontserbaziora zuzendutako balioen eta konfiantza familiarraren arteko lotura, familia alonzentrismoaren bidez azaltzen dela; (2) aldaketarako irekierara zuzendutako balioen eta lagunetikiko zein komunitatearekiko lotura, Self-aren eraikuntza independentearen eta komunitate zentzuaren bidez azaltzen dela; (3) azkenik, norbere promoziora zuzendutako balioen eta erakundeenganako konfiantzaren arteko lotura, dominantzia sozialerako joeraren bidez azaltzen dela. Konfiantzaren oinarri soziokulturalak modu kokatuan aztertzearen garrantzia eztabaidatzen da, hura gizarte eta komunitate mailan sustatzeko baliabideak eskainiz.

Gako-hitzak: konfiantza, epe-luzeko zaintza, giza balioak, sinesmen soziokulturalak.

Sarrera

Espainiar estatuan zein Euskal Herrian epe-luzeko zainketei dagokionez, eztabaida eta eraldaketa soziokulturala gertatzen ari da gaur egun (Spijker eta Zueras, 2020). Zaintzaren banaketa familian eta emakumeek sare informalen bitartez burutako ordaindugabeko lanean oinarritu izan da tradizioz, nahiz eta gero eta gehiago estatuak, merkatuak eta komunitateko eragileek parte-hartzera jo duten. Ondorioz, zaintza-lanak familiarizazio, profesionalizazio eta merkantilizazioaren bidegurutzen uler daitezke (Martínez-Buján, 2019; Vega, 2009). Azken hamarkadetan gertatutako aldaketa demografiko, ekonomiko, politiko eta soziokulturalek agerian utzi dute, besteak beste, familia egituren txikitzea eta izaera anitza, emakumeak masiboki lan-merkaturatzea, jaiotza-tasen murriztea eta bizi-itxaropenaren handitzeak, zaintza horniduraren krisia (MacInnes eta Pérez-Díaz, 2008; Thornton eta Young-DeMarco, 2001). Hori dela eta, menpekotasunari eta zaintzari lotutako behar sozialak, zahartzaroarenak bereziki, ugaritu egin dira, eta horiei aurre egiteko baliabideak, aldiz, urritu (Martínez-Buján, 2019; Perez-Orozco, 2006).

Testuinguru horrek eragina izan du pertsonen non, nola eta noren eskutik zainduak izan nahiko luketen desio, sinesmen eta espektatiben aldaketan. Ildo horretan, Mundu Mailako Balioen inkestaren (WVS) arabera, Espainian seme-alabek gaixo dauden gurasoak zaintzeko betebeharra dutela uste duten pertsonen ehunekoak behera egin du azken urteotan, eta egungo belaunaldiek zaintza gero eta gehiago familiaz gaindi, zerbitzu profesionalen eta merkatuaren esku uzten dute (Comas-d'Argemir, 2019; Del Barrio eta Sancho, 2015; Inglehart et al., 2014). Egun ez dago garbi norena eta zein punturarte beharko lukeen zaintzaren ardurak. Norabide horretan, etorkizuneko zaintza espektatibak eta horri lotutako ongizatea bermatzeko garrantzitsua da jendeak zaintza-eragileenganako duen konfiantza sendotu eta sustatzea.

Konfiantza funtsezko elementua da ongizate eta zaintza sistemaren eraginkortasuna eta kalitatea bermatzeko (Gilbert, 2020). Literaturan azpimarratu ohi den bezala, konfiantza zainketeen kalitatea hobetzeko, harremanetan inplikaturako aktoreen arteko elkarlana sendotzeko eta politika sozialen irudi publiko hobetzeko osagai garrantzitsua da (Rosemond, Hanson eta Zimmerman, 2017; Shin, 2015). Hainbat autorek honela definitu izan dute konfiantza: *"Pertsonen norbere zaurgarritasuna adierazteko eta besteen*

ekintza eta asmoei buruzko itxaropen positiboak izateko daukaten prestutasuna” (Yamagishi eta Yamagishi, 1994; Mayer, Davis eta Schoorman 1995). Hortaz, zerbaitetan edo norbaitengan konfiantza duen pertsona, beste pertsonaren borondate onaren mende dago, eta baita haren gaitasunari, zintzotasunari eta osotasunari buruz egiten duen balorazioaren mende ere (Pirtilä-Backman et al., 2017). Markovà eta Gillespie-ri (2007) jarraituz, konfiantza kontzeptu erlazionala da, eta giza-harremanen dimentsio guztiak zeharkatzen ditu: pertsona artekoa, taldeartekoa, erakunde artekoa zein gizartekoa. Zaintza-harreman eta praktikei dagokionean, konfiantzaren garrantzia maiz iradokitzen da arloko literaturan. Alabaina, oso gutxi dira maila enpirikoan konfiantza zaintzaren testuinguruan aztertu eta hura sustatzeko estrategietan begirada jarri izan dituzten lanak (Gilbert, 2020). Zentzu horretan, ikerketa honen helburu nagusia balio soziokulturalek eta ideologikoez populazioak zaintza-eragile ezberdinengan duten konfiantzan daukaten eragina aztertzea da. Horretarako, jendeak familia, lagunarte, komunitate sare eta erakundeengan duen konfiantza zein alderdi soziokulturalen menpe dagoen aztertzen da.

Zaintza-eragileenganako konfiantzaren oinarri soziokultural eta ideologikoak

Giza balioak funtsezkoak dira pertsonen funtzionamendu psikologikoa ulertzeko, eta konfiantzari buruzko ikuspegiak, portaerak eta jarreraren bideratzaile garrantzitsuak dira (Markus et al., 1996; Kluckhohn, 1951; Triandis, 1995). Schwartz-ek (1992, 2003) *“egoera zehatzak gainditzen dituzten eta inguratzen gaituen mundua epaitzeko eta horren baitan giza portaera bideratzeko motibazio iturri edo helburu zabal gisa”* definitzen ditu giza balioak. Horren arabera, bi dimentsio nagusitan egituratzen dira hamar giza balio unibertsalak. Batetik, kontserbaziora eta aldaketarako irekierara kontrajartzen diren balioak daude; lehenengoan, norbanakoaren mugaketa, ordena eta aldaketarako erresistentzia (*segurtasuna + konformitatea + tradizioa*) gailentzen dira eta bigarrean, berriz, pertsonaren ekintza gaitasunak, pentsamendu eta sentipen askeek hartzen dute garrantzia, esperientzia berriei atea irekita (*norbere norabidea + estimulazioa + hedonismoa*). Bestalde, norbere promoziora bideraturiko balioak, autotranszendentziara zuzendutako balioei kontrajartzen zaie; norberaren promoziora zuzendutako balioek self-aren garapena eta gorespene dute helburu (*boterea + arrakasta + hedonismoa*) eta autotranszendentziak, berriz, besteen interesen eta

kolektibitatearen alde egiten du (*onginahia + unibertsalismoa*). Balio hedonistek, aldaketarako irekierazko zein norbere promoziorako elementuak partekatzen ditu.

Balioek maila indibidualean, instituzionalean eta sozialean jarduten dute, eta horien azterketa garrantzizkoa jo izan da psikologian. Balioen eta konfiantzaren arteko harremanak, berriz, lanaren eta erakundeen esparruan landu izan da bereziki (Devos et al., 2002; Fulmer eta Gelfand, 2012; Morselli, Spini eta Devos, 2015). Ikerlan horietan balioen garrantzia azpimarratu izan da, gizarteko erakunde ezberdinen (gobernua, komunikabideak, osasun-sistema etab.) inguruko uste eta sinesmen sistemak ulertzeko egiten duten ekarpenari dagokionean. Hala ere, Morsellik eta kolaboratzaileek (2012) eta Davidov eta kolaboratzaileek (2014) iradokitzen dutenari jarraituz, balioak maila indibidual baten aztertu izan dira literaturan, eta horien zentzua ulertzeko garrantzitsua da horiek zein testuinguru soziokulturaletan errotzen diren kontuan izatea (Inglehart, 1999). Ikerketa honetara etorritz, zaintzaren esparru familiarrean, soziokomunitarioan eta instituzionalean konfiantza nola ikasia izan den eta sinesmen soziokultural eta ideologikoekin nola lotua izan den azalduko da jarraian.

Batetik, familiaren zaintzarekiko konfiantza gurasoen eta seme-alaben arteko lehen harremanetan garatzen den oinarrizko konfiantzarekin, segurtasunarekin eta babes sentimenduari lotuta ulertu daiteke (Erikson, 1968). Gainera, ikerketek erakutsi bezala, familiarekiko ohorea, leialtasuna eta atxikimendu emozionala nagusi den testuinguru kulturaletan, adineko senideekiko zaintza familiartekoa izatea hobesten da, elkarren arteko lotura eta betebeharrak sendoagoak garatzen baitituzte kideek (Bedford eta Hwang, 2003; Kagitçibasi, 2007). Inglehart-ek eta Weltzel-ek (2005) proposatutako mapa kulturalari jarraituz, gurasoekiko errespetua eta baldintzarik gabeko maitasuna modu nabarmenagoan adierazten da sekularizatu gabeko gizarte-egitura tradizionaletan. Ildo horretan, familiak gizabanakoaren gainetik duen lehentasuna kulturalki nabarmenagoa izan ohi da landa eremuan eta tradizio kultural eta erlijiosoek pisua daukaten lekuetan (Schwartz, 2007).

Bestetik, harreman sozialen irekiera funtsezkoa da “beste” ezezagunekin loturak eraiki eta inguru soziokomunitario zabalean konfiantza garatzeko (Di Napoli, Dolce eta Arcidiacono, 2019). Zenbait egilek iradoki izan dute gizarte industrializatu, teknologizatu eta indibidualisten ezaugarri dela harreman sozialen haustura, berekoikeria, konfiantza

eza edota kapital sozialaren galera (Putnam, 1993). Beste ikuspegi batzuetatik, aldiz, tesi hau zalantzan jartzen da, kultura indibidualistetan pertsonen besteekin borondatezko harreman askeak, lankidetzak eta kontzientzia zibikoa gehiago garatzen dituztela argudiatuta (Inglehart eta Welzel, 2005; Realo et al., 2008). Norabide horretan egindako lanetan, ezberdinen arteko konfiantza eta kapital soziala lotzen da autonomia, emantzipazioa eta adierazpen askatasuna goستن duten balioekin; hori normalki, norbanakoaren behar material eta afektiboak babestuak daudenean jazotzen da (Welzel, 2010).

Azkenik, aurrez egindako ikerketei jarraiki, zaintza kanpora ateratzea baliabide sozioekonomiko eta kulturekin lotuta dago (Comas-d'Argemir, 2019). Zentzu horretan, zentzuzkoa litzateke zaintza zerbitzu eta erakundeenganako konfiantza, pertsonen ongizate sozioekonomikoari, indibidualizazioari zein gizartearen demokratizazioarekin lotuta dagoela pentsatzea (Devos et al., 2002; Inglehart, 1999). Baita, eskubide sozialen unibertsaltasunarekin eta jendeak gobernuaren jardunaren inguruan dituen pertzepzio eta sinesmen ideologikoekin ere (Gilbert, 2020; Nazio Batuen Erakundea, 2021). Hainbat ikerketetan iradokitzen denari jarraiki, politiken eraginkortasunaz harago, berdintasunaren eta justizia sozialaren pertzepzio publikoak irizpide erabakiorrak dira gizarte eta erakundeenganako konfiantzan (Castillo et al., 2011; Cozzolino, 2011; Lee, 2021; Zhao, Zhao eta Cleary, 2018).

Konfiantzak zaintzaren eremu ezberdinetan izan dezakeen konfigurazio soziokultura aintzat hartuz, ikerketa hau honako hipotesietatik abiatzen da: Batetik, kontserbaziozko balioei lehentasuna emateak lotura izango du familiarenganako konfiantza altuagoan, eta harreman hau familismoari buruz kulturaren dauden sinesmenek azalduko dute, hau da, senideek zaintzarekiko sentitzen duten lotura eta konpromiso moralek. Bestetik, aldaketarako irekiera lehenesten dituzten balioak izatea lotua egongo da pertsonen gertuko lagunekiko eta komunitatearekiko konfiantza gehiago izatearekin; lagunen kasuan, self-aren eraikuntza independenteak azalduko du harreman hau eta komunitatearen kasuan, berriz, komunitate harremanen nolakotasun eta zentzuak azalduko du harremana. Azkenik, norbere promoziora zuzendutako balioei lotuta, ezberdintasun sozialetan oinarritutako balioei lehentasun txikiagoa emateak erakundeenganako konfiantza gehiago aurreikusiko du, eta harreman hau berdintasun

sozialari buruzko sinesmenek azalduko dute. Horretaz gain, konfiantzan eragina izan dezaketen bestelako aldagai esanguratsuen efektua kontrolatu egingo da analisisietan. Horien artean, estatus sozioekonomikoaren pertzepzioa, bizi-kalitatea eta ideologia politikoa.

Metodoa

Parte-hartzaileak

Gipuzkoako populazio orokorreko 174 pertsonen hartu zuten parte ikerketa honetan. Horietatik 48 gizonezkoak ziren eta 126 emakumezkoak, batez beste 38,83ko adinarekin (SD=16,99). Parte-hartzaile gehienek (%45) familiako zaintzaile gisa esperientziaren bat bizi izan zuten, eta horietatik %20a adinekoren zaintzaile nagusia zen. Bestalde, parte-hartzaileen %35ak adierazi zuen etxeko zaintza zerbitzuren bat kontratatu izana, eta %9ak zaintzarekin esperientzia profesionala izan zuen. Parte-hartzaile gutxi batzuek adierazi zuten esperientzia zutela boluntario komunitarioetan (% 1) eta legez onartutako menpekotasun-egoeran (% 3). Parte-hartzaile guztiak bizi ziren Euskal Herrian landa-lana burutu zen garaian.

Prozedura

Datu-bilketa 2020ko martxoan eta uztaila bitartean burutu zen, Covid-19ren ondorioz bizi izan zen itxialdiaren garaian, hain zuzen ere. Datuak ikertzailearen sare sozialetan (Facebook, WhatsApp eta Gmail) argitaratutako online inkesta baten bidez (“google forms”) bildu ziren, eta gizarte ekimeneko hainbat elkarteren bitartez hedatu zen ikerketa. Zehazki, zazpi elkarterekin egin zen kontaktua: horietako bi egoitzetan bizi ziren adinekoen senideek osatua, boluntariora lanak egiten zituzten hiru elkarte eta bi pentsiodunen elkarte. Guztiei ikerketa-proiektuaren nondik norakoak azaltzen zituen gutun bat bidali zitzaion, parte-hartzera gonbidatuz. Parte-hartzea borondatezkoa izan zen, eta ez zen horretarako ordainsaririk izan. Ikerketan parte hartzeko irizpideak honakoak ziren: 18 urtetik gorakoa izatea, irakurketa eta idazketa gaitasuna izatea eta, pandemiak ezarritako aurrez-aurreko parte-hartzearen zailtasunak kontsideratuta, Internetarako sarbidea izatea. Parte-hartzaile guztiek euskaraz zein gaztelaniaz bete zituzten galdetegiak.

Ikerketa honek Euskal Herriko Unibertsitateko etika batzordearen oniritzia jaso zuen landa-lana aurrera eraman ahal izateko (M10_2018_228). Parte-hartzaile guztiek baimen informatua sinatu zuten, ikerketa prozesu osoan beraien eskubideei buruzko informazioaz jakitun izanik.

Neurbideak

Zaintza-eragileenganako konfiantza.

Literaturan konfiantza neurtzeko dauden eskalei jarraituz, 14 itemeko eskala bat eraiki zen, pertsonen zaintza-eragileengan zuten konfiantza maila neurtzeko (Yamagishi eta Yamagishi, 1994). Parte-hartzaileek 1etik (ezer ez) eta 5erako (guztiz) eskala batean ($\alpha=.85$) erantzun zezaketen (Adb. “Irudikatu eguneroko bizitza aurrera eramateko beste pertsonen laguntza beharko duzun balizko mendekotasun egoera bat, autonomia fisikoaren galera, narriadura kognitiboa edota gaixotasun-egoera direla eta. Egoera horretan, zure eguneroko behar fisiko eta emozionalak garatzeko maila ezberdinetako laguntzak beharko dituzu. Egoera horretan, zenbatekoa da familian daukazu konfiantza?”). Eskalako 14 itemak faktore analisi esploratzailearen bidez ebaluatuak izan ziren (ikus 1. Taula). Lehenengo faktoreak —famiarekiko konfiantza— bariantzaren %11,25 azaldu zuen, bigarrenak —lagunekiko konfiantza— %10,23 azaldu zuen, hirugarrenak —komunitatearenganako konfiantza— %18,35, eta laugarrenak —erakundeekiko konfiantza— bariantzaren %27,41 azaldu zuen. Guztira, lau faktoretan antolatu zen eskala eta horiek bariantza osoaren %67,24a azaltzen zuten. Faktore analisi berreztaileak, berriz, ereduaren egokitasuna frogatu zuen ($\chi^2/df = 2,28$; RMSEA=0,086; CFI=0,91; TLI= 0,90; SRMR=0,07). Faktore bakoitzaren pisua 0.4ren gainetik edo gertu zegoen, eta pisu guztiak estatistikoki esanguratsuak ziren ($p < 0,001$).

Taula 1

Faktore analisi esploratzailearen emaitzak

Item	Pisu faktoriala			
	1	2	3	4
1. Faktorea: Konfiantza familian				
1. Gertuko familia	.77	.16	-.05	.00
2. Familia zabala	.71	.17	.34	.07
2. Faktorea: Konfiantza lagunengan				
3. Gertuko lagunak	.27	.63	.39	.17
4. Lagun taldea (adb. Kuadrila)	.39	.72	.07	.12
3. Faktorea: Konfiantza komunitatean				
5. Bizilagunak	.35	.08	.68	.12
6. Auzo/herriko elkarteak	.16	.11	.83	-.01
7. Boluntariotza	-.11	.14	.72	.15
8. Espazio publikoa (mugikortasuna, herrigunea)	-.04	-.02	.65	.21
4. Faktorea: Konfiantza erakundeengan				
9. Tokiko zerbitzu sozialak	.08	.08	.31	.78
10. Eguneko zentroak	-.08	.17	.15	.84
11. Egoitza publikoak	.03	.16	.11	.82
12. Egoitza pribatuak	-.09	.37	.05	.69
13. Etxez etxeko zerbitzuak	.13	.18	.23	.80
14. Gailu teknologikoak	.25	.44	.02	.65

Oharra. N=174. Erauzketa-metodoa ardatz nagusiaren faktorizazioarekin eta errotazio zehiarrarekin burutu zen (Promax eta Kaiser normalizazioa).

Giza balioak

Giza balioekiko orientazioa Schwartz-en PVQ21 bertsioaren bidez neurtu zen, 1etik (nire oso antzekoa) 6rako (nire antzeko ezer ez) eskala batean oinarritua (Schwartz, 1992). Honako hauek izan ziren Cronbach-en alfak balio bakoitzerako: onginahia ($\alpha=0,79$), unibertsaltasuna ($\alpha=0,79$), segurtasuna ($\alpha=0,18$), konformismoa ($\alpha=0,51$), tradizioa ($\alpha=0,27$), boterea ($\alpha=0,19$), lorpena ($\alpha=0,71$), auto-norabidea ($\alpha=0,58$), hedonismoa ($\alpha=0,84$) eta estimulazioa ($\alpha=0,77$). Segurtasunera, tradiziora eta boterera bideratutako balioen kasuan, Cronbach-en Alfaren balioak ez zuen maila egokia lortu. Hala ere, kontuan hartu behar da balio bakoitza bi itemekin soilik eraikia zela, eta horrek azal lezakeela arazo hori. Arazoa zuzentze aldera, analisiak balio indibidualak kontuan hartuta burutu ordez, balio bakoitza lau motibazio-dimentsioen baitan aztertzea erabaki zen. Horrek emaitza onak eman zituen: autotranszendentzia ($\alpha=.880$), aldaketarako irekiera ($\alpha=.77$), auto-promozioa ($\alpha=.58$) eta kontserbazioa ($\alpha=.63$).

Familia Alozentrismoa – Idiozentrismoa

Familiarenganako lotura kulturala aztertzeko Lay-k eta kolaboratzaileek (1998) garatutako “Familia alozentrismoa-idiozentrismoa eskala” erabili zen, 21 itemeko eskala bidimentsionala baliatuz. Eskalako puntuazio altuak familia alozentrismo- edo interdependentzia-maila handia adierazten du; puntuazio baxuak, berriz, familiarekiko idiozentrismo- edo independentzia-maila handia adierazten du. Eskalaren fidagarritasuna egokia izan zen ($\alpha=.80$).

Self-aren eraikuntza kulturala

Self-aren eraikuntza kulturala 24 itemeko eskala baten bidez neurtu zen (Singelis, 1994). 1etik (oso ados ez) 7rako eskala batean (oso ados), Self-aren eraikuntzaren bi dimentsio neurtu ziren: Self independentea ($\alpha=.59$) eta self interdependentea ($\alpha=.60$). Eskalaren fidagarritasuna onargarria izan zen ($\alpha=.62$). Self independentearen dimentsioaren kasuan barne sendotasuna hobetzeko, eskalatik bi item kendu ziren, eta Cronbach-en alfa nabarmen hobetu zen ($\alpha=.64$).

Komunitate zentzua

Komunitate zentzua SOC eskalako 8 item-en bertsio murriztuaren bidez neurtu zen (Peterson, Speer eta McMillan, 2008). Eskala horrek komunitate zentzua lau dimentsioren bitartez neurtzen du, 1etik (ezer ez) 4rako (guztiz) bitarteko eskala batean. Dimentsio bakoitzerako egokitasuna frogatu zen: kidesasuna ($\alpha=.89$), eragina ($\alpha=.60$), beharrak asetzea ($\alpha=.83$) eta lotura emozional partekatua ($\alpha=.79$). Eskala osoaren barne sendotasuna egokia izan zen ($\alpha=.89$).

Dominantzia soziala

Pratto eta kolaboratzaileek (1994) garatutako 16 item-eko eskala erabili zen. Eskala horretan, hamasei item daude guztira eta dominantzia sozialerako joera neurtzen da dimentsio bakarreko eskala bipolar batean, 1etik (erabat desados) 7ra (guztiz ados). Eskalaren fidagarritasuna egokia izan zen ($\alpha=.79$).

Kontrol-aldagaiak

Bizi-kalitatea

Bizi-kalitatea neurtzeko, 26 item-eko WHOQOL-BREF persiar bertsioa erabili zen (Munduko Osasun Erakundea, 1997). Bertsio horrek bizi-kalitatearen lau dimentsio neurtzen ditu, 1etik (gutxi) 5erako (asko) eskala batean: ongizate fisikoa ($\alpha=.79$), ongizate psikologikoa ($\alpha=.80$), gizarte-harremanak ($\alpha=.70$) eta ingurunea ($\alpha=.81$). Eskalaren fidagarritasuna egokia izan zen ($\alpha=.92$).

Estatus sozioekonomiko subjektiboa

Pertsonaren estatus sozioekonomikoa neurtzeko, estatus sozioekonomiko subjektiboko MacArthur eskalako item bat erabili zen (Ostrove et al., 2000). MacArthurren eskalak diru-sarreretan, hezkuntza-mailan eta lanbidean oinarritutako estatus sozioekonomikoaren pertzepzio subjektiboa neurtzen du, 1etik (txikia) 10erako (handia) eskalan (“10 puntuko eskala kontuan hartuta, non kokatuko zinateke zu?”).

Ideologia politikoa

Ideologia politikoarekiko identifikazioa, item baten bidez neurtu zen 10 puntuko eskalan (1=Ezkerra, 10=Eskuina) (“Ideologia politikoei dagokienez, jendeak ezkerra eta eskuinaz hitz egiten du: 10 puntuko eskalan, non kokatuko zinateke politikoki?”) (Rodríguez et al., 1993).

Datuen analisisia

Alderdi soziokulturalek zaintza-eragileenganako (familia, lagunak, komunitatea eta erakundeak) konfiantzan nola eragiten duten aztertzeko, Pearson-en korrelazio bitarrak eta mediazio analisiak burutu ziren. SPSS 24 eta Macro PROCESS pakete estatistikoak erabili ziren horretarako (Preacher eta Hayes, 2004). Bizi-kalitatea, estatus sozioekonomiko subjektiboa eta posizionamendu politikoa aldagai kontrol gisa aztertu ziren.

Emaitzak

a) Zaintza-eragile ezberdinenganako konfiantza giza balioekin eta aldagai soziokulturalekin loturan

Zaintza-eragile ezberdinenganako konfiantza giza balioekin eta gainerako aldagai soziokulturalekin nola harremantzen zen ikusteko, Pearson korrelazio bitarrak burutu ziren. Alde batetik, giza balioak, familia, lagun, komunitate eta erakundeenganako konfiantzarekin nola lotzen ziren aztertu zen.

Lehen hipotesian espero genuen kontrara, kontserbaziora zuzendutako balioen eta familiarekiko konfiantzaren arteko harreman zuzenik ez zegoela erakutsi zuten emaitzek. Hala ere, esperotako norabidean, aldaketarako irekierara zuzendutako balioak -hedonismoa bereziki- harreman esanguratsua zuten lagunekiko ($r=0,29^*$, $p<0,05$), komunitatearekiko ($r=0,19^*$, $p<0,05$) eta erakundeenganako konfiantzarekin ($r=0,16^*$, $p'0,05$). Erakundeenganako konfiantza ere modu esanguratsuan lotzen zen norbere promoziora zuzendutako balioekin ($r=0,18^*$, $p'0,05$).

Bestalde, zaintza-eragile ezberdinenganako konfiantza familia alozentrismo-idiozentrismoarekin, self-aren eraikuntza kulturalarekin, komunitate zentzuarekin eta dominantzia sozialerako joerarekin nola harremantzen ziren aztertu zen. Aurkitutakoaren arabera, familia alozentrismo-idiozentrismoaren eta familian zaindua izatearekiko konfiantzaren arteko harremana positiboa zen; hau da, parte-hartzaileek familiarekiko ikuspegi alozentrikoagoa zeukaten heinean, konfiantza gehiago zeukaten familian zaindua izateko garaian ($r=0,29^*$, $p<0,05$). Norabide berdintsuan, self-aren eraikuntza independentea lagunekiko konfiantzarekin positiboki lotzen zen, hau da, gero eta garrantzia gehiago eman norbere indibidualtasuna eta autonomiari kulturari, are eta konfiantza gehiago lagun edo "berdinengan" zaindua izateari begira ($r=0,15^*$, $p<0,05$). Espero bezala ere, komunitate zentzuaren eta komunitatearekiko konfiantzaren arteko korrelazioa esanguratsua eta positiboa zen ($r=.44^{**}$, $p<0.05$). Aldiz, ez zen aurkitu erakundeenganako konfiantzaren eta dominantzia sozialaren arteko harreman esanguratsurik.

Taula 2

Aldagai guztien estatistiko deskriptiboak eta Spearman korrelazio bitarrak

	M	SD	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16
1. Bizitza kalitatea	3.91	.51	-															
2. Komunitate zentzua	2.83	.71	.145	-														
3. Familia alozentrismoa	3.21	.54	.032	.19*	-													
4. Self Independentea	4.71	.64	.265**	0.67	.15*	-												
5. Self Interdependentea	4.62	.62	.092	0.13	.52**	.14	-											
6. Dominantzia Soziala	2.21	.70	-.155*	-.16*	.08	-.02	.08	-										
7. Ideologia	2.74	1.64	.014	-.14	.18*	.12	.19*	.21**	-									
8. Estatus sozioekonom.	6.15	1.36	.205**	.16*	.15*	-.04	.32**	.12	.23**	-								
9. Auto-transzendentzia	1.95	.96	.160*	.31**	.08	.13	.07	-.31**	-.24**	.07	-							
10. Kontserbazioa	3.17	.82	.002	.07	.42**	.04	.31**	-.03	.16*	.13	.20**	-						
11. Aldaketara irekiera	2.80	.90	.17*	.16*	.18*	.31**	.16*	-.06	.33**	.05	.52**	-.07	-					
12. Norbere promozioa	3.91	.93	.011	.03	.11	.09	.01	.17*	.14	.07	-.21**	.19**	.15	-				
13. Konfiantza familia	3.87	.78	.26**	.23**	.29**	.09	.05	-.19*	-.15	.15*	.13	.01	.05	.06	-			
14. Konfiantza lagunak	3.83	.88	.23**	.13	-.09	.15*	-.04	-.12	-.26**	.09	.21**	-.07	.29**	-.01	.43**	-		
15. Konfiantza komunit.	2.86	.75	.16*	.44**	.06	.03	.05	-.05	-.14	.21**	.10	.05	.19*	.08	.34**	.39**	-	
16. Konfiantza erakunde	3.23	.76	.21**	.13	.04	.07	.06	-.13	.05	.23**	.11	.15	.16*	.18*	.15*	.26**	.43**	-

* p<0.05. ** p<0.01. *** p<0.00.


b) Kulturaren azalgarritasuna giza balioen eta zaintza-eragileenganako konfiantzaren arteko loturan

Konstrukto soziokulturalek – familia alozentrismoa-idiozentrismoa, self-aren eraikuntza kulturala, komunitate zentzua eta dominantzia soziala – giza balioen eta zaintza-eragileenganako konfiantzaren arteko harremana nola azaltzen zuten frogatzeko mediazio analisiak burutu ziren. Lau mediazio eredu simple eraman ziren aurrera (SPSS Macroprocess 4. eredu), eredu bakoitzean zeharkako efektuen balioa eta konfiantza-tarteak azalduz (%95). Zeharkako efektuak esanguratsuak kontsideratzen dira (* ikur bidez adierazita) 0 balioa konfiantza-tartean barneratzen denean (Preacher eta Hayes, 2004).

Familiaren eskutik zaindua izatearekiko konfiantza

Espero bezala, lehen mediazio analisiaren emaitzek, familian zaindua izatearekiko konfiantza kontserbaziora zuzendutako balioekin loturan zegoela erakutsi zuten, eta bien arteko harremana familia alozentrismoaren bitartez azaltzen zen (ikus 1. Irudia). Horrek esan nahi du kontserbaziora zuzendutako balioak familiarekiko konfiantzarekin lotzen direla familiaren kontzepzio alozentrikoak senideen arteko elkar eragina eta zereginak barnebiltzen dituelako. Gainera, mediazio efektu hori esanguratsua zen bizi-kalitatea eta komunitate zentzua moduko aldagaiak kontrolatu ondoren ere (zeharkako efektua = .194; KT% 95: .0608, .3430).


1. Irudia: Kontserbazio-balioen eta familiarekiko konfiantzaren arteko loturaren erregresio-koefiziente estandarizatuak, familia alozentrismo-idiozentrismoaren bidez azalduta.



Lagunen eskutik zaindua izatearekiko konfiantza

Bigarren mediazio analisisian self-aren kontzepzio independenteak aldaketarako irekierara zuzendutako balioen eta lagunen eskutik zaindua izateren arteko harremana azaltzen zuen frogatu genuen. Emaitzek erakusten duten bezala, balio hedonistak lehenesteak – aldaketarako irekiera eta norbere promoziora zuzendutako balioei erreferentzia eginez – zaindua izaterako garaian lagunengan konfiantza gehiago aurreikusten du, eta harreman hori pertsonen self-aren kontzepzio independentea daukatelako ematen da (ikus, 2. Irudia). Ikerketa hipotesia babestuz, zeharkako efektu hori esanguratsua zen behin pertsonen ideologia politikoaren efektua kontrolatu eta gero ere (zeharkako efektua = .086; KT % 95: .0103, .1783).


2. Irudia: Hedonismoaren eta lagunetikiko konfiantzaren arteko loturaren erregresio-koefiziente estandarizatuak, self eraikuntza independentearen bidez azaldua.



Komunitatearen eskutik zaindua izatearekiko konfiantza

Hirugarren mediazio analisisian, komunitate zentzuak aldaketarako irekierara zuzendutako balioen eta komunitatearen eskutik zaindua izatearen arteko harremana azaltzen ba ote zuen frogatu zen, ikerketa hipotesia emaitzetan baieztatuz (ikus 3. Irudia). Gero eta estuagoa izan pertsonen komunitatean zeukaten elkarrekintza, orduan eta konfiantza handiagoa zuten pertsonen komunitatean zaintza-eragile gisa. Zeharkako efektu hori estatus sozioekonomiko subjektiboaren efektu esanguratsua kontrolatu ondoren ere gertatzen zen (zeharkako efektua = .217; KT% 95: .0102, .4498).


3. Irudia: Aldaketarako irekiera balioak eta komunitatearekiko konfiantzaren arteko lotura, komunitatearen zentzuaren bidez azalduta.



Erakundeen eskutik zaindua izatearekiko konfiantza

Azkenik, laugarren mediazio analisia burutu zen dominantzia sozialerako joerak norbere promoziora zuzendutako balioen eta erakundeen eskutik zaindua izatearekiko konfiantzaren arteko harremana nola azaltzen zuen frogatzeko. Esperotako norabidean, emaitzek norbere promoziora bideratutako balioen (boterea + lorpena) eta erakundeenganako konfiantzaren arteko harremana dominantzia sozialaren bitartez azaltzen zela erakutsi zuten (ikus 4. Irudia). Norbere promozioa gehiago lehenestek erakundeekiko konfiantza gutxiago izatea aurreikusten du, ekuazio honetan jendeak dominantzia sozialerako joera handiagoa duelako, hau da, ezberdintasun sozialak gehiago babesten dituztelako. Beste era batera esanda, erakundeenganako konfiantza handiagoa berdintasun soziala babesten duten sinesmenekin dago lotuta, eta mediazio hori jendearen estatus sozioekonomikoaren pertzepzio subjektiboaren efektua kontrolatu ondoren ere gertatzen da (zeharkako efektua = $-.161$; IC% 95: $-4065, -.0016$).

4. Irudia: Auto-promozio balioak eta erakundeekiko konfiantzaren arteko lotura, dominantzia sozialerako joera, dominantzia sozialerako joeraren bidez azalduta.



Eztabaida

Ikerketa honetan zaintza-eragileenganako konfiantzaren oinarri soziokulturalak zeintzuk diren ezagutaraztera ematen da. Garaiko gizartean epe-luzeko zaintzen inguruan ematen dabiltzan eraldaketa eta eztabaiden testuingurua kontsideratuz, ikerketa honek familiaren, lagunen, komunitatearen eta erakundeen eskutik zaindua izatearen konfiantza giza balioekin loturan ulertzea ahalbidetzen du, hauek testuinguru soziokulturalan nola errotzen diren azalduz.

Lehenik eta behin, emaitzek kontserbaziora zuzendutako balioak lehenestek zaindua izaterako garaian familian konfiantza gehiago izatea dakarrela erakusten dute, eta harreman hori familiari buruzko kontzepzio alozentrikoaren bidez azaltzen dela. Baieztapen horrek aurrez testuinguru kultural eta etniko ezberdinetan burututako ikerketek iradokitzen dutenarekin bat egiten du (Kağitçibaşı, 2007; Schwartz, 2007). Hau da, familiarekiko atxikimendua, belaunaldi arteko loturak eta helduen autoritatea kulturaren altuagoak direnean, pertsonak familiaren babesean konfiantza gehiago daukate zaintza behar egoera batean. Aldiz, harreman sozial independente eta indibidualistak nabarmenagoak diren testuinguruetan, gizarteko beste eragile eta erakundeek protagonismo handiagoa hartzen dute, adibide paradigmaticoak zaintza kultura nordiko eta liberalak izanik (Bettio eta Plantenga, 2004; Sabogal et al., 1987). Ondorioz, Inglehart eta Baker-en (2000) tesiarekin bat eginez, familiarekiko lotura emozionala eta tradizio kultural-erlijiosoaren pisua altuagoa den testuinguruetan jendeak familiaren eskutik zaindua izateko konfiantza gehiago duela erakusten da ikerketa honekin. Baieztapen hori gure testuingurura ekarriz, tradizioen, erlijioaren eta familiaren pisu sinbolikoari erreparatzea funtsezkoak da jendeak zaintzarekiko dituen lehenetasun, desio eta espektatibak ulertzeko. Alabaina, ikerketa batzuek argiki erakutsi izan dutenari jarraiki, familia konfiantza iturri nagusi gisa ulertzea, oztopo garrantzitsua izan daiteke zaintzen profesionalizazio eta birbanaketarako (Moreno-Colom et al., 2017).

Bigarrenik, aldaketarako irekierara zuzendutako balioak lehenestea, gertuko pertsona eta lagunaren eskutik zaindua izateko konfiantza gehiago izatearekin lotzen da, eta harreman hori self-aren ikuspegi independentearen bitartez azaltzen da. Inglehart-ek eta Welzel-ek (2005) garatutako aldaketa kulturalaren kontzeptualizazioa jarraiki,

autonomia, berdintasuna eta pertsona arteko konfiantza goستن duten balioak, familiaz gaindiko sare sozialekiko konfiantza iragarle garrantzitsuak direla iradokitzen da. Horrekin batera, esan daiteke kontzientzia zibikoaren eta kapital sozialaren eraikuntza eta garapenak komunitatearen eskutik zaindua izatearen konfiantza gehiago izatera daramala, esaterako, bizilagun eta boluntario sareen eskutik (Realo et al., 2008; Welzel, 2010). Ideia hau garrantzitsua da azken hamarkadetan gizarte industrialetan eta hiriguneetan emandako gizarte aldaketa garrantzitsuenetako bat familiek eta emakumeek epe-luzeko zaintzak bere gain hartzearen zama eta bideragarritasuna zalantzan jarri eta pertsonen autonomia goستن duten balio sozialen gorakada izan direla kontuan hartzen bada (Scott eta Braun, 2006). Ondorioz, norbere autonomia, denbora libre eta gizarte harremanen demokratizaziorantz jo den testuinguruan ulertu daitezke emaitza horiek (Comas d-Argemir, 2015; Cozzolino, 2011). Horregatik, familiaz gaindiko harremanetan konfiantza gehiago izatea, balio tradizionalen eta norberatasuna goستن duten balio “berrien” arteko tentsioaren baitan interpreta daiteke. Tentsio hori, senide bat zaintzeko betebeharrak moralaren eta zaintza horren erantzukizuna norbere gain hartzeak dakarren kostu pertsonal eta sozialaren ondorioz sortzen da (Beck eta Beck-Gernsheim, 2002).

Hirugarrenik, norbere promoziora zuzendutako balioak lehenestek, erakundeen eskutik zaindua izatearekiko konfiantza gutxiago izatearekin lotzen da, eta harreman hori dominantzia sozialerako ikuspegi bitartez azaltzen da. Norbere promozioak lorpen indibidualak eta botere soziala goraiatzeko dituen aldetik, balio horiei lehenetasuna emateak zaintzarekiko ardurak eta konpromisoa garapen pertsonal eta profesionalaren oztopo gisa ulertu daitekeela pentsa liteke. Gainera, zaintzak gizartean duen aitortza sozioekonomiko eta sinboliko eskasa ikusita, emakumeen eta pobretutako klase sozialen espazio eta eginkizun “natural” gisa kontsideratua izan da, generoa, klasea eta jatorriari lotutako ezberdintasun sozialen egitura eta sinesmenek babestuta (Cano, 2018). Estatuak eta erakundeek berebiziko garrantzia izan dute zainketak etxeko esparru pribatutik atera eta zaindua izateko eskubide sozialak bermatzeko. Ondorioz, hasiera batean pentsa liteke norbere promoziora zuzendutako balio altuagoak izatea eta zerbitzuak ordaintzeko baliabide sozioekonomiko altuagoak dituzten pertsonen instituzionalizazioarekiko ere joera altuagoa izatea (Moreno-Colom et al., 2017).

Hala ere, literaturan adierazi izan den bezala, erakundeenganako konfiantza sustatzen duen faktore garrantzitsuenetako batek gizartearen kohesio eta demokratizazio mailarekin du zerikusia (Inglehart, 1999). Egitura bertikalak dituzten beste erakunde batzuek ez bezala – gobernuak, armada, polizia etab. – erakundeen – egoitzak, eguneko zentroak, zerbitzu sozialak – eskutik zaindua izatearekiko konfiantzak berdintasun soziala eta inklusioan oinarritzen diren sinesmenekin lotura duela iradokitzen dute emaitza horiek (Castillo et al., 2011). Ildo horretan, epe-luzeko zaintzei lotutako politika publiko eta instituzionalak aberastasun kolektibo gisa ulertuta, ongizate-sistema eta justizia sozialaren funtsezko zutabeak dira, arreta sozialaren unibertsalizazioa bermatzeko eta zaintzaren banaketa soziala orekatzeko tresna garrantzitsuak izanik (Aguilar-Hendrikson, 2020; Comas-d'Argemir, 2019).

Literatura feministak dioenari helduz, familiak, estatuak, merkatuak eta komunitateak zaintzaren banaketan daukaten partaidetzaren arabera ezaugarritzen dira ongizate eta zaintza erregimenak (Daly eta Lewis, 2000; Rodríguez, 2015). Konfiantza prozesuek zaintza-eragile horiengan betzen duten funtzio ulertzeko, esparru horien berezko ezaugarriak eta elkarren arteko loturak ezagutu behar dira, eta familian, esparru profesionalean zein komunitate mailan ematen diren interakzio sozial ezberdinak identifikatu (Thomas, 1993). Hori dela eta, ikerketa honetan konfiantza modu kokatuan aztertzearen garrantzia nabarmentzen da, zaintza-eragile bakoitzarekiko konfiantzari lotzen zaizkien balio eta sinesmen soziokulturalei erreparatuta (Markovà eta Gillespie, 2007). Neurbide estandarizatu eta dimentsio bakarraren ikuspegitik aztertu ordez, konfiantzaren esanahia sortzen den testuinguruari loturik ulertzearen beharra nabarmentzen da (Pirtilä-Backman, 2017).

Bestalde, Schwartz-en (1992) balioen egitura eta Inglehart-en (1998) modernizazioaren tesia kontuan hartuta, balio soziokulturalak eta horiek konfiantzarekin daukaten harremana aztertzeke ikuspegi integratzailea eskaintzen da, balioen eta konfiantzaren arteko loturak maila indibidualean aztertzeke datorren hutsunea betez (Devos et al., 2002; Morselli, Spini eta Devos, 2012, 2015). Inglehart-en (1998) teoria klasikoaren ikuspegitik, konfiantza maila makroan aztertu izan da, hau da, konfiantzan eragiten duten alderdi sozioestrutural, kultural eta ideologikoetan arreta ipiniz. Herrialde eta kultura ezberdinen arteko konfiantza-mailari buruzko azterketak ere hurbilketa

honetatik jorratu izan da (Inglehart, 1990, 1999). Konfiantza aztertzerako garaian analisi maila ezberdinen berezitasun eta garrantzia kontsideratuta, ikerketa honetan prozesu psikosozialak kulturarekin uztatzeko ahalegina egiten da, horrek konfiantza testuinguratzen eta hobeto ulertzen laguntzen du. Balioen konfigurazio eta eraldaketan arreta ipintzeak, zaintzaren indibidualizazioak eta digitalizazioak zaintza-harreman eta praktiken garapenari begira izan ditzakeen inplikazioak ulertzeko gako batzuk eman ditzake (Comas d-Argemir, 2019; Fine, 2013).

Etorkizuneko ikerketei begira, garrantzitsua izan daiteke gizartean zaintza emateaz arduratzen diren aktore eta eragileenganako konfiantza aurreikusten duten ideia, sinesmen eta jarreraren azterketan sakontzen jarraitzea. Horrekin batera, konfiantzaren azterketara ikuspegi kualitatibotik hurbiltzeak kontzeptuaren esanahia, kokatzen den testuinguruan sakonago ulertzen lagunduko luke. Era berean, egoera eta testuinguru sozio-historiko ezberdinen arteko antzekotasunak eta ezberdintasunak hobeto ulertzea ahalbidetuko litzateke. Bukatzeko, zaintzaren demokratizazioaren aldeko aldarriek, zaintzak familia esparrutik harago eramatearen beharra mahaigaineratzen du, erakundeen, komunitatearen eta gizonezkoen partaidetza eta konpromisoa bultzatuz zaintzaren banaketan eta zaindua izateko eskubidean (Ezkerra, 2018). Hortaz, garrantzitsua da norabide horretan diren estrategia soziopolitikoek zaintzaren esparru publiko eta komunitarioan herritarren konfiantza areagotzen dituzten faktoreak zeintzuk diren kontuan izatea.

Ikerketaren mugak

Zaintza-eragileenganako konfiantza testuinguru soziokultural eta historiko jakin batean modu transbertsanean aztertzen den aldetik, lan honetan aurkezten diren emaitzak eta ondorioak tentuz interpretatu behar dira. Ikerketa honetan emaitza horien orokortzeak sortu ditzakeen arazo eta mugak kontsideratzen dira. Ondorioz, etorkizunera begira laginaren tamaina handiagoak eta azterketa longitudinalak garatzeak zehaztasun eta fidagarritasun handiagoa emango lioke lanari.

10

Azken ondorio eta gogoetak

10.1. Mende honetako larrialdi soziala

Egungo gizartearen ongizatean eta demokratizazio prozesuan zentrala da menpekotasunaren eta zaintzaren gaia. Nekez hitz egin daiteke ongizateaz, berdintasunaz eta justiziaz zaintzaren eta eguneroko bizitza sostengatzeko egiten diren lan horiek guztiak kontuan izan gabe. Tradizionalki ahanzturan eta emakumeen esku utzitako jarduna izaki, eta maila soziopolitikoan, ekonomikoan eta humanoan dituen inplikazio guztiengatik, inoiz baino premiazkoagoa da gaiari heltzea.

Bizi ditugun askotariko krisien artean, zaintzaren krisia hainbat faktoreren ondorioz sortua da: besteak beste, emakumeek lan merkatuan eta espazio publikoan duen presentzia handiagoa, hiriko bizitzaren atomizazioa, egitura familiarren txikiagotzea, sare sozial eta komunitarioen haustura, iraultza demografikoa edota gizonezkoek oraindik orain zaintza-lanekiko ardura eza (Comas d-Argemir eta Bofill-Poch, 2022; Pérez-Orozco, 2006). Hortaz, familiek etxeko eremuan zaintzeko tradizionalki izan duten gaitasun eta prestutasuna txikiagotuz joan da, politika publikoetatik arazoari eman izan zaion irtenbidea ere ahula izanik. 2006an autonomia pertsonalaren sustapenerako eta menpekotasun-egoeran dauden pertsonen laguntzeko legea onartzeak epe-luzeko zaintza gai sozial eta publikoa izan zedin mugarri izan bazen ere, haren garapena eta eraginkortasuna ez dira esperotakoak izan (Aguilar-Hendrikson, 2020; Comas-d'Argemir, 2015). Egoera horren aurrean, eta familian zentratutako zaintzaren kultura birsortuz, administratibotik zaintza-zerbitzuak ordaintzeko prestazio ekonomikoak lehenetsi dira eta familiek zaintza delegatzen dutenean, kasu gehienetan, merkatuan emakume atzeritarrak kontratatuz egiten dute (Bettio, Simonazzi eta Villa, 2006; Martínez-Buján, 2011; Nogueira eta Zalakain, 2015).

Egungo gizarte aurreratuetan adineko gehiago dago zaintza premiekin, eta aurrerantzean ere gero eta pisu gehiago hartuko dute zaintza arloko eta zahartzaroari begirako jardunak eta ekonomiak. Maria Angeles Durán-ek (2018) izendatu bezala, testuinguru horretan klase sozial berri bat ari da sortzen, gazteleraz *cuidatoriado* edo euskaraz *zaintzailegoa* deitu dakiokena. Klase hori, trukean dirurik jaso gabe senideak zaintzen dituzten emakume helduez zein ordainpeko zaintzaileez osatuta dago. Lan-sektorearen feminizazioa erabatekoa da, eta horien adierazle dira Populazio Aktiboaren Inkestan (2019) oinarrituta, Comas-d'Argemir eta Bofill-Poch-ek (2022) berriki

adierazitako datuak. Horien arabera, etxeko eta zaintza lanetan aritzen diren pertsonen %98,3 dira emakumeak, eta horien artean gehienak migratutako pertsonak dira; besteak beste, egoitzetako zaintzaileen %25,6, etxez-etxeko laguntza zerbitzuen %49,2 eta etxeko langileen %62,2 dira atzerritarrak. Barneko zaintzaile gisa 24 orduz lan egiten dutenen kasuan, berriz, gehienak dira atzerritarrak. Ezaugarri horiek azaleratzen dute zaintzaren arkitektura guztiz estratifikatua dagoela eta zaugarria dela, genero, klase eta migrazio-estatusen oinarrituta (Bofill-Poch eta Márquez, 2022).

Errealitate hori iraultze aldera, beraz, funtsezkoak dira, batetik zaintzaren balioaren aitortza eta lan-baldintzen hobetzea eta zaintza-lanaren profesionalizazioa eta garapenerako aukerak sustatzea, bestetik. Ildo horretan, handiak dira feminismotik zaintza lanak ikustarazteko egindako ekarpenak; besteak beste, bizitzaren erreproduzioak dituen kostu ekonomiko eta sozialak aztertu eta produkzio kapitalistan zaintza-lanek duten oinarrizko funtzioa azaleratzea (Fraser, 2012; Pérez-Orozco, 2006). Espazio sozioproduktibo demokratikoagoetara bidean, aipagarriak dira berriki eta bereziki Europan, zaintzaren errenta baten alde borrokatzeko ahotsak (Barca et al., 2020; Vega eta Torres-Santana, 2022).

Alderdi sozioekonomikoekin loturan, nabarmentzekoa da zaintzaileen osasun eta ongizatean zaintzaren zamak duen inpaktua (Esteban, 2003; Sancho eta Del Barrio, 2021). Aurrez egindako ikerketetan, denboran zehar pertsona baten zaintzaz arduratzeak osasun fisiko eta emozionalean eragiten duen kaltea mahaigaineratu izan da, ondorio ohikoenak depresioa, antsietatea eta estresa izanik (Casado eta Sacco, 2012; Vlachantoni et al., 2016). Zaintzaren esperientzia positiboa eta goxoa izan daitekeela ukatzen ez den arren, egun egiten den baldintzetan egiteak pertsonen ondoezak eta ezberdintasun sozialak areagotzen ditu (López, Lizaso eta Sanchez de Miguel, 2007). Horrekin batera, ezin da ahaztu egun menpekotasun-egoeran dauden pertsonen laguntza eta zaintza beharrak konplexuagoak direla, eta garai batean zirena baino gehiago luzatzen direla denboran. Ondorioz, epe-luzeko zainketa prozesuak sakrifizio eta sufrimendu handiz bizitzen ditu bai menpekotasun-egoeran dagoen pertsonak, eta baita zaintzaren ardura hartzen duten pertsona eta sistema familiarrak ere (Sancho eta Del Barrio, 2021).

Bestalde, zaintza-lanen debaluazioa modu nabarmenean azaleratzen da zaintza edo arreta adineko pertsoneri zuzendua dagoenean; haurren zaintzak bizitza eta etorkizuna proiektatzen dituen bitartean, adinekoen zaintza biziaren eta gorputzaren gainbeherarekin eta heriotzarekin lotzen da, eta gizartearen erdigunetik desagerrararazten da (Comas d-Argemir eta Bofil-Poch, 2022). Hala izatearen arrazoiak artean daude, besteak beste, gizartean gailentzen diren, eta pandemia testuinguruan begi-bistan geratu diren adinkeria eta balio produktibistak (García-Soler et al., 2020). Zein gizarte mota da baina, pertsonen balio eta duintasuna ekoizpen eta kontsumo ahalmenaren arabera bereizten duena? Ikusi besterik ez dago populazioaren zahartzea herrialdeen garapen ekonomikorako baliatzen ari den, eta interes politiko nabarmena pizten duen *zilarrezko ekonomia* (Adinberri, 2017; Europar Batzordea, 2018).

Zahartzaroa urteetan luzatu den honetan, merkatu logikaz harago askotariko adinekoek gizartean duten tokia eta egunerokoan egiten duten ekarpena (senideen zaintza, parte-hartze soziopolitikoak, ezagutzaren transmisioa etab.) balioan jartzea garrantzitsua izango da gizarte kohesionatu bat sustatzera begira. Hortaz, belaunaldi ezberdinen arteko elkar-harremanak, laguntza sareak eta komunitate zentzua sendotzeak garrantzia izango du zaintzarekin konprometitutako jendarte batean. Horri lotuta, esan beharra dago zahartzaroaren irudia nabarmen aldatu dela azken hamarkadetan, eta Comas-d'Argemir eta Roigé-k (2018) aipatu bezala, *zahartze berriak* direla gure gizarteko aldaketa sakonenetako bat. Egun, zaharrak gizarte honen eraldaketaren eragile aktibo dira, ahots propioa daukate eta hala aldarrikatzen dituzte beraien eskubide eta nahiak. Zentzu horretan, zahartzaroaren birdefinizio baterantz abiatu beharra daukagu, gure artean, esaterako, Javier Yanguas-ek (2021) "Pasos para una nueva vejez" liburuarekin eta Mari Luz Esteban-ek (2019) "Andrezaharraren manifestua" poesia liburuarekin zabalduetako bidetik.

Alabaina, aipatutako zahartze horren ezaugarriek zerikusi gutxi daukate menpekotasun-egoerarekin, erabakimen gaitasun urriarekin eta intentsitate haundiko zaintza beharren agerpenarekin. Izan ere, adinkerian, produktibitatean eta kapazitismoan oinarritutako estigma sozialak modu nabarmenean azaleratzen dira zahartzaroko bizi-egoera hauetan (Comas-d'Argemir eta Bofil-Poch, 2022). Menpekotasun-egoerek zahartzaroaren alde iluna eta tristea irudikatzen dute, non oraindik orain ez daukagun horiek duinago egiteko

baliabide eta egitura nahikorik. Pentsamendu mailan, zaintzaren teoria anglosaxoiek menpekotasunaren birkontzeptualizazio bat bultzatzeko ekarpen handia egin dute; zeinaren arabera, ezin dugu menpekotasuna beste pertsona batzuei (zaharrak, gaixoak, aniztasun funtzionaldunak etab.) gertatzen zaizkien egoera edo istripu gisa ulertu. Aitzitik, jaiotzetik heriotzeraino, intentsitate ezberdinetan bada ere, elkarren arteko beharra dugun izaki hauskor eta menpeko gisa hauteman beharra daukagu gure existentzia (Paperman eta Laugier, 2005). Ikuspegi horretatik, eguneroko autonomia mugatua daukaten pertsona eta talde konkretuez harago, bizi baldintza komun gisa uler daiteke menpekotasuna. Ikuspegi hori barneratzeak zaintza politiken aitortza eta birbanaketan arreta gehiago jartzea ekarriko luke (Martín-Palomo, 2016; Tronto, 2013).

Premisa horretatik has daiteke menpekotasunaz eta zaintzaz modu positiboago eta errealistagoan kolektiboki pentsatzen eta duten balioaz jabetzen. Ikuspegi horrek ez garamatza denboran luzatzen diren menpekotasun, gaixotasun eta zaintza egoera handiek suposatzen duten zailtasun eta arazoak begi bistatik galtzera. Aitzitik, horri lotuta dagoeneko plazaratu izan diren eztabaida eta hausnarketa kultural eta etikoei heltzen jarraitu beharko da etorkizunean, bizitzaren amaierako eskubideak eta pertsonen ongizatea prozesu horietan lehenetsita (Durán, 2018). Hala, “etxean edo etxean bezala” zaindua izatearen populazioaren nahien inguruko eta des-instituzionalizazioaren diskurtso eta joeren baitan, zaintza behar handiak dituzten pertsonak artatzeko azpiegitura eta erreduez hausnartzen jarraitu beharko da. Ezbairik gabe, guztiok interpelatzen gaituen ertz eta erpin askoko gaia da eta egungo testuinguru sozial eta demografikoan gainera, gero eta pisu handiagoa hartuko duena. Lanerako gaiak eta galderak dagoeneko mahaigainean daude: nola erantzungo diegu gizarte bezala bizi dugun zaintza krisi eta defizitari? Nola nahi dugu zaintzea eta zainduak izan gaitezen? Nola aitortuko dugu zaintzeak duen balioa? Nondik eraiki behar da, eta nortzuk dira etorkizuneko zaintzarekiko konfiantza bermatu behar duten eragileak? Nola birpentsatu zaintzaren inguruan gailentzen diren balio sistema eta egitura emozionalak?

Zaintza kontratatzeak edo senidea egoitza batera eramateak dolua eta erruduntasuna eragiten du senide askorengan, sarritan pertsonaren borondatearen eta nahien kontra hartutako erabakiak izaten baitira (Comas-d’Argemir eta Bofill-Poch, 2022). Hala ere,

zaintza iturri bakar gisa familian konfiantza jartzeak, egungo bizi estilo eta balio berriekin bat ez egiteaz gain, ezberdintasun sozialak areagotzen ditu eta zaintzaren profesionalizazio eta demokratizaziorako oztopo handienetakotzat jotzen da (Moreno-Colom et al., 2017). Bide batez, pertsona askorentzat familia ez da aukera posible eta desiragarri bat izaten. Horrekin batera esan beharra dago, familiaren parte-hartzea ez dela zaintza kanporatzearekin edo erakundetzearekin amaitzen; kasuak kasu, egoera berrietan ere familiak presente jarraitzen dutelako zaintza-prozesuetan. Odoleko familiaz harago, bestelako eragileek zaintzan parte-hartzea kulturalki barneratzen ari garen aldaketa bat baldin bada, geure buruari galdetu beharko genioke nola nahiko genukeen erakundeek, profesionalek edota komunitateak gu zaindu gaitzaten. Zein leku eta zein rol izan behar dute eragile horiek? Zer eska diezaiokegu familiari, eta zer profesionalei? Nolako bizikidetza eta arreta ereduak nahi ditugu? Goitik beherakoak diren eta errentagarritasun ekonomikoan oinarrituta dauden ereduak ez bagaituzte asetzen, nola eraiki arreta eredu horizontal eta burujabeagoak? Nola zaindu eta sarituko ditugu zaintzaileak?

Berriki bizitako osasun krisiaren kudeaketak agerian utzi du zaintza berriro ere etxera eta familien eskura itzultzeko arriskua; baita, zaintza ereduaren gainetik, eredu merkantilista eta adinkeria nagusitzen dela gizartean zein erakundeetan (Comas-d'Argemir eta Bofill-Poch, 2022; Deusdad, 2020). Inoiz baino argiago ikusi da ongizate eta zaintza sistema sendo bat izatearen garrantzia, gehien behar duten pertsonentzako eta gizarte osoarentzako euskarri finkoa eta iraunkorra izan dadin. Artikulazio horretan, ezinbesteko zeregina betetzen dute administrazio eta erakunde publikoek, ondo zaindua izatearen eskubide unibertsala ahalbidetzeko gaitasuna baitute. Zentzu horretan, pandemiaren esperientziaz geroztik, askori gustatuko litzaiguke pentsatzea aurrekontu publikoen balantza zaintza-sistema indartzera eta arreta ereduaren eraldaketaren mesedetan jartzen hasia dela pentsatzea; era berean, testuinguru horrek elkarrenganako lotura eta beharrez kolektiboki hausnartzeko parada eman digun heinean, gaiarekiko sentsibilizazio sozial handiagoa dagoela pentsatzea. Dena den, azken urteetan agenda publikoan gero eta presentego dagoen gaia den arren, harrigarria da oraindik duen ikusgarritasun falta eta erantzun sozial eta politiko eskasa.

Doktorego tesi honek ur handi horietan murgiltzea eta egungo testuinguruan pil-pilean dauden auziak ulertzea izan du xede, gizarte psikologiak arazo sozial eta komunitarioak aztertzeko eskaintzen duen ikuspegi sentsible eta konprometitua baliatuta. Zentzu horretan, zaintzaren antolaketa sozial berrietan eragin dezaketen ezagutza eta baliabideen gainean ikertzea ezinbestekoa da gizarte garapena eta kohesio bultzatzeko, eta pertsonen ongizate psikosozialean eragiteko. Bide horretan, asko zor diegu fenomenoaren azterketa ekonomia, soziologia eta antropologia feministatik jorratzen dutenei edota gerontologia eta aniztasun funtzionalaren inguruko jakintza esparruei. Irudikapen sozialen teoriak bere hastapenetik badu bokazio bat jakintza esparru ezberdinetatik eratorritako ezagutzak harremanean jartzeko. Baita gizarte psikologia sozialagoa bultzatzekoa ere (Lopes eta Gaskell, 2015). Hain zuzen ere, arazo eta larrialdi sozialekin konprometitutako psikologiaren ikuspuntuak sentsiblea behar du izan bizi den gizarte eta komunitatearekiko. Aldi berean, zaintzaren gaia bera gizarte psikologiarentzat zentralak diren prozesuak aztertzeko abagune da; esaterako, pertsona eta talde-arteke botere-harremanak, identitatearen eraikuntza, estatusa, ahalduntzea, errekonozimendua edota emozio sozialak (enpatia, eskertza, kulpa, obligazioa eta lotsa, etab.). Hortaz, irudikapen sozialen teoriaren hurbilketak aukera eskaintzen du prozesu horiek guzti horiek testuinguru kultural eta erlazional konkretuetan hartzen duten nolakotasuna ulertzeko.

Bestelako hurbilpen soziologiko edo antropologikoekin alderatuz, menpekotasunaren eta zaintzaren eguneroko esanahia nolakoa den hobeto ulertzen laguntzen digu tesi honek, eta aipatutako tentsio eta gatazka sozialak ezagutza mailan nola barneratzen eta integratzen diren erakusten da. Hau da, menpekotasunaz eta adinekoen zaintzaz ari garenean, jendeak zer eta nola pentsatzen duen ulertzeko marko teorikoa proposatzen da, eta aldi berean, bertan eragiteko garrantzizkoak diren alderdiei erreparatzen zaie. Bestalde, egindako lau azterlanek, bildutako informazioak, irakurketek eta gogoetek menpekotasunaz eta zaintzaz beste modu batetan pentsatzen jarraitzeko ekarpena egiten dute. Zaintza eredu tradizional eta berrien arteko bidegurutzean, gaiaz modu kolektibo eta justuago baten pentsatzeko gogoeta prozesu baten emaitza ere bada hau. Horregatik, beste irudikapen batzuei bidea eman ahal izateko, garrantzitsua da lehenik eta behin jendeak egunerokoan fenomeno nola bizi eta ulertzen duen ezagutzea, eta

azaleratzen diren kontraesan eta tentsio soziokulturalak kudeatzeko gaitasun kolektiboak garatu ahal izatea.

Menpekotasunaren eta zaintzaren irudikapen sozialaren azterketan murgildu asmoz, honako ikerketa-galderekin gidatu dute ibilbide hau: (1) zeintzuk dira jendeak gaur egungo gizartean menpekotasuna eta epe-luzeko zaintzen inguruan dituen ideia eta ezagutzak? (2) Nola ari dira eraldatzen menpekotasunaren eta epe-luzeko zaintzaren inguruko esanahiak garaiko aldaketa soziokultural, politiko eta ekonomikoen testuinguruan? (3) Zer nolako harremana du zaintzari begirako konfiantzak pertsonen eguneroko ongizatean? (4) Zeintzuk dira konfiantzaren oinarri soziokulturalak menpekotasunaren eta epe-luzeko zaintzaren testuinguruan? Lehen bi galderak fenomeno egunerokoan nola kontzeptualizatzen den ezagutzera zuzenduta daude; hirugarren eta laugarren galderak berriz, maila aplikatuagoan ekarpena egite aldera, zaintzarekiko ongizatea sustatzera begira konfiantzaren eraikuntzak dituen inplikazioak mahaigaineratzera zuzenduak daude.

Lau azterlanetan gorpuztu diren ikerketa-galderak oinarri hartuz, jarraian datozen ataletan horiei buruzko ondorio eta gogoeta orokorrak jorratuko dira. Lehenik eta behin, egungo testuinguruan menpekotasunaren eta zaintzari buruzko esanahiaren eraldaketa zertan datzan azalduko da, eduki zein prozesu mailan. Ondoren, pertsonen familiak gaindiko zaintzan daukaten konfiantzan eragiteak zaintza ereduaren eraldaketari eta ongizatearen sustapenari begira izan ditzakeen inplikazioak mahaigaineratuko dira; era berean, esparru horretan erakundearen eta komunitatearen garrantzia ere nabarmenduko da. Azkenik, tesiaren inplikazio sozialak, mugak eta etorkizuneko ikerketa aukerak jorratuko dira.

10.2. Menpekotasuna eta zaintzaren esanahiak gizartean

Tesi honen ekarpen garrantzitsuetako bat menpekotasuna eta zaintza irudikapen objektu polemiko gisa aztertzei baliaitutea ikuspegi teorikoa da. Zentzu horretan, irudikapen sozialaren ikuspegi dialogikoa eta polifasia kognitiboaren kontzeptua baliaituta, gizartean aldaketan den eta gatazka iturri den fenomeno sozial baten inguruan jendeak nola pentsatzen duen ezagutzeko aukera ematen da. Baita ezagutzaren eraikuntza eta eraldaketa hori nola gauzatzen den azaldu ere (Jovchelovitch, 2007; Jovchelovitch eta

Priego-Hernandez, 2015). Aurrez egindako ikerketetan zaintzaren eta zahartzaroari buruzko irudikapen sozialak landuak izan diren arren, irudikapen sozialaren eduki eta prozesuak ikuspegi dialogiko honetatik lantzea berritzailea dela esan daiteke. Hortaz, menpekotasunari eta zaintzari buruzko eztabaida eta aldaketa soziala nola irudikatua den ulertzeko gako batzuk eskaintzen ditu doktorego tesi honek. Horien artean nabarmentzekoak dira zaintza eredu tradizionaletik eta “berri”-etatik eratorritako ezagutza eta balioen arteko talka. Horrek gizartean gaiaren inguruan dagoen eztabaida eta bizitzen ari diren prozesu soziokulturalak bistaratzen ditu, jendeak hari buruzko ezagutzak testuinguruarekin interakzioan eraikitzen dituela erakutsiz (Moscovici eta Marková, 2000). Ondorioz, ezin da hitz egin menpekotasunaz eta zaintzaz modu hertsia eta estatikoan, etengabe eraldatzen eta kulturalki kokatua den fenomeno sozial gisa baizik (Jovchelovitch, 2007). Hain zuzen ere, irudikapen soziala dialogikoki aztertu eta lantzearen garrantzia horretan datza, hau da, tentsio eta eztabaida iturri diren fenomeno sozialen hari-mutur eta posizio ezberdinei heltzeko hurbilpen dinamikoan (Marková, 2003).

Irudikapen sozialen eraikuntza ainguraketa eta objektibazio prozesuen bidez gauzatzen dela aipatu da marko teorikoan (3.4. atala). Tesi honetan, bereziki menpekotasuna eta zaintzaren esanahia ainguratzen duten elementu antinomikoetan jarri da arreta, hau da, objektu sozial ezezagun eta berri bat jendearentzat ulergarri izatea ahalbidetzen duen esanahia soziokultural eta sinbolikoen arteko tentsio eta gatazkan (Höijer, 2011). Modu horretan, Moscovici-ren (1961) jatorrizko asmo teorikoekin bat egiten da, menpekotasuna eta zaintzari buruzko ezagutza soziala gizartean nola hedatu eta eraldatzen den aztertzeari dagokionean. Tesiaren ekarpen teoriko garrantzitsuenetako bat aipatutako marko teoriko eta epistemologikoaren baitan kokatu daiteke, gizartean ematen ari diren eztabaida eta eraldaketak pertsonak egunerokoan nola irudikatzen eta komunikatzen dituzten ezagutzeko aukera ematen duen aldetik.

10.2.1. Ezagutza tentsio eta gatazkak

Lehen ikerketa-galderari erantzunez (zeintzuk dira jendeak gaur egungo gizartean menpekotasuna eta epe-luzeko zaintzen inguruan dituen ideia eta ezagutzak?), menpekotasunari eta zaintzari buruzko irudikapen soziala jatorri ezberdinetako ezagutzen arteko tentsio eta kontraesanen bitartez artikulatzen dela ondoriozta daiteke.

Hori bera iradokitzen du tesiko lehen azterlanak. Bertan, gaiarekin inplikaturako aktoreek (senideak, zaintzaileak eta zainduak) fenomeno nola irudikatzen duten erakusten da; menpekotasuna eta zaintza moduko fenomeno sozial “berri” eta polemikoaren esanahia kolektiboa, jatorri ezberdinetako ezagutza eta balioen koexistentzia eta tentsioaren bitartez nola eraikia den azaleratzen da. Tentsio eta gatazka horien adierazle dira landutako emaitza tematikoak – *familismoa vs. individualismoa, erreprodukzioa vs. erreprodukzioa, menpekotasuna vs. autonomia, naturalizazioa vs. profesionalizazioa, etxea vs. egoitzak, partekatze komunala vs. merkantila eta zaintza praktikoa vs. emozionala* –. Horien bitartez, menpekotasunari eta zaintzarekiko esperientziari loturik pertsonen bizi dituzten tentsio eta kontraesan kultural eta moralak adierazten dira; esaterako, familiak zaintzeko duen betekizuna, kontziliaziorako zailtasunak, feminitateari eta afektuetan naturalizatutako jardunaren profesionalizazio eta merkantilizazioa, instituzionalizazioa edota produktibitateari eta buruaskitasunari lotutako ideien pisua adinekoaren autokontzeptuan. Gatazka horiek zaintzaren krisi eta merkantilizazio prozesu betean zentzua hartzen dutela esan daiteke, egoera horretan senideen, zaintzaileen eta adineko zainduen bizipen eta ikusmoldeetan daukaten inpaktua azaleratzen baitute.

Bestalde, irudikapen sozialen bitartez, ezagutza eta diskurtso zientifikoak egunerokoan nola barneratzen diren uler daiteke (Moscovici, 1984). Ildo horretan, menpekotasunari buruzko diskurtso profesional eta politiko-administratiboak hari buruzko eguneroko pentsamendua objektibizatzen duela esan daiteke. Hartara, menpekotasuna lotzen da, batetik, eguneroko autonomia funtzional eta kognitiboa garatzeko mugekin eta, bestetik, hirugarren pertsona baten zaintza beharrarekin. Iruditeri publikoan, menpekotasuna modu konkretuan lotzen da zahartzaroarekin eta aniztasun funtzional edo gaixotasun-egoerekin; hala, zaugarri horiekin lotutako pertsona eta kolektiboak “menpekoak” bezala identifikatzen ditu (Garrau eta Le Goff, 2010). Alabaina, aniztasun funtzionalaren inguruetatik datozen ahotsek gogor kritikatu izan dute kulturalki menpekotasuna kontzeptualizatzeko dagoen modua (Pié, 2012; Planella, Moyano eta Pié, 2020). Ondorioz, maila kontzeptual eta semantikokoan menpekotasunaren kontzeptua bera eztabaidagai garrantzitsua da, eta gizartean errotutako ezagutza komuna termino sozial eta inklusiboagoetan berreraikitze beharra eskatzen du.

Fenomeno sozialei buruzko esanahiak kulturalki eta dialogikoki eraikiak direla erakusten den aldetik, menpekotasunaren esanahia modu berean berreraiki eta alda daiteke, eta gailentzen diren diskurtso biomediko eta positibistek dituzten inplikazioa soziopolitiko eta etikoak mahaigaineratu (Artiaga, 2015).

Autonomia erlazionalari buruzko posizionamenduarekin bat eginez, ez da ulertzen menpekotasuna autonomiari kontrajartzen zaion bizi egoera bat bezala, giza autonomia sor dadin funtsezko osagai gisa baizik (Mackenzie eta Stoljar, 2000). Kontzepzio hori barneratzeak eragin zuzena du, alde batetik, zaintzaile eta zainduaren self-aren eraikuntza eta ahalduntzeari begira eta, bestetik, komunitate bizitzan bestearen beharrezkotasuna eta elkarloturak aitortuko dituzten ikuspegiak eta praktikak sustatze aldera (Jovchelovitch, 2007; Marková, 2016). Hartara, geure buruari galdetu beharko genioke nola has gaitzkeen menpekotasunaz eta zaintzaren beharrezkotasunaz interdependentziaren logikatik pentsatzen. Izan ere, menpekotasuna eta zaintzak izendatzeko eta pentsatzeko moduek, funtzio garrantzitsua betetzen dute generoaren ordena soziala eta zaintzari lotutako lan eta aktoreei gizartean ematen zaien balioan (Artiaga, 2015).

10.2.2. Zahar eta berriaren arteko interakzioak

Lehenengoarekin harremanean eta bigarren ikerketa galderari erantzunez (Nola ari dira eraldatzen menpekotasunaren eta epe-luzeko zaintzaren inguruko esanahiak garaiko aldaketa soziokultural, politiko eta ekonomikoen testuinguruan?), menpekotasuna eta zaintzari buruzko ezagutza eta paradigmen trantsizioa azaleratzen da, eta aldaketa soziokulturalak kognitiboki nola adierazten diren erakusten da. Jovchelovitch eta Priego-Hernández-en (2015) polifasia kognitiboaren eredu teoriko berritzailea baliatzen da horretarako.

Azken hamarkadetan, polifasia kognitiboari buruzko ikerkuntza oparoa izan da irudikapen sozialen teorian (Provencher, Arthi eta Wagner, 2012; Renedo eta Jovchelovitch, 2007; Wagner et al., 1999). Hala ere, ikerketa gehienetan eduki mailan aztertu izan da, eta alderdi prozesualei ez zaie horrenbesteko arretarik eskaini. Hortaz, bigarren azterlanean erakutsitakoaren ildotik, menpekotasuna eta zaintzari buruzko irudikapen soziala, eduki mailan ez ezik, prozesu mailan ere nola adierazten den aztertu nahi izan da. Horren ekarpen teoriko nagusia da ulertzea modernitateak eragindako

fenomenoari buruzko ezagutza berriak eta aldaketak, soziokognitiboki nola barneratu eta kudeatzen diren. Psikologian, oro har, eta gizarte psikologian konkretuki, teorikoki zein enpirikoki oso arreta gutxi eskaini izan zaio ezagutzaren eraldaketaren oinarrian dauden prozesu soziokognitiboak azaltzeari (Jovchelovitch eta Priego-Hernández, 2015). Hortaz, Priego-Hernández-ek (2017) *Journal of Health Psychology* aldizkarian argitaratutako osasun sexualaren inguruko lana arlo horretan aitzindaria eta erreferentea dela esan daiteke. Eredu hori gure ikergai eta testuingurura ekarriz, egun menpekotasunari eta zaintzari buruzko ezagutza eta balio modernoek tradizionalekin nola interaktuatzen duten islatzen da doktorego tesi honen bitartez.

Aldaketa eta prozesu soziokulturalak ezagutza mailan nola kudeatzen diren erakusten da, aldaketa prozesu guztiek suposatzen duten ezagutza gatazkei pertsonen nola erantzuten dieten azaleratuz. Besteak beste, agerian uzten da pertsonen nola bereganatu eta bizitzen dituzten posizionamendu eta ahots ezberdinetatik zaintzari buruzko esanahia berriak; horien artean, zaintzaren kanporatzea ta erakundetzea, lanaren balorazioa eta profesionalizazioa edota arreta paradigmen aldaketa. Esanahien arteko koexistentzia hori kudeatzeko moduetan azaleratzen da, hain zuzen ere, prozesu kulturek egitura soziokognitiboekin duten interdependentzian, hots, ezagutza eta testuinguruaren arteko loturan (Jovchelovitch, 2007). Etengabe mugimenduan dagoen gizartean, menpekotasunari eta zaintzari buruzko ezagutza prozesuak linealki baino, ziklikoki eta tokiko testuinguru eta garaiaren arabera hedatu eta suspertzen dira, zaharra eta berriaren arteko etengabeko birdefinitzean (Jovchelovitch eta Priego-Hernández, 2015). Zentzu horretan, eraldaketan diren esanahiei erreparatzea baliabide eta informazio iturri garrantzitsua izan daiteke zaintzaren arloan berrikuntza eta hobekuntzak bultzatzeko.

10.3. Konfiantzaren eraikuntza zaintza ereduaren eraldaketan

Zaintzari buruzko esanahi eta espektatiba soziokulturalak ezbaian dauden honetan, garrantzitsua da gizarte mailan familiaz gaindiko zaintza-eragileetan dagoen konfiantza maila handitzea. “Non familian eta etxean baino hobeto?”, “Nork zainduko nau, nire familiak ez bada?” bezalako kezka eta ziurgabetasunen aurrean, erakargarriak izan daitezkeen eta segurtasuna emango diguten zaintza ereduak sustatzea funtsezkoa da.

Irudikapen sozialen teoria oinarri harturik, zaintza esparru ezberdinetako konfiantza testuinguru kultural eta sinbolikoarekin harremanetan ulertzeko markoa proposatzen da tesi honetan (Jovchelovitch, 2007). Horrenbestez, menpekotasuna eta zaintza gizartean nola irudikatuak diren ulertzearekin bat, adierazten diren tentsio eta eraldaketei erreparatzea garrantzitsua da testuinguru horretan jendearen konfiantza kontzepzioak nolakoak diren ulertzeko; baita berau sustatzeko estrategiak abiatzeko ere. Jorrotutako ikuspegiak konfiantza konstruktio soziokultural eta erlazional gisa ulertzeko eta operazionalizatzeko aukera eskaintzen du, non familia, komunitate, estatu eta merkatuaren arteko interakzio eta parte-hartzearen arabera definitzen den haren esanahia (Daly eta Lewis, 2010; Razavi, 2007). Zentzu horretan, tokian tokiko zaintza errealitatea eta harremanen dinamikak ezagutzea ezinbestekoa da konfiantza prozesuak aztertu ahal izateko. Marková eta Gillespie-k (2007) irekitako bideari jarraiki, konfiantza ez da kontzeptu abstraktu eta orokorra, testuinguru kulturean eta interakzio sozialen dinamikan errotutako kontzeptu kokatua eta polisemikoa baizik. Alde horretatik, literaturan gailentzen den kontzeptualizazio dimentsio bakarrekin alderatuta, maila kokatuan lantzen da konfiantza.

Egungo gizarte konplexu eta anitzean, konfiantza ikuspegi horretatik lantzeak garrantzia berezia dauka, tokian tokiko prozesu eta dinamika psikosozialak hobeto ulertzeko ekarpena egiten duelako. Gainera, zaintzaren kanporatze eta profesionalizazioaren ondorioz, zaintzaile eta zainduen arteko harremanak konplexuagoak bilakatu dira egun; aldiberean uztartu eta kudeatzen baitira izaera familiarra, profesionala eta komunitarioa duten harremanak, eta baita zaintza mota ezberdinak ere, materiala zein emozionala, formala zein informala (Cerri eta Alamillo-Martínez, 2012). Adibide gisa balio duten bi egoera: (1) zaintzaile profesional batek oso gertuko harremana eraiki dezake zainduarekin, baina ez dute zertan lagunak edo maitatuak izan; (2) etxean elkarrekin bizi diren zaintzailea eta adinekoa, bestea senidetzat jotzen duten arren, beraien arteko harremana merkatu logikak baldintzatzen duena. Zaintza egoera ezberdinetan, beraz, konfiantzaren esanahia kokatua eta aldakorra da, eta ikuspegi monologiko batetik baino, dialogikoki baizik ezin dira ulertu hari buruzko esanahiak. Irudikapen sozialen lengoia batetik, self-beste-objektuaren arteko interakzioan baizik ezin da ulertu konfiantza (Gillespie, 2007; Linell, 2009).

Azkenik, irudikapen sozialen teoriak literatura feministarekin dituen kidetasunak erakutsiz, zaintzaren alderdi erlazionalak eta aktore ezberdinen artetik sortzen diren interakzioak lantzeko aukera ematen du konfiantzaren azterketak (Gilligan, Tronto eta Hochschild, 2013). Zentzu horretan, konfiantza izatea ongizate psikosozialerako funtsa dela ikusita, garrantzitsua da horren azterketak zaintza harreman eta praktikak hobetzeari egin dakioken ekarpena. Hain zuzen ere, hirugarren eta laugarren azterlanak asmo horren bueltan kokatzen dira. Hau da, zaintzari begirako konfiantzak ongizatearekin duen harremana nolakoa den aztertzen batetik, eta bere sustapenean lagun dezaketen alderdi soziokulturalak identifikatzen, bestetik. Zaintza sozializatzearen eta demokratizatzearen aldeko ahotsekin bat eginez, bereziki garrantzitsua da jendeak gizarte zibilarengan edo komunitatearengan eta erakundeengan (zerbitzu sozialak, egoitzak etab.) duen konfiantzan eragitea ongizatearen sustapenari eta ereduaren eraldaketa proposamenei heltzeko.

10.3.1. Erakundeak, zaintza eta ongizatearen zutabe

Esan bezala, konfiantza askotariko harreman eta dimentsioz osatutako konstruktio psikosoziala dugu; zaintzaren testuinguru ezberdinei lotutako ikuspegi, portaera eta emozioak aurreikusteko gaitasuna izateaz gain, pertsonen osasunean eta ongizate psikosozialean inplikazio zuzenak dituen (Helliwell eta Wang, 2011). Literaturak iradokitzen duenaren ildotik, konfiantza zaintza-harremanen artikulaziorako funtsezko osagaia da eta elkarren arteko konfiantza izatea, beraz, zaintzaile, senide eta zainduaren ongizate eta segurtasunaren bermea da (Baier, 1994; Sevenhuijsen, 2003).

Tesi honen 3. ikerketa galderari erantzunez (Zer nolako harremana du zaintzari begirako konfiantzak pertsonen eguneroko ongizatearekin?), nabarmentzekoa da zaintza-eragile guztienganako (familia, lagunartea, komunitatea, erakundeak) konfiantzak, ongizate psikosozialaren adierazle garrantzitsu den konfiantza orokorrarekin duen harremana. Gainera, hirugarren azterlanean erakutsitakoaren ildotik, adinean aurrera joan ahala, erakundeenganako konfiantza izatea pertsonen konfiantza orokorraren adierazle garrantzitsu bat dela erakusten da Covid-19aren osasun krisiaren garaian egindako ikerketan.

Idea hori bat dator tesi honetan defendatzen den zaintzarekiko ikuspegi eta posizioarekin, eta familiaz gaindiko zaintza baliabide eta egiturek pertsonen ongizatea

hobetzera begira dituzten inplikazioez gogoeta egiteko aukera ematen du. Are gehiago, egungo testuinguruan administratibotik eta politika publikoetatik bideratutako baliabideen eraginkortasuna eta ahulezia begi bistakoa denean, eta Covid-19aren krisiak egoitzetan eta zaintza sisteman izan duen eragin negatiboa kontutan hartzen badugu (Comas-Herrera et al., 2020; Deusdad, 2020). Birusaren hedapenak eta heriotzarekiko beldurrak egoitzak zaintza aukera ez segurua gisa hautematea ekarri zuenez gero, ikusi beharko da aurrerantzean pertzepzio horrek zenbateko eragina izango duen eta nola egingo zaion aurre arreta sozialaren duintzeari.

Epe-luzeko zaintza politikak ongizate sistemaren funtsezko zutabe izanik, etorkizuneko estrategia eta proposamenen gako garrantzitsu bat populazioak erakundeekiko duen konfiantza maila hobetu eta sustatzea izan daiteke (Comas-d'Argemir, 2015). Asmo horri begira, eta laugarren eta azken ikerketa galderari erantzunez (Zeintzuk dira konfiantzaren oinarri soziokulturalak menpekotasunaren eta epe-luzeko zaintzaren testuinguruan?), konfiantzak zaintzaren testuinguruan duen konfigurazio soziokulturala erakusten da, giza balio unibertsalak konfiantzarekin nola lotzen diren erakutsiz.

Gure testuinguru kulturean nabaria da jendeak oraindik orain familian eta gertuko sareengan duen konfiantza altua, erakundeengan eta zaintzaren esparru formalarengan duen konfiantzaren aldean (Del Barrio eta Sancho, 2015). Hala ere, badirudi irudikapen edo kontzepzio aldaketa baten aurrean gaudela, non familiaz gaindiko aktore eta eragileek presentzia gehiago duten menpekotasunaren eta zaintzaren eguneroko kudeaketan. Hortaz, tesiko laugarren azterlanari erreparatzen badiogu, garrantzitsua izan daiteke erakundeenganako konfiantzarekin zerikusia duten alderdi soziokulturaletan arreta jartzea. Emaitzek iradokitzen dutenaren ildotik, talde-arteak berdintasuna eta justizia soziala babesten duten sinesmenekin lotua dago jendeak erakundeenganako duen konfiantza. Zentzu horretan, gizarteko sinesmen ideologikoetan eragiteak garrantzia izan dezake erakundeenganako konfiantza sustatzeari begira. Horrek zentzua hartzen du erakunde publikoek zaindua izateko eskubide sozial eta unibertsalak bermatzeko duten jatorrizko bokazioa kontsideratzen badugu; balio horien defentsa eta sustapenak gainera, sekula baino garrantzia handiagoa hartzen du ongizate sistema gainbeheran dagoen, eta logika pribatizatzaileak gorakada nabarmena izaten ari diren honetan (Moreno et al., 2014). Ildo beretik, justizia

sozialak eta berdintasunaren defentsak papel garrantzitsua hartzen dute erakundeetatik eratorritako zaintza zerbitzuekiko populazioak duen konfiantza sustatzerako orduan. Hain zuzen ere, balio demokratikoen pean sostengatzen baitira familia barruko zein gizarte mailako zaintza birbanaketa eta zaindua izatearen eskubide unibertsala (Comas-d'Argemir, 2019; Ezquerria eta Mansilla, 2018; Tronto, 2013).

10.4. Familismotik zaintza publiko eta komunitariorantz

Moscovici-ren (1984) familiarizazioaren tesiari jarraiki, jendeak egunerokoan fenomenoari buruz eraikitzen dituen irudikapen sozialak hobeto ulertzen laguntzen du konfiantzazko esanahiei erreparatzeak. Izan ere, konfiantzak ezaguna dugun eta geureganatuta daukagun munduari egiten dio erreferentzia, fenomeno sozialei buruzko gure ikuspegi eta praktikak gidatzen ditu, eta etorkizunean datorrenari heltzeko mekanismoa da (Luhmann, 2000; Simmel, 1950).

Logika tradizionalan, familia, etxekotasuna eta emakumeen doako esku-lana izan dira zaintza-kultura, antolaketa eta harremanen euskarri, eta irudikapen horiek neurri handian erakundeetako zaintzaren urruntasuna eta mesfidantza elikatu izan dute (Carrasco, Borderías eta Torns, 2011; Moreno-Colom et al., 2017). Mesfidantza hori Covid-19aren kudeaketaren ondorioz areagotu egin dela pentsa daiteke, egoitzekiko ohiko errezelo eta erresistentziak indartuz. Krisi egoeretan gainera, pertsonen segurtasuna eta existentzia jokoan jartzen direnean, balio kontserbadore eta materialistak modu nabarmenean adierazten direla esan ohi da, zaintzarekiko balio tradizionalak indartu eta berriarekiko esperimentazioa ekidinez (Inglehart, 1990, 1998).

Hala izanagatik ere, horrek ezin du ekarri berriz ere zaintzak esparru pribatuan mantentzeko ikuspegi eta interes ideologikoak babestea, baizik eta egoera horretatik indarberritu eta epe-luzeko zaintzei eusteko beharrezko ditugun baliabide eta egiturak indartzea. Zentzu horretan, diputazioetatik eta udaletatik bideratzen diren zaintza zerbitzu ezberdinak, eguneko zentroek eta egoitzek gizartean berebiziko garrantzia daukate zaintzaren etorkizun soziala bermatzeko. Hala ere, gailentzen diren zaintza aukeren bideragarritasun eta desiragarritasun eza kontuan izanik, dagoeneko eta datozen urteetara begira, garrantzitsua izango da bestelako zaintza eta arreta paradigma batzuetarantz bidea egiten ari diren egitasmo berritzaileei arreta jartzea.

Esaterako, egun ezagutzen ditugun egoitzak aldatzea, pertsonen nahi eta beharretara egokitzea, eta zaintzak behar dituzten pertsonak bizi diren inguruarekin eta komunitatearekin konektatuta bizitzen jarraitzea (Sancho eta Martínez-Rodríguez, 2021). Hain zuzen ere, zaintzaren antolaketa eta kudeaketan komunitate-harremanen berrindartzeak duen garrantzia modu berezian ari da azaleratzen (Hernaniko Udala, 2022; Moreno, 2018; Zuñiga-Ruiz de Loizaga, Llorente-Arretxea eta Valero-Alzaga, 2022). Zentzu horretan, komunitatearekiko konfiantzan eragingo duten sinesmenetan eragitea alderdi garrantzitsua izango da zaintza publiko eta komunitarioa deritzogun hori eraikitzen begira. Azken urtean Gipuzkoan ahoz aho dabilen zaintza ekosistemen planteamendua norabide horretan kokatzen dela esan daiteke; hau da, pertsonan eta komunitatean ardaztutako arreta ereduarentz trantsizioa egitean. Zaintza ekosistema horrek, ezinbestean partekatua beharko luke izan, tokiko erakundeek, profesionalen eta komunitatearen inplikazioa izango duena eta zainduaren beharrak ez ezik, zaintzaileenak ere aitortzen dituenak. Horrekin batera, komenigarria litzateke bereziki erakundeetatik datozen zaintza paradigma eta diskurtso berritzaileei lotutako hainbat kontraesan edo arazo azpimarratzea. Horien artean, des-instituzionalizazioaren eta etxean bizitzearen aldeko estrategia ekarri nahiko nituzke plazara; baita, zaintza komunitarioaren planteamendua bera ere.

Batetik, egoitza eredu tradizional eta despertsonalizatuaren alternatiba gisa, egun indarra hartzen ari den “etxean edo etxean bezala” diskurtsoa bi ahoko ezpata gisa ulertzea garrantzitsua da. Izan ere, hainbat arrazoi medio (baliabide ekonomiko eta espazioaren egokitasun eza, bakardadea, etab.) gaur gaurkoz etxean zaindua izatea ez da aukera duin, desiragarri eta segurua pertsona eta familia askorentzat. Jende gehienak inkestetan adierazten duen espektatiba eta lehentasun kultural honetan tematzeak, ez ote du bestelako bizikidetzaren eredu batzuetan pentsatzea oztokatzen?

Gaizki ulertu ez dadin, ez da hemengo asmoa soilik egoitzen aldeko defentsa egitea, baizik eta gaur egungo hainbat estrategia politiko eta adituengandik hauspotzen den etxearen aldeko ikuspegia problematizatzea, eta horrek izan ditzakeen arriskuez ohartaraztea. Ez dago zalantzarik etxean bizitzen jarraitu ahal eta nahi duenarentzat, norbere etxean bizi eta zaindua izateko baliabideak jarri behar zaizkionik; baina badira hainbat egoera, adibidez, norbere etxean bakarrik sentitu eta zaintzaile batekin bizitzen

egotea, ez duena zertan pertsonarentzat aukera onena izan, inplikatzeko duen bakardade eta monotoniagatik, bai zainduarena, baita zaintzailearena ere. Egun jende askok etxean bizitzen jarraitu ahal izaten du, zaintzaile atzerritar bat orduka edo 24 orduz kontratatuz; hori al da benetan nahi duguna? Zenbatekoa izan behar du etxean bizitzen jarraitzearen kostuak? Nork pairatzen ditu gure desio eta lehentasunen ondorioak? Zenbateko gaitasuna eta borondatea daukate erakundeek etxez etxeko zerbitzu profesional eta publikoak hedatzeko? Zenbat zaintzaile beharko lirateke pertsona bat asteko zazpi egunez eta 24 orduz artatzeko?

Gaur gaurkoz, eztabaida ez dago termino horietan kokatuta. Zer esanik ez, modu prekarioan eta errentan bizi diren adinekoen edota bazterketa egoeran dauden pertsonen kasuan bestelako aukerak sozializatzea eta unibertsalizatzea mesedegarria izan liteke, etxetik kanpo bizitzearen eta deserrotzearen estigma ekidite aldera (Means, 2007). Hortaz, etengabeko zaintza beharrak dituzten pertsonentzat egoitzak eta azpiegiturak bermatzea helburu estrategiko izanda ere, etxearen aldeko kontzepzio horren arriskuez gehiago hitz egin beharko litzateke. Izan ere, ongizate sistemak ezbaian eta gainbeheran dauden honetan, zaintzaren eredu familiarista birsortzen ari gara etengabe, eta, hain zuzen ere, zaintzaren antolaketa sozialaren eraldaketan zentzu komun horren naturalizazioa jarri beharko litzake kolokan (Comas-d'Argemir eta Bofill-Poch, 2021; Gálvez eta Rodríguez-Modroño, 2016). Egoitza batera joateko aukerak ondoeza eragiten die zaindutako pertsonari eta zaintzarako dituzten espektatibak eta autonomia eza etsipenez bizitzen dituzte kasu askotan; senideengan, bake-eta erruduntasun-sentimenduak eragiten ditu; zaintzaileen jardun eta bizipenek, berriz, ez dute beharko luketen aitortzarik. Zaintza ereduaren sakoneko eraldaketa batek zaintzaile, senide eta zainduen arteko interakzioetatik sortzen diren tentsio eta kontraesan kultural, moral eta emozionalen gaineko lanketa kolektiboa izan beharko luke oinarri, erakundeek eta komunitateak zaintzan inplikazio handiagoa izango duten paradigma eta zentzu komun berriei atea irekiz.

Bestetik, zaintza komunitarioaren inguruko diskurtso eta planteamenduak ditugu (Arrieta et al., 2018; Martínez Buján, 2019; Zúñiga Ruiz de Loizaga, 2020). Bauman (2003) eta Sennet-ek (2000) argudiatuko luketen erara, mendebaldeko gizarteetako modernitate berantiar eta indibidualistan gero eta nabarmenago azaleratzen ari da

komunitate harremanekiko daukagun beharra. Neurri handi batean, komunitate zentzuaren eta elkarren arteko behar-izana Covid-19ak eragindako isolamendu eta hauskortasun egoeran plazaratu zen, erakundeak desagerrarazi ziren momentuan familia, lagun, bizilagun eta boluntario-sareek zaintzan betetzen duten ezinbesteko funtzioa azaleraziz (Zuñiga-Ruiz de Loizaga, Llorente-Arretxea eta Valero-Alzaga, 2022). Gizarteak indibidualizaziorantz eta neurri batean demokratizaziora jo duen honetan, badirudi berdinen arteko harremanek eta sareek gero eta garrantzia handiagoa izango dutela zaintzaren arduran (Inglehart eta Welzel, 2005; Welzel, 2010). Hala, kapitalismoak sortutako arrotasun eta deserrotze sentimenduak segurtasuna eta konfiantzaren bilaketarantz garamatza (Bauman, 2001, 2003). Gizartean ematen ari den balio eraldaketari eta indibidualizazioari erreparatzea, beraz, garrantzitsua da zaintza zein koordinadaren arabera antolatzen den ulertzeko (Razavi, 2007).

Hala ere, zertaz ari gara zehazki zaintza komunitarioaz ari garenean? Zein funtzio betetzen du komunitateak zaintza erantzukizun sare horren barruan? Zein ikuspegitik ari gara komunitatearen aldeko diskurtsoak hedatzen? Arrieta eta kolaboratzaileek (2018) iradokitzen dutenari jarraiki, gizarte politika eta esku-hartzeen arloan komunitate-sareen aktibazioak gero eta interes handiagoa pizten duen heinean, garrantzitsua da horrek zein beharri erantzuten dion argitzea. Hau da, estatutik eratorritako babes soziala desegiteko eta ordezkatzeko logika neoliberalak bultzatzen duen diskutso hori edo, aitzitik, ehun komunitarioa indartzea estatuaren osagarri eta oinarri gisa ulertzen den, logika sozialista eta demokratikoari jarraiki (Arrieta et al., 2018). Izan ere, askotan aipatzen da estatuak edo administrazioak ezin duela guztia beregain hartu eta herrien edo komunitateen auto-eraketak lekua izan behar duela (Donati, 2014; Martínez-Buján, 2019); printzipio horrekin ados egonik ere, beste arlo batzuekin batera (hezkuntza, osasuna, pentsioak etab.) estatuak zaintzaren arloan gehiago eta hobeto egin dezakeenaren aldarrikapena begi bistatik galtzea arriskutsua izan liteke. Estatuak eta erakunde publikoak baitira zaintzaren birbanaketa eta ondo zaindua izatearen eskubide unibertuala bermatu dezaketen lehen eragileak, eta azken krisiekin ikusi den bezala, eskubide horiek urratzeko norabidea hartu dute politika austerizida eta asistentzialistek (Comas-d'Argemir, 2015; Martínez Buján eta Martínez Virto, 2015).

Gainera, feminismoak ohartarazten den moduan, ezin da begi bistatik galdu komunitatea ez dagoela gizarteko desorekak eta injustiziak sahistetik salbu, eta hortaz, gizartean eta zaintzan jazotzen diren zapalkuntza eta gatazkak ere birstortzen dituela (Graham, 1997). Ez dezagun ahaztu tradizioz auzotan eta bizilagunen artean existitu izan diren auzolanak eta laguntza-sareak. Ildo betetik, gogoan izan behar dugu, herri sensa aintzat harturik, oraindik orain, emakumeak eta adin batetik gorako pertsona helduak direla gehienetan komunitatearen zaintzaz, besteen ongizateaz eta lan boluntarioez arduratzen direnak. Hori esanda, erakundeek eta komunitateak zaintzaren gizarteratzeari eta demokratizazioari begira dituzten potentzialitateen defentsarekin batera joan beharko luke esparru horietan sortzen diren tentsio eta kontraesanak identifikatzea eta zaintzaren etika soziokomunitario eta inklusiboago bat sustatzea.

Bukatzeko, gure marko teorikora itzuliz, irudikapen sozialen teoriak pertsonen gizarteko fenomeno berriak nola barneratzen dituzten azaltzen duen heinean, hurbilketa aproposa da kolektiboki menpekotasunaren eta epe-luzeko zaintzaren gaiari nola heldu eta aurre egiten diogun ulertzeko (Moscovici, 1961). Prozesu horretan, konfiantza-mesfidantza prozesuei erreparatzeak gako garrantzitsuak eman ditzake ezagutza berriei eta agertoki soziokultural berriak indibidualki zein kolektiboki nola integratzen ditugun ulertzeko; hau da, arrotza dena nola familiarizatzen dugun ulertzeko (Luhmann, 2000). Hortaz, zaintzaren kultura, antolaketa eta harremanen trantsizioa gidatzeko, eta eredu familiaristatik eredu publiko eta komunitarioranzko jausia egiteko, garrantzitsua da menpekotasunaren eta zaintzaren inguruan errotutako ezagutza komuna edo naturalizazioa jorratzea eta ezagutza berritzaile eta justuagoak definitzen jarraitzea. Zaintza antolatzeko modu berrietan aitzina joateak, kulturaren eta komunitatearen errotutako ideia eta balioak zalantzan jartzea eta horiek eraldatzeko baldintza kolektiboak sortzea beharko luke abiapuntu.

10.5. Implikazio sozialak

Ekarpen teorikoen gain, aipagarriak dira tesi honetatik eratorritako emaitza eta ondorioek dituzten implikazio sozialak. Lehenik eta behin, irudikapen sozialen teoriaren hurbilpenak menpekotasuna eta zaintzaren gaiari buruzko pentsamoldeak, portaera eta erabaki-hartzeak hobeto ulertzen laguntzen du, eta hemen azaleratutako emaitzek eguneroko pentsamenduan presente dauden eztabaida eta tentsio soziokulturalak

bistaratzen dituzte. Horrenbestez, horiei erreparatzea funtsezkoa da fenomenoaren egunerokoan nola kudeatzen dugun ulertzeko eta aldaketarako proposamenak egiteko.

Esate baterako, zein tentsio eta kontraesan kudeatu behar dituen jendeak zaintza prozesuak areagotzean (etxean, familiaren eskutik zaindua izaten jarraitu edo bestelako baliabideak bilatu?), zaintzailearen bizipen eta inplikazioak zainduarekiko eta bere familiarekiko (maitasun-harremana da, edo lan-harremana? Non daude bata bestearen arteko mugak? Zer eman eta zer jasotzen dut?) edota zainduaren identitatean eta senide, zaintzaileenganako bizipenei dagokienean (zergatik sentitzen naiz zama bezala? Zer eska diezaioket zaintzaileari? Zer da ondo zaindua izatea?). Zentzu horretan, dilema eta galdera horien aurrean gaia egunerokoan nola ulertu eta kontzeptualizatzen den lantzeak lanabes garrantzitsuak eskaini ditzake zahartzeko eta zaintza prozesuak modu positiboagoan kudeatzeko, zaintzaileen ongizatean eta zainduen autonomia eta agentzia sustatzea helburu izanik.

Horretaz gain, irudikapen soziala eduki mailan ez ezik, prozesu mailan ere aztertzeak fenomenoaren zeharkatzen duten aldaketa sozialak aurreikusi eta ikuspegi berriak kudeatzeko aukera eskaintzen du. Jovchelovitch eta Priego-Hernándezen (2015) teoriaren indargune bat horixe bera da. Hau da, gizartean ezagutza berriak nola baneratu eta kudeatzen diren azaleratzeko marko psikosoziala proposatzea. Garaiko testuinguru konplexu eta aldakorretan horrek garrantzia berezia hartzen du, gaiari buruzko komunikazio sozialaren nondik norakoak hobeto ulertu eta ezagutza berriak gizartean nola eztabaidatzen diren azaleratzen laguntzen duen aldetik.

Berrikuntza eta garapena teknikaren esparruan soilik sortzen ez diren heinean, zaintzaren antolamenduari begira irtenbide berritzaileak aurreikusten dira dagoeneko; esaterako, familia eta merkatuaren arteko zaintza modalitate mixtoak, zaintzaileen kooperatibak, bizikidetzaren unitate txikiak, administrazioaren eta komunitatearen arteko artikulazio motak, teknologiaren garapena, etab. Horrek guzti horrek gaiak mahaigaineratzen dituen etorkizuneko erronka eta eraldaketa soziokulturalak komunitate mailan eta esparru profesionalean lantzeko aukera ematen du, esaterako: zaintzaren arloan, zein leku eta funtzio bete behar dute teknologia berriek? Zer inplikatzeko du pertsona ardaztutako arreta ereduak bidea egiteak? Nola kudeatuko ditugu jatorri ezberdineko (familiarra, profesionala, komunitarioa) zaintza-harremanak?

Zein estrategia beharko ditugu bakardadearen gaiari irtenbideak emateko? Nola ahaldunduko dugu zaintzaren identitate profesionala? Nola kudeatu zaintzarekiko espektatiba eta nahiak berdintasun eta kulturartekotasunetik? Nola sustatu gizonezkoen eta belaunaldi ezberdinen arteko inplikazioa zaintzan? Zein da migrazioak gizarte erreprodukzioan betetzen duen papela?

Menpekotasunaren eta zaintzaren inguruan eraldaketan dauden ezagutzei erreparatzeak ikuspegi garrantzitsua eskaini dezake gainean dugun errealitateari buruzko irakurketa eta diagnostiko globalagoak izateko, eta baita zaintzaren antolaketa sozial berriei begira eraginkorrak izan daitezkeen esku-hartze programak diseinatu eta burutu ahal izateko ere. Besteak beste, sentsibilizaziorako espazio horiek eskoletan edota herritarrei zein profesionalei begirako formakuntzetan txertatzea interesgarria litzateke. Baita, psikologiaren esparru klinikoagoaren ikuspegitik, zaintzaile eta senideek zaintza prozesuak eragindako gain-kargak, emozio eta doluak nola bizi eta kudeatzen dituzten eta zainduak zahartzaroa eta menpekotasun-egora nola bizi duten testuinguruan hobeto kokatzeko ere.

Dimentsio dialogiko batetik, eta gaiari buruzko elkarriketa kolektiboa bultzatze aldera, zaintzaileen, senideen, zainduen eta oro har herritarren posizio ezberdinetatik menpekotasuna eta zaintzaren kudeaketak planteatzen dituen auzi eta ezagutzak partekatu, eta elkarrekiko aitortza eta ulermena bultzatzea ere garrantzitsua litzateke, eztabaida-talde edo tailer formatuan, adibidez. Modu horretan, aktore eta eragile sozial ezberdinek dituzten behar, arazo eta bizipenak elkar-trukatzeo aukera izateaz gainera, gaiari logika bateratu batean heltzeko ahalegina egitea suposatuko luke, etorkizuneko zaintza ereduak definitzen eta irudikatzen hasteko oinarri garrantzitsua izanik. Mahaigainean ditugun eztabaidei heldu eta horiek kudeatzeko gaitasun kolektiboa izatea izan daiteke etorkizun itxaropentsu baterako giltza, jada martxan dauden egitasmoen bidetik. Zaintzaren egoera kritikoa horren erdian, eta etorkizuna modu ilunean eta ziurgabean irudikatzen den honetan, konfiantza eraikitzeo estrategia komunitario eta instituzionalek kontuan izan beharko lituzkete ezbaian dauden ezagutzen kudeaketa.

Norabide berdintsuan, erakunde publikoek erronka soziodemografikoei aurre egiteko eta zaintza ereduaren aldaketari begira sustatzen hasiak diren estrategia eta trantsizio

politikak gidatzeko ere, funtsezkoa da jendeak dituen menpekotasun eta zaintza kontzeptuetatik hasita lan egitea. Gipuzkoan bereziki, zaintzaren ekosistema berriak eraikitzeaz hitz egiten den honetan, aktore eta eragile sozialak sartzeko funtsezkoa da elkarren arteko lankidetzeta eta partaidetzeta bultzatzea; familiek, zaintzaileek eta zainduak diren pertsonen beraien posizio eta beharrak babestuta senti ditzaten. Eredu familiaristan jatorria duen zaintza ereduak gizarteratzeko, zerbitzu sozialenganako lotura eta komunitate loturak sendotzeko ekarpena egingo luke horrek, inplikazio zuzenak izanik herritarren ongizate psikosozialean.

Bukatzeko, tesi honetan jorratzen diren emaitza eta ondorioak maila diskurtsibo batean aplikagarriak izan daitezke zaintzari buruzko komunikazioan eta sentsibilizazio kanpainetan. Komunikabide eta erakundeen komunikazio eduki eta moduek fenomenoari buruzko irudikapen sozialen garapenean duen isla kontuan izanik, garrantzitsua da esparru horietatik jendeak gaiari buruz dituen ikuspegi eta praktiketan eragitea, menpekotasunari eta zaintzari buruzko ikuspegi inklusiboago eta sentsibleagoak bultzatuz. Gaiarekiko berriek azken urteetan presentzia irabazi badute ere, oraindik orain esparru publiko eta akademikoan ahanzturan geratzen den gaia da epe-luzeko zaintzarena. Beraz, komunikazio hori eraginkorra izateko jarraibideak plazaratuko balira eta horiek behar bezala aplikatuko balituzkete komunikabide eta agintariak, baliteke pausu garrantzitsua izatea zaintza arloko politiken garapenerako.

10.5. Mugak eta etorkizuneko ikerketa aukerak

Menpekotasuna eta zaintzaren gaia irudikapen sozialen teoriaren hurbilketa dialogikotik lantzea proposamen berritzailea dugu. Horrek modu dinamikoan laguntzen du fenomenoaren kontzeptualizazioan sakontzen, eta baita plazaratzen dituen tentsio, eztabaida eta erronkak aletzen ere. Zentzu horretan, garrantzitsua litzateke fenomenoari buruzko irudikapen sozialaren lanketari bestelako testuinguru kultural, aktore eta eragileen ikuspuntutik heltzea. Esaterako, erakundeetan eta maila profesionalean lan egiten duten zaintzaileak, etxean bertan bizi diren eta laguntza behar duten adinekoak, komunitateko eragileak etab. Horrek irudikapen sozialean askotariko ahots, posizio eta bizipenak islatzea ekarriko luke, eta talde bakoitzak sortzen dituen irudikapen propio eta konkretuei ere heltzeak interesa izango luke; izan ere, irudikapen sozialaren edukiak maila orokortuan landu ordez, talde bakoitzaren berezitasunak

hobeto identifikatzeko eta sakontzeko aukera emango luke, bakoitzaren posizionamendu konkretua aztertuz. Ikuspegi makrosozial edo soziologikoago batetik ere, zaintzarekiko harreman eta inplikazioaren ikuspegitik ez ezik, egiturazko ezaugarrien arabera (generoa, klase soziala, jatorri kulturala, hiri-landa eremua, adina etab.) fenomenoak nola ulertzen den aztertzea ere garrantzitsua izan liteke, zaintzaren antolaketa horien arabera zehazten baita.

Bestalde, tesi honetan irudikapen soziala eduki eta prozesu mailan landu da, horietan pertsonarteko harremanek, afektu eta emozioek hartzen duten pisua nabarmenduz. Menpekotasuna eta zaintza emozionalki irudikatzen direla ikusi ahal izan da, besteak beste, beldurra, ziurgabetasuna, maitasuna, enpatia, etsipena, kulpa, dolua eta arau moralak moduko sentipen kontrajarriak zaintza prozesuetan nola nabarmentzen diren azaleratuz. Hortaz, irudikapen sozialetan eta polifasia kognitiboaren kontzeptualizazioan emozioek eta moralitateak daukaten garrantzian gehiago sakontzeko beharra identifikatu da (de-Graft Aikins, 2012).

Osasunari eta arriskuari lotutako ikerketetan jorrotutakoari jarraiki, etorkizuneko ikerketa lerro gisa garrantzitsua eta interesgarria izan daiteke menpekotasuna eta zaintzari buruzko ezagutzetan dimentsio horiek daukaten presentzia ikertzea (Idoiaga, Gil de Montes eta Valencia, 2017; Joffe, 2002). Maila aplikatuan gainera, berebiziko garrantzia izango luke komunitate mailan errotuta dauden egitura emozionalak aldatzeko eta zaintza-prozesuei lotutako sufrimenduak lantzerako orduan. Emozioak soziokulturalki eraikiak daudela ulertzen den aldetik, bereziki zahartzaroko menpekotasunaren inguruan gizarte mailan dagoen karga negatiboa berreraikitzen ere lagundu lezake gaia ikuspegi horretatik jorrotzeak, baita zaintza maitasunaren eta familiaren logiketatik harago pentsatzeak ere (Mesquita, Boiger eta De Leersnyder, 2016). Etorkizunera begira gaiak kolektiboki sorrarazten dituen kezka eta ziurgabetasunak lantze aldera ere, esanahia emozionalei erreparatzea eta horien inguruko gogoeta egitea ariketa interesgarria izan daiteke.

Konfiantzaren inguruan egindako azterlanen mugei dagokionez, laginaren tamaina txikia azpimarratu beharra dago. Zentzu horretan, tamaina hori handitzeak emaitzei fidagarritasun eta sendotasun handiagoa emango lieke eta etorkizunera begira konfiantza neurtzeko azterketa jarrai edo longitudinalak burutu ahal izateak, indarra

